

JON KORTAZAR (arg.)

Euskal prosa aztertuz
Kritiko berrien ahotsa

Utriusque Vasconiae

© Jon Kortazar (arg.)
© Utriusque Vasconiaë
Lehen argitaraldia: Donostia, 2012ko urria
ISBN: 978-84-939967-3-4
Lege-gordailua: SS-922-2012
Azaleko irudia: Raphaële de Gorostarzu
Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.
Tel.: 943-270433
Iparraldean: 0033547640386

Banatzaileak:
BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

JAKIN – 64100 Baiona (Lapurdi)
Tel.: 05592232

<https://sites.google.com/a/utriusque.com/utriusque-vasconiae/>

JON KORTAZAR (arg.)

Euskal prosa aztertuz

Kritiko berrien ahotsa



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

Aurkibidea

SARRERA.	
<i>Jon Kortazar</i>	7
HARKAITZ ZUBIRI: <i>Zakur Kale</i> (2007)	
<i>Aitziber Otxoa Alonso, Miren Alonso Razkin.</i>	11
PAKO ARISTI: <i>Auto-stopeko ipuinak</i> (1994)	
<i>Maitane Arbilla Villanueva,</i> <i>Lierni Etxeberria Zubelzu</i>	49
EIDER RODRIGUEZ: <i>Eta handik gutxira gaur</i> (2004)	
<i>Maialen Arnedo Gaztelurrutia,</i> <i>Garazi Rota Villanueva</i>	75
INAZIO MUJICA IRAOLA: <i>Azukrea belazeetan</i> (1987)	
<i>Mikel Artola Izagirre</i>	153
HARKAITZ CANO: <i>Telefono kaiolatua</i> (1997)	
<i>Ane Badiola, Leire Gandarias</i>	163
Harkaitz Cano : <i>Belarraren ahoa</i> (2004)	
<i>Estitxu Irisarri, Miren Muxika</i>	217

Sarrera

Irakaskuntzan, eta batez ere literaturen irakaskuntzan ari garenok, badakigu jakin gure ikasleen trebezia handia dela, eta adi egon behar dugula, nekatu gabe, ikasleen irakurketak eta horiei buruz dituzten iritziak haiengandik entzun eta jasotzeko, elkarrekin egiten dugun elkarrizketak aberasten baigaitu. Prentsan elkarrizketa bat egiten didaten bakoitzean, ikasleengandik gaurko literaturaz asko ikasten dudala aitortzen dut.

Ezin dut ahaztu Xabier Montoiaren *Gasteizko hondartzak* (1997) liburuaren balioa ikasle batek erakutsi zidala, eta ondoren Euskadi sarian aipatu nuela lana, eta Akzesita lortu zuela; edo beste ikasle batek bidali zidala Lourdes Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999), eta liburuak egin duen ibilbidea harrigarria izan da, zorionez.

Irakaskuntzan ari garenok, jakin badakigu gure ikasleei buruz, iritzi orokor desberdin bi daudela, lehena apokaliptikoa da, eta garai zaharrak gogoan, ikasleak geroago eta txarrago hezirik datozela baieztatzen du; bigarrenak, ordea, garaiak aurrera joan doazen heinean aldaketak gertatzen direla uste du, eta garaiek ere bere gauza on berriak dituztela onartzen du. Ez naiz izan eta ez naiz apokaliptikoa. Jakin badakit, irakaskuntzaren barnean badagoela ezin bazterturiko esperientzia bat: urtero-urtero ikasleak adin berekoak dira, urtero hogeitaz urteko (edo hogeitaz bateko) ikasleek betetzen dituzte ikasgelak eta

ikasgeletako mahaiak; irakaslea, ordea, urte bete zaharrago da ikasturtero, eta geroago eta handiagoa da, adinez behintzat, ikasleen eta irakaslearen arteko aldea. Baina aldea inguratzen eta hurbiltzen jakin behar du irakasleak eta ikasleengan jarritako konfiantza baita literaturaz duen maitasuna erakusten ere. Haien lanak azalez bigun eta mamiari dagokionean exijentziaz zuzentzea, aldea murrizteko bidea da.

Ez dut inoiz joera apokaliptikoetan sinetsi. Ikasleek ere bere garaia bizi dute, garaikoak dira, eta bizi dugun eta bizi gaituen garaien zertzeladak ugariak dira, eta ikasleek irakurtzen ikasi behar dugu, irakasleok ere.

Horregatik guztiagatik saiatzen naiz ikasleen irakurketak eta haiei buruzko iritziak entzuten. Saiatze horren fruitu da liburu hau. Ikasleak ez datoz, ez, aurrekoak baino okerrago heziak. Beren balioak dituzte eta hemen agertu egiten dira.

Liburuak biltzen dituen lanak 2009-2010. ikasturtean “Gaur egungo joerak euskal literaturan” ikasgairako egin ziren. Eta agertu ziren guztietatik batzuk –liburuak ere bere mugak ditu– aukeratu ditugu.

Garbia da euskal literaturaren kritikak gaur egun agertzen duen ahulezia: monografikoen falta. Bada kritikoko berrien lanok ahulezia hori neurri txiki batean behintzat konpontzera datoz. Gainera, oso berriak diren liburuetan jarri dute arreta, batez ere idazle gazteengan, eta hori gutxi balitz, ipuingintzako liburuak dira, askorik aztertu ez den genero bati buruzkoak (salbuespen bakarra *Belarraren ahoa* liburuaren aukeraketa litzateke, baina lan hori ipuin luzea da, eta justifikatua du gurean atea zabalik izatea) .

Miren Alonsok, Aitziber Otxoak, Maitane Arbillak, Lierni Etxeberriak, Maialen Arnedok, Garazi Rotak, Mikel Artolak, Ane Badiolak, Leire Gandariasek, Esti Iri-sarrik, Miren Muxikak hemen aurkezten dituzten lanek ez dute soilik berritasunaren jeinua, berritasuna ez da-

eta aro postmodernoetan berez balio nagusia. Batez ere sakontasuna, ikuspegi berriaren antolaketa da orrialdeetara ekarri dutena.

Inazio Mujikaren (1963) lanak izan badu ere harrera ona inguru akademikoetan, Mikel Artolak aurkezten duen lanak hausnarketa berriak ekarri ditu paisaiaren agerbideetan. Egile ezaguna da, neurri berean, Pako Aristi (1963), baina esango nuke nobelekin konparatuz, bere ipuinek, batez ere “kazetaritza berria”ren ildotik idatzitakoak ez dutela izan haien distira. Horregatik aipagarria da Maitane Arbillak eta Lierni Etxeberriak aurkezturiko deskribapena.

Harkaitz Canok (1975) ezagupen handia lortu du euskal literaturan. Eta inoiz *Telefono kaiolatuak* (1997) liburuak lortu duen oihartzunaz kezkatzen entzun badut ere, uste dut jakingai berriak badirela Ane Badiolak eta Leire Gandariasek ekarritako lanean. Batez ere zinemaren eragina aipatzen delarik lanaren ardatz gisa. *Belarraren ahoa* (2004) nobela laburrak edo ipuin luzeak merezi zuen Esti Irisarrik eta Miren Mujikak eskaintzen dioten lanaren sakontasuna.

Gure azken urteetan izan da egile bat neurriak hautsi dituen. Eider Rodriguez (1977) dugu bera, eta Maialen Arnedok eta Garazi Rotak *Eta handik gutxira gaur* (2004) lana fintasunez azaldu dute, eta gainera lana ez da hemen bukatuko, Eider Rodriguezen ondorengo lanak ere aztertzen baitiraute. Harkaitz Zubiriren (1977) *Zakur kale* (2007) lana ongi marraztua dago Miren Alonsok eta Aitziber Otsoak egindako iruzkinean.

Berritasuna, gaurkotasuna, kritika luzean aipatu gabe zeuden idazleak, lanak gaur egunekoak, gaur eguneko idazleak. Guztiak irakurketak zabaltzen duen elkarrizketan.

Gaurkoak baina, elkarrizketa berriak dira, begirada berriez eginak.

Jon Kortazar

Harkaitz Zubiri: *Zakur kale* (2007)

*Aitziber Otxoa Alonso
Miren Alonso Razkin*

Sarrera

Lan hau egiteko, azkenean, Harkaitz Zubiriren *Zakur Kale* liburua aukeratu dugu. Liburua irakurri ostean, lanaren egitura zehaztu genuen. Pertsonaiak garrantzitsuenak direla iruditu zitzaigun, horregatik inportantzia handiena beraiei eman genien. Hauen bitartez, liburuak ziklo bat osatzen du, baina badaude ziklotik at geratzen diren zenbait ipuin. Horien artean, lehenengoa dugu, eta hau banandurik aztertzea erabaki dugu. Batez ere, asaldagarriena iruditu zaigulako. Gainontzekoak, orokorrean aztertu ditugu. Aztertzeke dauden elementuen artean, aukeraketa bat egin dugu, dena ikertu ordez. Honetaz aparte, ipuin baikoitzaren xehetasunetan ez gara sartu, orokorrean azaltzea interesgarriagoa iruditu zitzaigulako.

Idazleari buruzko zenbait datu

Harkaitz Zubiri (1977), idazle Donostiarra da; Gros auzokoa hain zuzen ere. Soziologia eta Kazetaritza ikasketak

egin zituen. Hala ere, narratiban ikusten du bere burua, ipuinetan edo nobeletan; eta baita saiakera idazten ere. Beti ari omen da idazteko apunteak hartzen. Soziologia arloan testu batzuk idatzi izan ditu parametro akademikoan. Bere lehenengo liburua kaleratu zuen 2007-an: *Zakur Kale* izeneko ipuin bilduma, Susak plazaratutakoa. Narrazio bilduma honetako “Hura izan da” lana, alemanera itzuli du Gabriela Schwabek; Susa argitaletxearen web orrian irakur daiteke (<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=alem08>).

Azkenaldi honetan, literaturakoa ez den beste liburu bat argitaratu du.

Aipuak

Liburuan, hainbat idazleri egiten zaie erreferentzia; lehenengo laurak liburuaren hasieran, ipuinetatik at (“Antonio Machado, *Campos de Castilla*”; “Pierre Bourdieu, *La Reproduction*”; “Primo Levi, *Se questo è un uomo*”; “Karl Schwepes, *Zweifellos*”) daude. Bosgarren aipua ordea, *Despedida* kontakizunari dagokio (Raymon Carver). Ikus ditzagun banan-banan:

Hasierako aipuak

— Antonio Machado; *Campos de Castilla*;

Machado (1875-1939) espainiar poeta bat izan zen, hain zuzen ere “Generación del 98”-ko kide berantiarra, *Modernismo*arekin identifikatzen da.

Campos de Castilla, Machadoren obrarik garrantzitsuenetarikoa bat da eta 1912.urtean argitaratu zuen. Bertan, idazleak “gizakiaren betierekotasunari” dagokionez, giza pentsamenduak adierazten ditu. Obra honetan, batez

ere, paisaiak, jendeak, bakardadeari buruzko gogoetak, heriotza, iragana, etab, nagusitzen dira. Paisaia, batzuetan, modu objektibo batean islatzen da. Baina bestetan, Gaztelako deskribapenen bitartez, bakardadea eta aberria bezalako gaiei dagokienez, poetaren kezka ikus dezakegu. Liburuan agertzen diren bertsoak, *Por tierras de España* izendatutakoaren barnean aurki ditzakegu:

POR TIERRAS DE ESPAÑA

Veréis llanuras bélicas y páramos de asceta
-no fue por estos campos el bíblico jardín-;
son tierras para el águila, un trozo de planeta
por donde cruza errante la sombra de Caín

Poema honetan autoreak “la sombra de Caín” aipatzen duenean, kontutan hartzen du Bibliako Cainen istorioa; hau da, Cainek bere anaia Abel akabatu zuela bere ondasun guztiekin gelditzeko. Ondorioz, idazleak aipu honen bitartez, ipuinetan behin eta berriro islatzen duen bezala, gizaki guztiok Cainen izaera izatera hel gaitzkeela adierazi nahi duela uste dugu. Gaur egungo gizartean, bakoitzak bere helburuak lortzeko beste edozein zapaltzeko gai izan gaitzke; bekaizkeriak usteltzen gaitu.

— Pierre Bourdieu, *La Reproduction*;

Pierre Bourdieu (1930-2002), XX. mendean eragin handiko frantziar soziologoa izan zen eta, Zientzia eta Arte Akademia Europarraren kidea izan zen. Bere ideiak oso garrantzitsuak izan dira soziologian, batez ere, bizimodu, heziketa eta kultur soziologian. Bere azalpenak gauzatzeko hainbat kontzeptuz baliatu zen; *habitus* delakoa, *esparrua* (*le champ*) eta *kapital simbolikoa*.

Bere obren artean, 1970.urtean *La Reproduction* argitaratu zuen. Hain zuzen ere, bertatik aterata dago liburuan nagusitzen den aipua.

Aipu honek, gure gizartearen beste ezaugarri bat igartzen du. Askotan, horren onartuta daukagu gure tokia gizartean, ez garela saiatzen bizi dugun egoera hori aldatzen. Adibidez, *Etorriberría eta bere lagunak* ipuinean, protagonistak erabat onartuta dauka bera “etorriberría” dela: “– Ni... neska etorriberría. Lanean daramatzadan hamar urte hauetan hainbeste enpresetan aritu naiz hasiberri gisa, nire izena ahaztu ere egin zaidala.” (20. orri). Honen antzera jokatzeko du *Mugiezinik geratzearen arriskua* ipuineko protagonista hasiera batean. Bere senarrarekin harreman txarra duen garbitzailea da, asko kostatzen zaio honetaz ohartzea, eta honi aurre egitea. Minbizi baten arriskua, bere egoera aldatzeko eragilea izan behar da (senarra uzteko erabakia): “Beharbada bularreko koxkorra behar nuen horretaz jabetzeko. Zeinen xaloa izan naizen.” (84. orri).

Bi aipu hauek aztertu eta gero, liburuaren bi mutur islatuak ikusi ditugu. Alde batetik, lehenengo aipuan, aurretik esan bezala, gizartearen gehiegizko izaera berekoia antzeman dugu; eta beste alde batetik, bigarrenean kontra-koa ikusi dugu; hau da, bizimodu eroso batekin konforme bizi den jendea eta egoera hori aldatzeko ezer egiten ez dutenak.

— Primo Levi, *Se questo è un uomo*;

Primo Levi (1919-1987) idazle italiarra izan zen, baina jatorriz judutar sefardia. Hainbat memoria, nobela, kontakizun eta poemen autorea da. Antifaxista zelarik Holokaustoak ez zuen hil, eta bide batez, Holokaustoko testigantzak jasotzen zituzten obrak idazteagatik ezaguna da. Batez ere, Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruan preso egondako kontakizuna nabarmentzen da. *Se questo è un uomo* XX. mendeko obra inportanteenetariko bat bezala hartzen da. Bertan, Auschwitz-eko kontzentrazio-esparruan izandako eguneroko bizimodua narratzen du.

Aipurik luzeena dugu hau, aurrekoetan bezala, liburuaren gaiekin lotura zuzena dauka. Testu zati honetan egiari buruz mintzatzen da; lehenik, gure egia inori kontatu behar ez diogula aholkatzen du. Ondoren, erakusten zaigun egia benetazkoa ez dela esaten du, eta egia utopikoa aldarrikatzen du.

Liburuan zehar, honen isla ikus daiteke, baina argien *Kanpotik datoz, barrutik dator* kontakizunean ikusi dugu. Bertan, egiaren bi ikuspuntu ikusten dira. Alde batetik, “nagusi txikia”-rena; enpresaren itxura mantentzearren etorkinaren heriotza izkutatu nahi du. Bestalde, Xabierren egia daukagu, honek heriotza batek merezi duen garrantziagatik ezagutarazi nahi du. Hemen argi ikusi daiteke Xabierrek “nagusi txikia”-ren inguruan pentsatzen duena: “Une baikoitzean zer egin ondo dakiela uste du gizon honek. Harrigarria bezain penagarria da.” (39. orri).

— Karl Schwepes, *Zweifellos*.

Aipu hau, Harkaitz Zubirik berak asmatutakoa da, Karl Schwepes ez baita existitzen. Idazlea *Schwepes* izeneko freskagarrian oinarritu ahal izan da, asmatutako aipu honi izena emateko. Asmakizun honen bitartez, idazleak liburu honek daukan haria islatzeko erabili ahal izan du. Hau da, itxurakeriak eta egiak sortzen duten zalantza adierazten du.

Zortzigarren ipuineko aipua

— Raymon Carver (*Despedida*)

Carver (1938-1988) estatubatuar idazlea izan zen. Kritikariak Carverren idatziak minimalismoarekin lotzen dituzte, eta errealismo zikinaren aitatzat hartzen dute. Ipuinei dagokienez, Chejkov autorearekin batera, bere garaiko idazlerik onena izan zen.

Aipu honi buruzko azalpena aurkitu dugu ingeleraz interneten:

This incomprehension on the part of the reader culminates especially when he has come to the end of the story where Claire acquiesces in Stuart's physical approach by unbuttoning her jacket herself, saying: "Before Dean comes. Hurry" (What We Talk About 88). What We Talk About When We Talk About Love (1981).

Aipu honetan sentimendu berekoia islaturik ikus daiteke. Hain zuzen ere, ipuin guztian bezala. "–Ez al diagu ezer egin behar? –galdetu zien Mikelek. Zipitzik ulertuko ez balute bezala begiratu zioten." (98. orri).

Liburuaren egitura eta izenburua

Liburuaren izenburua, *Zakur kale* da. Portadan hainbat arrazatako zakurrak agertzen dira kalean, euren jabeekin; baina irudia oso kaotikoa da. Gure ustez, liburuan agertzen diren ipuinak ondo islatzen ditu. Bertan agertzen diren pertsonaiak oso ezberdinak dira elkarrengandik, portadako zakur arraza ezberdinak bezala. Hauen arteko loturek (harremanak), sare nahasgarri bat eratzen dute, portadako egoera bezala.

Izenburua bera, gizartearen metafora bat izan daiteke, liburu honetako pertsonaiak izan daitezkeelako "Zakur Kale"-ak. Honetaz gain, "zakur" hitza hainbatetan agertzen da ipuinetan zehar: "... auskalo zenbat zakurkeriatako gai izango ginatekeen." (*Hura izan da* 11.orri.), "... ez duzu pentsatu behar hemen denok zakur hutsak garenik." (*Etorriberrria eta bere lagunak* 20.orri.), "...jendearen zakurkeriaz bertatik bertara..." (*Lapurrak* 75.orri.)... Autoreak hitz joko bat egiteko erabiltzen du.

Beste alde batetik, egiturari erreparatu, lehenengo orrialdean, lau aipu batzen ditu orrialde bakar batean,

jarraian ipuinekin hasteko, beraz ondorioztatu dezakegu ipuin guztiei erreferentzia egiten diela. Hala ere, zortzigarren ipuinaren (*Despedida*) hasieran, beste aipu bat ikus dezakegu.

Hamar ipuinez osatutako liburua da, eta amaieran aurkibidea ematen du. Hemen eransten dugu, liburuak ematen duen aurkibidea orrialde eta guzti, ipuin bakoitzaren neurria hobeto ikusteko:

- 9 Hura izan da
- 17 Etorriberría eta bere lagunak
- 31 Kanpotik datoz, barrutik dator
- 41 Jarri eskela bat zure bizitzan
- 53 Kaxan barruan zer dagoen
- 65 Lapurrak
- 81 Mugiezinik geratzearen arriskua
- 95 Despedida
- 105 Gizon berria
- 121 Sare orojaleak

Ipuinak

Alde batetik, lehen ipuina aztertuko dugu, liburu honek eratzen duen ziklotik kanpo geratzen delako. Jarraian, gainontzeko ipuinak orokorrean azalduko ditugu, bakoitzaren ezaugarriak aipatuz.

“Hura izan da”

Argumentua: Gizon bat ospitalera doa bere emaztearen bila jipoitua izan delako. Etxerako bidean, kotxean doazen bitartean, emakumeari bere erasotzailea ikustea iruditzen zaio; orduan, senarrak mendekua hartzearen, kotxetik jaitsi eta tipoa jarraitzen du eta azkenean jipoitzen du.

Aurrerago, emakumeak beste bat izan dela esaten du eta orduan ohartzen da senarra emakumea traumatizatu da-goela eta berak egindako ekintza alferrikakoa izan dela.

Izenburua: Ipuin honetako izenburua, istorioan askotan agertzen den esaldia da. Baieztapen bat da, eta ez ditu adjektiborik zein substantiborik. Nahiko zuzena da esaldia, eta honen bidez emakumearen egoera aldaketa islatzen du. Eduki duen bizipenagatik, ikusten dituen etorkin guztiak erruduntzat hartzen ditu.

Egitura: Ipuina hiru atal nagusitan banatzen da. Atal bakoitzaren lehen hitza letra larriagoaz nabarmentzen da, eta espazioak markatzen dituzte (*Ospitalean, Groseko eta Aurrera...*). Bestalde, atal bakoitza isilunez ezberdinduta ageri da (*Gizonak ez du uste kontu horiek berriro aterako dituztenik*, 13.orri.; *Emakumeak ez du ezer esan*, 15.orri. eta *Umetan zeinen ahula eta koldarra zen gogoratu du berriro. Negar egingo luke orain*. 16.orri.).

1. Zatia: 'In media res' hasiera dauka; hau da, istorioa erditik hasten da. Emakumea jadanik jipoitua izan da eta senarra bere bila joan da ospitalera kotxez etxera bueltatzeko.

2. Zatia: Lehenik, emakumeari gertatutakoa kontatzen da, eta ondoren, elkarrizketa nagusitzen da. Bi ekintza nagusi agertzen dira:

- a. Emakumeak senarrari kotxea gelditzeko agindua ematen dio, bere erasotzailea ikusi duelako ustea baitu. Gizona bere atzetik doa, baina etorkinak ihes egiten du.
- b. Emakumeak gizonari kotxea gelditzeko eskatzen dion bigarren aldi honetan, senarra erasotzailearen atzetik doa eta oraingoan harrapatu eta jipoitu egiten du.

3. Zatia: Azkenean ikusi daiteke emakumeak berdin jarraitzen duela, eta oraingoan beste bat da erruduna. Senarra ohartzan da aurretik egindakoak ez duela ezertarako balio izan eta emakumea traumatizatua dagoela.

Pertsonaiak: Istorio hau bi pertsonaien inguruan gertatzen da. Beste pertsonaiak izendatzen badituzte ere (gizonaren anaia, erasotzailea...), ez dute istorioan parte hartzen. Hala ere, pertsonaia nagusien ekintzen jasaileak diren bi etorkin agertzen dira.

- Emaztea: Bere ustez etorkin batek jipoitutako emakume traumatizatu bat da. Hala ere, istorioan ez da zehazten erasotzailea etorkin bat izan denik. Ekintza hau gertatu baino lehen, azaltzen zaigun emakumearen irudia bere senarraren hitzetan, emakume indartsu batena da. Bera zen bikotearen funtsa, erabakiak hartzen zituena eta senarraren euskarria. Honen ondorioz, pertsonaia zirkularra dela ikus daiteke; emakume indartsua izatetik, traumatizatua eta ahula izatera pasatzen da.
- Senarra: jubilatuta berri den gizon langile arrunt bat da. Ez dute seme-alabarik eta beti bere emazteaz baliatu da bizitzan aurrera egiteko. Pertsonaia zirkularra da; hasiera batean koldarra bezala ageri zaigu, baina ekintza nagusia gertatu ostean, emaztearekiko ardurak bultzatuta, aldaketa bat ikusten da bere nortasunean. Izan ere, ausardia handia erakusten du erasotzailea jarraitzen eta emazteagatik jotzen duenean.

Espazioa: Ipuin honetan atal hau oso garrantzitsua da; izan ere, honek markatzen du egitura. Gainera oso zehatza da espazioaren deskribapenak egiterakoan, eta errealak dira guztiz: Donostia hiriko zenbait leku dira. Ipuina bera

“Ospitalean” hasi eta “Jai Alaiko trenaren zubi azpi”-tik pasatzean amaitzen da.

- Ospitalea: Hemen hasten da ipuina, emakumea bertan dagoelako eta gizona bere bila joan da.
- Kotxea/errepidea: Etxera bueltatzeko erabiltzen duten garraioa da. Emakumearen egoeraren aldaketa (bere traumaren agerpena) bertan azaltzen zaigu, senarrari, baita irakurleri ere. Errepidearen inguruko ezaugarriak agertzen zaizkigu (semaforoak, zebrabidea...) eta gizonak kotxea errepide erdian gelditzen du bere ekintza aurrera eramateko.
- Groseko Katalunia plaza: Emakumea jipoitua izan den tokia da.
- Donostiatik egiten duten etxerako bidea: Ospitalean hasten da; Amara auzoan gizonak etorkina jotzen du; euren bidean aurrera eginez, Gros auzoko Pinares plazaren parera iristen dira; Mirakruz eta Ategorrieta kaleetatik igarotzen dira; eta azkenik Jai Alaiko trenaren zubi azpitik aurrera doaz. Aipatzen diren leku gehienetan, emakumeak bere erasotzailea bezala identifikatzen duen gazteren bat salatzen du.

Denbora: Ipuin honetako denbora, kronologikoki azalduko dugu, nahiz eta ipuinean beste orden batetan ematen zaigun:

- “Arratsaldeko bostak aldera”: Emakumea jipoitua izan da.
- Gaua: “Farolak” eta “argiak” piztuta daude eta “afaria” aipatzen da. Ez da ordua zehazten. Ipuinean gertatu diren ekintzak gauean izan dira. “Gabon Gaua” aipatzen denez, badakigu abenduaren 24ko gaua dela.

Fokalizazioa: Narratzailea orojakilea da. Hala ere, se-narraren ikuspuntutik kontatzen du istorioa, bere pentsamenduak tartekatuz. Honengatik, narratzailearen *perspektiba* 3. pertsonan bilduriko 1. pertsona da.

Tonu nostalgikoa darabil narratzaileak; izan ere hainbat oroitzapen ematen dira.

Estetika: Ipuin erreala da, gure eguneroko bizitzan gertatu daitezkeen egoerak azaltzen dira. Erreala den hiri batetan kokatzen da istorioa eta hiriaren ezaugarriak ikus ditzakegu (*semaforoak, ospitalea, auzoak, lantegiak...*).

Bukaera: Gizona egoeraz ohartzekoan, txikitako oroitzapenak ditu eta negargura sartzen zaio. Ez da bukaera irekia; gizonaren ustez, gauzak betiko aldatu baitira.

Gainontzeko ipuinak

Orain, gelditzen diren bederatzi ipuinak orokorrean azalduko ditugu. Gehienak euren artean harremana daukaten arren, badaude beste bi ziklotik aparte geratzen direnak: *Mugiezinik geratzearen arriskua* eta *Gizon berria*. Azken honi dagokionez, esan beharra dago, nahiz eta aurrekoekin zerikusirik ez duen istorioa kontatu, bertan nagusitzen diren hainbat pertsonaia, beste ipuinetan agertzen direla ere.

Izenburuak

Izenburuei dagokienez, aurretik emandako zerrenda ikusirik, nabarmena da formaren aldetik ez daukatela batasun handirik beraien artean. Batzuk hitz bakar batez osaturik daude, eta beste batzuk aldiz, esaldi oso bat eratzen dute.

Esanahi aldetik, harreman gehiago ikusi ditugu izenburu batetik bestera. Hau izan da gure multzokatzea: Alde

batetik, toki aldaketari erreferentzia egiten dien izenburuak elkartu ditugu; *Hura izan da; Etorriberría eta bere lagunak; Kanpotik datoz, barrutik dator eta Gizon berria*. Lehenengoan, urrutiko erakuslea (hura) agertzen zaigu, eta gainera ipuina irakurri eta gero, badakigu etorkin bati buruz ari dela. Bigarreanean, izenburuak berak adierazten du, heldu berri den norbaiti buruzkoa izango dela ipuina. Hirugarreanean, *kanpotik-barrutik* leku aldaketa agertzen da, gainera ipuina behin irakurrita, istorioan “etorkin” bat ageri da. Multzo honetan sartu dugun azken ipuinean, “berria” hitza ikus dezakegu.

Beste alde batetik, *Jarri eskela bat zure bizitzan; Kaxen barruan zer dagoen; Mugiezinik geratzeko arriskua eta Despedida* elkartu ditugu. Talde honetako izenburuak “heriotzarekin” erlazionatu ditugu. Izan ere, denetan aurkitzen da heriotzarekin zerikusia daukaten hitzak (*eskela, kaxen barruan, mugiezinik, despedida*).

Bereizi ditugun bi multzo hauetatik kanpo, *Lapurrak* eta *Sare orojaleak* geratu zaizkigu. Hauek, ez dute loturarik izenburuari dagokionez, baina aurrerago ikusiko dugunez, ipuinaren egitura antzekotasunak badituzte beste zenbaitekin batera.

Izenburu gehienak ipuinarekin zuzenean lotuta daude. Adibidez, bigarren ipuinean (*Etorriberría eta bere lagunak*) lantegi batetara “etorriberría” den neska baten inguruko istorioa kontatzen da. Dena den, nahiko ironikoa da; izan ere, istorio osoan zehar ez du lagun bat ere egiten. Ironiaz jositako beste ipuin baten adibidea, *Jarri eskela bat zure bizitzan* izango litzateke, bertan hiltzat jotzen duten gizon bati buruz hitz egiten duelako. Argiagoak diren izenburuak ere badaude: *Lapurrak, Despedida, Sare Orojaleak* ...

Hala ere, guk erlazio handirik aurkitu ez diogun bat topatu dugu: *Gizon berria*. Bertan, itsasoan desagertu den gizon bati buruz poliziak egindako txostena agertzen da eta ez diogu lotura aurkitzen *Gizon berria* izatearekin.

Egitura

Lehen aipatu dugun bezala, ipuin guztiak ez dira homogeneous, baina batasunen bat aurkitu diegu:

Hainbat ipuin zatika bananduta daude, paragrafoen artean hutsune handiagoa utziz eta lehenengo hitza letra larriz ipiniz, honek espazio edota denbora salto bat irudikatu nahi du. Hala ere, zatiek ez dute ez neurri ezta kopuru berdina ere. Modu honetan antolatutako ipuinak gehiengoak dira: *Hura izan da, Etorriberria eta bere lagunak, Kaxen barruan zer dagoen, Lapurrak eta Sare orojaleak*.

Baina, autoreak ez du estrategia berdina baliatzen ipuin guztietan; honengatik, istorioa kronologikoki segidan gertatzen denean, ez du zatirik ezberdintzen. Hauek dira era honetako ipuinak: *Kanpotik datoz, barrutik dator, Muziezinez geratzeko arriskua eta Despedida*.

Bi molde hauetaz gain, bi ipuin solte geratzen zaizkigu. Alde batetik, *Jarri eskela bat zure bizitzan* ipuina pertsonaiaka bananduta dago, istorioa aurrera joan ahala pertsonaia ezberdinak agertzen dira euren hitzekin narratuz. Bestetik, *Gizon berria* dugu. Hemen bi ikuspegi bereizten dira: Ertzaintzaren ikerketaren txostenak ematen zaizkigu, eta baita “Hanna” izeneko neskameak egindako zerrenda eta azkenean egindako ekintza ere; hau da, poliziari deia. Hala ere batasuna badute, polifonia delako bien ezaugarri nagusia.

Ipuin borobil bi agertzen dira: *Etorriberria eta bere lagunak* eta *Kaxen barruan zer dagoen*. Lehenengoan, protagonista lantegi berri batean hasten da, neska “etorriberria” izanez, eta berdin amaitzen du beste enpresa batetan. Bigarrena argiagoa da, hasiera eta amaierako eszena berdin berdina delako: Josu Igararen familia osoa eta neskamea sukaldean daude udazkeneko goiz batetan, gosari eder bat hartzen eta egunkarian agertzen den notizia bat ospatzen

(Josuk lan egiten duen enpresari emandako sari bat da kasu bietan).

Pertsonaiak

Lehen ipuinean bertako pertsonaiak aztertuak ditugunez jada, gainontzekoetan agertzen diren batzuk landuko ditugu orain. Lehenik eta behin, esan behar da pertsonaia batzuk ipuin batetan baino gehiagotan agertzen direla. Beraz, pertsonaia bakoitza aipatuko dugu, euren arteko harremana eta agertzen diren ipuinean argituz.

— **Etorriberria:** Hau, *Etorriberria eta bere lagunak* ipuineko protagonista da. Abegi S.A. enpresara iritsi den neska berria da. Hasiera batean bere lana oztopatua izan denez, mendekua hartzen du. Pertsonaia borobila da, izugarritzko garapena jasan duelako. Inork ezagutzen ez duen neska langile, apal eta “etorriberria” izatetik, enpresako zurrumurruen erdigunea izatera pasatzen da. Honetara iristeko, hainbat zekenkeria egin behar izaten ditu, bera zapaltzen duena (Eburne), zapaltzeko. Ipuinaren amaieran, Abegi S.A. enpresa uzten du, Pasaiaiko portuko enpresa batetako neska berria berriz izateko.

Honetaz gain, *Kanpotik datoz, barrutik dator* ipuinaren amaieran aipaturik agertzen da: “... Abegi SATik etorri berria den neska bat ikusi dut korridorean.” 39. orri.

Azkenik, *Sare orojaleak* lanean, beste erreferentzia bat egiten zaio pertsonaia honi. Hemen, aldaketa bat eragiten dio: Pasaiaiko portuko enpresan denbora luzez lanean ibili eta gero, Iñaki Tolosa zuzendaritzan jartzen dutenean, aurretik izandako arazoengatik botatzen du.

— **Eburne:** *Etorriberria eta bere lagunak* ipuinean ageri da. Abegi S.A.-ko etorriberriaren saileko burua da. Zuzendariordearen ustezko maitalea da, berak hau ukatzen duen arren. Etorriberriari lana oztopatu eta lapurtzen dio.

Baina, etorriberriak bere aurka egiten duenean, honi aurre egiten dio. Pertsonaia hau borobila da “etorriberria”-ren jarrerak eraginda berea aldatzen delako.

Bestetik, *Jarri eskela bat zure bizitzan* ipuinean agertzen da. Honetan ez da asko ageri, baina protagonistaren (Gabriel) alaba da.

— **Iñaki Tolosa:** *Etorriberria eta bere lagunak*-en Abegi S.Ako zuzendariorde bezala ikus dezakegu. Hemen asko agertzen ez bada ere, antzeman daiteke ez dela oso pertsona ona, etorriberriarekin harremanak eduki ostean, neskak utzi nahi duenean, bera akabatzearekin mehatxatzen du eta: “Kontua ez da zer egiten duzun, baizik eta zein posiziotik egiten duzun. (...) Bulegotik horrela irteten bazara, gaizki bukatuko dugu. (...) Zureak egin du. Hartu zure gauzak eta alde enpresa honetatik.” 27. orri.

Jarri eskela bat zure bizitzan kontakizunean izena behin aipatzen da (43. orri).

Despedida ipuinean ere nabarmentzen da. Istorio honen protagonistari (Kepa), Abegi S.An lanpostu bat lortu zion, baina beraien arteko harremana hotza da; “despedida” honetara batez ere konpromisoz gonbidatua izan da. Hemen ere, bere izaera gaiztoa ikus dezakegu, ondoko gelan ustez jipoitua izaten ari den emakumea laguntzeko prest ez dagoela erakusten du. Bere iritziz hurrengo egunerako utzi daitekeen zerbait da: “Uztak hori. Bihar deituko diagu. Orain deitzen badugu, pikutara joango duk despedida; (...) Afaldu parranda lasai egin eta bihar ahaztu gabe deitzea izango duk hoberena.” 98-99. orri.

Sare Orojaleak ipuinean mehatxatuta sentitzen du bere burua eta horren ondorioz, bere alderik ilunena ikus dezakegu. Era honetan, hasieran aipatu dugun izaera, hemen bermatzen da. Berari buruzko informazio iluna aurkitzen duen kazetariak argitaratzearekin mehatxatzen duenean, Iñakik hau saihesteko zakar jolasten du: “Bi gauza, Jon.

Bat: ez duk albiste hori argitaratuko. Eta bi: hireak egin dik. Hemen ez ditek kontratua berrituko!, dudarik ez egin” 121. orri. Baina aurrerago informazio korapilatsua du bere eskuetan eta Juan Imaz bere aitapontekoari ordura arte ateratakoa baino gehiago ateratzen saiatzen da. Bukaeran, Pasaiaiko portuko lantegiko zuzendaritza lortzen du.

— **Josu Igara:** *Etorriberría eta bere lagunak* istorioaren amaieran, Pasaiaiko portuko enpresako langilea, “etorriberríari” lantegia erakusten agertzen zaigu.

Kanpotik datoz, barrutik dator-en Pasaiaiko portuko enpresaren kudeatzaile nagusi bezala aipaturik agertzen da.

Kaxen barruan zer dagoen ipuinean bera da protagonista, hemen ikus daiteke pertsonaia hau borobila dela. Istorioaren hasieran, hau inportantetzat jotzen dute, egunkarian sari bat eman diotela azaltzen baita, eta egoera honen aurrean pozik dago. Ipuinean zehar aldiz, atxilotua izan eta kartzelatik pasatzen da. Bukaeran, familia hasierako situazio antzeko batera bueltatzen da.

— **Xabier:** *Kanpotik datoz, barrutik dator* ipuineko protagonista da. Lana mantentzeko ardura dauka, hipoteka bat ordaindu eta ume bat izango duelako. Sensiblea dela eta gizatasuna daukala ikus dezakegu etorkin hilaren aurrean duen jarreragatik.

Pertsonaia borobila da, hasiera batean lana ez galtzea soilik inporta zaiolako; geroago ordea, lana alde batera utzi eta hildakoaren berri ematea axola zaiolako.

— **Anjel, “nagusi txikia”:** *Kanpotik datoz, barrutik dator*-en bakarrik agertzen da. Pasaiaiko portuko enpresan langileen arduraduna da. Xabierrek ondo deskribatzen duen bezala; “Nagusi txikia gizajo hutsa da. Lanarekin obsesionatuta dagoenez, goizetik gauera bulegoan gatibatua egotera behartzen du bere burua, eta beste guztiok bera bezalako izatea nahi duela dirudi.” 32.orri. Pertsonai

lauaa da; hain zuzen ere, horrela islatzen da; “Hura ez da sekula aldatuko.” 32.orri. Etorkin hildakoaren aurrean ez du gizatasunik erakusten, soilik bezeroen merkantzia axola zaio.

— **Gabriel Etxezarreta:** *Jarri eskela bat zure bizitzan* istorioaren protagonista da. Istorioa bere ingurukoa bada ere, bukaera arte ez da agertzen. Jubilatua dago, emaztearekin bizi da eta mendira joatea gustatzen zaio. Analepsia baten bidez, bere bizitzan, aldaketa nabarmen bat egon zela ohartzen gara: “... Maria ere iritsi berria zen eta deblauki kontatu zidan bere maitalearena. Orduantxe aldatu zen dena.” 49. orri. Istorioan bertan, pertsonaia laua da ez baitu aldaketarik jasaten. Hala ere, badakigu bere bizitzan zehar aldaketa nabarmen bat izan zuela.

— **Maria Etxeberria:** *Jarri eskela bat zure bizitzan* ipuineko protagonistaren emaztea da, baina ez da emazte perfektua izan; garai batean maitalea izan zuen eta. Hala ere, momentu honetan oso harreman ona daukate. Pertsonaia honen kasuan, esan dezakegu borobila dela, hasieran Gabriel benetan hil dela uste duelako, eta senarra berriz ikustean poza handia hartzen duelako: “Ez dakizu zeinen gaizki pasa dudan. Eskerrak bost minutu ez diren pasa Maitek deitu didanetik atetik sartu zaren arte.” 50. orri.

Gizon berria kontakizunean berriz ere agertzen zaigu pertsonai hau. Kasu honetan, ipuin horretan gertatzen den ekintzaren bere testigantza ematen du.

— **Maite:** *Jarri eskela bat zure bizitzan* agertzen da. Gabriel eta Mariaren alaba da eta ipuinean gehien ateratzen den pertsonaia da. Jokinen ama da eta honen aita-gandik bananduta dago. Orain Rufirekin bizi da. Pertsonaia borobila da eta hau da bere garapena: hasieran bere bizitzako egun arrunt batean bezala jokatzeko du; gero,

bere senar ohiaren (Pablo) dei bat jasotzen du, bere aita hil delako zurrumurrua zabaldu dela esanez; ondoren ama deitzen du galdetzeko eta honen berri emateko; eta azkenik, aita bizirik dagoela ikusten du. Pertsonaia honek ekimena eta ziurtasuna erakusten du horrelako egoera zail baten aurrean.

— **Jokin:** *Jarri eskela bat zure bizitzan* ipuinean, Maiteren semea da; beraz, Gabriel eta Mariaren iloba. Oso gutxi agertzen da, baina Gabrielen ustezko heriotzaren berri duenean, pixka bat aztoratzen da eta honen ondorioz borobiltzat hartzen dugu.

Gizon berria ipuinean, izen bera duen gazte bat agertzen da Hain zuzen ere, desagertutako gorpua hondartzan aurkitzen duena da. Hemen bere abizena ematen da: **Gonzalez**. Aipatu dugun beste ipuinean ez da bere abizena esaten ezta bere aitarena; beraz, ez dakigu zehatz-mehatz pertsonaia berdina denentz.

— **Gabriela:** *Jarri eskela bat zure bizitzan* aipatzen da. Hain zuzen ere, bera da hasiera batean hil dela esaten dena eta Gabrielen izenaren antzekotasunak direla medio, nahasmena sortzen da. Hala ere, bukaeran hau ere ez dela hil argitzen zaigu. Bera pertsonalki ez da agertzen, ondorioz ez dakigu nolakoa den, baina berari buruz Maitek ematen duen irudia ez da ona: “Ez dakit nori buruz gaizkiesaka ari omen zen. Bere saltsan, beraz. Zuri buruz igual, aita.” 51. orri.

Gizon berria kontakizunean, izen bereko emakume batek bere testigantza ematen du. Gainera, honetan, bere abizena aipatzen da: **Esnal**.

— **Rosamunda:** *Kaxen barruan zer dagoen* ipuineko familiaren neskamea da; hau da, Josu Igararena. Kolonbiarra denez, ez daki euskaraz. Honek Josurengan mesfidantza eragiten du, ez baitaki zer ulertzen duen eta zer ez. Pertsonaia nahiko laua da asko agertzen ez delako.

Honetaz gain, *Gizon berria* kontakizunean, bere testigantza ematen du. Honetan bere abizenaren berri ematen da baita ere: **Rodero**

— **Ander Igara:** *Kaxen barruan zer dagoen* ipuinean agertzen zaigu lehenengoz. Hemen, Josu Igara protagonistaren semea da. Familia onekoa denez, beti nahi izan duen guztia izan du eta orain lanpostu on baten bila dabil bere aitaren babespean. Bere aitak arazoak dituenean, ez da ikusten bere euskarria denik eta hasieran bezala jarraitzen du.

Aurrerago *Despedida* ipuinean, garrantzi asko hartzen ez badu ere, Keparen gonbidatuetariko bat da. Batera ikasi omen zuten hirurok: Kepak, Anderrek eta Iñakik. Bera da kokaina eramaten duenatariko bat, eta bere iritzia festarekin jarraitzea eta poliziari salaketa hurrengo egunerako uztea da.

— **Ana:** *Kaxen barruan zer dagoen* kontakizuneko pertsonaia nagusiaren emaztea da. Seme-alabek ez bezala, Josu Igararekin dago bere laguntza eskainiz behar duenean. Hala ere, garrantzi asko ez duenez, ez da garapenik ikusten *Jarri eskela bat zure bizitzan* lanean, Belenek erreferentzia egiten dio izen bereko emakume bati. Ezin gara ziur egon berdina den edo ez, ematen diren datu urriengatik.

— **Marisa:** *Lapurrak* ipuineko pertsonaia bat da. Bitan agertzen denez, nahiko garrantzitsua dela esan genezake. Ezkonduta dago, eta senarrarekin eztabaidak izaten ditu. Semearekin harreman txarra du.

— **Bi jonki:** *Lapurrak* ipuinean, beraiek dira “lapurrak”. Marisaren etxeko aldamioren beheko partean hizketaldi bat dute, eta hauetako batek ostutzeroa igotzea erabakitzen du.

— **Bi kontrabijilantziako poliziak:** *Lapurrak* kontakizunean nagusitzen dira. Jose Manuel Grisen pisua zaintzen ari dira, aurreko pisu batetatik, eta lapurra ikusten dute.

—**Mertxe:** *Mugiezinik geratzeko arriskua* kontakizuneko protagonista da. Abegi SA-n bulegoak garbitzen lan egiten du. Bularrean koxkor bat atera zaio, zorionez txarra ez dena, baina bere bizitzaren egoeraz jabetzea eragiten dio: “Akaso ez naiz orain arte konturatu. Beharbada bularreko koxkorra behar nuen horretaz jabetzeko.” 84. orri. Honengatik pertsonaia borobila da. Bukaeran, semea hartu, eta bere aitaren etxera bizitzera joatea erabakitzen du, senarra utziz.

— **Pedro:** *Mugiezinik geratzeko arriskua* ipuinean, Mertxe protagonistaren senarra da. Ez du lanik egiten eta egun osoa edaten eta erretzen ematen du. Sofatik tabernara egiten duen guztia da. Ez da ezertaz arduratzen (emazteaz, semeaz, etxeaz, lana bilatzeaz...). Ipuina gertatzen den denboran ez da aldaketarik sumatzen, baina bere emaztearen hitzetan ikusi dezakegu ez dela beti horrela izan: “Hamar urte daramatzagu elkarrekin, eta denboraren poderioz pertsona ezezagun bihurtu da niretzat.” 82. orri.

— **Eneko:** *Mugiezinik geratzeko arriskua* laneko protagonistaren semea da; hau da, Mertxe eta Pedrorena. Ez da asko ageri, baina amaren esanetan ikusi daiteke aita alkoholikoa izateak eragiten diola. Ez da argi esaten zenbat urte dituen, baina aditzera ematen da ez dela horren txikia: “Batzuetan uste dut Eneko oso txikia dela eta ez dagoela egoeraz jabetzeko adinean, baina umea izanagatik ez da inozoa...” 93-94. orri.

— **Kepa Sakola:** *Despedida* kontakizuneko ezkongia da. Hamabi lagun gonbidatzen ditu, baina aditzera ematen da Imanol eta Mikelekin harreman hobea duela Iñaki eta Anderrekin baino. Hala ere, ez du Mikelen alde egiten honek laguntza eskatzen duenean, berataz barre egiten du; eta lagundu ordez, ‘emagaldu’ batekin txortan egiten du. Ekintza honek asko esaten du bere izaerari buruz, baina

egia esan, ez da eboluziorik ikusten bere pertsonaian. Ger-
takizunek ez dute batere hunkitzen.

Gizon berri bat ipuinean berriz ere agertzen da. Honetan berari buruzko beste datu batzuk ematen dira: “Umearekin nenbilen...” 105. orri. Ipuin honetan soilik bere testigantza ematen du; baina aurrekoarekin konparatuz, aurrekoan ezkongai zen eta honetan ume bat dauka. Beraz biak kontutan harturik, eboluzioa eduki du; azken honetan ertzaintzarekin hitz egiteko prest dago, ez aurrekoan bezala.

— **Mikel:** *Despedida* ipuineko protagonista da. Despedida antolatzen laguntzen dio Imanoli eta Keparekin harreman ona du. Bilboko pisu batetara doaz dutxa hartu eta arropaz aldatzera, bitartean juergarekin hasten direlarik. Mikel dutxan dagoenean ondoko pisuan emakume oihuak entzuten ditu eta erabat aztoraturik besteengana doa zerbait egiteko prest. Drogekin zeudenez (alkohola, kokaina...), besteek hurrengo egunera itxoitea gomendatzen diote eta ez diote uzten ertzaintzari hots egitea, juergarekin jarraitu nahi baitzuten. Mikel ez da gainontzekoekin gelditzen, baizik eta pisutik doa. Kontakizunaren hasieran pozik eta parrandarako gogoekin zegoen pertsonaia hau, bukaeran etsita eta aurre ez egiteko gai ikusten da. Honengatik, pertsonaia borobila da.

— **Imanol:** *Despedida* ipuinean, bere laguna Keparentzat despedida antolatzen duena da, eta gainera, bere gurasoen Bilboko pisua utzi die bertan asteburua pasatzeko. Kepa eta Mikelen oso laguna da. Pertsonaia honetan bai ikusi dezakegula gizatasun apur bat. Izan ere, Mikelek pisutik alde egiten duenean, txoko batetan isil-isilik gelditzen da eta bukaeran telefonotik dei bat egiten du, baina ez dakigu nori: “Imanol bazter bateko aulkitik altxa, eta mahai gaineko kokaina lerro bat sartu zuen. Arnasa sakon hartu eta, salto batean, arropak utzi zituen gurasoen

logelara alde egin zuen. (...) Sakelako telefonoa belarri parean zuela itzuli zen Imanol.” 102. orri. Beraz, Mikel bezala, eboluzio bat du ipuin hasieratik bukaerara.

— **Walter Neumann:** *Gizon berria* ipuineko protagonista dela uste dugu. Ipuinean, alde batetik norbait desagertzen da Zurriolako hondartzako espigoian eta bestetik, etxe bat garbitzen duen neskameak faltan sumatzen du bere jabea. Aditzera ematen da pertsona bera direla. Ipuin osoan zehar desagertuta dago; hala ere berari buruz daukagun informazioarekin, horrelako garapen bat duela esan genezake: hasieran, ezkontuta dago seme-alabekin eta bere gurasoekin ez du hitz egiten. Aurrerago seme-alabei jarritako jateketa gaizki kudeatzen dutenez kendu egiten die eta hauek aitarekin asko haserretzen dira. Gero amarekin harreman hobea edukitzen hasten da, baina emaztearengandik banatzen da. Gainera maitale bat du eta berarekin bizitzera joateko etxe baten bila dabilta. Alemanian bizi da (Leipzig), baina maitalearekin Donostiara joateko asmoa du. Ironikoa da itsasoan hil izana honen beldur zelako, maitaleak dioenez: “Nork daki, agian han galduko diozu beldurra itsaso harroari.” 115.orri.

— **Hanna Stich:** *Gizon berria* ipuinean, Leipzig-en (Alemania) etxe bat garbitzen duen neska bat da. Hasieran etxearen egoera deskribatzen du inbentario baten antzekoa emanaz. Bere jabearen falta sumatzen du azkeneko astean hainbat dei eta e-mail-en ondorioz eta poliziarri hots egiten dio honen berri emateko. Hasieran, egun arrunt bat bezala, lanera doa neska ezer arraroa sumatu gabe; baina ipuina aurrera doan heinean, ardua sartzen doakio poliziarri deitzaeraino. Honengatik, bere sentimenduen garapen bat eduki duela pentsatzen dugu.

— **Angela Schwartz:** *Gizon berria* kontakizunean aipatzen den pertsonaia da. Ez da pertsonalki agertzen,

soilik berak bidalitako sei gutun agertzen dira. Hauen bi-tartez dakigu pertsonaia nagusiaren (Walter Neumann-en) ama dela eta berarekin urteetan izan duen harremana nolakoa den; izan ere gutunak garai ezberdinetakoak dira. Gutunetan pertsonaiaren garapena antzeman daiteke, ba-tez ere semearekiko harremanean dauden aldaketak.

— **Maria Schmidt:** *Gizon berria* ipuinean aipatzen da. Walter Neumann-en emaztea da eta bi seme-alaba dituzte. Berarekin ez du harreman ona banantzen ari zirelako (edo bananduta zeuden) eta gainera ez oso modu onean bere e-mailean ikus daitekeen bezala. Ez da asko esaten berari buruz; hortaz, ez dakigu garatzen denentz.

— **Susana Soares:** *Gizon berria* laneko protagonistaren maitalea da. Brasildarra omen da eta bere ahizpak Donostian bilatu zien elkarrekin bizitzeko pisu bat. Berak idatzitako bi e-mail agertzen dira eta horietan harreman ona dutela antzeman daiteke. Ez da garapenik ikusten pertsonaian, nahiz eta, batera bizitzera joan behar direnez, aldaketa bat egon bere bizitzan.

— **Jon Ansola:** *Sare orojaleak* ipuineko pertsonaia nagusia da. Kazetaria denez, trapu zikinak bilatu nahi ditu. Borobila da pertsonaia, bere helburu profesionalak aldatzen direlako.

Pertsonaiekin amaitzeko, esan beharra dago, ipuinetan agertzen diren pertsonaiarik nagusienak baino ez ditugula aipatu. Guztira 51 pertsonaia dira, baina horietariko askok garrantzi gutxi dutenez, eta gehiegi agertzen ez direnez, ez ditugu lan honetara ekarri.

Espazioa

Liburu honetan nagusitzen den espaziorik garrantzi-tsuena Donostia hiria da, hain zuzen ere, ipuinak hiri

honetan kokatzen baitira. Hortaz, espazio ezaguna eta guztiz erreala da. Istorioetan zehar, askotan, Donostian existitzen diren kale eta auzo ezberdinen deskribapenak nabarmentzen dira: "...Antiguako auzoari begiratu gabe abiatu da lanera. Eguneroko kotxe ilara luze eta motelekin topo egin du Donostiako saihsbidean.". 56. orri. (*Kaxen barruan zer dagoen*); "Miguel Imaz kale osoan ez zegoen estetikoki beraiek bezain ezberdina zen beste inor." 69. orri. (*Lapurrak*); "...gizon bat itsasora bota zuen Zurriolako hondartzaren espigoian, Kursaaaleko kuboen parean." 103. orri. (*Gizon berria*).

Hala eta guztiz ere, Donostia ez da liburu honetan aurki dezakegun hiri bakarra, *Despedida* ipuinean, Bilbon kokatzen da istorioaren ekintzarik inportanteena: "Dutxatzeko eta gauerako prestatzeko jaitsi ziren Bilbora, Imanolen gurasoek Gran Via inguruan zuten etxebizitza handi huts batera." 97. orri.

Bestalde, Gasteiz ere aipatu egiten da, baina ez dago bertan gertatzen den istoriorik: "Lakuako soldata merkea ez bazen ere, diru gehiagoren gutizia zeukan. Eta bereziki: egunero Donostiatik Gasteizera joateari utzi nahi zion." 124.orri. (*Sare Orojaleak*).

Hiriez aparte, hainbat herri azpimarra ditzakegu ipuin batzuetan, alegia, Zornotza, Pasaia, Zugaztieta: "Zornotzan bazkaldu zuten. (...) Lepo janda abiatu ziren Zugaztieta." 96.orri. (*Despedida*); "Pasaia badi osoan ez da hodeirik ageri." 39.orri. (*Kanpotik datoz, barrutik datoz*).

Espazio hauek guztiak, hurbil geratzen zaizkigun Euskal Herriko zenbait leku dira. Izan ere, *Gizon berria* ipuinean atzerria ere nabarmentzen da, hau da, Leipzig: "Leipzigeko zeruan dagoen dorre garaiena ikusten da balkoitik." 105.orri.

Honetaz gain, istorio batzuk espazio itxi ezberdinetan garatzen dira, hala nola, "Abegi S.A", "Pasaia Portuko enpresa", epaitegia, besteak beste. "Abegi S.A", liburuan

zehir behin eta berriz agertzen da, ekintzak bertan gertatzen direlako edota aipatzen delarik ere: “Biharamunean, etorriberría Abegi SAko bulegoetara sartu den unean bertan hasi da ahal bezainbeste...” 19. orri. (*Etorriberría eta bere lagunak*); “...Abegi SAren bulegoak garbitzetik irabazten dudán soldata bakarrik sartzen da etxera.” 85. orri. (*Mugiezínik geratzearen arriskua*). Hain inportantea den espazio hau irrealá da; egia esanda, ez dago Donostian “Abegi SA” izena duen enpresarik. Beraz, autoreak asmatutako espazio baten aurrean gaude.

Beste alde batetik, Martuteneko kartzela ere nabarmendu daiteke, *Kaxen barruan zer dagoen* istorioan bertan: “...Martuteneko kartzelako lokutorioan.” 56. orri.

Ondorioz, liburuan zehir nagusitzen diren espazio gehienak guztiz ezagunak dira, gure egungo gizartean dauden lekuak ikus ditzakegu; hiriak, herriak, kaleak, auzoak, kartzela, udaletxea, enpresak, epaitegiak, etxeak...

Denbora

Denborari dagokionez, liburu osoak batasun bat badiuela esan daiteke. Izan ere, XX. mende bukaerako hamarkada eta XXI. mende honetako hasierako urte bitartean kokatua dago. Hala ere, ipuin askotan ez da argi esaten noiz dagoen kokatuta; urte eta hilabeteak soilik *Gizon berria* kontakizunean agertzen dira: “2007-09-20” 117. orri.; “2005eko ekaina” 115. orri ...

Beste alde batetik, ipuinak banaka aipatu beharko ditugu. Batzuetan denbora jarraitua da, eta besteetan ordea, hainbat urte pasatzen dira. Honen arabera sailkatu ditugu ipuinak, bakoitzean azalduko dugunez:

Denbora jarraitua dituztenak: istorioa hasi eta bukatu arte, ez dute denbora etenik.

– *Kanpotik datoz, barrutik dator*: goiz batean gertatzen da.

– *Jarri eskela bat zure bizitzan*: goizetik gauera arte gertatzen da.

– *Lapurrak*: denbora oso nahasia agertzen zaigu ipuin honetan; hala ere, arratsaldeko 18:55-tik, zazpiak pasa arteko tartean gertatzen dela ematen du

– *Mugiezinik geratzearen arriskua*: protagonista lanetik etortzen denetik, lanera bueltatzen den arte.

– *Despedida*: goizetik, afalordua baino lehenago arte.

Denbora aldaketak dituztenak: denbora saltoak gertatzen dira.

– *Etorraberria eta bere lagunak*: ez dakigu zehatz denbora tartea zenbatekoa den (urteak, hilabeteak...), baina kronologikoki jauzia gertatzen da.

– *Kaxen barruan zer dagoen*: kontakizun honetan urte bete igarotzen dela igarri daiteke. Hasieran udazkena dela esaten da, honen ezaugarriak emanez; eta amaieran “Udazkena da berriro” (64.orri.) esaten da.

– *Gizon berria*: ertzaintzaren txostenen bitartez, bada-kigu bi aste inguru pasatzen direla gorpua desagertzen denetik, gizona aurkitzen den arte. Baina ez dakigu Hannaren zatiaren paraleloa den, nahiz eta honek ere aipatu “...orain dela bi aste zela Leipzigera bueltatzekoa” 118.orri.

– *Sare orojaleak*: denbora aldetik, zabalena da. Azken ipuina da eta aurreko kontakizunen denbora tartea bere baitan ditu. Beraz, hainbat urte igarotzen dira (40-50 urte inguru).

Gure ustez, azkeneko ipuina amaieran egotea ez da kasualitatea; izan ere, liburuari bukaera ematearren denboraren sintesi bat egiten du. Gainera, bereizi ditugun bi denbora moten artean, ipuin kopurua orekatuta dago.

Narratzailea

Bi motatako narratzaileak nabarmendu daitezke ipuinetan zehar, alde batetik narratzaile orojakilea dugu eta bestalde, protagonista.

Narratzaile orojakileak, 3.pertsonan narratzen du istorioa. Narratzailea kontakizunetik kanpo kokatzen da, hortaz, narrazio *heterodiegetiko* baten aurrean egongo ginateke. Are gehiago, guk esango genuke narratzailea irakurlearen parean jartzen dela, hau da, narratzailea bera ipuin horien guztien lehenengo irakurlea izango litzateke. Horrelakoa zenbait ipuinetan ikus dezakegu: *Etorriberria eta bere lagunak*; *Kaxen barruan zer dagoen, Lapurrak, Despedida* eta *Sare Orojaleak*: “Kepak hogeita hamahiru urte zituen. Ordurako Amaratik, bere betiko auzotik, urrun samar bizi zen, pisu txiki, deseroso eta garesti batean, (...) Lantokian saileko nagusi alfer eta exijentea zeukan...” 95.orri. (*Despedida*); “Luis Garciak txikitatik zekien aitararen enpresaren batean lan egingo zuela, aita bazkide nagusietako bat baitzen...”, 130.orri (*Sare Orojaleak*).

Bestalde, narratzaile protagonista dugu, kasu honetan 1.pertsona nagusitzen da, eta kontakizunak narratzen dituen istorio horren pertsonaia nagusia da. Protagonistak bere istorio propioa kotatzen digu. Beraz, narratzailea kontakizunaren barruan kokatzen denez eta gainera, kontakizun horren pertsonaia nagusia denez, narrazio *autodiegetikoak* lirатеke ondorengoak: *Kanpotik datoz, barrutik dator, Jarri eskela bat zure bizitzan* eta *Mugiezinik geratzearen arriskua*: “Azkar, azkar, azkar. Ez daukat beste pentsamendurik goizeko ordu honetan.” 41.orri. (*Jarri eskela bat zure bizitzan*); “Hamar urte daramatzagu elkarrekin, eta denboraren poderioz pertsona ezezaguna bihurtu da niretzat.” 82.orri. (*Mugiezinik geratzearen arriskua*).

Intertestualitatea

Intertestualitatea ez da liburu honetako elementu garrantzitsuenetariko bat, ez baitauka eginkizun nabarmenik. Hala ere, arastoren bat edo beste aurkitu dugu eta aipatzea gustatuko litzaiguke:

– *Etorriberría eta bere lagunak* ipuinean “Coca-Cola” freskagarria aipatzen da 25. orrian, baina ez du garrantzirik istorioan.

– *Mugiezinik geratzearen arriskua*-n “Super-8 kamera” aipatzen da, baina asmatutako marka bat da.

– *Despedida* lanean, “Joe Cocker” abeslari ingelesaren kantu ospetsu bat ipintzen du emagalduek.

– *Gizon berria* intertestualitate gehien aurkitu dugun kontakizuna da. Izan ere, Hannak bere jabearen etxean aurkitutakoaren zerrenda egiterakoan, hainbat gauza aipatzen ditu: “margolari inpresionisten posterrak”, “bolizko figurak” (106.orri.); “SlipKnot musika taldearen *SlipKnot* diskoa” (108.orri.); “*Bild* egunkaria”, “Robert Fisher-en *Herdoildutako armadura zeraman zalduna*” (109.orri); “Bordeleko ardo garesti botila erdi” (110.orri)... Aipamen guztiak errealitatean aurkitu daitezkeen gauzak dira.

Bukaerak

Liburuko hainbat ipuinek amaiera irekia dute; izan ere, ez dakigu zer gertatuko den, ekintza amaitzeke gelditzen delako. Horrelako bi kasu, *Despedida* eta *Gizon berria* ipuinak dira. Bietan telefono dei batekin amaitzen da.

Bukaera argiena dutenen artean, *Kaxen barruan zer dagoen* lana aipatu genezake. Honetan, hasierako egoera berdinerara bueltatzen dira eta ematen du beti horrela jarraituko dutela gauzak.

Bien arteko bukaera bat gehitzekotan, *Mugiezinik geratzeko arriskua* lana adibide aproposa izango litzateke.

Ipuin honetako pertsonaiak, senarra uzteko erabakia hartzen du bukaeran eta bere aitaren etxerantz abiatzen da. Ikus daiteke ekintza burutua dagoela, baina ez dakigu noiz arte iraungo duen erabaki horrek.

Hitz garrantzitsuak

– *Zakur*: Zakur hitza izenburuan bertan islatzen zaigu. Honetaz gain, ipuin gehienetan modu batera zein bestera, ageri zaigu. Gizakiok askotan dugun jarrera itsusia, zakurraren zenbait portaerekin pareka daitekeena, adierazi nahi du. Zubirik “zakur” hitzari konnotazio negatiboak ematen dizkio.

– *Oihaneko legea*: Hainbat narraziotan ikus dezakegun esamoldea da hau. Ipuin askotan islatzen den berekoitasuna, bakoitzaren helburuak lortzeko edozein gauza egiteko prest egotea, bizi baldintza duinak lortzeko egin behar ditugun esfortzuak... adieraziko luke. Azken finean, hau da ipuinetan aditzera eman nahi den ideia, gure gizarte kaotiko honetan, bakoitzak berera egiten du, bestean arazoez jabetzen ez garelarik. *Oihaneko lege* honetan eguneroko bizi behar gara; lana, gizaki arteko harremanak, dirua, politika... gizakiok ditugun buruhausteak dira, eta hauekin batera aurrera egin behar dugu, bakoitzak ahal duen bezala: “Tira, egia esan, hobe horrela. Asko aldatu beharko nintzateke Edurneren bidea jarraitzeko, eta ni ez naiz halakoa. –Oihaneko legea, beraz. –Batzuk ez gara horretan erortzen. Badakit beste enpresa askotan baino gehiago kostatzen dela lan baldintzak guztiontzat hobetzea.”, 20.orri. (*Etorriberría eta bere lagunak*); “Nor bait zapaldu, nor baiti iruzur egin, edo lagun benetan onak izan. Ez dago beste biderik. Bestela, denok biziko ginateteke pisu arrunt batean, hipotekak itota. Oihaneko legea da hau. Ez zalantzarik izan.”, 57.orri. (*Kaxen barruan zer dagoen*).

Gaiak

- **Gai nagusia:** Gizartea, burgesia.

Harkaitz Zubirik ipuin bilduma honen bitartez, gaur egungo benetako gizartea islatu nahi du. Beste hainbat autorek erabiltzen dituzten elementu fantastiko eta mi-resgarriak alde batera uzten ditu, errealitate soila erakus-teko.

Liburu honetan agertzen diren gizarte-harremanak aipatuko ditugu, bakoitzaren maila soziala zehaztuz:

– *Senar-emazte harremanak:*

- Lehenengo ipuineko senar-emazteak: seme-alabarik ez dute, gizona jubilatuta berria da eta bizimodu apal bat eramateko erretiroa geratu zaio. Beraien arteko harremana oso ona da.
- “Etorriberría” eta bere mutil-laguna: Bikote gazte bat da, neskak bere zuzendariarekin engainatzen du mutila eta ez dio ezer esaten. Ipuina aurrera joan ahala beraien arteko harremana hozten doa. Gaur egungo edozein bikote gazte bezala, etxebizitza ordaintzeagatik estu bizi dira.
- Xabier eta bere neska-laguna: Haur bat espero duen bikotea da, ekonomikoki justu ibiltzen dira “hileroko gastu arruntak eta etxeko hipoteka ordaintzeko” 34.orri.
- Gabriel eta Maria Etxeberria: Senar-emazte heldua, bi alaba eta iloba bat daukate. Orain harreman on bat daukaten arren, iraganean Mariak maitale bat izan zuen eta hala jakinarazi zion Gabrieli. Arazorik gabeko ekonomi maila daukate.
- Maite eta Jokinen aita: Bananduta daude, nahiz eta harremana mantentzen duten. Maite orain Ru-firekin bizi da.

- Josu Igara eta Ana: Bi seme-alaba helduak dituzte, agerian senar-emazte arruntak dira.
- Marisa eta bere senarra: Bikote heldua da, seme bakarra dute, baina ez omen dute harreman handirik berarekin. Senarra, emazteak egiten dituen zenbait gauzekin ez da bat etortzen.
- Pedro eta bere emaztea: Bikote hau ez da zoriontsua, senarra alkoholikoa da eta langabetuta dago. Emazteak ordea, lan egin behar du bion seme txikia zein etxeko gastuak aurrera ateratzeko. Azkenean, emazteak senarrarengandik banantzea erabakitzen du.
- Kepa eta bere neska: Kepa elizatik ezkonduko den gaztea da, bere neskalaguna ez da istorioan ateratzen.
- Walter Neumann eta Maria Schmidt: Seme-alaba helduak dituzte, senarrak maitale bat dauka, eta senarra emaztearengandik banantzen da.

– *Lan harremanak:*

Gai hau liburuaren gidaria da, hainbat ekintza bideratzen dituelako. Lan harreman hauek, bi euskarri nagusi dituzte: Abegi SA eta Pasaiako portuko enpresa. Bi lantegi hauetan ikus daitekeen ezaugarriak nagusia “zakurkeria” da, eta hau bi mailatan ikus daiteke. Alde batetik, langile arrunten artean batzuek besteei jartzen dizkieten oztopoak antzematen dira. Bestalde, maila altuago batetan kokatzen diren langileen artean (zuzendariak, zuzendariordeak, kudeatzaile nagusiak...), izugarritzko tranpak deskribatzen dira; adibidez ogasunari egindako iruzurrak, droga kontuak, etab.

Azpi-gaiak

- **Ironia:** Ez da gai nagusia liburuan zehar, baina honen adierazle diren hainbat adibide aurkitu ditugu: *Jarri*

eskela bat zure bizitzan, alabak aitari hau esaten dio: “-Itxaron, aita, akaso bihar zure eskela ikusiko duzu-eta. Gutzik daukaten pribilegioa da, ez zaizu iruditzen?”.

Despedida ipuinean agertzen den emagaldua ertzainaz mozorroturik doa.

- **Drogak:** Drogak modu ezberdinetan islatzen dira, egun hain bizirik dagoen errealitate honen bi muturrak irudikatzen ditu autoreak. Alde batetik, drogen kontsumoa ageri da pare bat ipuinetan, hots, *Mugiezinik geratzearen arriskua* eta *Despedida* kontakizunetan: “Imanol bazter bateko aulkitik altxa, eta mahai gaineko kokaina lerro bat sartu zuen.”, 102.orri (*Despedida*); “Ez du ia jaten. Alkoholak eta tabakoak betetzen diote sabela”, 87. orri. (*Mugiezinik geratzearen arriskua*). Beste alde batetik, drogen trafikoa ikus dezakegu *Kaxen barruan zer dagoen* ipuinean. “Pasaiako portuan kokainaz betetako kaxa batzuk atzeman dituzte.” 55.orri.
- **Immigrazioa:** Idazleak eman nahi duen gizartearen argazki honetan, immigrazioa inportantzia handikoa da. Baina, hauei buruz ematen duen ikuspegia nahiko negatiboa da, mesfidantza eragiten duen immigrazio bat erakusten baitu, egun, gizartean zabaldua dagoen ideia, alegia. *Hura izan da* ipuina adibide argiena da: “Kanpotarrek mesfidantza eragin diote beti emazteari”, 11.orri. Baina *Kaxen barruan zer dagoen*-ean ere ikus dezakegu: “Rosamundaren begirada zorrotzak etengabe epaitzen dituela uste du Igara jaunak, eta beldur da Rosamundak uste baino gehiago ez ote dakien euskaraz.” 55.orri. Gatibuan etortzen diren etorkinak ere, oso presente daude gure gizarte honetan, hain zuzen ere *Kanpotik dator*,

barrutik datoz-en horrelako istorio bat islatzen da:
“...etorkin bat hilik agertu da orain sartu den
itsasontziko sotoan, baina lasai.” 34.orri.

Kritikak

Liburu honen inguruan egin dituzten kritikak asko izan dira. Hala eta guztiz ere, gehienek nahiko ideia antzekoak aipatzen dituzte.

Kritika gehienetan *Donostia* hiriaren aipamena nagusitzen da, baina ikuspegi anitzak daude, hala nola:

“Donostian eta Pasaian kokatutako hamar ipuin biltzen ditu Harkaitz Zubirik *Zakur kale* liburuan”, (*M. Egimendi / Aizu!*, 2008-04); “Donostiako auzo zehatz batean kokatu ditu ipuinok Harkaitz Zubirik”, (*Goizalde Landabaso / Radio Euskadi*, 2007-04-22); “Donostian girotutako ipuinak zirela edota, ipuinotan, burgesiaren gaineko erretratua egiten zela.” (*Aritz Galarraga, Susa* 2007); “Donostia hiriaren bestelako ikuspegia ematen saiatzen da. Alde batetik, marko paregabearen topikotik ihes egiten du liburuan (...) Zubirik erakusten duen hiria bestelakoa da, norberekeriaren hiria, dirua irabazteko edozein gauza egiteko prest dagoen jendearen hiria, igotzeko kompetentzian ahalegintzen direnen hiria. Mendebaldeko hiri burges normal bat, alegia”, (*Javier Rojo / El Correo*, 2007-09-26); “Harkaitz Zubirik Donostia hiria hartu du bere literaturaren geografiaz, seguru asko, Donostiako toki eta kaleak gertukoak zaizkiolako edo, neurri batez, ezagunagoak dituelako Donostiako jendeak (...) Geografia hori partikularra da, idazlearena berarena”, (*Felipe Juaristi / El Diario Vasco*, 2007-05-11); “Gaurko Donostiaz ari da Zubiri, eta, zehatzago esanda, gaurko Donostiako burgesiatxoaz eta haren baitako zakurkeriaz, ustelkeriaz, faltsukeriaz, hipokrisiaz, boterekeriaz...”, (*Ibon Egaña / Berria*, 2007-03-25).

Bestalde, kritikariek behin eta berriz azpimarratzen dituzte ipuinen arteko loturak:

“Ipuinak independenteak badira ere, badute loturarik euren artean: alde batetik, zakurkeriak eta ustelkeria; bestetik, pertsonaiak”, (*M. Egimendi / Aizu!, 2008-04*); “Ipuin batetik besterako loturak gustatu zaizkit. Ez dute euren artean ezelango zerikusirik, baina badute”, (*Lan-dabaso / Radio Euskadi, 2007-04-22*); “Harkaitz Zubiri gainera, trebea izan da ipuinen artean hariak sortzen: adibidez, Abegi, S.A.-ko presentzia etengabea”, (*Jon Kortazar / El País, 2007-07-09*); “Narrazioek elkarren artean lotura xumea dute, eta beraz liburu hau ia zatika eraikitako nobelatza ere har liteke.” (*Javier Rojo / El Correo, 2007-09-26*); “... Eta haien artean garatzen diren istorioak ere askotarikoak dira, nahiz batasun hariak enpresaren eta lanaren ingurukoak diren nagusiki: badira bikote-harremanei buruzkoak, lagunartekoak, familia barrukoak... Guztietan ere azaltzen da, modu sai-hestezinean, zakurkeria bere forma anitzetan.” (*Ibon Egaña / Berria, 2007-03-25*).

Zaku kale liburuan, lan munduan gertatzen diren ustelkeriak salatu nahi ditu, hau da behintzat kritikek jasotzen duten beste ideia nabarmen bat:

“Ustelkeria kontuak gehiago dira lan mundukoak, baina zakurkeriak bizitza pribatuan ere gertatzen dira. Era berean, eremu pribatuko zakurkeria, utzikeria eta elkartasun eza gizartera nola zabaltzen diren ere argi erakusten dute hainbat ipuinek”, (*M. Egimendi / Aizu!, 2008-04*); “liburu osoak islatzen ditu enpresa eta lan eremuetan sarri askotan sortzen diren zalantza eta ezinegonak, (...) erretra-tu zehatz bat egin baita: gaur egunean egunerokoa bilakatu den oihaneko legearena, hain zuzen (behin baino gehiagotan errepikatzen dute liburuko pertsonaiek „oihaneko legea“ esamoldea)”, (*Aritz Galarraga Gara, 2007-05-12*).

Lan munduan gertatzen diren ustelkeriekin batera, Zubirik egungo gizartearen ikuspegia islatu nahi omen izan du:

“Era berean, eremu pribatuko zakurkeria, utzikeria eta elkartasun ezagizartera nolazabaltzen diren ere argi erakusten dute hainbat ipuinek, “Despedida” edota “Kanpotik datoz, barrutik dator” izenekoek adibidez. Inolako artifizio eta eskandalurik gabe kontatzen ditu Zubirik”, (*M. Egimendi / Aizul, 2008-04*); “Liburuan agertutako bizimodu guztien barruetan min txikiak daude; edo handiak, neurria beti norberak ezartzen baitu. Baina egunerokoak isilean atzeko sakeletan sartzen dizkizun hondamendi txikiak dira oreka desorekatzen hasten direnak”, (*Goizalde Landabaso / Radio Euskadi, 2007-04-22*); “baina baita arazo sozialak ere, immigrazioarena kasurako. Eguneroko gatazkak dira, azken batean, protagonista *Zakur kale*-ren luze zabalean. (...) gaur egungo gazteen (gazteen sektore zabal baten), 30 urteen bueltan dauden horien kezka eta arazo behinenak erreproduzitu dira narrazio hauetan: hileroko gastu arruntez gainera hipoteka ordaindu beharra, lan batetik bestera ibiltzearen kondena, gai sozial, politikoekiko konpromisorik eza, nagusi alfer eta kontentagaitzak, pilatutako zorrak ordaintzeko ehun urtera arte bizi beharko duten gazteak eta horren ondorioz jendearengan sortzen den ezinegona, ekonomikoa naiz animikoa.”, (*Aritz Galarraga, Gara, 2007-05-12*); Erakargarria narrazioetan agertzen diren gai ei dagokienez (lan munduko auziak eta bestelako gatazka sozialak), (*Mikel Ayerbe / Berria, 2008-01-08*); “Kontatzen diren historiak, ordea, orokorrak dira, giza izaerari dagozkionak baitira. Ustelkeria, injustizia, aurreiritziak kontu unibertsalak dira”, (*Felipe Juaristi / El Diario Vasco, 2007-05-11*); “Gaur egungo gizartearen ikuspegi orokor bat eman nahi duen gisa honetako liburu batek, batasun hari finekin lotutako pertsonaia eta

harremanen galeria bat aurkezten duen narrazio bildumak, izan ohi du arriskurik, eta horien artean bat, liburuak amaieran katalogo itxura izatea dateke; alegia, gizartearen luze-zabala erakutsi beharrez, pertsonaia tipoak modu axalekoan biltzea.”, (*Ibon Egaña / Berria, 2007-03-25*).

Maila ertaineko pertsonaiak dira kontakizun hauen protagonistak:

“Horren guztiaren erretratua ateratzeko gizartearen maila ertaina aukeratu du idazleak, zabalena, horren barruan ere, ipuinetan bezala, maila ezberdinak egon arren” (*M. Egimendi / Aizul, 2008-04*); “maila jakin bat, hain zabaldua dagoen klase ertain horretako koskarik altuena. Baina eszenatoki”, (*Galarraga, Gara, 2007-05-12*).

Orain arte, ipuinen edukiari buruzko kritikak ekarri ditugu, baina badira teknika aldetik esan dituztenak ere:

“eta erakargarria gai horiek narrazioetan txertatzeko aukeratutako ikuspegi, estilo eta teknikagatik ere.”, (*Ayerbe / Berria, 2008-01-08*); “Trebezia dago era berean ipuinetan Zubirik erabili duen eraketa narratiboan, eta baita tekniken ugaritasunean ere: pertsonaien erronda (*Jarri eskela bat zure bizitzan*), esaldi baten garrantzia (*Kaxen barruan zer dagoen*), pertsonaiak ipuin batetik bestera igarotzea, ipuina ekintzaren bukaeratik hastea (*Lapurrak*), ustekabea eta, azkenik, konplexutasuna batera adieraztea. (...) jokoaren azpian eta trebeziaren mugetan puntu mingots batek aztoratu du irakurketa: agian, ipuinen baten bukaera xumeak (*Jarri eskela bat zure bizitzari*), ekintzaren jarraipen aldaketa gabekoak... (...) askotan formulak gainditu du nire irakurketa eta teknikaren nagusitasuna begi bistakoegia ikusi dut.”, (*Jon Kortazar / El País, 2007-07-09*).

Iritzia

Liburua orokorrean irakurterraza da, ipuin motzez eratuta dagoelako, eta liburua bera motza delako. Hortaz, azkar irakur daiteke. Baina, pertsonaiak liburu hone-tan garrantzitsuak direnez, haien arteko harremanak barneratzeko hainbat irakurraldi egitea beharrezkoa da. Bestalde, ipuinen arteko loturek irakurgaia zailtzen dute.

Eduki aldetik, ipuinak oso aberatsak dira, ekintza ugari daudelako. Gainera ekintza horiek harremana dutenez, lotura horiek aurkitu behar dira. Horregatik esaten dugu, behin bakarrik irakurrita gauza asko gal daitezkeela; arreta handia eskatzen duen liburua da.

Lanari dagokionez, hainbat zailtasun izan ditugu. Alegia, lehen esan dugun bezala, pertsonaiek lan handia eragin digute; asko baitaude eta askotan, ipuin bat baino gehiagotan agertzen dira. Gainera, batzuetan, ipuin ezber-dinetan izen berdinak agertu arren, ez da zehazki esaten pertsona bera diren, hori dela eta guk aurre suposatatu behar izan ditugu loturak ezarriz.

Gai nagusia gizartea izateaz gain, hainbat ikuspuntutatik islatzen da: lan harremanak, famili harremanak, bikote harremanak...

Hizkuntzari erreparatuz, ez du euskalkirik erabiltzen, eta euskara maila arrunta darabil. Horregatik, erraz eta azkar irakurtzen da. Intertestualitate aldetik, oso inportantea ez denez, ez da jakintza berezirik izan behar.

Gure ustez, gizarteari buruz egiten duen irudia, oso adierazkorra da. Hau izan da gehien gustatu zaiguna, gizartearen hainbat alderdi kritikatzeko baititu.

Bestalde, nahiko ipuin nahasgarriak dira eta arreta asko eskatu digute.

Bibliografia

kritikak.armiarma.com

es.wikipedia.org

<http://www.susa-literatura.com/cgi-bin/liburuak.pl?lib=alem08>

<http://www.paginasprodigy.com/peimber/BOURDIEU.pdf>

http://www.lib.juen.ac.jp/db/17_mae.pdf

<http://www.bibliotecaspublicas.es/donostiae/imagenes/contenido33175.pdf>

ZUBIRI, Harkaitz (2007): *Zakur kale*, Donostia, Susa.

Pako Aristi: *Auto-stopeko ipuinak* (1994)

Maitane Arbilla Villanueva
Lierni Etxeberria Zubelzu

Sarrera

Lan honetan Pako Aristiren *Auto-stopeko ipuinak* liburuaren azterketa bat egingo dugu. Lehen ere Aristiren zenbait lan irakurriak ditugu eta bere estiloa eta estiloari eragiten dioten korrante edo mugimenduak sakonago aztertu nahi genituen. Horregatik aukeratu genuen ipuin-liburu hau.

Lana hainbat ataletan banatuko dugu: hasteko, sarrera bera; ondoren, Pako Aristirengan eragina duten hainbat korrante azalduko ditugu; jarraian, liburuaren azterketa egingo dugu eta atal honen barnean gai nagusiak, paratestuak, testuartekotasuna, narratzaileak, pertsonaiak, espazioak eta Aristiren estiloa landuko ditugu; gero, azterketa egin ondoren ateratako ondorioak aipatuko ditugu; segidan, kritikari desberdinek liburu honi egindako kritika batzuk laburtuko ditugu; eta azkenik, *Auto-stopeko ipuinak* lanaren inguruko gure iritzia emango dugu.

Ipuin-liburu hau irakurri ondoren, Aristik ahots desberdinekin jokatzeko duela ikusi dugu, eta beraz, azterketan ere honetan sakonduko dugu gehien.

Ezertan hasi aurretik, ipuina zertan datzan hobeto ulertzeko, hauen ezaugarri batzuen aipamena egitea beharrezkoa ikusten dugu. Jarraian emango ditugun ipuinen bost ezaugarri hauek Carlos Pachecok emandakoak dira:

- 1) Ipuin bat **narratiboa eta fikziozkoa** da. Pertsonaia bati gertatzen zaion ekintzen bilketa bat.
- 2) **Moztasuna, sinpletasuna**. Ipuinaren izaera nagusia motza izatea da. Motza izateak intentsoa izatea dakar. Ipuina gezi batekin identifika daiteke, erritmo azkarra du eta zuzenean bukaerara doa.
- 3) **Batasuna**. Ipuina elementu gutxi batzuekin egindako testua da. Ipuin batek hari zuzen bat izaten du barnean, ez dago galbiderik.
- 4) **Bukaera intentsoa**. Ipuin guztia bukaerako ekintza horretara begira dago. Bukaeran ezustea ageri da.
- 5) **Ekonomia**. Ipuina gauzak jarriz baino gauzak kenduz sortzen dela esaten da.

Azkenik, Aristiren hainbat aipamen ekarriko ditugu, bere idazteko moduaren helburuak zein diren ezagutzeko asmoz:

“Hitzak olioaren gainera botatzea eta han dantzan jartzea da nire helburu literarioa, nire ausardia bakarra munduan.”

“Nire egoera bitala gauzak etengabe zalantzan jartzea da, inertzia sozialaren aurka joatea: pentsamendua lantzea. Pentsamendua da gauza bat jendeak gutxi gorabehera 17 urterekin edo karrera amaitutakoan batzuetan, 23rekin lantzeari uzten diona; jarraitzen du pesak egiten, makillatzen... gorputzeko alor guztiak lantzen, eta adimena lantzeari uzten dio! Galera izugarria iruditzen zait; aberastasunik ederrena hor dago. Nire aldarrikapena pentsamendua astintzea da, nahiz eta batzuetan maiseatzailea naizela irudititu. Giharrak astintzeko, masajistak kolpeak ematen ditu. Ba, *ni pentsamenduaren*

masajista naiz, eta kolpeak eman nahi dizkiot jendearen pentsatzeko ahalmenari!” (*Argia*, 1989.)

Ikus daitekeenez, berak irakurleak gogoeta bat lantzera bideratu nahi ditu. Aristi gizartearekin nahiko kritikoa da: bizimodu erosoegiak bizi ditugu eta ez diogu errealitateari zuzenean begiratu nahi. Erosotasun horren inguruan bere helburua jendeari pentsaraztea izango litzateke.

Pako Aristi

Pako Aristi Urrestilan jaio zen 1963an. Kazetaritza ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta geroztik hainbat egunkaritan kolaboratu du: *Egin*, *Liberación*, *La voz de Euskadi*, *El faro de Vigo*. Horretaz gain, Euskadi Irratia, Herri Irratia eta Euskal Telebista-n ere aritu izan da. 1992 eta 1993. urteetan Rikardo Arregi kazetaritza saria jaso zuen.

Hogeita bi urte zituenean bere lehen nobela argitaratu zuen *Kcappo (tempo di tremolo)* (Erein, 1985). Nobela hau trilogia baten hasiera izan zen, ondoren *Irene (tempo di adaggio)*-k (Erein, 1987) eta *Krisalida*-k (Erein, 1990) osatu zutena.

Aristiren nobelek nobela beltzaren eragin nabarmena dute (Chandler-ena batik bat) eta baita Ipar Amerikako errealismo zikinarena ere. Euskal Herri mailan, berriz, neorruralismoaren adibiderik onenetakotzat hartu izan da. Trilogia honen ondoren, *Auto-stopeko ipuinak* (Erein, 1994) eta *Urregilearen orduak* (Erein, 1998) lana argitaratu zituen. Azken honekin Kritikaren Saria lortu zuen.

Poesiari dagokionez, Aristiren lanak hauexek izan ziren: *Iraileko ipuin eta poemak* (Elkar, 1989), *Castletown* (Erein, 1996) eta *Oherako hitzak* (Erein, 1998). Beranduago *Libreta horiko poemak* (Susa, 2003) izeneko poema-liburua

idatzi zuen. Handik urtebetera, *Gauza txikien liburua* (Erein, 2004) argitaratu zuen, bertan narrazioak, poemak, ipuinak... landu zituen. *Notebook* (Erein, 2005) izan da argitaratu duen azken lana.

Haur eta gazte literaturan ere aritu izan da. *Matinellok ez du kukurik entzuten* (Erein, 1985), *Zazpi pirata balsa batean* (Erein, 1988), *Azken lamiaren bila* (Erein, 1991), *Benetako lagunaren aterbea* (Ibaizabal, 1998) eta *Nemesioren itzala* (Elkar, 2005) lanak plazaratu zituen. Ensaioa dela eta, *Euskal kantagintza berria* (Erein, 1985) eta *Venezuela, iraultza isilaren hitzak* (Txalaparta, 2000) idatzi zituen.

Autorearen eragina duten hainbat korronte

Auto-stopeko ipuinak liburuaren azterketarekin hasi aurretik, Kazetaritza Berriaren azalpena ematea komenigarria iruditzen zaigu. Izan ere, Aristiren obrek Ipar Amerikako errealismo zikinaren eragina daukate, baina batez ere, Kazetaritza Berria deritzon korrontearena. Gaiak, pertsonaiak, espazioak... aztertzerakoan honen ezaugarriak kontuan hartu beharrekoak direla pentsatzen dugu.

Kazetaritza berria

Gaur egun Literatur Kazetaritza bezala ezagutzen dugun hau 60ko hamarkadan sortu zen AEB-tan *new journalism*, edo guretzako Kazetaritza Berria izenarekin. Aldaketa sozial eta kulturalak egon ziren garaian sortu zen hain zuzen ere. Truman Capote-ren *A sangre fría* izeneko lanaren ondotik sortu zen. Lan hau ez zen fikziozko nobela bat: elementu literarioak bazituen arren, kazetaritza ikerketari zegozkion elementuak ere nahasturik ageri ziren bertan.

Mugimendu honen erakusle nabarmenenak: Tom Wolfe, Norman Mailer eta Hunter S. Thompson izan ziren. Hala ere, *Operación Masacre* (1957) Rodolfo Jorge Walsh argentinar idazlearen obra aitzindaritzat har daiteke. Walsh-en obra honek Jack Kerouac-en estiloaren elementu batzuk ere hartzen ditu eta baita “beat generazioa”renak ere. Kazetaritza Berriak, berehala mundu guztiko kazetaritzara zabaldua izango zen iraultza bat ekarri zuen.

Kazetari hauek gertakariak jazotzen ziren tokietan murgildu egiten ziren, lekuko ezezagunak elkarrizketatuz, euren bizitzetan sartuz, galdera lotsagabeak eginez. Intimitatea eta sakontasuna uztartzen zituzten. Ez du informazio hotz eta objektiboa bakarrik ematen, gertaeren inguruko ikuspuntu propioa ematen du, nahiz eta ahalik eta objektiboen izaten saiatzen den.

Literatur Kazetaritza edo Kazetaritza Berriaren teknikak lau direla esan genezake:

- Kontaketa esenez esena eraikitzen da, literaturan egiten den bezala. Ez dira fikziozko lanak, benetan gertatu diren gertaerak baizik.
- Informazio-iturriak protagonista bilakatzen dira. Kazetariaren eta beraien arteko solasaldiak tartekatuz egiten dira testu barruan, literaturan egiten den antzera.
- Kazetari-lan hauetan narrazioa ikuspuntu desberdinen arabera egituratzen da (lehenengo zein hirugarren pertsona erabiliz).
- Elementu sinbolikoen presentzia nabaria da (pertsonaien nortasunari dagozkion keinuak eta irizkiak, besteak beste).

Sortu zen garaian berritzailea eta arau-hauslea bazen ere, ez zen idazteko era «berria» izan. Izan ere ordurako zenbait idazlek erabili zituzten antzeko teknikak: Daniel

Defoë, Ernest Hemingway eta George Orwell-ek adibidez eremu anglosaxoiean eta Gabriel García Marquez-ek Hego Ameriketara, esaterako.

Korrontehonenezaugarri nagusia fikziozko literaturaren errekurtsio eta teknikak eta ordurarte kazetaritza tradizionala zuzentzat jotzen ez zituen korronteak erabiltzean datza, beraz. Horregatik, erreportajeen, kroniken eta elkarrizketen narrazio moduetan berrikuntzak ekarri zituen kazetaritza berriak literaturari zegokion onena, kazetaritzari zegokion onenarekin nahasten baitzen. Horrela, mugimendu honek eragin nahi duen berrikuntza periodistikoa bi oinarritan bereizten da: estetika dimentsioa, hau da, kazetariak euren erreportajeak kontaketa edo narrazioak balira bezala irakurtzeko moduan idazten dituzte, errealdismo handiko elkarrizketak eta kaleko hizkera bat erabiliz; eta bestetik ikerketa. Azken honetan, ahalik eta informazio gehien erabiltzen saiatzen dira, kalera irten eta gertaeraren lekuan egoten saiatzen dira.

Euskal Herrian, teknika honen erabilera azaltzerakoan, *Oh! Euzkadi* aldizkaria aipatu behar dugu. AEB-tan hogeitau urte lehenago loraturiko inkonformismo bera loratu zen aldizkari honetan ere 80ko hamarkadan. Bertan plazaratzen ziren idazlanak ez ziren "ohiko" kazetari-lanak, beste "zerbait", baizik. Euskal gizartean orduan bizi zen momentu bereziak ere (Francoren heriotza nahiko gertu zegoen) zerikusirik handia izan zuen aldizkariaren edukietan eta formatuan. Ordutik hona euskal kazetaritzan idazleek duten presentzia handituz joan da, bai kuantitatiboki, baita kualitatiboki ere.

Nobela beltza

Nobela beltza AEB-tan sortu zen XX. mendeko lehenaldiko hamarkadetan, aldizkarietan zabaldu ziren

istorio poliziakoen aldaera gisa. Genero poliziakoetatik desberdintzen duena biolentzia gehiago izatea da. Autoreek garai hartako gizarte kapitalistaren produktu ziren gans-terren mundua eta krimenen mundua modu kritiko batez islatu nahi dute.

Genero mota honek XX. mendeko amerikar gizartea du eredu testuinguru ekonomiko eta soziopolitikoan. Gizarte honen ezaugarrietako batzuk hauexek dira: kultura masak edukitzea, ongizatearen eta kontsumoaren idealaren gorakada, baita garaipena, biolentzia, inmigrazioa eta negozio zikinak (alkohola, prostituzioa, apostuak...) ere. Giro honetan alkoholaren, jokuaren eta prostituzioaren inguruan trafikatzan duten bandak sortzen dira, administrazioko zenbait pertsonen baimenaren babesean. Mundu honen aurrean detektibe berri baten irudia sortzen da. Irudi berri hau bere kabuz eta poliziengandik aparte ibiltzen da.

Nobela beltzaren aitzindariak Raymond Chandler eta Dashiell Hammett izan ziren. Raymond Chandler-ek dioenez, "hilketaren artea da", krimenaren inguruko mundu profesionalaren nobela, hain zuzen ere. Bi faktoreen eraginez deitzen zaio horrela: batetik, jatorriz AEB-tako Black Mask aldizkarian eta Série Noire bilduma frantsesean argitaratu zelako; eta bestetik, giro "ilunak" agertzen direlako. Termino hau nobela poliziako mota batekin lotzen da, baina, nobela poliziakoaren helburu nagusia misterioaren argitzea bada ere, nobela beltzaren helburua misterio hori argitzeko modua izango litzateke.

Protagonista gehienak pertsonaia galtzaile eta gainbehera doazenak izan ohi dira, egia bilatu nahi dutenak.

Nobela poliziakoaren aldaera bat izanik, honen ezaugarri oso antzekoak ditu. Giro beldurgarri, biolento, injustu eta segurtasunik gabeak ageri ohi dira genero honetan. Krimenak gizakiaren ahulezietatik (amorrazioa, inbidia, botere-nahia, gorrotoa, pasioa...) abiatuta egiten

dira. Horregatik, hizkera gordinago bat erabiltzen da, non krimenaren analisiari baino ekintzari garrantzi handiagoa ematen zaion. Kontaketa mota honetan gaizkileak jaio diren gizarte horren deskribapena eta etika faltaren hausnarketa azpimarratu nahi da.

Auto-stopeko ipuinak liburuaren azterketa

Atal honetan *Auto-stopeko ipuinak* liburuaren azterketa egingo dugu. Horretarako, sei azpi-atal bereiziko ditugu: lehendabizi, gai nagusiak aipatuko ditugu; segidan, parates-tuak ikusiko ditugu; ondoren, testuartekotasuna; jarraian, narratzailearen azterketa egingo dugu; gero, pertsonaiena; segidan, denbora aztertuko dugu; espazioak; eta azkenik, estiloa.

Gai nagusiak

Auto-stopeko ipuinak liburuan 31 ipuin desberdin daude. Ipuin hauetan gai desberdinak jorratzen dituen arren, Aristik askotan erabili izan dituen gaiak nagusitzen dira hemen ere:

- **Bakardadea:** “Ehun gradutako bakardadea” eta “Escolta de tiburones”
- **Sexua:** “Kandela gorria”, “Papillons Noirs”, “Arrosa koloreko ahotsa”, “On the road” eta “Sasoi garaia amets”.
- **Maitasuna:** “Maitemintzea, benetan, zer den”, “Ipuinaren boterea”, “Belarritako bat kamapean”, “Aluzinazioak”, “Bai, nahi dut”, “Gutun urdinak”, “Olimpo Club”, “Gauero musu” eta “Bihotzaren seinaleak”.

- **Musika:** “Papillons Noirs” eta “Kapellmeister”
- **Heriotza:** “Lurrak irentsitako artxiboak”, “Non dira kotxeko giltzak”, “Amets baten bila”, “Loaren bezperan”, “Loak hartu zuen buzoa”, “Gauhontzek ikusi ez zutena”, “Suizidioa egunero hoska”, “Katakumeen bidaia” eta “Maleta bat hondarretan”.

Paratestuak

Liburu honetako ipuinak 31 pertsonaia desberdinek idatzitako informe bezala jasotakoak dira. Lan hau bidaia desberdinen bilduma bat izan daiteke: autoreak berak auto-stop egiten ari diren bidaiariak bere kotxean hartu eta haiek kontatutako istorioak biltzen ditu. Hortik ipuin-liburu honen izenburua: *Auto-stopeko ipuinak*.

Ipuin-liburu hau 29 ipuin eta 2 poema gisakoz osaturik dago. Hauek motzak dira (ez dituzte zazpi orrialde baino gehiago), Ipar Amerikako “short stories” egileen antzera.

Ipuinekin hasi baino lehen, ordea, aipu bat ageri zaigu:

*“Untzia hondoratu zenean, kaskoa erditik
hautsi zen, eta bere erraiak umeltasunera
agerian gelditu ziren, liburu bat eskuetan
hartu eta gure kuriositatera irekitzen
dugunean bezala.”*

SHELMA HUXLEY.

San Juan galeoiaren deskribaketa.

Aipu honen autorea den Shelma Huxley-k irudi baten deskribapena egiten du, eta ondoren irudi hori liburu ireki batekin konparatzen du. Ontzi bat hondoratu, erditik hautsi eta barnekoa azaleratu egin da, liburu bat erditik ireki eta gure kuriositatera, gure bizitzara irekitzen den bezala.

Ipuin bakoitzaren izenburua ezaugarri klabe bat da. Izan ere, Garcia Marquez-ek zioen bezala, ipuinaren hasie-

ran irudi bisual bat dago beti eta hasierako irudi fokal horren garapena da ipuina. Gure ustez, irudi bisual edo ideia nagusi hori maiz izenburuan ageri da. Horregatik, 31 ipuin hauen izenburuak aztertuko ditugu. Hauexek dira izenburuak:

1. "Maitemintzea, benetan, zer den"
2. "Parkinson"
3. "Lurrak irentsitako artxiboak"
4. "Kandela gorria"
5. "Papillons Noirs"
6. "Ipuinaren boterea"
7. "Non dira kotxeko giltzak"
8. "Belarritako bat kamapean"
9. "Arrosa koloreko ahotsa"
10. "Aluzinazioak" (poema)
11. "Ehun gradutako bakardadea"
12. "Amets baten bila"
13. "Bai, nahi dut"
14. "Distantziaren teorema berria"
15. "Loaren bezperan"
16. "Escolta de tiburones"
17. "Loak hartu zuen buzoa"
18. "Gutun urdinak"
19. "Oroitzapenik ederrena"
20. "Kapellmeister"
21. "On the road"
22. "Gauhontzek ikusi ez zutena"
23. "Olimpo Club"
24. "Suizidioa egunero hoska"
25. "Gauero musu" (poema)
26. "Hilean behin, azken igandean"
27. "Saso garaia amets"
28. "Bihotzaren seinaleak"
29. "Eluschka"

30. “Katakumearen bidaia”
31. “Maleta bat hondarretan”

Ikusten denez, ipuin eta poemen izenburuak motz samarrak dira, bi edo hiru hitz dituzte. Gehienak euskaraz badira ere, badira euskara ez diren beste hizkuntza batean agertzen direnak:

— “Papillons Noirs”

Frantsesez idatzirik dagoen izenburu bat da. Berezko itzulpena “tximeleta beltzak” da. Ondorengo hau esaten da ipuin honen hasieran izenburuaren inguruan:

“*Beltza ez da berez kolore bat. Esango nuke kolore guztien gabeziak uzten duen ezerezaren forma dela beltza* deitzen dugun hori. Horregatik iruditzen zait misterioitsua *Papillons Noirs* izenburuak proposatzen duen konbinaketa, airean kolore tantonak garraiatzen dituzten tximeleten eta koloreak ukatzen dituen beltzaren nahaspila. Baina bestalde, bizitza osoa eman diodan ofizioaren deskribapenik ederrena iruditzen zait; piano irakaslea naiz S. hiriko musika eskolan, eta benetan sinesgarria da pentagramako notak, batez ere arrasto okerrez ligatuak dauden sailak, tximeleta beltzak direla esatea, diseatuak egon arren bizitza hari bat gordetzen dutenak, eta gu garela, interpreteok, musika tresnei eraginez tximeletak berpiztu ditzakegun bakarrak, txontxongilo batez astinduko bagenu bezala, entzuleen bihotzetara sar daitezten. “(32. or.)

Beste alde batetik, liburuko 33. orrialdean argitzen duenez, *Papillons Noirs* 1837. urtean Schumannek Miss Ana Robena Laidlav emakumearen omenez idatzitako zortzi piezetako bat da. Ipuin honetan aitortzen den bezala, protagonistak bere miss bakarra izan den Milagros Maceda Canoren irudi desagertuaren omenez ikasten du pieza hau.

— “Escolta de tiburones”

Gaztelaniaz idatzirik dagoen ipuin baten izenburua da.

— “Kapellmeister”

Alemanezko hitz konposatu bat da: *kapelle* (latineko *capella* hitzetik eratorria; “orkestra” bezala itzul daiteke) eta *meister* (“maistru”, “nagusi”) hitzez osatua dago. Kapellmeister-a Errenazimendu eta Barroko bitartean esperientzia eta prestigio handia izan zuen musikaria zen. Kapellmeister-ak konposatu egiten zuen eta elizetan edo festa kortesanoetan ibiltzen ziren kantari talde edo musikari taldeak bildu eta zuzentzen zituen.

— “On the road”

Ingeleseaz dagoen izenburu bat da. “Bidean”, “errepidean” bezala itzul daiteke. Izenburu honek Aristik lan honi emandako izenburuarekin zerikusia eduki dezake: auto-stopa errepidean egiten da eta hemen biltzen diren ipuinak ere auto-stopetan bildutakoak dira.

Bestalde, *On the road* (1957) Jack Kerouac estatubatuarraren liburu baten izenburua dela aipatu beharra dago. Nobela hau barne-bakarrizketa baten antzera idatzirik dago eta Kerouac-ek eta bere lagunek AEB eta Mexikotik egin zituzten bidaietan oinarrituta dago. Liburu hau “beat” belaunaldiaren behin betiko obratzat hartu da.

— “Olimpo Club”

Izenburu honek idazteko modu bati egiten dio erreferentzia. Olimpianoendako idaztea bizitzeko era bat da.

Bestetik, izenburuetan izenlagunak (*-en*, *-ko*) maiz erabiltzen direla aipatu beharra dago: “Ipuinaren boterea”, “Arrosa koloreko ahotsa”, “Ehun gradutako bakardadea”,

“Amets baten bila”, “Distantziaren teorema berria”, “Loaren bezperan”, “Bihotzaren seinaleak”, “Katakumearen bi-daia”...

Honetaz gain, gauarekin eta iluntasunarekin lotutako elementuak-edo agertzen dira izenburu batzuetan: *noirs*, *amets*, *loa*, *gauhontza*, *suizidioa*.

Bestalde, ipuin batzuen bukaeran (“Ipuinaren boterea”, “Loaren Bezperan”, “Oroitzapenik ederrena”, “Olimpo Club” eta “Eluschka” ipuinetan eta “Aluzinazioak” poeman) hainbat ohar agertzen dira. Ipuin edo poemaren inguruko daturen bat ematen digute hauek: ipuina sariketaren batetik kanporatua izan dela edo norbaiten ideiak aldatzeko baliagarria izan dela, norbaiten omenez idatzitakoa dela, tesi baten epilogoia... Ohar hauetan egile inplizito baten markak ikus ditzakegu.

Ipuin hauek 31 pertsona desberdinek sinatzen dituzte, sinaduraren ondoan bakoitzaren lanbidea zehazten da. Lanbide hauen aipamenak ipuina hobeto ulertzen laguntzen du. Pertsonaien sinaduran eta lanbideen zehaztapen honetan egile inplizituaren marka ikus dezakegu.

“Gauero musu” poemaren sinatzailea *Sara Balasky* da. *Sara Balasky* Pako Aristiren heteronimoa da. Edorta Jimenezek Arisitiri eginiko kritika batean aipatzen du, Aristik berak azaldu zuela, heteronimo honen arrazoa halako joko sortzea dela, distantziarekin jokatzea, alegia. Beste lan batzuetako poemak, *Iraileko ipuin eta poemak* liburukoak esaterako, emakumezko izen honen sinadurapean ageri dira.

Testuartekotasuna

Auto-stopeko ipuinak ipuin-liburua hobeto ulertzeko, egokia iruditzen zaigu honako autore hauei buruzko zertxobait jakitea:

- **Shelma Huxley (1927-)**

Gorago aipatu bezala, liburuaren hasieran Shelma Huxley britaniarrak idatzitako aipu bat ageri da. Shelma Huxley XVI eta XVII. mendeko euskal itsas historiaren inguruko ikerketetan egindako lanengatik ezaguna da.

- **Tom Wolfe (1931-):**

Tom Wolfe kazetari eta idazle estatubatuarra da. Kazetaritza Berriaren aita dela diote. Errealismotik sortzen diren nobelen beharra ikusten du, eta *La hoguera de las vanidades* eta *Todo un hombre* izeneko bere lanek honen beharra baieztatzen dutela dio. Bere iturburuak ikerketa sakonago batzuetatik edo erreportajeetatik datoz.

Wolfen lanak hainbat arotatik pasa izan dira: 60. hamarkadan Pop kulturaren eragina jaso izan zuen; eta hurrengo hamarkadetan narzismoaren aurkako mugenduena.

Esan bezala, Tom Wolfe Kazetaritza Berriaren aita da. Kazetari hauek gertakariak gertatzen diren lekuetara mugitzen dira informazio bila elkarrizketak eginez, pertsonaiekin harremanetan jarriaz eta ondoren bere gertaeren inguruko ikuspuntu propioa ematen dute. Pako Aristiren zenbait ipuinetan ere hau antzeman daiteke:

- “Gauhontzek ikusi ez zutena” ipuinean, esaterako, Silvia Sota artxiberoak Fabio Paotxa borrokolariaren erahilketari zegozkion dokumentu batzuk aurkitzen ditu Urdiaingo udaletxeko sotoan eta hauek ikertzen hasten da, herrian izan ziren interpretazioak bilduz, epaiketari esandakoa bilduz... Eta horien inguruko ondorio propioak ateratzen ditu ahalik eta objektiboen izaten saiatuz.
- “Distantziaren teorema berria” ipuinean, berriz, psikologoak Migeliño elkarrizketatzen du, eta Migeliñoaren ondoan Rosa bere andereñoa dago. Rosak

Migeliñok esandakoak entzun eta bere arazoaren muina zein den ondorioztatzen du.

- “Maleta bat hondarretan” ipuinean, honako hau esaten da: “*Badakit Raymond Chandlerrek zer esango zukeen, alegia, gizon hura hondartzako jendartean ez antzematea esne-mamitara erori den tarantula urduria ez ikustea bezain zaila zela; baina nere inpresioa zorrotzagoa izan zen*” (200. or.). Hemen ikus daitekeen bezala, narratzailea ez da gertaera azaltzera bakarrik mugatzen, baizik bere inpresioaren berri ere ematen digu. Raymond Chandler nobela beltzaren aitzindarietako bat zena baino urrunago joan nahi da.

- **Jack Kerouac (1922-1969)**

XX. mendeko AEBtako autorerik garrantzitsuenetariko bat kontsideratzen zaio. “Beat belaunaldia”ren parte izandakoa da. Bere lanik ezagunenak *On the road* (1957), *Dharma Bums* (1958) eta *Big Sur* (1962) dira; AEBtatik egindako bidaiak kontatzen ditu hauetan. Bere obrek garai hartako balore tradizionalen ukatu eta existentzia azaltzeko arrazoiak bilatzen zituela erakusten dute. Bilaketa honetan droga lagun izan zuen maiz. Kerouac-ek maitasun istorioak goraiatu (larrua jotzea paradisuaren atarekin identifikatzen du) eta bere ustez, pertsona mingotsek bakarrik gutxiesten dute bizitza.

Aipatu bezala, *Auto-stopeko ipuinak* laneko ipuin batek “On the road” izenburua dauka eta honek liburuaren izenburuarekin ere zerikusia eduki dezake.

Pako Aristik maitasuna eta sexuaren gaia ere maiz aipatzen ditu:

“Existitzen ez den norbaitetaz maitemintzen gara beti. Pertsona horrek guk hala uste izan arren, barruan ez

duen zerbait maitatzen hasten gara, ustez bere izakeraren bizialdian somatu duguna.” (“Maitemintzea, benetan, zer den”, 8. or.)

“Ni ez noa bada hemendik zakila astindu gabe. (...) Bestalde neska bat zegoen biluzik, eta ondo borobildutako bere gorputz guriari bete-betea zetorkion ahots leun eta dardartiaz agurtu gintuen. Gerriak dantzatzu eta eskuak buru atzera eramanez sinatu zuen sedukzioaren hizkuntza, ondo menperatzen zuena” (“Arrosa koloreko ahotsa”, 64. or.).

“Zakil punta behatz artean estutu eta kirtenari eragiten hasten naiz neska ezagun bat gogoratuz. Ipurdi ederrak dauzka, baina aipagarriena bere titiak dira, txikiak, aurreratuak, jertsazpian puntak beti desafio bizian nabari zaizkionak.” (“On the road”, 141. or.)

Batzuetan maitasuna eta sexua nahastu egiten dituela esan daiteke.

• **Raymond Chandler (1888-1959)**

Raymond Thornton Chandler 1888. urtean jaiotako idazle estatubatuarra da. Nobela beltzaren aitetariko bat kontsideratzen dute. 27 poema idatzi zituen lehendabizi eta bere lehendabiziko errelatoa, *The Rose Leaf Romance* izan zen. Lehen Mundu Gerran parte hartu zuen.

Chandler-en estiloa ironiko eta zinikoa da. Garai hartako gizarte amerikarra kritikatu zuen maiz, baita bere ustez, gizakien harremanen giltza nagusia ziren botere nahia eta dirua ere. *El simple arte de matar* (1950) bere nobelarik ezagunenetako bat da. Bertan nobela poliziakoaren artearen inguruko hausnarketa bat egiten du.

Pako Aristiren laneko 200. orrialdean, “Maleta bat hondarretan” ipuinean, aipamena egiten zaio. “*Badakit Raymond Chandlerrek zer esango zukeen, alegia, gizon hura*

hondartzako jendartean ez antzematea esne-mamitara erori den tarantula urduria ez ikustea bezain zaila zela; baina nere inpresioa zorrotzagoa izan zen”

- **Woody Allen (1935-):**

Woody Allen zinema zuzendari, gidoilari, idazle, aktore eta musikari estatubatuarra da. Liburu honetako 16. orrialdean bere aipamen bat ageri da:

“Nor da Woody Allenen teoria hura erabiltzen duena, zinean hasi zela bere gustuko pelikularik egiten ez zelako dioena, bere lana justifikatzeko? A bai, Ruper. (...) Hemen badirudi teoria batek belaunaldi askori ematen diola zer esana, baina Ruper bat eta bakarra da, Woody ere bai, eta ni aldiz ez naiz inor asko.” (“Parkinson”, 16. or.).

Auto-stopeko ipuinak liburuan, Aristik desamodioaren gaia hainbat aldiz aipatzen du eta gai hau tratatzeko moduak Woody Allen-en September filma gogora ekartzen du. Aristiri egindako elkarrizketa batean *Iraileko ipuin eta poemak* lanaren izenburuak September filmaren izenburuarekin lotura daukala aitortu zuen. Liburua pelikula ikusi baino lehenago pentsatuta egon arren, pelikula ikusi ondoren liburuari September deitzea bururatu zitzaiola baieztatzen du Aristik.

Narratzailea

Pako Aristik fikziozko idazle batzuen ipuinak biltzen ditu ipuin-liburu honetan. Kontaketa bakoitzaren bukaeran fikziozko idazle horren sinadura ageri da. Sinatzaile hau batzuetan kontaktzen duen istorioko pertsonaia bat da, protagonista zein bigarren mailakoa. Protagonista denean, narratzaile autodiegetiko bat dugu; narratzailea kontakizunaren barnean kokatzen denean, baina bere istorioa

kontatzen ez duenean, narratzaile homodiegetikoa dugu; beste batzuetan, berriz, narratzailea istoriotik kanpo kokatzen da, honi narratzaile heterodiegetikoa deitzen diogu.

Normalean, narrazioa maila intradiegetiko batean dago kontatuta, hau da, gertaeren maila batean. Hala ere, narrazio horren barruan kokatzen den beste narrazio bat maila metadiegetikoan legoke. Ipuin gutxi batzutan, maila estradiegetikoan dagoen narrazioa ere ageri da.

“Papillons Noirs” ipuina, adibidez, narrazio maila intradiegetiko batean kokatzen da: sinatzailea, Enrike A.M., berari gertatutakoak kontatzen ari da eta beraz, gertaeren maila batean kokatzen da. Horretaz gain, narratzailea bera istorioaren protagonista denez, narratzaile autodiegetiko baten aurrean gaudela esan dezakegu. Berdina gertatzen da “Kandela gorria”, “Belarritako bat kamapean”, “Aluzinazioak” poeman, “Amets baten bila”, “Escolta de tiburones”, “Oroitzapenik ederrena”, “On the road”, “Suizidioa egunero hoska”, “Hilean behin, azken igandean”, “Sasoi garaia amets”, “Katakumeen bidaiia” eta “Maleta bat hondarretan” ipuinetan ere.

Beste ipuin batzuetan, aldiz, bi narrazio maila bereiz daitezke: intradiegetiko eta metadiegetikoa. Maila metadiegetikoan dagoen narrazioa da istorioaren muina. Adibidez, “Gutun urdinak” ipuinari, narrazio maila intradiegetiko batekin ematen zaio hasiera:

Baina, nire abokatu bizitza gaztean jaso dudan kasurik bitxienetariko batek ulertarazi dit garai batean gutunek zuten benetako garrantzia, ez bizitza pribatuan soilik, baizik herri oso baten etorkizunean...

Adibide honetan ikus dezakegunez, Xabin abokatuak materiala gutunak diren kasu bat du eskuartean eta gutun horietan oinarritzen den istorioa kontatzen digu. Gutun hauetan kontatzen dena, narrazio maila metadiegetiko ba-

tean egongo litzateke. Maila honetan kokatzen den istorioak, maila intradiegetikoan kokatzen den istorioari zentzua ematen dio. Hauxe bera gertatzen da beste ipuin hauetan ere: “Parkinson”, “Lurrak irentsitako artxiboak”, “Ipuinaren boterea”, “Gau hontzek ikusi ez zutena” eta “Ehun gradutako bakardadea”.

Bestalde, honekin guztiarekin zera esan nahiko genuke: narratzaile batek berea ez den beste narrazio bat kontatzean, narrazio edo istorio horren egiazkotasuna zalantzan jartzera eramaten gaitu, hau da, maila metadiegetiko batean dagoen narrazio hori ez dakigu zenbateraino den egia. Narratzailearen agnostizismoa ikus dezakegu. Adibidez: “Lurrak irentsitako artxiboak” izeneko ipuinean, Marina izeneko neska bat da narratzailea, eta honek baserri baten desagerpenaren inguruko kontaketa bat egiten du. Desagerpen hau bi mende lehenago gertatu zen, eta udal artxibategian istorio honen inguruko hainbat datu agertzen diren arren, narratzailea herritarrengana joaten da datu gehiagoren bila. Kontuan izan behar genuke herritarrak ez direla gertatutakoaren lekuko zuzenak. Beraz, irakurleok zer sinetsiko dugu artxiboetako bertsoia ala herritarrena? Hau da, ofiziala ala ahozkoa?

Atal honi amaiera emateko, narratzaileak bere hausnarketak egiten dituenean 2. pertsona edo 1.ºgo pertsona plurala erabiltzen du eta narratarioari zuzentzen zaiola azaldu nahi genuke:

“Zirkulo biziotsuak edo dena delakoak uste gabe sortzen dira, eta gerotxo arte zure bizitza horien arabera antolatzen duzu, konturatu gabe (...) gauean, argi zaude, eta atsegina edo zerbait eskaini dezakeen emakumerik ez badaukazu, ez duzu oheratzeko arrazoirik ikusten” (“Parkinson”, 16 .or.)

“Hurbil dagoenean amodioak asemena dakar; falta denean pena. Maitasuna, bizi eta galdu ondoren bila-

katzen da erromantikoa, istorio osoa norbaiti kontatzen diogunean” (“Papillons Noirs” 33. or.)

“No tengo nada para cuando salga, ya que todo lo perdí a cambio de nada, eso sí no me siento arrepentido porque tuve valor para intentarlo, porque existe el valor fácil que ese el del tiro de pistola, el apretar el gatillo jugando con las vidas ajenas, pero el valor difícil y el verdadero ese el tirar tu propia vida al mar en una cámara de aire, jugar con tu propia vida y poner en serio peligro tu amor por la existencia” (“Escolta de tiburones”, 109. or.)

Honelako hausnarketak ipuin gehienetan ageri dira. Bertan lehen aipatu bezala narratzailea narratariorari zuzentzen zaion arren, zenbaitetan posible da Pako Aristiren oihartzuna egon ahal izatea. Oihartzun hau egotekotan, egilea irakurleari zuzenduko litzaioke.

Pertsonaiak

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, sinatzaile gehienak ipuinetako pertsonaiak dira. Sinatzaile hauek emakumezkoak, gizonezkoak, gazteak, helduak, etab. dira. Hala ere gehienak letren mundukoak dira, hau da, ikasketadunak dira: psikologoa, filologiako ikaslea, kazetaria, idazkaria, apaiza, Negreirako andereñoa, liburutegiko arduraduna, objetorea eta pedagogian lizentziatua, BBB-eko ikaslea, zuzenbideko ikaslea, artxiberoa, abokatua, gertakarietako kazetaria, herriko maestra eta historigilea.

Agertzen diren sinatzaile hauen izenak gazteleratik hartuak dira gehienak bai gizonezkoenak eta baita emakumezkoenak ere. Izenetan oinarrituz, berrogei urtetik gorako pertsonaiak direla pentsa genezake: Elvira, German, Lupe, Joaquim, Faustino, Rolando, Paulino, Pakito, Esteban, Gracia, Fermin, Enrike...

Bukatzeko, bitxikeri gisa, “Hilean behin, azken igandean” ipuinean, Pakito izeneko organujole bat agertzen da. Pako Aristik ere organua jotzen du igandero elizan eta pertsonaia hau berarekin erlaziona daiteke.

Espazioa

Espazioei dagokienez, denetarik aurki dezakegu: espazio itxi nahiz irekiak, hurbilak nahiz urrunak... Baina guztiak espazio errealak dira.

Ipuin askotan espazio batetik besterako bidaia ikusi dugu:

- “Non dira kotxeko giltzak” ipuinean, Jenaro Romara izeneko idazle italiarra Euskal Herriko kostaldeko herri batera etortzen da.
- “Bai, nahi dut” ipuinean, Huelvara bidaiatzen du Rikardok
- “Gutun urdinak” ipuinean, Buenos Aireserako bidaia agertzen da.
- “On the road” ipuinean, berriz, Mikel Bilbora joaten da kamioian.
- ...

Bidaiak ugariak izanik garraiobideak ere maiz ageri dira: kamioia, trena, motoa, autobusa, autoa... Eta honekin loturik tren eta autobus geltokiak eta baita portuak ere.

Herri eta hiriei dagokienez, Euskal Herriko hainbat txokotan kokatzen dira ipuin gehienak: Urdiain, Iruñea, Bilbo, Zumarraga, Orio, Azkoitia... Hala ere, ipuin batzuetan Espainiako zenbait leku ere aipatzen dira: A Coruña, Huelva, Vila Real, Cadaques, Castilla, Madril... Atzerriko hainbat herrialderi buruzko aipamenak ere badaude: Argentina, Persia, Afganistan...

Itsasoa bera ere maiz agertzen den espazioa da. Ipuin gehienetan arriskua eta iluntasunaren isla da: istripu askoren gertalekua da, “Non dira kotxeko giltzak” eta “Loak hartu zuen buzoa” ipuinetan esaterako; distantziaren adierazle “Gutun urdinak” ipuinean; eta azkenik “Escolta de tiburones”-en itsasoan bertan harrapatzen ditute Rolando eta bere kideak.

Espazio irekiez gain, espazio itxiak ere ageri dira: “Kandela gorria” ipuina etxe batean gertatzen da, “Papillons Noirs” gela batean, bulegoan “Ipuinaren boterea”...

Estiloa

Pako Aristiren estiloa dela eta, zuzena eta gordina dela esan dezakegu. Horretaz gain, kaleko hizkera erabiltzen du. Azken hau Kazetaritza Berria izeneko mugimenduaren ezaugarrietako bat ere bada. Kaleko hizkera honen erakusgarri hainbat ipuinetan ikus ditzakegun *puta*, *marikoi*... bezalako hitzak dira. Baita zenbait adierazpen ere: *neska odolaren izuaz betetzen da, ni orro ozenez husten naizen bitartean* (“Papillons Noirs”, 37. or.); *Lurruna zerion zimauroari. Eskuaz gainaldea jaso, eta han utzi zuen umea, mortzilo zikinaz ondo estalia eta zapaldua. (...) Zimaurretan desegin ondoren, seinaren haragi samurrak etxaldeko lurrak gozatuko zituen...* (“Bihotzaren seinaleak”, 184. or.).

Aristik mezu bat adierazteko gogoia erakusten du ipuin batzuetan, irakurleari hausnarketarako bidea zabaltzen dio. Eta bere lanetan, baita honetan ere, gizartearen salaketa bat egin nahi du, sarreran aipatu dugun bezala: “Parkinson” izeneko ipuinean, pertsona helduei ematen zaien tratu txarra salatzen du; “Kandela gorria”-n, prostitutekiko aurreiritziak; “Amets baten bila” ipuinean atzerritarren egoera salatzen du; “Olimpo club”-ean, berriz, status sozial altuko pertsonak salatzen ditu, besteak beste.

Ondorioak

Auto-stopeko ipuinak liburua aztertu ondoren, atal honetan bertatik ateratako ondorioak azalduko ditugu.

Batetik, ipuinen ezaugarriei erreparatuz gero, ipuin hauek sarreran aipatu ditugun ezaugarriak betetzen dituztela ikus dezakegu. Batetik, narratiboak eta fikziozkoak direla ikus dezakegu, hau da, pertsonaien gertaeren bilketa bat da; fikzioarekin eta errealitatearekin lotura dute ipuinek. Bestetik, ipuinak motzak dira, honek intentsoa izatea dakarrelarik. Hirugarrenik, ipuinek barnean duten hari zuzen bati jarraitzen diela ikus dezakegu. Laugarren ezaugarria bukaera intentsoarena da, ipuin guztia bukaerako ekintza horri begira dago. Eta azkenik, ekonomiarena, ez dago soberan dagoen inongo elementurik.

Ipuin-liburu honen eraginak aipatu behar izanez gero, nagusiki Kazetaritza Berriaren eragina duela esango genuke, nahiz eta nobela beltzaren hainbat teknika ere erabiltzen dituen. Horrela, ipuin askotan ikusi dugun bezala, protagonista informazio-iturri bilakatzen da. Ahalik eta informazio gehien erabiltzen da, kalera irten, dokumentuak biltzen dira... Bestalde, errealismo handiko elkarrizketak eta kaleko hizkera nagusitzen dira.

Kritikak

- Juan Luis Zabala/ *Euskaldunon Egunkaria*, 1994ko maiatzaren 1a

Juan Luis Zabalak dioenez, liburu honek gure bizitzari edo gure gizartearen inguruko galdera iradokorrak planteatzen dizkigu.

Aipatzen duen bezala, Aristik lan honetako kontaketa askotan indar adierazkor biziko irudiak izan ditu abiapuntu. Beste ipuin batzuetan, lanbide edo status sozial jakin batek

emandako ikuspegiak baliatu da irakurlea gizarteari edo bizitzaren inguruko gogoeta bideratzeko.

Zabaleren iritziz, Aristi orekatu eta helduago bat ageri da liburu honetan, eta bizitzari eta gizarteari modu kritiko, zorrotz eta pertsonalean begiratzeko gaitasuna bizirik gordetzen duela azpimarratzen du.

Bestalde, hizkuntza aurreko liburuetan baino gehiago (batzuetan gehiegi) landu duela aipatzen du. Erregistroari dagokionez, pertsonaia-kontalari bakoitzari erregistro berezi eta partikularra eman ez badio ere, aipamen, konparazio eta hitz joko ederrez hornitutako prosa zaindu eta adierazkorra landu duela esaten du.

Bukatzeko, Zabaleren ustez, Pako Aristiren idazlanik gehienek irakurlea harritu eta irribarrea ezpainetan uzteko gaitasuna dute; txinparta berezi bat dute.

• **Itxaro Borda/ *Argia*, 1994ko azaroaren 6a**

Itxaro Bordaren iritziz, Aristik liburu honetako ipuin gehienetan “menturarekin”, ez-beharrarekin,... jolasten du. Aipatzen duenez, liburuaren autoreak irakurlearen sentimenduak nahasi eta irakurlearen gogo lasaia “zirikatu” nahi izan ditu.

Bordak dioenez, ipuinetan instanteak, giroak, oroitzapenak, memoria kolektiboa larrutzen duten minen oihartzunak, bitxikeriak, jarrera sadikoak... ekarri nahi izan ditu Pako Aristik.

Azkenik, hizkuntzari dagokionez, iparraldeko zein hegoaldeko esamolde desberdinak erabiltzen dituela aipatzen du, hauen artean oreka “harrigarri” bat bilatuz.

• **Felipe Juaristi/ *El Diario Vasco*, 1994ko maiatzaren 14a**

Felipe Juaristik dioenez, *Auto-stopeko liburuak* lanean agertzen diren ipuinak motzak dira, eta bertan jorratzen diren gaiak ugariak dira.

Bestalde, Juaristiren iritiz, 31 ipuinak fikziozko idazle desberdinek idatzi badituzte ere, idazle hauei doinu bat eta bera eman die Aristik. Eta hau liburuaren akatsik handiena dela esaten du, ipuinak egile berak idatzi dituela nabaritzen baita. Hala ere, maila handiko ipuinak ere badirela aitortzen du, idazlearen begirada samurra daukaten ipuinak.

Iritzi pertsonala

Bukatzeko, *Auto-stopeko ipuinak* liburuarekiko gure iritzi pertsonala emango dugu. Gure ustez, liburu hau partxadaz irakurtzeko liburu bat da. Ipuin gehienetan agertzen diren hausnarketak pentsatzeko denbora bat eskatzen dutela uste dugu. Aristik ukitzen dituen gaiak eguneroko bizitzan aurkitzen ditugunak dira eta erabiltzen duen estiloa zuzena da. Honek istorioak hurbilak izatea eragiten du eta erabiltzen duen hizkera urbanoak ere hurbiltasun sentsazio hori areagotu egiten du.

Hala ere, Felipe Juaristirekin ados gaude, ipuinak egile bat eta berak idatzi dituela nabaritzen dela esatean. Idazleak emakumezkoak, gizonezkoak, pertsona helduak zein gazteak izan, estilo bera erabiltzen du Aristik.

Bestalde, ipuinak motzak izateak liburua erraz irakurtzen laguntzen duela pentsatzen dugu. Moztasun horrek ipuinari intentsitatea ematen dio eta ipuinetako punturik intentsoenak bukaerak direla aipatu dugu lehenago ere. Hori dela eta, gu behintzat, bukaera noiz iritsiko zain egon gara eta pentsatzen beste irakurleei ere gauza bera gerta dakiekela.

Oro har, ipuin liburu hau gomendagarria dela iruditzen zaigu, gaien aniztasuna eta gai hauek tratatzeko moduak entretenigarri egiten baitu irakurketa.

Bibliografia

ARISTI, Pako (1994): *Auto-stopeko ipuinak*. Erein, Donostia.

Ikastaroko apunteak 2010.

<http://www.argia.com/argia-astekaria/1253/pako-aristi-prosa-ezin-hirira-ekarri-erruralak-dituk-buruan-ditudaneskemak>

www.armiarma.com

www.euskonews.com/0195zbnk/gaia19502eu.html

www.wikipedia.es

Eider Rodriguez: *Eta handik gutxira gaur*

(2004)

*Maialen Arnedo Gaztelurrutia
Garazi Rota Villanueva*

Sarrera

Esku artean duzun lan hau Eider Rodriguezen lehenengo ipuin liburuaren azterketa xume bat da. Bagara irakurle batzuk, ipuinaren generoan murgildu eta honetaz disfrutatzeke aukera izan dugunak. Horixe da Eider Rodriguezen lanarekin gertatu zaiguna. Duela gutxi ezagutu genuen Rodriguez eta bere lanak ezagutzeko nahia piztu zitzaigun berehala. Horrela, *Haragia* (2007) irakurri genuen lehenik nahiz eta bere bigarren ipuin-liburua den. Honek sorturiko zirrara kontutan harturik bere lehenengo liburuan murgiltzeko desioak areagotuz joan ziren. Eta halaxe hasi ginen, *Eta handik gutxira gaur* deskubritzen. Honek gugan eragindako ez zen edozelangoa izan eta gure nahia, hau sakonago aztertzea izan zen.

Beraz, bi arrazoi nagusi izan ditugu aukeratu berri dugun bidetxo honetan aurrera jarraitzeko. Batetik, ipuingintzari diogun miresmen eta errespetua eta bestetik, Eider Rodriguez ezagutzen jarraitzeko gogo.

Gogoz beterik geure bidetxoa ireki eta lanari ekin genion. Pertsonen arteko harreman ugari ezagutuz hasi

genuen geure bidaia. Aurrerapauso batzuk emanda genituelarik, mina eta bakardadea bezalako sentimenduak sentitu ahal izan genituen irakurritako letren bitartez. Bidean geure metrotxoak eginda genituela, denbora zeinen azkar igarotzen den ikusi genuen, liburua irakurtzen geundela denbora zeinen azkar pasatzen den konturatu gabe. Eta aurrera jarraituz, helmugarantz iristen joan ginen. Pausotxo bat lehenik, salto txiki bat gero, handiago bat jarraian eta azkeneko korrikaldia ondoren. Eta iritsi ginen, iritsi ginen emakume izatearen kontzientzia benetan sentitu eta indartzera, monotonia hausteko nahia sentitzera, askatasunaren aireaz gozatzera bakarkako momentuetan.

Agian zuk, irakurle, ez duzu gure sentipen bera izango. Agian beste sentimendu batzuk eragingo dizkizu liburu honen irakurketak baina, hori da, azken finean, literaturaren jokoa: irakurketa ezberdinak, interpretazio ugariak, askotariko iritziak.

Guk Eider Rodriguezen lanaren berri eman dizugu eta orain zure eskuetan geratzen da gure gomendioa aintzat hartzea. Liburua irakurri eta zure gustukoa ez bada, etxeko izkinaren batean utzi eta ahaztu egingo duzu baina, kontrakoa gertatzen bada gure lantxoa ezagutzeko gonbita egiten dizugu. Betiere aberasgarria baita ikuspuntu ezberdinak ezagutuz literaturaz gozatzea. Ez duzu uste?

Eider Rodriguez

Eider Rodriguez 1977ko maiatzaren 18an jaio zen. Oreretan (Gipuzkoa) jaio zen eta gaur egun Hendaian bizi da. Ikus-entzunekeo Komunikazioan lizentziatua da. Horren ondoren, 2000 eta 2003 urte bitartean, Madrilgo Unibertsitate Complutensean dokteregotza egin zuen. Urte berean, 2000. urtean, Estetika eta Zinemaren historian matrikulatu zen Valladolideko Unibertsitatean eta urtebete

lehenago Pariseko Sorbonne Nouvelle Unibertsitatean, Zinema eta komunikazioa ikasi zuen.

Emakume gaztea izan arren, idazteaz gain, hainbat lanbidetan ibili izan da. Alde batetik, kazetaria da eta literaturaren inguruko zenbait artikulua eta erreportai kaleratu ditu aldizkari ezberdinetan. Gaur egun, *Hitzak eta ideiak* eta *The Blade* aldizkarietan idazten du eta baita iritzi artikulua, *Berria* egunkarian ere. Bestetik, gidoigile moduan zenbait lan egin ditu. “25 urte korrikan” dokumentalean gidoigile eta zuzendaria izan zen Eriz Zapirainekin batera. 2006-2007. urteetan *Sautrela* telebista saioko gidoigilea izan zen. Honetaz gain, editore bezala ere lan egin du Eiderrek. 2001-2006 urte bitartean, Txalapartako editorea izan delarik. Hasiera batean, gaztelerazko errekopilazioen produkzio arduraduna izan zen, eta horren ostean, euskal errekopilazioen arduraduna.

Itzultzaile lanetan ere ibili izan da oretarra eta hauek izan dira bere lanekin batera Eiderrek argitaratutakoak:

- *Irakurri* («Irakurketaren biografia»), recopilación de ensayos, Meettok, 2008.
- *Haragia*, Susa, 2007.
- *Y poco después ahora*, Tarttalo, 2007.
- *Cuatro cicatrices*, Atenea, 2006.
- Irene Nemirovsky-ren *Dantzaldia* lanaren itzulpena, Txalaparta, 2006.
- *Ametsen baratza*, Elea, 2005, “Arima gazteak” ipuina.
- *Eta handik gutxira gaur*, Susa, 2004.
- *Marihuanazko bufandak*, Txalaparta, 2002, «Déjà vu» ipuina.
- *Erretereria Hiria ipuin lehiaketa*, Ereintza, 2001, “Bellevue” eta “Ilusioaren ilusioaz” ipuinak.
- *Katu jendea*, Elkar, 2010.

Zerrenda honetan Eiderrek idatzitako hiru ipuin liburu aurki ditzakegu. *Eta handik gutxira gaur*, gerora gaztelerara itzuli dena, hiru urte beranduago, 2007an argitaratutako, *Haragia*, eta aurten kaleratu berri den *Katu jendea*. Alderdi hau da Eiderri buruz gehien interesatzen zaiguna, Eider idazlea, eta jarraian bere lehenengo ipuin liburu horren azterketa egingo dugu, *Eta handik gutxira gaur* ipuin-liburuaren azterketa alegia.

Liburuaren datu orokorrak

2004. urtean Susak argitaratutako liburua dugu *Eta handik gutxira gaur*. Eider Rodriguez, Joseba Jaka IV. Literatur Beka irabazi zuen eta honen ostean ipuin-liburua argitaratu zuen oreretarrak.

Idazlearen lehenengo ipuin-liburua da eskuartean dugun hau. 158 orrialde dituen lan honek Joseba Sarrionandiaren hitzaurrea du hasieran eta hitzaurre honetako zati-txo bat da kontraportadan ageri dena. Liburuko azalari dagokionez, aipatu beharra dago, Lourdes Sanchezek egini-koa dela.

Eider Rodriguezek liburu hau euskaraz idatzi bazuen ere, gerora gaztelaniara itzuli du eta 2007. urtean argitaratu zuen lehen edizioa: *Y poco después ahora*. *Eta handik gutxira gaur* osatzen duten 16 ipuinez gain, Joseba Sarrionandiaren hitzaurrea ere dago itzulita.

Y poco después ahora Ttarttalo argitaletxearekin argitaratutako ipuin-liburua dugu hau. Itzulitako lan honetako zenbait narrazio aurrez argitaratzeko aukera izan zuen idazleak Atenea argitaletxearekin. Lau narrazio izan ziren argitaratutakoak eta Eider Rodriguezek *Cuatro cicatrices* izena jarri zion hauekin osaturiko lanari. Aipatu beharra dago, lan honek ere baduela hitzaurrea eta hau Jon Kortazarrek idatzirikoa dela.

Egitura

16 ipuinez osaturiko liburua da. Gehienek 8-10 orrialde dituzte gutxi gora-behera, salbuespenak salbuespen. Hala nola, lehenengo ipuina (*Eta handik gutxira gaur*), 17 orrialde dituena eta zortzigarrena (*Zu eta Iban*), 4 orrialdetako.

Ipuin bakoitza ezberdin egituratuta dago. Batzuk narrazio hutsa diren bitartean beste batzuk, elkarrizketa eta kontaketa uztartzen dituzte. Badira gutun zatiak eta narrazioa nahasten dituztenak. Goazen bada liburu honetan antzematen diren egiturak egitura banan-banan aztertzea. Betiere, argiago ikusiko dugulakoan.

• Egitura lineala

Liburu hau osatzen duten hamasei ipuinek dute egitura lineala, azkenengo istorioak salbu.

Hazira itzultzea ipuinean Elena protagonistak bere mutil-lagunarekin pasatako momentu bat jasotzen da, aita ere agertzen delarik. Ondoren egoera hau desagertu eta honen aurreko beste bat kontaktzen da. Hau ere desagertu egingo da eta hau baino lehenagoko beste egoera bat kontaktzen da. Horrela istorioak aurrera egingo du atzeranzko denbora lineal bat jarraiturik.

Gainontzeko ipuinek egitura lianeala dutela esan dugu, horren adibide da *Susana, gudaria eta poeta* ipuina. Bertan, Susanak Madrilgo kartzelara egiten duen bidaia eta bertan gertatutakoa kontaktzen da. Beste adibide garbi bat, Puntu suspentsiboak istorioa izango litzateke. Ipuin honetan, emakume batek goiz batean egiten duena azaltzen da, eta ekintzak gertatu ahala kontaktzen dira.

Ipuin ia guztiek egitura lineala jarraitzen dutela esan arren, ipuin askotan analepsiak eta prolepsiak ere ageri direla aitortu beharra dago. Adibide bat jartzekotan *Eta handik gutxira gaur* aipatu daiteke. Ipuin honetan analepsia egiten da; aitonak gerra garaiko gertaerak kontaktzen ditu.

• Bi istorio paralelo

Bi istorio paraleloren uztartzea oso baliabide literario erabilia da liburu honetan. Hau da, zenbait ipuinetan bi istorio paralelo kontatzen dira denbora berean. *Eta handik gutxira gaur*-en adibidez hau gertatzen da. Alde batetik, aitonaaren gerra garaiko kontakizunak eta bestetik hori oroitzen duen momentuko kontakizuna kontatzen dira.

Bi istorio uztartzerako orduan, letra ezberdinak erabiltzea oso arrunta da eta Eiderrek ere, hainbat ipuinetan letra etzanera jo du istorio paraleloak kontatzeko garaian. *Sexu usaineko gezurrak* ipuinean esaerako, oso argi ikusten da bi kontaketa paralelo egiten direla. Lehenengoa protagonistaren kontakizuna izango litzateke eta bigarrena oster, bere mutil-lagunak idatzitako testu zatiek osaturikoa, azkeneko hau letra etzanean idatzia.

Beste adibide bat jartze aldera, *Juanluis eta kilimakurrak* nabarmentzekoa den, ipuina da. Bertan, protagonistak bere bizitza errealean gertaturikoa kontatzen du eta bestalde, bere imajinazioak sorturiko kontakizuna letra etzanean egiten da.

• Narrazio hutsa

Ipuin batzuetan narrazio bidez baino ez dira gauzatzen kontakizunak. Horren adierazle garbi dira: *Sofako amodioak*, *Bellevue*, *Anai artea*, *Zu eta Iban*, *Juanluis eta kilimakurrak*, *Chiapasko beroa*, *Galtzerdiak* eta *Yolanda eta aulkiak*.

Aipaturiko istorio guzti hauetan ez da elkarrizketarik tartekatzen. Hala ere, *Bellevue*-ren kasua nahiko berezia da. Ipuin honetan, protagonistak bere gurasoak hil zireneko garaiaz oroitzen denean, zenbait elkarrizketa gogoratzen ditu baina hauek narrazioaren barruan aurkitzen dira.

- **Narrazioaren eta elkarrizketaren uztarteza**

Narrazio hutsez osaturiko istorioak dauden moduan, elkarrizketa uztartzen dutenak ere badaude. Esan beharra dago, ipuinetan zehar ageri diren elkarrizketetan, bertan parte hartzen duten pertsonaien arteko talkak gertatzen direla. Hau da, pertsonaia horiek dituzten ikuspuntu edo iritziak kontrajartzen dira.

Elkarrizketa ondorengo ipuin hauetan txertatzen da: *Eta handik gutxira gaur; Politika albisteak; Puntu suspentsiboak; Susana, Gudaria eta Poeta; Calle de la Providencia, Peio aireportura bidean; Sexu usaineko gezurrak eta Hazira itzultzea.*

Peio aireportura bidean ipuinean elkarrizketa etengabe ageri da. Esan genezake, narrazioak baino garrantzia handiagoa hartzen duela elkarrizketek istorioaren norabidea markatzen baitute.

Susana, Gudaria eta Poeta kontakizunaren kasuan aldiz, ezin genezake berdina esan. Nahiz eta elkarrizketa narrazioarekin batera ageri den, bigarren hau gailentzen da nabarmen.

Eta handik gutxira gaur ipuinari erreparatuta, elkarrizketak narrazioan uztartu egiten dira, baina oraingoan ordea, elkarrizketaren bitartez bestelako intentzioa erakusten du Rodriguezek. Ipuin honetako narrazio atalak, aitoren oroitzapenei dagozkio, eta elkarrizketak aldiz, iraganeko kontuak gogoratzen dituen garaiari.

- **Atalka bereizitako ipuinak**

Atal honen barruan bi azpiatal bereiztea ezinbestekoa da. Alde batetik, idazleak berak izenbururen bitartez markaturiko atalez osaturiko kontakizunak daude eta bestetik, istorio beraren baitan aurki ditzakegun atalez osaturikoak. Azken hauek izango lirateke bi istorio paralelo uztartzen dituztenak.

Idazleak atal ezberdinetan banatu dituen istorioak hurrengo hauek dira: *Politika albisteak*, *Sofako amodioak* eta *Bellevue*.

Lehenengoaren kasuan zortzi atal bereizten dira. Atalak zenbakien bitartez daude banatuta. Lehenengo atalak 1 zenbakia du, bigarrenak 2, etab.

Sofako amodioak ipuinean hamar atal bereiz daitezke. Atal bakotza istorio txiki bat da baina, aurrekoan ez bezala, izenburudunak dira. Ez daude zenbakien bitartez antolatuta. Izenburu gehienak pertsonen izenak dira (hamarretik zortzi), kontakizunen protagonista diren pertsonaien izenak, hain zuzen ere. Beste bi izenburuak hauexek dira: *Argitasuna* eta *Objektiboki*. Bi izenburu hauek garrantzitsuak iruditzen zaizkigu guri. Izan ere, Monike protagonistaren bizitzako bi aldi kontatzen dira. Alde batetik, Mikelekin izan duen erlazioa (*Argitasuna*) eta bestetik, Karl-ekin izan duena (*Objektiboki*). Bi atal nagusi bereiziko genituzke beraz hamar istorioak kontutan hartuz.

Bellevue-n zortzi atal bereizten dira. Atal hauek izenburuak dituzte, aurreko bi ipuinetan bezala. Oraingo honetan, zenbakiak ageri diren arren izenburu gisa, zenbaki horiek idatzita ageri dira: *hamalau*, *hamabost*,...*hogeita bat*. Zenbaki hauek ospitalean daramatzen egunak adierazten dituzte: *hamalau* idatzita dagoenean, esaterako, ospitalean daraman hamalaugarren eguna kontatzen du protagonistak.

Azkeneko ipuina den *Hazira itzultzea* ipuina, zenbait atalez osaturik dago. Oraingoan, atalak zenbakiturik edota izenburupean ez egon arren, 10 zati ezberdintzen dira, atal bakoitza ekintza bat delarik. Ekintza hauetako batzuk protagonistari bere bizitzan zehar gertaturikoak dira. Baina badira beste atal batzuk non bera existitzen ez zeneko zerbait kontatzen den. Adibidez, bere gurasoak ezagutu zireneko garaia.

Amaitzeko, *Anai artea* ipuina ekarri nahi dugu gogora. Ipuin honetan bi atal bereiz genitzakeela esan daiteke.

Alde batetik, kartzelan dagoen anaiak kanpoan dagoenari idazten dion gutuna eta bestetik, bere kontakizuna, anaiari zuzendurikoa dena baita ere. Aipatzekoa da, gutun zatiak letra etzanez daudela idatzita eta gainontzekoa ez. Kasu honetan, atalak letra motaren arabera bereiziko genitzake eta ez bestelako elementu paratestualen bitartez.

Ipuinen arteko loturak

Liburua bere osotasunean hartuta, ipuin gehienak indibidualak direla ikusiko dugu. Elkarrekin lotura bat izatekotan gai berdintsuen inguruko istorioak direla esan genetzake. Hala ere, hau liburu honetan jorratzen diren gaiak eskaini diegun atalean aipatuko dugu sakonkiago.

Istoriok, hala ere, askeak dira eta bakoitza bere aldetik irakurri daiteke. Baina, badira zuzenean lotuta duten hiru ipuin: *Susana gudaria eta poeta*; *Anai artea* eta *Zu eta Iban*. Hiru ipuin hauetako pertsonaiak berberak dira eta egoera edo gertaera berdinarengatik inguruan aritzen dira. Hau horrela izanik ere, ipuin bakoitza pertsonaia baten ikuspuntutik kontatuta dago, esan nahi da, hiru ipuinak istorio beraren baitako narrazioak dira baina, ikuspuntu ezberdinetatik kontatuak.

Izenburuak

16 dira liburu hau osatzen duten ipuinak eta hauen izenburuei erreparatuz gero, ikusiko dugu, badagoela zeresanik honen inguruan.

Hasteko, aipatzeko da, ipuin gehienak izenburu motzak direla. Hitz bakarreko izenburuak, esate baterako, bi dira (*Bellevue* eta *Galtzerdiak*) eta bi hitzetakoak sei (*Politika albisteak*, *Sofako amodioak*, *Puntu suspentsiboak*, *Anai artea*, *Chiapasko beroa*, *Hazira itzultzea*).

Gainontzekoak hiru edo lau hitzetako izenburuak dira. Hauetatik lau esaldiak dira (*Eta handik gutxira gaur, Calle de la Providencia, Peio aireportura bidean, Sexu usaineko gezurrak*). Falta diren ipuinetatik bi, bi edo hiru izenez osaturikoak dira (*Susana, Gudaria eta Poeta; Zu eta Iban*) eta azkenik, aipatzeko geratzen diren biak izen batez eta objektu edo ekintza izen batez osaturiko izenburuak dira (*Juanluis eta kilimakurrak, Yolanda eta aulkiak*). Pertsona izenak ageri diren izenburu hauetan oposaketa bat dagoela ikus genezake. Oposaketa hau pertsonaien arteko edo pertsonaien eta objetuen arteko izan daiteke. *Zu eta Iban* izenburuari erreparatuz gero adibidez, argi dago Susana (*Zu* horrek Susanari egiten dio erreferentzia) eta Ibanen arteko oposaketa baten aurrean gaudela.

Ikus daitekeen moduan, pertsona izenak ipuin askoren izenburuetan ageri dira: Susana, Iban, Peio, Yolanda eta Juanluis. Honek irakurlea istorioan kokatzen du. Esan nahi da, pertsona izen bat ageri denean izenburuan, irakurleak badaki, ipuin horretan kontatuko dena pertsona horren inguruko zerbait izango dela.

Susana, Gudaria eta Poeta ipuinean, esaterako, hiru pertsonaia hauen inguruko istorioa kontatzen da. Susana eta Poeta bikotea dira eta elkarrekin bizi dira. Poeta eta Gudaria anaiak dira eta azken hau kartzelan dago. Hirurak ezagutzen dira txikitatik. Gaztetan Susana Ibanekin zegoen (kartzelan dagoen anaiarekin) eta hau kartzelan sartu zutenean, Harkaitzekin hasi zen (kartzelatik kanpo dagoenarekin). Susana, Poetari ezer esan gabe, Gudaria bisitazera joaten da kartzelara, nahiz eta berak ez dakien, Poetak badakiela nora doan. Hemen beraz, argi ikus genezake, izenburuan ageri diren hiru pertsonaiak, gero, istorioaren protagonista nagusi direla.

Berdina gertatzen da *Zu eta Iban* ipuinean. Hau, aurreko ipuinarekin erlazioa duen istorioa da eta hortaz, hemen ere pertsonaiak berdinak dira. Nahiz eta aldaketa txiki

bat dagoen. Hemen narratzailea, Harkaitz da, kartzelatik kanpo dagoen anai bikietako bat eta Susanarekin dagoena. Berak Susana eta bere anaiaren inguruko kontakizun bat gauzatzen duen arren, bera ere ageri da istorioan eta gainera, istorioa berak kontatzeak bere presentzia askoz nabariagoa egiten du.

Aipatu ditugun azken hiru ipuinetan, perspektibismoaren presentzia nabaria da. Izan ere, hiru ipuinetan kontakizuna istorio beraren baitan eraiki arren, hauek ikuspuntu (perspektiba) ezberdinetatik kontatzen dira.

Liburu honetan jorratzen diren gaiak azaldu ditugunean pertsonen arteko harremanak garrantzia handia dutela esan dugu. Izenburuetan pertsona izenak agertzeak guk esandakoa baieztatzen du. Izan ere, *Zu eta Iban; Susana, Gudaria eta Poeta* bezalako ipuinetan pertsonai hauen arteko harremanen inguruko gertakariak dira kontatzen direnak. *Juanluis eta kilimakurrak; Yolanda eta aulkiak* bezalako ipuinak ere pertsonen arteko harremanen inguruko istorioak dira. Harreman horien parte dira Yolanda eta Jualuis.

Bellevue, Calle de la Providencia eta *Chiapasko beroa* ipuinei erreparatuz gero, konturatuko gara, bietan, istorioa kokatzen den espazioaren berri ematen digula idazleak. Lehenengo ipuina AEB-ko Bellevue izeneko ospitalean kokatzen da, bigarrena Madrilgo Providencia kalean eta hirugarrena, Chiapasen.

Gaiak

Liburu honetan jorratzen den gai nagusia pertsonen arteko harremanak dira. Ipuin guztietan ageri dira adiskideen arteko harremanak, harreman heterosexualak nahiz homosexualak. Eider Rodriguez-ek, gai hau baliatuz, eguneroko bizitzako miseriak erakutsi nahi izan dizkigu,

bertako pertsonaiek honi aurre egin behar izana ere azpimarratuz. Esan daiteke, autoreak, eguneroko bizitzan bizirautea zerbait heroikoa dela pentsatzen duela. Izan ere, pertsonaiek denboraren igarotzeari aurre egin behar diote.

Liburu honetako pertsonaiak hutsunez beterikoak dira. Hutsune horiek direla medio, protagonistek, bakardadea, beldurra, mina, amorrua, ezinegona... sentitzen dute. Hauek izango lirateke, nolabait esatearren, lehen aipaturiko pertsonen harreman horien bitartez azaleratzen diren sentimenduak.

Azpigai hauek oso garrantzitsuak dira ipuin-liburu honetan eta hortaz, ezinbestekoa da hauek ipuinetan nola islatzen diren ikustea.

• Bakardadea

Bakardadea zenbait ipuinetan ageri den sentimendua da. *Politika albistek* istorioan, adibidez, protagonistaren umea izateko nahia agertzen da eta horren aurrean sentitzen duen bakardadea: “Sukaldeko mahaiaren aurrean, plater hutsak jaso gabe, bazkalostearen kolore bakarra postreko laranja azalaren serpentinak dira. Serpentinek, eta inoiz jaio ez den semearen algarek, alaitzen dute giroa” (31. orr.).

Susana, Gudaria eta Poeta ipuinean ere bakardadea oso agerikoa da. «Hasieran nahikoa izan zitzaizun kariñoa Ibanen gabeziak sortutako dardara baretzeko. () Baina egunek, uneez, segundoek aurrera egin ahala desagertzen joan zen ongizate hura, eta zuk itsaso beltz irenslearen aurrean geldirik aurkitu zenuen zeure burua, bakarrik» (73. orr.). Hemen narratzailea Susanari ari zaio hizketan esanez, Ibanen hutsunea betetzeko Harkaitzen beharra zuela pentsatzen zuela eta azkenean konturatu dela ez dela horrela eta benetan bakarrik dagoela.

Anai artea ipuinean ere bakardadea behin eta berriz agertzen den sentimendua da: “Bakarrik sentitzen naizela

aitortu nahiko nizuke. Bakarrik sentitu naiz entxupinaturik egon naizen bitartean. Bakardade iragankor bat zela uste nuen, hainbeste denbora ezkutuan bakarrik pasatzen duzunean derrigorrez sentitzen den zerbait. Orain, parke honetan, bizitza errealean, gordezuloaren filtroak ez du ezertarako balio, eta bakardadeak min egiten du. Liburuekin bete nahi izan dut hutsunea, baina horrek hutsune sentsazioa areagitzeko baino ez du balio izan” (83. orr.). Kartzelan dagoen pertsonaiak, Ibanek, bere anaiari gutun bat idazten dio eta hau egiten dagoela zenbait sentimendu eta pentsamendu etortzen zaizkio gogora. Hau da horietako bat.

Zu eta Iban istorioak aurretik aipatutako bi ipuinekin harremana du eta hemen ere nabaria da bakardadearen presentzia. “Hotz baita eguna eta hotz ohea jada aspal-didanik, jada ia hasieratik, ...” (87. orr.). Ipuin honetan Harkaitz Susanari idazten ari da eta bertan ikus genezake, neskaren alboan beti sentitu izan dela bakarrik Susanak beti maite izan baitu bere anaia, Iban.

Lan honetako zortzigarren ipuinean (*Jualuis eta kilimakurrak*) ere protagonista oso bakarrik sentitzen da. Nahiz eta Oskar izeneko mutil-laguna duen sentimendu honek bere barrenean dirau eta horregatik, beste mutil-lagun imajinario bat sortzen du, Juanluis izeneko. Juanluisekin gustora dagoenez Oskar uzten du berarekin egoteko eta momentu horretan, bere mutil-lagun imajinarioa desagertu egiten da. Hemen, berriz ere, bakardadea da nagusi. “Han, kristalaren kontra galdurik begirada, kilimakurrei oles egin nien, sabelean jarriz arreta osoa, zure etorreraren zain. Ez zinen etorri ordea. (...) ez zinen inoiz gehiago azaldu.” (100. orr.).

Sexu usaineko gezurrak da bakardadea ageri den beste ipuinetako bat. Protagonista bere mutilarekin oso pozik dago baina, gertakari batek hau zeharo aldatzen du.

Mutil-lagunak atzerrira joan behar izaten du lanagatik eta protagonista etxean geratzen da bera bakarrik. Mutil-laguna kanpoan dagoela honek adarrak jartzen dizkiola imajinatzen hasten da eta benetan bakarrik sentitzen da. Bakardade horri aurre eginez, bere amaren etxera joaten da. “Amaren etxera berriz. Ezer gabe baina aske. Bakarrik baina osorik.” (140. orr.).

• Beldurra

Liburu honetan beldurraren presentzia ere nabaria da. Pertsonaiek, beraien sentimenduekiko eta egoerarekiko beldurra sentitzen dute beraien bizitzako momentu ezberdinetan. Jarraian aurkeztuko ditugun adibideak horren adierazle dira.

Susana, Gudaria eta Poeta ipuinean Susanak bi beldur dituela esan genezake. Alde batetik, bere inguruko pertsonak galtzeko beldurra du. Beldur hau bakardadearekin lotu genezake, bakarrik sentitzeko izua sentitzen baitu protagonistak. Adibide honetan ikus genezake hori: «Hasieran nahikoa izan zitzaizun kariñoa Ibanen gabeziak sortutako dardara baretzeko». (73. orr.). Bestetik, bere mutil-lagunak (Harkaitz) egia deskubritzeko beldurra du, hau da, Iban (Harkaitzen anaia) bisitatzerako doala kartzelara: «Erakargarri sentitu zaren unean deitu dizu telefonoz taladro on bat erosteko eskatu dizu, eta zuri iruditu zaizu dena dekiela. Den-dena». (73. orr.).

Sexu usaineko gezurrak ipuinean protagonista beldurraren isla garbia da. Emakume honek mutil-lagun bat dauka eta hau, lana dela eta, atzerrira joan behar izaten da egun batzuetarako. Emakumea etxean geratzen da bakarrik eta beldurra sentitzen hasten da bere mutil-lagunak adarrak jarriko dizkiola pentsatuz: “Negarrez itzuli niaz autoan. Ezin dut irudia jasan. Gaur gauean elkar maitatuko dute.” (139. orr.).

Galtzerdiak istorioan pertsonaiak beldurra sentitzen duela nabari daiteke. Izan ere, protagonistak Rosa izeneko emakume bat du bikotetzat eta beste gizon batekin oheratzen da gau batean. Gizon honek deitzean ez dio deiari erantzun nahi: “09:47, Jaime berriro. Zergatik ote dauka bere izena sakelakoaren memorian grabaturik. Ez du entenditzen, baina badaki ez duela telefono deia erantzun behar, ez zaiola komeni.” (145. orr.). Mezu bat bidaltzen dionean ere ez dio erantzun nahi, gertatutakoa onartzeko beldurra baitu: “*Tiene un mensaje no leído*. Jaime. Abri 1 iztko etzra gaxk eon. Ao mirsgrria dzu. Brriz iksi nai zaitut. Gañea n gltzrdi kutunk laprtu dizkdzu;”). (146. orr.). Mezua behin irakurri eta ezabatu egin du. Sakelakoaren zaborrontziaren dantzak baino ez du lasaitu.

• Mina eta amorrua

Mina eta amorrua liburu honetako istorio gehienetan ageri diren sentimenduak dira. Sentimendu hauek batera sortzen dira pertsonaien barrenetan istorio ia guztietan (salbuespenak albuespen) eta hortaz, zilegi da azterketa honetan ere batera aipatzea.

Lehenengo ipuinean (*Eta handik gutxira gaur*) esaterako, protagonistak bere lagun on bat (maitalea izandakoa seguruenik) hil zuteneko istorioa kontatzen du eta zeinen min eta amorru handia sentitu zuen notiziaren berri izan zuenean. Hau dela eta, mendekua hartzea erabakitzen du: “–Buen día, señor alcalde –eta hitzok esan eta berehala konprenitu zuen mendekua izanen zela”. (20. orr.).

Politika albisteak da liburu honetako bigarren ipuina. Hemen ere oso nabaria da minaren eta amorruaren presentzia. Protagonistak espero ez zuen berri bat entzuten duenean sentimendu hauek islatzen dira berarengan: “La Policía gala ha detenido en un camping de la localidad francesa de Arles al presunto etarra Joseba Amilibia y a su

compañera Dominique Paulus. Los detenidos, junto con su hija de tres años () Ohartu orduko Idoiak odoletan dauka zilborra, eta azkazala odol lehorrez zikindurik. Arnasarik gabe gelditu da garrasi luze bat egin ostean”. (40. orr.).

Adibide honetan oso garrantzitsua den esaldi bat dago: “Ohartu orduko Idoiak odoletan dauka zilborra, azkazala odol lehorrez zikindurik”. Hemen ikus genezakeen moduan, Idoiak, mina sentitzen duen momentu horretan eskuarekin zauria egiten du eta horregatik ateratzen zaio odola zilborrean. Lizuna ipuin guztian zehar agertzen den elementua da eta gure ustez, hau, minaren adierazle da. Esan genezake, bertan, mina gorpuzturik ageri dela.

Hurrengo ipuinean ere minak utzitako arrastoa ikus dezakegu. *Bellevue* ipuineko protagonistari bere gurasoak auto istripu batean hil direla esaten diotenean sentitzen duen oinazea antzeman daiteke: “Barruan ernaldutako minezko arrainaren buztankadak igar nitzakeen inoiz baino hobeto...” (58.orr.), edota “... oinazea erruten joan nintzen ni ere, ohartu gabe oinazeak bizitza propioa daukala...” (58. orr.).

Susana, Gudaria eta Poeta ipuinean protagonistak mina sentitzen du kartzelara doanean Iban bisitatzerara. Min hori Susana Ibanetaz agurtzean, oso agerikoa da: “Presondegiko atearen langan geldirik, ataria atzean, erantzunik jaso ez duen agur eri a ahoskatu duzu”. Hemen, aipatu beharra dago, dagoela amorruren zantzurik.

Anai artea istorioan hasieran aipaturiko bi sentimenduak oso nabarmenak dira. Bertan, Ibanek, kartzelan dagoen mutilak, bere anaia Harkaitzi idazten dio. Alde batetik, berak idatziriko gutuna dago eta bestetik bere pentsamenduak. Gutun horretan mina eta amorrua islatzen dituzten hitzok aurki genitzake: “*Putaseme deituko nizuke nire anaia bikia izango ez bazina. Urtarrilean izan nuen zuen artekoaren berri; eta zertarako gezurra esan, burura*

etorri zitzaidan lehenengo gauza oheko eszena bat izan zen, eta traizioaren zimikoa sentitu nuen sabelaldean.” (81. orr.).

Zu eta Iban aurretik aipatu dugun ipuinarekin lotura zuzena duen istorioa da eta bertan ere ageri da amorrua nahiz eta oraingoan, ez den Iban amorru horren jabea, Harkaitz baizik. Ibanek Susanari hitz egiten dio istorio honetan eta bertan, bere sentimenduak askatzen ditu, bere anaiaren eta neska-lagunaren arteko harremanarengatik sentitzen duen inbidiaren ondorioz: “Zure gorpua nire tintero bilakatu izan dut eta bere torturen oihuak nire goi-arnasaren oihartzun. Zure izter esnetsuak irudikatzen ditut bere aurpegia harresituz (...) eta bere ahoa zure ezpainak arakatzen, dena edertu izan dut horrela, zu eta Iban zu eta Iban izango ez bazinete moduan.” (87. orr.).

Ondoren datorren ipuinean (*Juanluis eta kilimakurrak*), protagonistak mutil-lagun imajinario bat sortzen du bere buruan eta honekin batera, baita honen alaba den Lora eta emazte-oia den Berta ere. Hiru pertsonaia hauek bere imajinazioaren bitartez sorturikoak diren arren sentimenduak agertarazten dizkiote eta sentimendu horien artean aurkitzen dira amorrua eta mina. Sentimendu horiek protagonistarengan ageriko daudela erakusten duen adibideetako bat jarraian aurkeztuko dugun hauxe da: “Ez, gure etxean geundela, hitzordua baino ordubete lehenago etorri da Berta bere bila, (...) Juanluisek egoera samurtu du, dena baino oraindik modu amultsuagoan niregana zuzenduz. Gogaitu eta joan egin naiz.” (95. orr.). Ikusi berri dugun adibide honetaz gain, protagonistak amorrua sentitzen duenaren isla diren bi adibide aurki genitzake istorioan zehar: “*Ez dakit zer esan, nola jardun. Duinegia naiz zelo eszena bat egin eta Berta etxetik botatzeko. Zaplazteko bat eman nahiko nioke, Juanluisen aurrean lotsarazteko*” (97. orr.). Pasarte honetan protagonistak Juanluis bere emazte-oiarekin dagoela irudikatzen du eta horrek

amorrua sentiarazten dio. Pasarte honetan bertan badago beste adibide bat esandakoa baieztatzen duena: “*Bertaren kokots goitiarra da gehien gorroto dudana. (...) Aztoraturik nago, baina ez dut azaleratu nahi.*” (96. orr.).

Peio aireportura bidean izeneko ipuinean amorrua ere ageriko dela baieztatzen diguten adibideak aurki genitzake: “Lastima sentitu nuen. Barne-barnetik zetorkidan lastima zikina. Jiratu nintzen eta hantxe ikusi zintudan: zoriontsu, eskuarekin agur egitean. Nik ere agur egin nizun eskuaz, eta nire bidea jarraitu nuen, buruaz ezetz eginez, irriñoa ezkutatu gabe, aireporturaino”. (130. orr.). Hemen ikus genezake, pertsonaia nagusiak badakiela Peiok ezagutzen duela bera eta akordatzen dela elkarrekin egon ziren garaiaz. Baina Peiok ez du onartu nahi eta horrek amorrarazi egiten du gure protagonista.

Sexu usaineko gezurrak ipuinean pertsonaia nagusiak mina sentitzen du bere mutil-laguna atzerrira doanean eta beste emakume batekin oheratuko dela imajinatzen duenean: “Ezin dut irudia jasan. Gaur gauean elkar maitatuko dute”. (139. orr.).

Minaren eta amorruaren presentzia oso nabarmena da *Hazira itzultzea* deituriko istorioan. Elena da bertako protagonista. Pertsonaia nagusiak bere aitarekiko gorrotoa sentitzen du eta honek edaten duenean egindako guztiak amorrua eta mina sentiarazten dio lotsarekin batera: “Berrogeita bost urte inguruko gizon bat, koadrodun eskuoihal bat lepoan, hondar gainean belauniko, hatzekin adarrak imitatuz xexena atakatu du. Xexenak airean bota du mozkorra trapuzko panpina baten antzera. (...) Elena zurbil dago. Zigor barrez lehertzen ari da, Torero, torero garrasi eginez. –Goazen –esan du neskak albo batera begiratzu. –Zer dun potxola? –Goazen –haserre, eta negar etiliko bati ekin dio, Zigorren brusa koloretsuaren gainean.” (148. orr.).

Emakumearen irudia eta politika

Azpi-gai hauetaz gain, esan beharra dago, emakumearen irudiak eta politikak sekulako garrantzia dutela Eider Rodriguezen lan honetan.

Emakumearen irudiaren garrantzia hori zenbait elementuren bitartez antzeman daiteke: pertsonaia nagusi asko emakumeak izatea, liburuiko aipuak emakumeenak izatea, amatasunaren agertzea (*Politika albisteak* eta *Juanluis eta kilimakurrak*), etxeko lanak egiten dituen emakumearen irudiaren agerpena (*Yolanda eta aulkiak* eta *Eta handik gutxira gaur*), emakumea objektu sexual gisa agertzea (*Chiapasko beroa* eta *Calle de la Providencia*), besteak beste.

Hemen emakumearen irudiaren inguruko ikuspegi orokor bat eman dugu baina sakonkiago aztertuko dugu *Eta handik gutxira gaur* eta *Haragia* liburuak alderatzen ditugun atalean.

Politikari dagokionean gai honen inguruko zenbait ipuin aurki ditzakegu liburu honetan. Hala ere, guztietan ez da politika era zuzen batean aipatzen. Esan nahi dena da, gai hau oinarritzat hartuta idazleak istorioak eraiki dituela zenbait kasutan. Honen adibide garbiak izango lirateke *Susana, Gudaria eta Poeta; Anai artea* eta *Zu eta Iban* istorioak. Beste ipuin batzuetan oster, Eider Rodriguezek politika istorioaren hari bilakatu du. *Eta handik gutxira gaur* eta *Politika albisteak* esandako baieztatzen duten bi adibide dira. Lehenengoan errepublikanoa zen aitona batek bere herritik ihes egin behar izan zuela kontatzen da eta nola bizi izan zituen garai haiek eta honen ondorengoak. Bigarreanean aldiz, bere gaztetako mutil-laguna errefuxiatua duen emakume baten bizitza kontatzen da eta dena kontatzen da politika ardatz hartuta.

Pertsonaiak

Hasteko eta behin, ezinbestekoa da liburuan ageri diren protagonistak eta pertsonaiak zeintzuk diren jakitea. Hori dela eta, taula hau erantsi dugu, betiere irakurleari pertsonaien zuhaitz genealogikoa argiago geratuko zaiola-koan.

IZENAK	PROTAGONISTAK	2.MAILAKO PERTSONAIAK
<i>Eta handik gutxira gaur</i>	Floren	Manex (Florenen biloba) Manexen ama
<i>Politika albisteak</i>	Idoia	Idoiaren ama Pili (laguna)
<i>Sofako amodioak</i>	Monike	Mikel (hasierako mutila) Karl (bukaerako mutila)
<i>Bellevue</i>	Matilde	Erizaina
<i>Puntu suspentsiboak</i>	Emakume bat (izenik ez)	Xanti (nagusia) Zerbitzaria
<i>Susana, Gudarria eta Poeta</i>	Susana	Harkaitz Iban
<i>Anai artea</i>	Iban	Harkaitz

<i>Zu eta Iban</i>	Harkaitz	Iban Susana
<i>Jualuis eta kilimakurrak</i>	Emakume bat (izenik ez)	Juanluis, Berta, Lora Oskar (mutil-laguna)
<i>Chiapasko beroa</i>	Gizon bat (izenik ez)	Nerea eta Sebas
<i>Calle de la Providencia</i>	Emilio	Emakume bat
<i>Yolanda eta aulkiak</i>	Yolanda	Mikel (mutil-laguna) Arantxa (laguna)
<i>Peio aireportura bidean</i>	Peio	Asier
<i>Sexu usaineko gezurrak</i>	Emakume bat (izenik ez)	Martin (mutil-laguna)
<i>Galtzerdiak</i>	Gizon edo emakume bat	Jaime (amantea)
<i>Hazira itzultzea</i>	Elena	Zigor (mutil-laguna) Gurasoak

Atal honetan oraintxe aipatu berri ditugun pertsonaien inguruko azterketatxo bat egingo dugu. Protagonistak hartuko ditugu gehienbat kontutan eta bigarren mailako

pertsonaien inguruan pare bat zertzelada baino ez ditugu emango.

Lehenik eta behin ipuinetako protagonistei erreparatuko diegu. Pertsonaia nagusi gehienak emakumean dira baina, hala ere, gizonaen kopurua ez da murrizta. Izan ere, 16 ipuinetatik bederatzitan protagonista emakumea da (*Politika albisteak; Sofako amodioak; Bellevue; Puntu suspentsiboak; Susana; Gudaria eta Poeta; Jualuis eta kilimakurrak; Yolanda eta aulkiak; Sexu usaineko gezurrak; Hazira itzultzea*). Sei ipuinetan pertsonaia nagusiak gizonaen dira (*Eta handik gutxira gaur; Anaia artea; Zu eta Iban; Chiapasko beroa; Calle de la Providencia; Peio aireportura bidean*) eta falta den ipuinean (*Galtzerdiak*) ezin genezake sexurik zehaztu. Azken honetan, Eider Rodriguez-ek ez digu ez izenik eta ezta deskribapen zehatzik ematen pertsonaia hori emakume edo gizon bezala sailkatzeko. Hau anbiguotasuna indartzeko egiten du idazleak.

Ipuin gehienetan, autoreak, pertsonaien izenak ematen dizkigu eta zenbait kasutan baita abizena ere. Hala ere, badaude ipuinak non ez dugun protagonistaren izena ezagutzen. Horren adierazle dira *Sexu usaineko gezurrak, Galtzerdiak, Jualuis eta kilimakurrak, Puntu suspentsiboak* eta *Chiapasko beroa* ipuinak.

Pertsonaien adinari dagokionean, esan beharra dago, bi ipuinetan baino ez dela protagonistak zenbat urte dituen esaten. *Puntu suspentsiboak* ipuinean protagonistak 43 dituela aipatzen da: “Berrogeita hiru urte eta erdiren lekukotasunaren.” (68. orr.). *Politika albisteak* ipuinean Idoiak 35 urte dituela esaten zaigu: “Etxe horretan jaio da Idoia. Hogeita hamabost urte daramatza hor bizitzen.” (34. orr.).

Bestalde, aipatzekoa da baita ere, *Eta handik gutxira gaur* istorioan, Florenen adina esaten ez den arren, badakigula 63 urtetik gorakoa dela: “Pelikuletan bezala, argazkiak

begiratu nahiko lituzke orain, 63 urteren ondoren, baina ez du argazkirik.” (21. orr.).

Gainerako ipuinetan ez da protagonisten adinaren berri ematen baina, gure ustez, bai testuinguruagatik, hizkeragatik eta beste zenbat elementurengatik, pertsonai hauek 25-40 urte bitarte dituzte. Hala ere, ikusi dugun bezala, lehenengo ipuineko protagonistak 63 urtetik gora ditu eta hortaz, salbuespena izango litzateke. Beste salbuespen bat azkeneko ipuineko (*Hazira itzultzea*) Elena izango litzateke. Bere adin zehatza aipatzen ez den arren, bere aitak 45 urte dituela esaten da istorioaren lehenengo momentuan. Hau kontutan harturik, zilegi da pentsatzea pertsonaia nagusiak 20 urte inguru izango dituela. Beste salbuespen baten aurrean egongo ginateke, beraz.

Liburuko pertsonaien konplexutasunari dagokionean borobilak edo lauak diren ikusiko dugu jarraian. Oso garrantzitsua da puntu honen inguruan hitz egitea, izan ere, protagonista guztiak dira borobilak bat izan ezik. Adibide guztiak eman beharrean lauzpabost ekarriko ditugu hona.

Lehenengo ipuineko hasierako pasartean, Floren bere bilobarekin hitz egiten agertzen da. Bera pozik dago Manexekin dagoelako. Hala ere, bere bilobari gerra garaiako kontuak kontatzen hasten denean oroitzen hasi eta sentimendu hori aldatu egiten da. Bakardadea, hutsunea... nabarmentzen dira pertsonaia honengan. Hortaz, aldaketa bat gertatu da berarengan.

Politika albisteak ipuinean, Idoiak ezagutzen ez zuen notizia baten berri izango du eta honek bizitza aldatuko dio.

Sofako amodioak istorioan, Monikek Mikel eta Karl-ekin dituen harremanak kontatzen ditu. Monike hasieran Mikelekin dago eta monotonian eroria dago beraien erlazioa. Gero, Karl ezagutu eta bere bizitza aldatu egiten da horrela lehen aipaturiko monotonia hautsiz. Hala ere,

beranduago konturatuko da, Karlekin ere, pixkanaka-pixkanaka, monotonian erortzen hasi dela. Hemen ikus dezakegun moduan, pertsonaia nagusiak aldaketa bat jasan du. Aipatu beharra dago baita ere, Mikel eta Karl bigarren mailako pertsonaiak diren arren hauek ere borobilak direla.

Puntu suspentsiboak deritzon ipuinean protagonista pertsona urduri baten moduan ageri da hasieran. Gero, taberna batetan dagoela zerbitzariarekin txorta egin eta lasaitu egiten da. Hala ere, ekintza hau igaro eta botaka egiten du. Garapen bat dago beraz, pertsonaia honengan urduri egotetik lasaitasunera igarotzen baita.

Jualuin eta kilimakurrak istorioan pertsonaia nagusiak aldaketa handia jasaten du istorioan zehar. Izan ere, hasieran Oskar izeneko mutil-lagunarekin duen erlazioaz nazkatu rik mutil-lagun imajinario bat sortzen du bere buruan (Juanluis). Hala ere, protagonistak Oskar utzi eta Juanluis desagertu egingo da. Honek aldaketa handi bat suposatuko du.

Lehen salbuespen bakarra dagoela esan dugu, *Bellevue*-ko protagonista hain zuzen ere. Pertsonaia hau ospitalean dago iragana oroitzen baina bere egoera ez da aldatzen, ez dago garapenik.

Pertsonaien bitartez Eider Rodriguez-ek esan nahi duena aztertu nahi izan dugu atal honetan. Lehenengo ipuinean, aitona iraultzaren sinboloa dela esan genezake. Gerra garaian bere laguna hiltzen dutenean Florenek mendekua hartu eta udaletxeko balkoian lore gorri, hori eta moreak landatzen ditu, errepublikaren koloreak hain zuzen ere.

Bigarren ipuinean, *Politika albisteak*, protagonistak pasibotasuna adieraziko luke. Idoiak, bere zilborreko lizun-ean dago kontzentraturik, honi ematen dio garrantzia nahiz eta benetan, momentu horretan bizitzen dagoen egoerak duen benetan inportantzia. Azken batean, mina

haragiaren bitartez islatzen den sentimendua dela esan genezake. Adibide honek erakusten digu momentu mingarri baten aurrean bere zilborrean zauria egiten duela bere azakalekin: “La Policía gala ha detenido en un camping de la localidad francesa de Arles al presunto etarra Joseba Amilibia y a su compañera Dominique Paulus. Los detenidos, junto con su hija de tres años () Ohartu orduko Idoiak odoletan dauka zilborra, eta azkazala odol lehorrez zikindurik.” (40. orr.).

Sofako amodioak ipuinean, protagonista konformismoaren sinboloa izan daitekeela pentsatzen dugu. Monikek, azkenaldian, bi harremanen izan ditu, lehenengoa amaitu egin zen monotonía zela eta, eta oraingo harremana berriz, objektiboki perfektua dirudien arren, Monike ez dago maiteminduta. Hala ere, benetan zoriontsua ez izan arren, Karlekin jarraitzea erabakitzen du: “Apustua egina zegoen: Karl, eta zoragarria zen objektiboki?” (52. orr.).

Bellevue ipuinean, Matilde ospitale psikiatriko batean ingresaturik dago. Ondorioz, ipuin honetako protagonistak eromena edo irrazionaltasuna irudikatu nahiko lukeela iruditzen zaigu. Izan ere, Matilde oroitzen hasten denean bere gurasoak auto istripu batean hil zireneko garaia gogoratzen du. Bere izeba da berri txar hori ematen diona eta bera ez da gertatu denaz ondo konturatzen.

Aipatzekoa da ipuinean bertan ez dela zehazten protagonista psikiatriko batean dagoen edo beste erietxeren batean. Esaten den bakarra ospitalean dagoela da. Guk Bellevue Estatu Batuetako ospitale bat dela jakin dugu bilduko informazioari eskerrak:

Bellevue Hospital Center, el hospital publico más viejo de los estados unidos.

Bellevue Hospital Center, fue fundado en 1736, cuando George Washington tenía sólo cuatro años

y la mayoría de las veces sólo se hace referencia como «Bellevue», es el más antiguo hospital público en los Estados Unidos. Es mejor conocido fuera de la ciudad de Nueva York por muchas obras literarias y constantemente se menciona en el cine y la televisión de dramas policíales como «Bellevue» casi siempre en referencia a sus instituciones psiquiátricas. Está ubicado en la ciudad de Nueva York y ha sido el escenario de innumerables hitos en la historia de la medicina.

Puntu suspentsiboak ipuinean, pertsonaia nagusiak arazoak ditu bere burua aurkitzeko. Ez da bere buruarekin gustora sentitzen, obsesionatuta dago bere itxurarekin. Ez da pertsona egonkorra, hori dela eta, emozionalki ondo ez dagoen pertsona baten sinbolotzat hartu dugu. “Batzuetan gertatzen zait, nor naizen ere ez dakit, non nagoen, zergatik sostengatzen nauten zangoek, nork agindu dituen nire ahotik irtendako hitzak” (64.orr.). Askotan gainera, itota sentitzen da eta egiten ari dena bertan bera utzi eta ihes egiten du nonbaitera.

Susana, gudaria eta poeta ipuineko protagonista den Susana, ezbaian azaltzen da. Bikiak diren bi anaiekin irteten egon da, eta ez da argi geratzen zeinekin maitemindurik dagoen. Gainera ez die arazoei aurre egiten eta maite dituen pertsoneri ere ez die egia esaten. Pertsona koldar baten aurrean gaudela esan genezake, beraz.

Hurrengo bi ipuinetan *Anai artea* eta *Zu eta Iban*, ipuinetan alegia, bi protagonistak inbidiaren sinbolo dira. Lehenengo ipuinean, Ibanek bere anaia (Harkaitz) inbidia du. Harkaitz kartzelatik kanpo dago eta bere neska-lagun ohiarekin dabil: “Maitasuna hasi eta bukatu egiten da, badakit. Behin nirekin maitemindurik egon zen hura zurekin dago orain. Baina berdin egon zitekeen beste norbaitekin. Zergatik zurekin?” (82.orr.).

Zu eta Iban ipuinean ere, Harkaitzek bere anaia den Ibani dion inbidia ikus daiteke, kasu honetan ordea,

alderantziz. Harkaitzek bere anaia eta Susana elkarrekin ibili zirenean zeukan inbidia argi geratzen da adibide honetan: “Zure izter esnetsuak irudikatzen ditut bere aurpegia harresituz, eta idatzi eta idatzi egiten dut, sortu, lerroen artean arnasarik hartu barik, eta zure izter esnetsuak bere aurpegia harresituz, eta bere ahoa zure ezpainak arakatzen, dena edertu izan dut horrela, zu eta Iban, zu eta Iban izango ez bazinete moduan”.

Juanluis eta kilimakurrak ipuinean, protagonistak gizon bat (Juanluis) imaginatzen du bere hutsunea betetzeko. Gure ustez, emakume honek eromena irudikatu nahiko luke. Izan ere, sinetsita dago Juanluis existitzen dela. “Damutu egiten naiz Juanluis eta bion artekoa Oskarri kontatu izanaz (..) *Lagun imaginario bat daukat...* (93. orr.) “Hasieran maitale harremana besterik ez geneukan, ordura arte izan nituen guztiak bezala, baina geroz eta maizago gelditzen hasi ginen eta Zumardian pisu bat alokatu zenuenean, psikologikoki bada ere, hara mugitu nintzen” (96. orr.).

Chiapasko beroa ipuinean, protagonistak sexu nahia irudikatu nahiko lukeela begitantzen zaigu. Protagonista Chiapasera doanean bikote bat ezagutzen du eta neskarekin (Nerea) oheratzeko nahia argi ikusten da, asko erakartzen du. “... eta Sebasekin harremana estutu izanaz damutu zen, gizonen arteko legea erakarpenaren aurretik jarri izanaz (...) Bere begietatik edan nahi zuen, bere mingainaz gogaitu...” (104. orr.) Gainera ipuinak aurrera jo ahala, protagonistak amets erotiko bat dauka Nerearekin, sexu gau sukartsu batekin amets egiten du: “... Nerearen ipurmasailak bere izterren kontra joz geroz eta erritmo bizi bortitzagoa hartzen duen galopa etengabea, garrasi izerdi hasperen artean erabat hustu arte” (107. orr.).

Hurrengo ipuineko, *Calle de la Providencia* ipuineko protagonista (Emilio), obsesioaren sinboloa dela esan gene-

zake. Emiliok, bere etxeraino jarraitzen dion emakume baten atzetik dabilela ikus dezakegu. Emiliok garai batean ezagutu zuen emakume baten oroitzapena du buruan eta obsesioa du pertsona horrekiko. Gure ustez, sentitzen duen obsesio hau ipuinean ageri den emakumean islatzen du. Baina, istorio honetako pertsonaiak errealitatean ez dira ezagutzen:

–Te acuerdas, hace muchos años nos conocimos en el aeropuerto.

–No, no me acuerdo.

Eta tinbrea jo du.

–Miguel, abre en seguida. (112. orr.)

Yolanda eta aulkiak ipuineko pertsonaia nagusia (Yolanda) monotoniaren eta pertsona maniatiko baten sinbolo argia delakoan gaude. Hasteko, bere bizitzako egun guztiak berdinak dira, egunero gauza berea egiten du: “Arantxarekin elkartu da han. Egunero ohi duten bezala kafesne bana hartu eta indarberriturik abiatu dira supermerkatu erosketak egitera” (118.orr.). bestalde, pertsona maniatiko bat dela esan dugu, orduekin “fjzazio” berezi bat duelako: “... hamaika eta berrogeita hamalau minutu. Sei minutu igaro baino lehen loak hartuko balu, zazpi orduz egingo luke lo eta bihar fresko esnatuko litzateke lanera joateko”(119.orr.). Maniatikotasun horren beste adibide garbi bat Yolanda patatak zuritu eta mozten ari denean antzeman genezake: “Lauki perfektutan moztu ondoren jarri ditu frijitzen...” (118.orr.)

Peio aireportura bidean ipuinean, protagonistak (Peio) mendekua irudikatzen duela iruditzen zaigu. Gaztetan, Asierrek huts egi zion Peiori. Liburuan aditzera ematen denez Peiok gertatutakoa gogoan du oraindik eta mendeku bila dabil. Hortaz, urte askotan elkar ikusi gabe pasa eta gero, elkartu eta hurrengo egunerako geratzen dira, Peio ordea, ez da agertuko: “Lastima sentitu nuen. Barne-

barnetik zetorkidan lastima zikina. Jiratu nintzen eta hantxe ikusi zintudan: zoriontsu, eskuarekin agur egiten. Nik ere agur egin nizun eskuaz, eta nire bidea jarraitu nuen, buruaz ezetz eginez, irriñoa ezkutatu gabe, aireporturaino” (130. orr.).

Sexu usaineko gezurrak ipuinean, pertsonaia nagusiak segurtasun eza handia duela ikusenez, beraz, horren sinboloa izan daiteke. Emakume honek mutil-laguna duen arren, zalantza asko ditu. Ez da bere mutilarekin fio, adarrak jarriko dizkiola eta beste emakume batekin engainatzen dabilela pentsatzen du. Hona hemen horren adibide batzuk: “Telefono dei bakoitza dardara bat; eta dardara behazun, hura dela baieztatzen denean” (132.orr.), “Zer ezkututzen duten ez dakidan hainbat liburu, karpeta eta kaxa” (134.orr.), “Bien gorputzak elkar maitatzen ikus ditzaket” (139.orr.).

Azken aurreko ipuinean, *Galtzerdiak*, pertsonaia nagusiak adarrak jartzen dizkio bere emaztea izango denari. Hori dela eta infideltasunaren sinbolotzat hartu dugu pertsonai hau. “Baina gertatutakoa inori kontatuko ez dion susmoa dauka, are gutxiago Rosari” (144.orr.), edota “Mezua behin irakurri eta ezabatu egin du. Sakelakoaren zaborrontziaren dantzak baino ez du lasaitu” (146.orr.).

Hazira itzultzea Eider Rodriguezen ipuin-liburu honetako azken istorioa da. Bertako protagonista Elena da, neska gazte bat eta gure iritziz pertsonai honek lotsa irudikatu nahiko luke. Ipuinean zehar neska honek bizitako momentu batzuk azaltzen dira eta guztietan zerbaitengatik lotsa sentitzen du: “Gaur ohartu da amak ez duela beste amek bezala jaten, gauza arraroak egiten dituela, orokorrean ama arraroa dela, eta horregatik ez du aspalditik inor etxera bazkaltzera gonbidatu” (151.orr.), “Orduantxe lotsatu zen lehendabiziko aldiz. Txiki txikia sentitu zen, akordatu zenean, gurasoak euskaldunak ez izateaz gain, aita beti

mozkor egoten zela eta ama beti haserre, negarrez edo telebista ikusten” (154.orr.).

Pertsonaien atalarekin amaitzeko, ezinbesteko iruditu zaigu ipuin-liburu honetan pertsonaiek edo ekintzek garrantzia duten ikustea. Ipuin-liburuaren gai nagusia pertsonen arteko harremanak direla kontutan hartuta, pentsatzekoa da pertsonaiek ekintzek baino garrantzia gehiago dutela, eta hala da. Ipuin gehienetan pertsonaien izaerek eta harremanek pisu handiagoa dute.

Espazioa

Liburu honetako espazioa aztertzeko ezinbestekoa da zenbait bereizketa egitea. Hasteko, zenbait espazio mota bereizi behar ditugu. Alde batetik, istorioak girotuta dauden herri edo hiriak hartu behar dira kontutan, bigarrenik, espazio ireki eta itxiak bereizi behar dira, eta azkenik, istorioak hiri edo herrietan girotuak dauden ikusi beharko dugu.

Lehenengo espazio motari dagokionez, Eider Rodriguezen 16 istorio hauek Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo kokatzen dira. Istorio gehienak Euskal Herrian girotuta dauden arren, hemendik kanpo, eta Euskal Herriarekin inolako harremanik ez duten bi ipuin aurki ditzakegu liburu honetan, biak gainera Madrilan girotuak. Lehenengoa, *Calle de la Providencia* da, eta bigarrena berriz, *Galtzerdiak*. Honekin batera, geografia ezberdinak islatzeko joera ikusten da, Euskal Herritik atera nahiko balu bezala. *Chiapasko beroa* ipuina, Chiapasen gertatzen da nahiz eta kasu honetan protagonistek bertakoak izanda, Euskal Herriarekin lotura zuzena izan. Gainera ipuinaren hasieran zein bukaeran pertsonaia nagusia bere Euskal Herriko etxean aurkitzen da, nahiz eta irakurleak zein herritan kokatzen den ez dakien. Beste istorio bat, *Bellevue*

hirian gertatzen da, baina protagonista honek ere, Euskal Herriarekin harremana duela ikus dezakegu. Izan ere, Hendaia aipatzen da. Bestalde, ipuin askotan *aireportua* edo *trena* bezalako elementuak azaltzen dira eta honek Euskal Herritik irteteko nahia areagotzen duela iruditzen zaigu. Mundu berri bat ezagutzera irteten dira protagonistak: "...Europar barrena egindako tren bidaiak..." *Juanluis eta kilimakurrak* (91.orr), "Etorreran ezagutu zuen, aireportuan, aireportutik Callaorako metro bidaiak osoan..." *Calle de la Providencia* (110.orr), "...irriñoa ezkutatu gabe aireporturaino" *Peio aireportura bidean* (131.orr), "Martin aireportura iristear egongo da..." *Sexu usaineko gezurrak* (140.orr)... Amaitzeko, istorio asko bertan girotuak egon arren, kanpoko lurraldeak ere aipatzen dira: Berlin, Portugal, Sevilla, Paris, Bordele, Alemania, Varadero...

Ipuin liburu honetako bi istorioren kokalekua, ezin dugu jakin zein den, *Sofako amodioak* eta *Yolanda eta aulkiak* ipuinenak, hain zuzen ere. Irakurleari ez zaio esaten istorioak non girotua dauden istorioa jarraitzeko datu horrek ez baitu garrantzirik.

Gainerakoak Euskal Herrian zein Euskal Herriarekin lotutako istorioak dira. Lehenengo ipuina adibidez, Miarritze eta Nafarroako Erriberako herri baten artean gertatzen da. Hala ere, istorioan zehar Donostia, Iruñea, Bidarte, Baiona, Ziburu ere aipatzen dira. *Politika albisteak* ere, Euskal Herrian girotua dago, eta protagonista zer herritan bizi den ez dakigun arren, Urruña eta Donibane Lohitzune aipatzen dira. *Puntu suspentsiboak* deituriko ipuina, Euskal Herrian kokatzen dela pentsa dezakegu, izan ere, Euskal Herria kalea aipatzen da. Hurrengo hiru ipuinak elkarrekin lotuta daude eta istorio beraren inguruan aritzen dira. Kasu honetan hiru ipuin hauetako bi Madrileko kartzela batean gertatzen dira, baina Euskal Herriarekin dagoen harremana argi ikusten da, izan ere pertsonaia Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorioz dago Madrilen.

Juanluis eta kilimakurrak ipuina Donostian girotua dago, baina Berlin ere aipatzen da. *Peio aireportura bidean* ipuina, Donostian girotzen da argi eta garbi. Hurrengo ipuina ere *Sexu usaineko gezurrak*, Donostian kokatzen da nagusiki, oraingoan ere Berlin aipatu eta Bilboko aireportua azaltzen diren arren. Amaitzeko, *Hazira itzultzea* istorioa, zehazki zein herritan kokatzen den ez dakigun arren, Euskal Herrian aurkitzen gara antzeman dezakegu.

Hau ikusirik, Eider Rodriguez-ek ipuin gehienak Euskal Herrian girotu dituela ikus dezakegu. Gainera asko eta asko bera jaio eta bizi den inguruan kokatu ditu, hau da Orereta eta Hendaia inguruan: Donostia eta Hendaia behin baino gehiagotan azaltzen dira, Hernani, Hondarribia, ... Bestalde, hainbat ipuin Euskal Herriko egoera politikoaren inguruan aritzen direnez, Euskal Herriko herriak presente daude, hala nola, *Eta handik gutxira gaur*, *Politika albisteak*, *Susana*, *gudaria eta poeta* eta *Anai artea* ipuinetan. Hala ere, gorago aipatu bezala, geografia ezberdinak azaltzeko nahia ikus daiteke. Euskal Herritik ateratzeko nahia dago eta horretarako, Chiapas, Berlin, Portugal, Paris, Bellevue, Kanaria Maroko, Europa... bezalako lekuak aukeratu ditu.

Bigarren espazio motei erreparatuta, gehienak hirietan kokatzen direla esan beharra dago. Salbuespen argi bakarra *Eta handik gutxira gaur* ipuina izango litzateke. Istorio honen zati bat, Nafarroako Erriberako herri batean gertatzen da, hortaz, hirietatik alde egiten du. Honekin batera *Chiapasko beroa* ipuinean, pasarte batzuetan, zapatisten komunitatea azaltzen da eta gertaera hauek ere, inguru rural batean gertatzen dira: “Gauetan hautsez beteriko egurrezko barrakoietan egiten zuten lo, kotoizko koltxoi zahar batzuen gainean”(104.orr). Gainontzeko istorioak hiri handi eta txikien artean banatzen dira. Madril, Bellevue eta San Cristobal de las Casasen girotuta dauden istorioak, hiri handiaren adibide izango lirateke, eta Donostian, eta

Gipuzkoako herri handietan girotuak daudenak, hiri txiki edo herri handien adibide.

Bestetik, espazio ireki eta itxiak ere, bereizi daitezke. Batez ere, espazio itxiek dute garrantzia. Istorio gehienetan espazio itxiak agertzen dira, etxea (“Beti Karlen etxean egiten dute lo” *Sofako amodioak*, 51.orr), bulegoa (“Bulegora iritsi bezain laster piztu du ordenagailua” *Galtzerdiak*, 145.orr), kartzela (“Iritsi zara presondegiko atera” *Susana, gudaria eta poeta*, 74. orr.), ospitalea (“Erizainak zer moduz nagoen galdetzen dit batzuetan,...” *Bellevue*, 57.orr), metroa (“Bagoi barruan plano eskatu dio aldamenekoari” *Galtzerdiak*, 142.orr), autobusa (“Kartzelaraino eramango zaituen autobusaren leihotik begira zaude” *Susana, gudari eta poeta*, 72.orr), taberna (“Tabernan Ruperren azkena jarri zutenean niri begira gelditu zinen berriro” *Peio aireportura bidean*, 127.orr)...

Gure ustez, espazio itxietan pertsonaien bakardadea, sufrimendua, egonezina, hutsuneak, monotonia... ikus daitezke. Izan ere, zenbait istorioetan itota sentitzen dira, arnasa hartu ezinik. Esaterako, *Puntu suspentsiboak* ipuinean argi ikusten da emakumea itota sentitzen dela bulegoan: “Itolarria sentitu duzu, atzamar bat lepoaren ingurua tinko estutuz, bulego horretatik alde egin beharra” (62.orr.). *Susana gudari eta poeta* ipuinean aldiz, Susana kartzelara egiten duen autobus bidaian, egonezina, beldurra... sentitzen du “Han egongo ez bazina bezala zaude bidaia osoan” (72.orr). Bakardadea ere espazioari lotuta ikus dezakegu honako egoera hauetan. “Sukaldeko mahaiaren aurrean, plater hutsak jaso gabe, bazkalostearen kolore bakarra postreko laranja azalaren serpentinak dira” *Politika albisteak* (31.orr), “Bakarrik sentitu naiz entxupinaturik egon naizen bitartean (...) Liburuekin bete izan nahi dut hutsunea, baina horrek hutsune sentsazioa areagotzeko baino ez du balio izan” *Anai artea* (83.orr).

Azkeneko adibide honetan, oso argi ikusten da kartzela barruan dagoen pertsonaiak sentitzen duen bakardade eta hutsunea. Bestalde, *Sexu usaineko gezurrak* ipuinean, protagonistaren beldurra, errezeloak... ikus daitezke bere bikotekidearen logelan: “Zer ezkututzen duten ez dakidan hainbat liburu, karpeta eta kaxa” (135.orr). Amaitzeko, espazio itxietan ere, monotonia ikus daiteke: “Mikelek ohearen ezkerreko aldean egiten du lo; berak eskuinekoan betidanik” *Yolanda eta aulkiak* (119.orr), “Monikereren etxeko sofán etzanda, pertsiara erdiraino jaitzirik, Mikelek eta Monikek eguneroko urrezko hamabost minutu horiek xahutzeraino gozatu zituzten” *Sofako amodioak* (46.orr).

Espazio itxiak ikusita espazio irekiei ekingo diegu. Espazio itxiak bakardadearekin, hutsuneekin, ezinegonarekin... lotu ditugun moduan, espazio irekiak ihesbide gisa ikusi ditugu. Pertsonaien atzetik dauden mamuen irtenbidea, askotan espazio irekietara jotzen dutenean aurkitzen da. Lehenengo istorioan adibidez, *Eta handik gutxira gaur* istorioan, Florenek oinazea sortzen dion gaztetako oroitzapen bat dauka, inori kontatu ez diona, eta bere jaioterrira itzuli arte ez dio aurre egiten. *Juanluis eta kilimakurrak* ipuinean, bikote bat azaltzen da, baina neskak hutsune bat sentitzen du eta psikologikoki kanpora ihes egiten du, fisikoki espazio ireki batera alde egiten ez duen arren, mentalki egiten du, hutsune hori lagun imaginario batek betetzen duelarik. Peio aireportura bidean, Peio tabernatik irteterakoan, aske sentitzen da: “Nik ere agur egin nizun eskuaz, eta nire bidea jarraitu nuen, buruaz ezetz eginez, irriñoa ezkutatu gabe, aireporturaino” (130. orr). Gure ustez, Peiok aspalditik zeukan zama bat kendu du gainetik eta leku berri batera alde egiten du, kanpora. Azkenik, *Sofako amodioak* ipuinean, Monikek kalea, etxeko monotoniatik alde egiteko irteera ikusten du: “Negutegi zaharrera eramán zuen (...) Monikeri iruditu zitzaion une

hori magiaz beterik zegoela, bakarra zela eta pentsatu zuen ordura arte ez zutela inoiz amodioa ohetik kanpo egin” (44. orr).

Amaitzeko, Eider Rodriguezek bere ipuinak kokatzeko aukeratu dituen espazio guztiak errealak direla esan beharra dago. Ez dago espazio irreal edo fantastikorik. Istorio faktikoak dira liburu honetan aurki ditzazkegunak, izan ere, istorio erreal izan daitezkeenak fikzio bihurtzen ditu hemen oreretarrak.

Eider Rodriguezen ipuinak Euskal Herrian ez ezik, hemendik kanpo ere kokatzen dira. Hauetariko batzuk European eta beste batzuk ostera, Amerikan. Rodriguezek, espazio hauek zenbait arrazoiengatik aukeratu dituela pentsatzen dugu guk: bere bizitzaren eraginagatik (Hendaian bizi izan zen, Nafarroako Erriberan egin zuen lan ...), internazionalismoa irudikatu nahi duelako (espazioaren bitartez ikuspegi global bat erakutsi nahi digu) eta beharbada, baita arrazoi ideologikoengatik ere. Adibidez, *Chiapasko beroa* ipuinean istorioa Chiapasen kokatzen da eta hau arrazoi ideologikoengatik izan daitekeela pentsatzea zilegi da.

Denbora

Ipuin liburu honetan, Eider Rodriguezek, pertsonaien ezinegonak, beldurrak, kezkak... azaleratu nahi izan ditu. Hori dela eta, istorio askotan analepsiak ikus daitezke, pertsonai hauek iraganeko kontu batek arduratzen dituelako.

Istorio gehienek ez dute loturarik elkarrekin, ondorioz, bakoitzaren denbora bere aldetik aztertu behar da. Lehenengo istorioari dagokionez (*Eta handik gutxira gaur*), narratzaileak pertsonaia nagusiaren oroimenean atzera egiten du eta gaztetan gertatutakoak kontatzen ditu. Bi

istorio paraleloki kontatzen dira, biak bere horretan linealak direlarik. Pertsonaia nagusiari gaztetan gertatutakoa, Gerra Zibilean kokatzen da, 1937. urtean hain zuzen ere, “37ko udaberria oroitzen du” (14. orr). Bestea berriz, gaur egunean kokatzen da. Abiadurari begiratuta, iraganeko pasartean denbora motel doa: hurrengo egunean, egun hartan, eguerdi aldera, Manuel erail eta gutxira, handik gutxira...

Bigarren kontakizunean, *Politika albisteak*, denbora lineala da, nahiz eta analepsia txiki bat egon argazki batek eraginda: “Idoiak primeran gogoratzen du erretratu hura egun zuteneko eguna. Hemeretzi urte zituen berak eta hogeitasei Josebak. Josten ikasteko akademiara joan zitzaion bila...” (32.orr). Ipuin honetan, denbora poliki doa; hau denbora antolatzaileen bitartez (“minutu bat”, “bihar arte”, “bihar”, “bazkalostean”, “ordu erdi gerogo”, “segituan”, “arratsaldeko laurak dira”, “albistegiaren ordua”...) edo elementu batzuk askotan erabiltzearen ikus daiteke: *zilborresteko lizuna*. Elementu hau, sei aldiz behintzat azaltzen da istorioan zehar (“lizundurik azaldu zaio zilborra”, “zilborretik hauts guztia kendu”, “berrito azaldu zaio hauts hori zilborrean”, “hauts gehiago”, “berrito ere lizun hori aurkitu du zilborrean”, “odoletan dauka zilborra”...) Istorioa bi egunetan gertatzen da. Egun arruntak dira, horregatik ez da egun zehatzik aipatzen, hala ere, *GARA* argitaratzen den garaian gaudela jakin dezakegu.

Sofako amodioak ipuina, bederatzi ataletan banatuta dago, eta saltoak egiten dira denboran atzera. Denbora ez da era kronologikoan azaltzen, emakume baten bi harreman azaltzen dira ipuin honetan eta elkarrekin nahastu egiten dira, hortaz aurrera eta atzera ibiltzen da. Ipuin honetan denbora antolatzaileen bitartez ikus dezakegun bezala, denbora azkarrago doa: “bi hilabete igaro ziren”, “bi urte eta erdiz ibili ziren”, “beranduago gertatu zen”... Dena den,

pasarte batzuetan denbora motelago doa: “biharamunean”, “pare bat ordu lehenago”, “arratsaldea”, “gau hartan”...

Bellevue izeneko istorioak, egitura lineala jarraitzen du, baina protagonistaren gogoan analepsiak gertatzen dira. Pertsonaiak bere oroimenean, lehenago gertatutakoa kontatzen du orainarekin uztartuz. Analepsia hauek, lehenaldian kontatzen dira (“Abuztuko egun sargoria izan zen”, “airea ente mardula den egun horietakoa”, “Portugalgo hondartza batean”. 55. orr) eta gainerakoa orainaldian. Narrazioak zortzi egun irauten du, baina ez dakigu zein urtetan.

Hurrengo kontakizuna lineala da. Emakume bati goiz batean gertatzen zaiona kontatzen da, istorioak bi ordu inguru iraungo duelarik. Ipuin honen izena *Puntu suspentsiboak* da.

Jarraian datozen hiru ipuinak, elkarrekin lotuta daude. Lehenengoak, *Susana, gudaria eta poeta*, egitura lineala jarraitzen duen arren, narratzaileak atzera jotzen du, pasarte txiki batzuk kontatzeko (“Telebistan ikusi zenuten”, «bazkaltzen ari zinetenean. Ez zenuen ezagutu»...73. orr) esaldi laburrak agertzen dira eta honek azkartasuna ematen dio, denbora azkar igarotzen dela adierazi nahiko lukeelarik: “Iritsi zara presondegiko atera. Sakelekoak jo du. Harkaitz. Jotzen utzi duzu. Dena daki baina ez dizu ezer aurpegiratuko. Zigarro bat eskatu dizute” (74.orr). Ipuin honetan ere, ez da kanpoko denbora zein den esaten, ez dakigu zein urtetan gertatzen den.

Anai artea-n, hainbat analepsia ikus daitezke pertsonaia nagusiak bere oroimenaren bitartez, iraganera egiten dituen bidaietan. Ibanek bere anaiari eskutitz bat idazten dion bitartean, iraganeko momentuak gogoratzen ditu. “Aitzol Parisen epaitu zutenean egin zenuten bidaia oroitzen dut (...) gau hartan ez zen sexurik izan, saiatu nintzen arren...” (81.orr)

Zu eta Iban istorioan, denbora ez da lineala. Izan ere, protagonistak lehenengo pertsonan kontatzen du sentitzen ari dena. Sentimendu hauek, oroimenen bitartez azaleratzen zaizkio, bere anaia eta Susana elkarrekin zeudeneko garaia gogoratuz. Beraz, orainaldiaren eta iraganaren arteko jokoak ikus dezakegu hemen.

Protagonistaren oroimenaren bitartez, bere bizitzako aurreko garai bat kontatzen da lehenaldian *Juanluis eta kilimakurrak* ipuinean: “Berlinerak ikastera joan nintzenean gertatu zen. Lagunekin Europan barrena egindako tren bidaiari hasi ziren kilimakurrak sabelaldean...” (91. orr). Garai hartan bere imaginazioak sortu zuena ordea, orainaldian idatzita dago: “Hernanin geldituko naiz lotan, Izaroren etxea estreinatzeko. Aspaldian ez gara koadrilakoak elkartu...” (94.orr). Hortaz, protagonistak, pasarte errealak eta imaginatutakoak uztartzen ditu ipuin honetan. Flash-back bat egiten du, iraganeko gertatutakoak kontatzeko, baina ondoren gertaerak kronologikoki antolatzen dira.

Chiapasko beroa kontakizunean, narratzaileak iragana egiten du salto. Ipuinaren hasiera eta bukaeran protagonista bere etxean dago, baina istorioaren hasieran, (oraingoan ere argazki batek eraginda), analepsia bat gertatzen da eta jarraian protagonistak Chiapasen egindako bidaiari kontatzen da. Ondoren, protagonista gaur egunera itzultzen da eta Chiapasen ezagutu zuen neskekin ez oheratzeaz damutzen da. Momentu horretan argazkiari begira dagoela lokartu eta beste bidaiari bat egiten du amets baten bidez. Bertan, Chiapasen gertatu ez zena gertatzen delarik.

Hurrengo ipuinean, protagonistak emakume baten atzetik Madriletik zehar jarraitzen duen ibilbidea kontatzen da. *Calle de la Providencia* deiturikoak, egitura lineala jarraitzen duen arren, narratzaileak protagonistaren oroimenean atzera jotzen du: “Etorreran ezagutu zuen, aireportuan, aireportutik Callaorako metro bidaiari osoan

elkarrekin joan ziren, beti aurrez aurre, beti lineaz aldatu eta linea bera hartu zuten” (110-111.orr). Hala ere, iraganera egindako jauziez gain, etorkizunera ere egiten dira, hau da, prolepsia txiki batzuk daude: “Moñoa askatuko dio, urkilak banan banan atera bere ile sastrakan etzateko. Inork ez du inoiz horrela maitatu ez maitatuko, eta horregatik daki baitz esango diola, trabarik ez diola jarriko” (111.orr). Istorio honetan ere, erritmoa azkarra izan dadin, esaldi laburrak erabiltzen dira: “Segundo baten pusketa txiki bat. Flash bat. Bera zen. Bera zen? Emiliok konortea galduko zuela uste du” (109.orr).

Yolanda eta aulkiak kontakizunak, egitura lineala jarraitzen du. Emakume baten egun bat kontaktzen da. Ohera joaterakoan amets egiten du. Amets hau bere ohiko egun baten moduan hasten da baina, aldaketa txiki batzuk badaude. Protagonistak ez du bere lagunarekin kafea hartuko, ez ditu bere betiko lan osteko 3 minutuak baliatuko makilatzeko eta etxera iristean ez du bere mutila etxean zain izango. Esan daiteke, ametsak ipuinaren hasieran ageri den monotonia hausten duela.

Peio aireportura bidean deituriko narrazioak, arratsalde bat irauten du. Egitura lineala jarraitzen du, bi mutilak kalean elkartzen direnetik agurtzen diren arte. Hala ere, protagonistaren oroimenak institutuan zeudenean egin zuten ikasbidaiko pasarte batzuk gogoratzen ditu, beraz oraina eta iragana uztartu egiten ditu: “Eta nire aurpegi bera ikusten zenuen, ni nintzen, ez zeneukan duda izpirik, ni nintzen zurekin kafe gorrian egon zena, eta gero diskotekako sofán, baffleenak baino taupada biziagoan zihozazenean gure erraiak” (126.orr). Ipuineko elkarrizketak pisu handia dauka eta honek azkartasuna ematen dio kontaktzen denari.

Sexu usaineko gezurrak ipuinean protagonistak lehenengo pertsonan egiten du kontakizuna. Honen barruan bi denbora bereiz genitzake. Alde batetik, oraina eta bestetik,

iragana. Flas back-aren bitartez bere mutil-laguna nola eza-gutu zuen kontatzen du. Bestalde, istorioa kontatzen doan heinean momentu horretan egiten dagoena kontatzen du.

Galtzerdiak istorioak, ordubete irauten du gutxi gorabehera. Protagonista esnatzen denean hasten da istorioa. Ordubete soilik iraun arren, protagonistak etengabe atzera jotzen du. Kasu honetan ordea, minutu batzuk atzera jotzen du eta gehienez aurreko gaua gogoratzen du. Denboran egindako jauzi hauek, zentzumenek (usainak, zaporeak...) eragiten dituzte. Hala nola: “Ke eta gau usaina. Baina atzo, Rosarekin zinematik irtendakoan etxera joan zen eta zuzenean” (143.orr). Orduak eta minutuak etengabe adierazten dira eta honek erritmoa moteldu egiten du.

Azkeneko ipuinaren denbora, apur bat bitxia da. *Hazira itzultzea*-n pertsonaia nagusiak atzera egin beharrean, narratzaileak egiten du atzera eta pasarteka kontatzen du istorioa, hortaz flash-back-a gertatzen da. Pasarte horiek ordea, atzera jotzen den momentutik kronologia bat jarraitu ordez, alderantziz gertatzen da. Pasarteak geroz eta lehenagokoak dira, hau da, 5,4,3,2,1 egitura jarraituko lukete. Gainera atal hauek banan-banan desagertzen doazela ematen du.

Amaitzeko, ipuin gehienetan data zehatza adierazten ez dela azpimarratu nahi dugu. Izan ere, *Eta handik gutxira gaur* eta *Politika albisteak* kontakizunetan izan ezik, ez zaigu istorioen eguna edo urtea zein den esaten. Hautetatik lehenengoan, data zehatza ageri da eta bigarreanean, *GARA* argitaratu eta batasuna ilegalizatu zuteneko garaia dela jakinarazten zaigu irakurleoi.

Hizkera

Eider Rodriguezek “*Eta handik gutxira gaur*” ipuin-liburuan erabiltzen duen hizkera landua da. Asko zaintzen

ditu hitzak eta bere lanean nabari da gauzak kontatzeko moduari garrantzia handia ematen diola.

Aurretik aipatutakoa kontutan izanda, guk ez dugu uste formari garrantzia eman ez edukia bigarren maila batetan geratzen denik. Hau pentsatzen duenik badago, hala ere. Ana Unanuek esaterako, *Aizu! Aldizkarian* (2004) idatzi zuenaren arabera “*Zer kontatua baino gehiago, nola kontatu da egilearen kezka*”. Unanuek dio zer kontatuari ere garrantzia ematen dion arren, idazkera dotoreenak erabiltzeak euskarriren bat behar duela eta alde horretatik, gorabeheratsua dela Eider Rodriguez-en ipuin-liburu hau. Hau esanez jarraitzen du bere kritika: “*Ipuin batzuetan euskarri falta sumatzen da, zutabe gutxi hainbeste apaingarriri eusteko. Horietan jolas estilistikoak hutsal bihurtzen dira eta irakurketa moteldu egiten da.*”

Gu, lehen aipatu bezala, ez gatoz bat iritzi honekin. Autoreak ederki jakin du esan behar denean esaten eta nahi izan duenean, isiltasuna, iradokitzeko tresna baliagarritzat erabiltzen. Isiltasuna, izan ere, nagusi da Rodriguezen lanean. Idazkera metonimiko bat erabiltzen du bere narrazioetan: usainak, koloreak... edozer gauza bihurtzen da metonimia.

Gure ustetan, Rodriguezek, askotan gauzak ez ditu kontatzen baina hau bere idazteko jokoan sartzen da. Esan nahi duguna da, egileak isiltasunekin ere jokatzen duela eta ezer esan gabe gauzak iradoki nahi hori agertzen duela.

Alvaro Rabelli-k *El País*-en (2004) idatzitako kritika honek Eider Rodriguezen hizkerari buruzko zenbait zertzelada ematen ditu, aipatzekoak begitandu zaizkigunak: “*Emakumetasunaz jardun gabe, nagusi da emakumeen aho-tsa, bakardadean eta egunerokotasunaren etsipenean bizi diren emakumeak. Bestalde, nabarmentzekoa da Eiderrek darabilen hizkera. Lirikatik hur-hurreko hizkera. Hizkera hau areago ederresten da sarri darabiltzan detaile zehaztuetan*”.

Bestalde, hizkuntzaren aldetik ere badago zer aipatua. Ipuin-liburu hau euskaraz dago idatzita baina, tarteka, beste hizkuntza batzuk ere erabiltzen ditu idazleak. Besteak beste, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Azkeneko hau ez da elkarrizketetan erabiltzen eta oro har ere ez da gehiegi antzematen. Marka komertzialak aipatzen direnean erabiltzen da gehienbat. Horien adierazle da esaterako *Renault Express* adibidea.

Gaztelania eta frantsesa dezente ageri diren bi hizkuntza dira. Marka komertzialetan gaztelaniak ere indar handia duela ikus genezake (*El diario Vasco, Pronto, Tendencias, Los 40 principales,...*). Esan beharra dago baita ere, Euskal Herriko gatazka politikoa gaitzat hartzen den ipuinetan gaztelaniaren presentzia ikaragarria dela. Hauek dira aurki ditzazkegun adibideetako batzuk:

Eta handik gutxira gaur

“ – ¿Te se ha comido la lengua el gato, o qué?

– Buen día, señor alcalde- eta hitzok esan eta berehala konprenitu zuen mendekua izanen zela”. (20. orr.)

“ – ¿Qué pasa o qué?” galdetu zion idazkariak, bota distiranteek ematen zioten itxura beldurgarriagatik.

– Que voy a adornar el balcón p’al día de la Virgen”. (22. orr.)

Politika albisteak

“Batasuna augura acciones policiales inminentes” (34. orr.)

“El congreso aprueba la ilegalización de batasuna” (37. orr.)

“La policía gala ha detenido en un camping de la localidad francesa de Arles al presunto etarra Joseba Amilibia y a su compañera Dominique Paulus. Los detenidos,

junto con su hija de tres años, se disponían a abandonar el camping cuando un agente de la Policía francesa les pidió la documentación” (40. orr.)

Susana, Gudaria eta Poeta

“Deje aquí billetes y monedas. Quítese el cinturón () Pase” (74. orr.)

Gure uste soila den arren, pentsatzen dugu gaztelania gataska politikoaren inguruan hitz egiten den ipuinetan agertzea esanguratsua da.

Hala ere, lehenik eta behin, kontutan hartu behar da, gaztelania agertzen den ipuin hauetan istorioa zein herri edo hiritan kokatzen den. *Susana, Gudaria eta Poeta* adibidez, Madrilen gertatzen den istorioa da eta *Eta handik gutxira gaur* istorioan, gaztelania erabiltzen denean, pertsonaiak Nafarroako Erriberako herri batean daude. *Chiapasko be-roa* Chiapasen kokatzen den istorioa da eta *Calle de la Providencia* ere ez da Euskal Herrian kokatzen, Madrilen baizik.

Zilegi da beraz, gaztelania nagusi den lekuetan kokatzen den istorioetan, autoreak, gaztelania erabiltzea. Hau ez da halabeharrez egin beharreko zerbait, idazlearen hautua baizik.

Politika albisteak ipuinean gaztelanian ageri dela aipatu dugu lehenago. Hizkuntza hau, “Teleberri”-ko edo “Gara”-ko berri bat agertzen denean erabiltzen da. Gure ustez, honekin, Eider Rodriguez-ek, kritika bat egin nahi izan du. Baina, zein kritika? Berriak euskaraz ere izan daitezkeela. Izan ere, “Teleberri” Euskal Herriko kate bateko programa bat da eta hala ere, berriak gaztelaniaz ematen dira. “Gara” ere, Euskal Herriko egunkari bat da eta euskaraz idatzitako zertxobait dagoen arren, gaztelania nagusitzen da nabarmenki.

Hala ere, badago salbuespenik. Izan ere, *Puntu suspentsiboak* ipuinean ez da gatazka politikoaren gaia ageri eta gaztelania erabiltzen du protagonistak hitz egiten duen zenbaitetan:

- “– Tila bat, mesedez.
- ¿Una tila?
- Sí, por favor” (63. orr.)

Elkarrizketa zati hau protagonistaren (emakume euskalduna) eta taberna bateko zerbitzari baten artekoa da. Istorioan zehar esaten denaren arabera, kamareroa etorkina da. Hemen, autoreak, zerbitzaria den pertsonaia, etorkin eta erdalduna bezala sailkatu du.

Elkarrizketari erreparatuz gero, ikus genezake, emakumea euskaraz hitz egiten hasten den arren, zerbitzariak gaztelaniaz galdetu eta bera erdaraz egitera bultzatzen duela. Hau da azken finean, gaur egun, euskaldunok jasaten dugun egoera, gertakizun erreal bat.

Lehen esan bezala, frantsesaren presentzia ere nabaria da liburu honetako zenbait ipuinetan. Eider Rodriguez Hendaian egon zen bizitzen eta honen eragina badago liburu honetan (Hendaia bera aipatzen du ipuinen batean).

Lehenengo ipuinean adibidez (*Eta handik gutxira gaur*) aitonaren eta alabaren arteko elkarrizketak eta aitonaren eta bere bilobaren artekoak euskaraz diren arren frantsesa uztartzen dute noizean behin:

“– Ma chère –esan dio alabari frantsesaren ahoskera lege guztiei muzin eginez–: Siestara noa. Bero nardargarri honek tripak aldrebestu dizkit. Mon pot –esan dio Manexi eta, zerbait gaineratuko zuela zirudien arren, ez du beste ezer esan”. (19. orr.)

Hala ere, esan beharra dago, hitz solteak baino ez dira txertatzen, euskara nagusi delarik. Ipuin honetan gaztelania ere agertzen dela aipatu dugu lehen eta hau kontutan

harturik, nabarmentzekoa da gaztelaniaren presentzia askoz handiagoa dela frantsesarena baino.

Beraz, orain arte ikusi dugun moduan, ipuin batzuetan euskara eta gaztelania uztartzen dira, beste batzuetan frantsesa eta euskara... Eider Rodriguez egiantzarekin jolasean ari da eta agiantza hau bilatzeko hizkuntza ezberdinekin jolasten du.

Bikoiztasun bat nabari da hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituenean. *Calle de la providencia* hau azaltzeko adibide garbia da. Ipuin honetan, idazleak izenburua gaztelaniaz idatzi du, hau baita istorioa gertatzen den Madrilgo kalearen izena. Hala ere, kontakizunean zehar, gaztelaniarekin batera euskara ere erabiltzen du. Hemen beraz, argi dago, autoreak irakurlea Madrilen kokatu duela eta izenburua gaztelaniaz eman duela errealismoa eman nahirik istorioari. Gero, kontakizunean zehar, elkarrizketetan, gaztelania erabili du eta hau ere ulertzekoa da, Madrilen hizkuntza horretan hitz egiten delako. Hala ere, gainontzekoa euskaraz kontatzen da. Eider Rodriguez idazle euskalduna denez eta irakurle euskaldunontzat idazten duenez, euskara da kontatzeko erabili duen hizkuntza. Agian, errealismo puntu hori galduko du istorioak hein batean baina, hau da, azken finean, Rodriguez-ek egiten duen jokia.

Bikoiztasun hau ez da soilik liburu honetan ageri. *Haragia*-n ere egiantzarekin jolasten du Rodriguez-ek eta horren adierazle da *Salgai* ipuina. Kontakizun honetan izenburua euskaraz ematen da baina kontakizunean zehar, hitz bera gaztelaniaz ageri da.

Gainera, aipatzekoa da, bikoiztasun honen barruan, autorearen borondate bikoitza agerikoa dela. Izan ere, bi hizkuntza erabiltzeak askotan bi borondate agertzen ditu. Batzuetan politikoa eta besteetan ostera, kritikoa.

Atal honi bukaera emate aldera, lehen aipaturiko marka komertzialen inguruko aipamen txiki bat egitea beharrezkoa da. Ipuin-liburu hau modernitatearen barruan

kokatu genezake eta hortaz, zilegi da pentsatzea, lanean bertan, elementu moderno ugari ageriko direla. Horien artean kokatuko genituzke marka komertzialak. Zenbait ipuinetan, hainbat alditan agertzen dira hauexek: *coca-cola*, *Renaul Express*, *Ikea*, *Magno xaboia*, *Sanex*, *Bordeaux vif*,...

Komunikabideek ere berebiziko garrantzia dute, hala nola, aldizkariak eta telebistak: *Los 40 principales*, *Gara*, *El Diario Vasco*, *Teleberri*, *Tendencias*, *Pronto*, *Marca*,... Ikus dezakegun moduan euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa, laurak erabiltzen dira marka komertzialen eta komunikabideen esparruan. Hala ere, argi dago gaztelania dela gailentzen dena alor honetan.

Esandako guztia kontutan harturik, ikus genezake lau hizkuntza erabiltzen direla ipuin-liburu honetan. Honek erakusten digu euskararekin bakarrik ezin garela mugitu, hizkuntza askoren beharra dagoela. Azken batetan, hizkuntza ugari erabiltzea mundu aberats eta ugari baten erakusketa egitea da eta hau da Eider Rodriguezek egin nahi izan eta egin duena.

Intertestualitatea

Atal honen barruan, zenbait puntu ikusiko ditugu. Alde batetik, beste autore batzuek Eider Rodriguezen izandako eragina ikusiko dugu, eta bestetik, liburu honetan musikari, idazleei... egindako hainbat eta hainbat erreferentzia aztertuko ditugu.

Ipuin hasierako aipuak

- *Sofako amodioak*

“Bat-batean oso zorigaiztoko sentitu nintzen, nahiz eta eserita nengoen sofa bertan hondoratzeko bezain biguna izan.”

Wilde Sargasso Sea, J. RHYS.

Ipuin honetan J. Rhys-en aipu bat ageri da. Jean Rhys mendebaldeko XX. mendeko Karibeko nobelagilea da. Figura literario ezaguna kontsideratu zen 1996an Wilde Sargasso Sea liburua argitaratu zuenean. Liburu honeko 1967. urtean WH Smith Literary Award irabazi zuen. Hor-taz gain, aipatzekoa da, Jean Rhys idazle feminista dela.

Haurtzaro zaila izan zuen Rhys-ek. Roseaun jaio zen naiz eta gero Ingalaterrara joan zen bizitzera. Londresen korista moduan egin zuen lan baina ez zuen arrakasta han-dirik izan eta Hollowayko kartzelan bukatu zuen.

1920. urtean Europara joan zen, Parisera, eta bertan artista bohemio gisa egin zuen lan. Urte hauetan Rhys pobrezian bizi zen baina, hala ere, garai honetan ezagutu zuen arte modernista eta literatura. Era berean, alkoholikoa bihurtu zen, bizitza guztian izan zuen gaixotasuna hain zu-zen ere. Gizarte patriarkal batean bizitako esperientziek eta baztertuta sentitzearen sentimenduek eragin handia izan zuten bere lan batzuetan. Baita bere haurtzaro zailak ere.

Rhys-en lan gehienak beraien inguru naturaletik baz-tertuta eta balore familiar urriko gizarte baten menpean aurkitzen diren emakumeen ingurukoak dira. Hau bere es-perientzia propioaren isla izango litzateke. Rhys-ek teknika modernista ugari erabiltzen ditu eta hauekin nahasketak ere egiten ditu. Hau bere estiloaren ezaugarriarik nagusienetako bat da. Honekin batera, aipatu beharra dago, bere sentsibi-litate propioak ere oso garrantzitsuak direla bere estiloan.

Sofako amodioak ipuinean Monikeren istorioa konta-tzen da. Monike Mikel izeneko mutil batekin dabilen neska gazte bat da eta monotonian murgilduta dago bikotea. Honen aurrean, Monikek, aldatzeko beharra sen-titzen du eta beste mutil batekin irteten hasten da, Karl. Hasieran ezberdina iruditzen zaio dena baina, egunak pasa ahala, ikusten du, dena berdin dagoela, ezer ez dela aldatu eta lehengo monotoniak bizirik jarraitzen duela:

“Dezepzionaturik pentsatu zuen mundu honetan ezer ez dela autentikoa baizik eta noizbait lehengo aldian, autentikoa izan zen zerbaiten kopia itsusia” (45. orr.).

Hala ere, azkenean konformatu egiten da eta berarekin geratzen da, egoera onartu egiten du: “Apustua egina zegoen: Karl. Oraina Karl zen eta elkar maite zuten. Monikek pentsatu zuen ederra zela eta haur politak izan zitzakeela” (52. orr.).

Aipuari erreparatuz gero, gure interpretazioa hauxe izango litzateke: nahiz eta bizitzak ondo, pozik... egoteko aukerak ematen dizkigun ez gara inoiz zoriontsu izatera iritsiko. Ipuin honetan adibidez protagonista triste dago egoerarekin baina, tristura hori gustagarria egiten zaio. Azken finean, zorigaiztoa biguntasunarekin lotzen da. Izan ere, Monike Mikelekin dagoenean, hasieran, dena polita da eta dena doa ondo baina, Monike egoeraz aspertu egiten da. Honen aurrean Karlekin irteten hasten da eta gauza bera gertatzen zaio kasu honetan ere. Baina azkeneko aipatu dugun adibidean ikus genezakeen moduan, protagonista konformatu egiten da eta positiboki begiratzen dio egoerari, alde onak gorai patuz. Hortik dator seguruenik, Eider Rodriguezek pasarte honi jarritako izenburua: *Objektiboki*.

• *Bellevue*

“Patrika-erlojua, ondo eman diot ordua.

Musker arrakalak dira kaleak

Maldan behera, eskutatzeko zuloekin.

Hobe dugu kale itsu batean elkartzea.

Belusezko jauregi bat

Ispiluzko leihoekin.

Hortxe dago bat segurua,

Ez dago famili aragazkirik...”

“Gigolo”, S. PLATH

Bellevue ipuinean ageri den aipua, goian ikus genezakeen moduan, Sylvia Plath-en *Gigolo* liburuko testu zati bat da. Emakume hau Bostonen jaio zen 1932. urtean eta 1963an hil zen Londresen. Poeta bezala egin zen ezagun gehienbat idazle estatubatuar hau nahiz eta prosan idatziriko lanak, saiakerak eta narrazioak ere idatzi zituen.

Anne Sexton-ekin batera, Plath poesia konfesional bezala ezagututako generoa landu zuen.

Txikitatik izan zuen idazteko nahia eta trebezia eta bere lehnengo poema 8 urterekin argitaratu zuen. Garai horretan bere aita hil zen, 1040. urtean, hain zuzen ere. Plath-ek idazten eta argitaratzen saiatzeko ahalegina egin zuen eta ospea lortu zuen.

Unibertsitateko lehenengo urtean Plath bere buruaz beste egiten saiatu zen. Beranduago argitaratu zuen nobela semi-autobiografikoan kontatu zuen gertatutakoa. Lan honen izenburua *La campana de cristal* (*The Bell Jar*) da. Hospital McLean izeneko ospitale psikiatriko batean egon zen Sylvia Plath denboraldi batean. Hasiera batean bazirudien osatu zela eta azkenean, 1955. urtean, graduatzea lortu zuen.

Cambridgeko unibertsitatara joan zen Fullbright bekari esker eta bertako aldizkarian idazten hasi zen. Cambridgen Ted Hughes ezagutu zuen, gerora bere senarra izango zena. Elkarrekin zeudelarik Plat haurdun geratu zen baina abortu bat izan zuen. Idazleak, gertatutako honen inguruko aipamena egiten du bere poema batzuetan. Azkenean ordea, seme bat izatea lortu zuten baina honek 2 urte egin baino lehenago banandu egin zen bikotea.

Egoera honen aurrean, Plath Londresera joan zen bere bi seme-alabekin bizitzera. Bertan pisu bat alokatu zuten eta hasieran gustora egon ziren. Hala ere, pixkanaka gaixotzen eta pobrezian erortzen joan zen Plat eta azkenean, 1963. urtean, bere buruaz beste egin zuen. Nahiz eta pentsatu izan den berak bere buruaz beste egin izana bere aitaren

heriotza gainditu ez zuenaren ondorio zela, gaur egun badakigu trastorno bipolarra zuela.

Bere lanen artean poesia eta prosa lanak, itzulpenak, etab. aurkitzen dira. Poesia liburuen artean hauexek aurki ditzakegu, besteak beste: *El celoso*, *Ariel*, *Cruzando el agua* eta *Poesia completa*. Prosari dagokionean nabarmentzekoak dira hurrengo lan hauek: *La campana de cristal*, *Cartas a casa*, *Los diarios de Sylvia Plath* eta *The Magic Mirror*.

Aipura bueltatuz, badago testuan aipagarria den esaldi bat: “*Belusezko jauregi bat ispiluzko leihoekin*”. Hemen espazioaren aipamen bat egiten da. Aipu hau segurantza faltsuarekin lotu behar da. Baina, zer esan nahi dugu segurantza faltsuarekin? Hobeto ulertzeko ipuinarekin lotura egitea ezinbestekoa da. Izan ere, *Bellevue* ipuineko protagonista eroetxe batean dagoen emakumea da. Berak txikitako oroitzapenak diruditenak gogoratzen ditu baina guk ez dakigu benetan, kontatzen duen hori egia den edo ez. Alde batetik, bere segurantza dago eta bestetik, badakigu eroetxe batean dagoela. Hortaz, bere segurantza hori benetakoa da bera ospitale psikiatriko horretan dagoela kontutan harturik? Honi deituko genioke segurantza faltsua.

• *Susana, Gudaria eta Poeta*

“*Ez zait ikusteko ezer gelditzen. Zubia, zubi bat besterik ez da; erreka, erreka bat; zerua, zeru bat. Paisaia hutsik dago orain, toki aproposa da igandetan lasterka egiteko. Edo ez dago zehazki hutsik: berez den horrek betetzen du, nik begiratzen ez dudanean*”.

Eye's Cat, M. ATWOOD.

Margaret Atwood-en *Eye's Cat* liburuan aurki genezake hementxe daukagun aipua. Atwood-ek txikitatik zuen gustuko edozelango literatura irakurtzea. 16 urterekin hasi zen idazle hau idazten. 1957an Torontoko Victoria

Univesity-n hasi zituen unibertsitateko ikasketak eta bertan, Jay Macpherson eta Northrop Frye izan zituen irakasle. Hauek eragin handia izan zuten Atwood-en poesia goiztiarrean mitoen eta arketipoen gaiari dagokionean. 1961. urtean lizentziatu zen ingeles filologian eta frantses eta filosofia ikasketak ere egin zituen.

1961an lizentziatu ondoren Harvard-eko Unibertsitatera joan zen gradu-ondoko ikasketak egitera. Gerora, irakasle moduan egon da lanean.

1968an Kim Polk-ekin ezkondu zen eta 1973. urtean banandu ziren. Gero Graeme Gibson-ekin ezkondu zen eta alaba bat izan zuten elkarrekin.

Margaret Atwood-ek lan handia egin du eta aipatzekoa da besteak beste, emakume feminista dela eta giza-eskubideen, adierazpen askatasunaren eta beste zenbait kausen alde borrokatu duela.

Lehen aurkeztutako aipuari erreparatuz, esan genezake, egin daitekeen interpretazioa hauxe dela: norbaitek zerbait begiratzen duenean, paisaia esaterako, hutsik ikusten da. Baina, begiratzen ez duenean posible da lehen hutsik ikusi duen hori orain hutsik ez egotea.

Susana, Gudaria eta Poeta ipuinaren hasieran agertzen da aipu hau baina, hala ere, jarraian datozen beste bi ipuinekin (*Anai artea* eta *Zu eta Iban*) ere lotu behar da. Izan ere, hiru istorioak dira egoera beraren baitan kokatzen diren narrazioak.

Hiru istorioetan hiru pertsonaiek modu ezberdinean pentsatzen dute gauza beraren inguruan. Ipuin bakoitza pertsonaia baten ikuspuntutik kontaturik dago eta hortaz, istorio bakarra dirudien hori hiru istorio ezberdinen bitartez kontatzen da.

Hortaz, hemen ikus genezake beraiek pentsatzen duten hori beraientzat horrela dela baina ez dela zertan egia bakarra izan behar. Azken finean, aipuak dioena baieztatzen

da: zuk zerbait begiratzen duzunean horrela dela uste duzu baina, begiratzen ez duzunean agian, ez da zuk uste zenuen **Rhys, Plath eta Atwood**

Beharrezkoa da hiru emakume hauek batera aipatzea. Izan ere, hirurak dira edo izan dira idazle feministak eta eragin handia izan dute Eider Rodriguezen lanean. Gainera, esan beharra dago, beraien hiru aipuetan hiru kontraesan ageri zaizkigula:

1. Zorigaiztoa biguna da.
2. Segurua faltsua da.
3. Begiratzen dudanean paisaia hutsik dago baina, begiratzen ez dudanean agian, beteta.

• *Sexu usaineko gezurrak*

“Nonahikotasunaren eta putzu agorren antzeko desira bat, maldiziotik asko zeukana, birrintzeko irrikatik, teatro izugarrizkotik; goseak errinozero azalpen bezala su hartzen zuen desira bat.

El pájaro: pincel y tinta china, E. L. PORTELA

Ena Lucía Portela Kuban jaio zen 1972an. Narrazioak eta saiakerak idatzi ditu. Hizkuntza eta Literatura klasi-koetan lizentziatua da La Habanako unibertsitatean.

Aipatzekoa da ez dela oso idazle ezaguna eta bere bizi-tzaren eta lanaren inguruko informazioa ere nahiko urria dela.

Aipua *El pájaro: pincel y tinta china* liburutik aterata dago, goian ikus genezakeen moduan. Lan honek UNEAC-ek ematen duen Cirilo Villaverde saria irabazi zuen 1997. urtean eta bi urte beranduago argitaratu zen.

Aitortu beharra daukagu aipu honen eta ipuinaren arteko loturari dagokionean, interpretazio txiki bat egin dugun arren, jarraian aipatuko duguna ez daukagula batera argi.

Aipuan desira baten inguruan hitz egiten da. Desira zerbait ikaragarri moduan aurkezten zaigu hiru lerro hauetan. Guk, desio hau protagonistak sentitzen duenarekin lotu dugu, bere sentimenduekin, alegia. Izan ere, pertsonaia nagusia bere bikotearekin dago eta hau kanpora doanean, arrazoi bat bilatzen du harreman hori hautsi eta etxetik joateko. Azken batetan erlazioari bukaera ematea da benetan emakumeak nahi duena, bere desira.

• *Hazira itzultzea*

“Nire bizitzaren kontakizun hau, nire amaren bizitzaren kontakizuna izan da, nirearena izan den neurri berean; eta hala ere, berriro ere, inoiz eduki ez ditudan seme-alaben bizitzaren kontakizuna izan da, hala nola, niri buruzko kontakizuna (...). Izaten inoiz utzi ez zitzaion izakiaren kontakizuna da hau, nik nire burua bilakatzen utzi ez nuen izakiaren kontakizuna.”

The autobiography of my mother, J. KINCAID

Elaine Cynthia Potter Richardson, Jamaica Kincaid izenaz ezagutzen den idazlea, Saint John's-en jaio zen 1949. urtean. Antigua y Barbudako idazlea da.

Emakume hau, 17 urterekin, New York-era joan zen biziztera eta bertan, au pair gisa egon zen lanean Forbes aldizkarirako. Gerora, argazkilaritza ikasi zuen New School for Social Research-en eta Franconia College-en ere burutu zituen ikasketak. New Yorker-erako lanean ere ibili zen.

Nobela eta narrazio labur ugari argitaratu ditu. Egun, Harvard-eko Unibertsitatean irakasle da literatura sortzailearen alorrean.

Aipu honen kausan ere zalantza ugari ditugula esan beharra daukagu. Hala ere, gure interpretazioa egin dugu oraingo honetan ere. Aipuan esaten denaren irakurketa bat eginez hauxe da guk ulertu duguna: bakoitzak bere kontakizuna duen arren, hau besteen kontakizunengatik bal-

dintzatua dagoela: gurasoak, lagunak, seme-alabak, etab. Inoiz ez dugu gure kontakizun propioa izango.

Hau da azken batean Elenari gertatzen zaiona. Bere kontakizuna bere gurasoek baldintzaturik dago; aita mozkorra izateak eragina du bere izaera eta bizimoduan.

Oso garrantzitsua da aipuaren bukaeran esaten dena: *“Izaten inoiz utzi ez zitzaion izakiaren kontakizuna da, nik nire buruan bilakatzen utzi ez nuen izakiaren kontakizuna”*. Honek erakusten digu benetan esan nahi dena: inoiz ez gara guk nahi duguna izango, besteen eragina beti izango baitugu presente.

Ondorio modura

Ezinbestekoa da aipatzea *Eta handik gutxira gaur* liburuan Eider Rodriguez-ek txertatutako bost aipuak bost emakume idazlerenak direla. Nabarmentzekoa da baita ere, bost horietatik hiru feministak direla (beste bien inguruan ez daukagu informazio askorik eta hortaz ezin genezake honi buruzko ezer aipatu).

Ipuin barnean idazleak eginiko erreferentziak

Esan bezala intertestualitateari dagokion bigarren atal honetan, Eiderrek bere liburuan zehar ikusitako hainbat erreferentzia aztertuko ditugu.

• Idazleei eginiko erreferentziak

Lehenik eta behin idazleei egindako erreferentziak ikusiko ditugu, oso ugariak baitira. Hauek esplizituki zein inplizituki agertzen dira eta Euskal Herriko zein kanpoko idazleak aipatzen ditu autoreak. Kanpoko idazleei dagokienez, batez ere, emakumeak hautatu ditu bere la-

nean txertatzeko. Ikusi dugun bezala, aipu guztiak emakumezkoenak dira eta ipuinean zehar aipatzen diren idazle kanpotar gehienak baita ere. Esaterako Margherite Duras aipatzen da *Sofako amodioak* ipuinean: “Marguerite Durasen hilobian aurkiturio txanponaren fede ona...” (51.orr). Margaret Atwood berriz, *Sexu usaineko gezurrak* ipuinean aipatzen da:

Bestalde gizon idazleren bati ere erreferentzia egiten zaio, hala nola, Italiako XX. mendeko idazle ospetsu-
netariko bati, Cesare Pveseri. “Cesare Pavesek bere buruaz
beste egin zuen” *Sexu usaineko gezurrak* (135.orr.).

Azkenekoa den, Hazira itzultzea ipuinean, Robert Louis Stevenson idazleari erreferentzia egiten zaio: “Jekyll doktorea Hyde jauna bihurtzea gauza arrunta da, are arruntagoa galai ulerkorrenari trogloditaren sen falozentrikoenak bistaratzea, batez ere dozena erdi marra eta kubata litro bi irentsi ostean” (147.orr.).

Idazle euskaldunen erreferentziak ere, askotan azaltzen dira. Horren adibide esplizituak dira Saizarbitoria “Saizarbitoriaren posea imitatzen ikusten zaitut, *El Pais*-eko argazki batean, astebeteko bizarra eta gaupasa aurpegiarekin...” *Anai artea* (84.orr.), Koldo Izagirre “... eta haren ondoan Koldo Izagirrerren liburu berria, globalizazioari buruzko liburukote irentsezin bat...” *Chiapasko beroa* (101.orr.) eta Joseba Sarrionainadia “...eta Sarriren ez daki zein liburu” *Chiapasko beroa* (106.orr.). Rodriguezek hiru euskal gizon idazle hauen aipamena egiten duen arren, era inplizituan bi euskal emakume idazleri ere erreferentzia egiten diela iruditzen zaigu. *Susana, gudaria eta poeta* eta *Anai artea* ipuinetan hurrenez-hurren, bikien izen-abizenak azaltzen dira: “Iban Agirre Alberdi. Zure txanda da” (74. orr.) eta “Harkaitz Aguirre Alberdi, Premio Nacional de literatura, ha tenido que huir del Pais Vasco ante el acoso de ETA” (84.orr.). Gure ustez, Eider Rodriguezek bi abizen

hauek nahita erabili ditu, Katixa Agirre eta Uxue Alberdi euskal idazleei erreferentzia egiteko. Izenei dagokionean ere, aipatzekoa da, bi anaia hauen izenak Cano eta Zaldua idazleenekin bat datozela: Iban Zaldua eta Harkaitz Cano. Hortaz, ezkutatuta dagoen arren, autoreak lau idazle hauek gogoan dituela ikus dezakegu.

• Musikari eginiko erreferentziak

Idazleak alde batera utzita, musikari egindako erreferentziei ekingo diegu. Hemen ere euskal musikari bat aurki dezakegu, Ruper Ordorika, *Peio aireportura bidean* ipuinean hainbatetan aipatzen dena: “Gogoratzen zara Ruperren kontzertuaz, Lezon, gabonetan?” (125.orr.) edota “Garai batean Ruper zen mundua atzemateko katalizatzailea. Beno, Ruper eta jende gehiago ere bai, baina Ruper zen ez dakit... (129.orr.). Ordorikaz gain, ez da beste euskal abeslaririk aipatzen, baina bai kanpoko zenbait kantautore.

Hasteko, ipuin-liburu honetako hirugarren ipuinean, *Sofako amodioak* ipuinean, behin eta berriz errepikatzen da *La double vie de Veronique* abestia. Kanta hau, Zbigniew Preisner kantautore poloniarrena da.

Anai artea ipuinean, bi abeslariri egiten zaie erreferentzia. Batetik, Silvio Rodriguez kantautore kubatarrenen aipamen zehatza egiten da bere abesti zati batekin batera: “*Y decirte que todo está igual, la ciudad, los amigos y el mar esperando por ti* entzuten nuen horrelakoetan zure gelako musika katean; Silvio puta, esaten zenuen zuk...” (80.orr.). Honekin batera, ezinbestekoa iruditzen zaigu, Eider Rodriguezek argitaratutako bigarren ipuin-liburuan, *Haragia*-n, aipu berbera azaltzen dela. Kanta zati hau euskaraz ematen du *Haragia* deituriko ipuinaren aipu bezala: “Eta denak berdin jarraitzen du, hiriak, lagunak eta itsasoak, zuen zain”. Silvio Rodriguezen aipamen honen

ostean, liburu honen egileak, Sade Adou abeslaria ekartzen du gogora: "... eta nik ere bai Saderenak, Sade Adou, gure ametsetako emakumea, egur gurian tailaturiko jainkosa" (80.orr.).

Chiapasko beroa ipuinean berriz, Leon Gieco musikari eta kantautore argentinarrari erreferentzia egiten zaio: "Argakia ordea, paretan itsatsi zuen, atzean hirurek maite zuten Leon Giecoren abestia idatzi zion" (102.orr.). Musika talde espainiar baten aipua ere azaltzen da: "(Isabelek oparitutako Jarabe de Paloren elastikoa, eskergabeko hori!..." (101.orr.). Bestetik, Erich Frommen, Alemaniako psikologo, psikoanalitiko, filosofo eta humanistaren aipamen esplizitua ere ageri da: "eta Erich Frommen *Maiatzaraen artea*, bata bestearen gainean ipinita..." (101.orr.).

Ikusten ari garen bezala, ipuin-liburu hau, erreferentziaz josirik dago. Istorioa Chiapasen girotuta dagoela kontutan hartuta, bertako iraultzaren zenbait erreferente azaltzen dira: alde batetik, Eiderrek keiñu txiki baten bitartez, Marcos Subkomandantea ekartzen du gogora, EZLN-ren bozeramale eta herri indigenaren askatasunaren, demokraziaren eta justiziaren alde borroka egin zuen gizona: "... eta gainean kalabaza txiki bat eta Marcosen aurpegia estalia kristalezko hautsontzian tailaturik" (106.orr.). Bestalde, ipuin honetan ere, Jose Reueltasi erreferentzia egiten zaio. Gizon hau idazlea izateaz gain, Mexikoko eragile politikoa izan zen. Liburuan honako aipamen hau egiten da: "Esku batean Coronitas botila bat dauka limoirik gabe, Jose Revueltasen antologia bestean" (106.orr.).

Amaitzeko, *Sexu usaineko gezurrak* ipuinean, San petesburgon jaiotako musikagile baten aipamena egiten da: "Shostakovitxen musika, paretako bainila, errezelek iragazten duten argitasun motela..." (131.orr.).

• Bestelako erreferentziak

Musikari egindako erreferentziak ikusita, Eiderrek hurren ipuinetako zenbait pertsonaien aipamenak egiteko joera duela ikusi dugu: Mafalda "... eskuak Mafaldaren amantalean igurtziz, delikatuki" *Zu eta Iban* (88.orr.), Bambi "... Bambi begiak arradaturik 1.80 metro, berrogei urte inguru, argala baina gihartsua" *Juanluis eta kilimankurrak* (91.orr.), Mari Errauskin "Zapatak kenduko dizkio, printzeak Mari Errauskini bezalatsu, emeki, arku banatan muxu bat pausatuz" *Calle de la Providencia* (110.orr.) eta Homer Simpson "Egun sentia zimurtzen joan da, eta Homer Simpsonen beso beilegiek zortziak, zazpiak, seiak, bostak, laurak markatu dituzte iratzargailuan" *Hazira itzultzea* (150.orr.).

Bestelako pertsonai historiko edota gaur egungo pertsona ezagunei erreferentziak ere aurki daitezke ipuin-liburu honetan zehar. Hasteko, *Anai artea* ipuinean kartzelaturik dagoen anaia bikiak, *Iban Terriblea* ezizena ipintzen dio bere buruari eta Harkaitzi idazten dion eskutitzean, izen horrekin sinatzen du. Guk, izen honekin Eiderrek zerbait esan nahi duelakoan informazioa bilatzen hasi gara eta *Iban Terriblea*, XVI. mendeko tsar errusiar bat izan zela jakin dugu, Errusiar estatuaren sortzailetzat hartu izan dena.

Esan bezala, gaur egun, munduak bizi duen egoeraren berri ematen zaigu zertzelada batzuen bitartez. Hala nola: "Ben Ladenen ezkutalekua aurkitu omen dute. Lurpean. Taliban armada batek babesturik" *Galtzerdiak* (143.orr.).

Amaitzeko, Bruce Willis aktorea aipatzen da ipuin batean, *Peio aireportura bidean* ipuinean, eta Asier, aktore honekin alderatzen da: "Bruce Willis Kristalezko oihanean baino erakargarriago sentitzeko zeure burua" (128.orr.).

Elfriede Jelineken eragina

Beharrezkoa da Elfriede Jelinek-ek Eider Rodriguezengan izan duen eragina aipatzea eta hori da atal honetan ikusiko duguna.

Elfriede Jelinek idazle feminista da eta 1946ko urriaren 20an jaio zen *Mürzzuschlag*-en (Austria). Aita judutarra dauka, eta senide asko Holokaustoaren biktimak izan ziren. Vienako Unibertsitatean Artearen historia eta drama ikasi zuen.

Elias Canetti eta Thomas Bernhard-ek bezala, bere lurraldea gutxien du Elfriede Jelinek-ek, Alemania bere iragan nazian murgilduta dagoela pentsatzen baitu.

Alemaniano idazle garaikide onenatarikoen artean aurkitzen da autorea. Bere nobeletan mundu honetan oinarri estereotipatuen bitartez irudikatzen diren emakumeek bizitza oso bat lortzeko ezintasuna irudikatzen du.

Kritiken arabera, muturreko idazle feminista da Jelinek eta berak pozik onartzen du hau. Bere esanetan berak egiten duena gaur egungo gizartean emakumeen gizonenganako duten menpekotasuna erakustea da.

2004ko maiatzaren 3an hitz hauek esan zituen Jelinek-ek: *“Nadie logrará hacerme renunciar a mis bromas estúpidas, a mi tono desengañado, ni siquiera por la fuerza; bueno, quizá por la fuerza. Cuando yo quiero decir algo, lo digo como quiero. Al menos quiero darme ese gusto, aunque no consiga nada más, aunque no logre ningún eco”*.

Oihartzun handia lortu du berak eginiko lanak eta horren adierazle garbia da 2004. urtean irabazitako Nobel Saria. Hala ere, berak ez zuen hau jaso “fobia soziala” zela medio. Baina aipatu beharra dago, Elfriede Jelinek ez dugula manifestaldi batean pankarta baten atzean ikusiko. Bere aldarrikatzeko tresna literatura da. Literatura honetan, idazleak, ez digu bere feminismoa ikuspuntu samur bate-tatik kontatzen irakurleoi. Asko aipatu diren topiko

feministak hartu eta buelta ematen die Jelinek-ek. Hau gainera, ezberdintasuna kontutan harturik egiten du.

Aipatzeko da baita ere, Jelinek *accionismo vienes* ize-neko mugimendurekin lotzea ezinbestekoa dela.

Accionismo vienes (Wiener Aktionismus) XX. mendean gauzatutako mugimendu bat da. Austriako artearen banguardiarik erradikalenetako bat dugu hau. Mugimendu honetan, 1960ko artistak saiakera berezi bat egiten dute artea ekintzaren eremura eramateko (Fluxus, Body Art, etab.). *Accionismo vienes*-aren barruan koka ditzaizkegun artistetako batzuk hauexek dira: Günter Brus, Otto Mühl, Hermann Nitsch y Rudolf Schwarzkogler. Hauek, beraien ekintza “accionistak” 1960 eta 1971. urteen bitartean gauzatu zituzten gehienbat.

Bibliografiari begiratu bat emanez, ikusi da garai hartako zenbait artistek ez zekitela mugimendu honen barruan aurkitzen zirenik. Gai honekin loturik Malcom Green-ek Hermann Nitsch-en aipamen bat ekartzen du gogora:

“El accionismo vienés nunca existió como grupo. Simplemente, un buen número de artistas reaccionaron contra la situación en la que el arte y ellos mismos se encontraban, con la casualidad de que todo ello sucedió en la misma época y tuvo similares significados y resultados”.

Hitz hauek kontutan harturik, esan daiteke, XX. mendeko beste mugimendu abanguardistak batzuk ez bezala *accionismo vienes*-ak inoiz ez zuela definizio zehatzik izan eta ezta jarraitu beharreko haririk ere.

Nahiz eta mugimendu honetan aurkitzen ziren artistek kontzeptu ezberdinekin lan egin, arteari zegokionean, ikuspuntu estetiko eta tematiko bera zuten. Gorputza bera erabiltzen zuten beraien lanetako oinarri gisa, Brus-en ekintzetako bateko izenburuetan ikus daitekeen moduan: *Cuerpo pintando, Mano pintando* (1964). Mühl eta Nitsch-en *Degradación del cuerpo femenino, degradación de una Venus*-en (1963) ere ikus genezake.

Giza gorputza artearen ekoizpen propioa bilakatzeko saiakera hau, “Body Art” edo “Performance Art” deiturikoan du bere oinarria. Bi mugimendu hauek muturreraino eramán zituzten *accionismo vienes*-eko artistek. “Ekintza edo akzio” hauen esanahia “accionisten” pintura, antzerkia eta eskulturaren abandonatze etengabeari loturik, obra anti-artistikoaren definizio subjektiboa zehaztu ahal izan zen.

Laburtze aldera, esan genezake, gorputza, odola eta norberaren minarekin egiten dela lan *accionismo vienes* deiturikoan. Egin nahi dena artea ekintza bilakatzea da. Azken batetan eta nolabait esatearren, egiten dena hau xe da: “isilik eta ekintza”. Eta hau da, hain zuzen ere, Eider Rodriguez-ek egiten duena. Aurretik aipatu dugu Rodriguez isiltasunaz baliatzen dela esaten ez duen hori iradokitzek.

Aipatu beharra dago, Jelinek-en presentzia liburu honetan nabarmena den arren, *Haragia*-n ere azaltzen dela. Eider Rodriguez-ek, bere bigarren ipuin-liburuan, Jelinek-en aipu bat txertatzen du.

Elementu garrantzitsuak

Eider Rodriguezek ipuin liburu honetan, hainbat elementuri garrantzia berezia ematen diela nabarmendu nahi genuke.

- **Komunikabideak**

Hasteko, komunikabideekin lotutako elementuak aztertuko ditugu. Alde batetik komunikabide ezberdinak, agertzen dira: egunkariak, telebista, irratia, ... Bestetik, teknologia berrien erabilpena ere, azpimarratzen da, telefono mugikorrek, sms-ak...

Egunkariei dagokienez, *Gara*, *El Diario vasco*, *El Mundo*, *Marca*, *El Pais*... agertzen dira. Komunikabide hau, politikaren gaiarekin lotutako ipuinetan azaltzen da batez ere. *Politika albisteak* ipuinean adibidez, behin baino gehiagotan azaltzen da *Gara* egunkaria: “Kioskoan *Gara* erosi du...”, “Lasaitu denean sukaldeko mahaian eseri da, *Gara*-n bere ezinegonaren zioak topatu nahian” (34.orr) edota “... goizean *Gara* erosteko eta mandatuak egiteko, eta kito” (39.orr). Ipuin honetan ere, *El Diario Vasco* aipatzen da, baina kasu honetan kutsu negatiboarekin: “... Eroski utzi eta Antxonon bulegoan lanean hasi zenetik *El Diario Vasco*ekin paseatzen da-eta herriko kaleetatik” (39.orr). *Anai artea* ipuina ere, Euskal Herriko egoera politikoarekin zuzenean lotutako istorioa da eta bertan, *El Pais* egunkaria aipatzen da: “Saizarbitoriaren posea imitatzen ikusten zaitut, *El Paiseko* argazki batean... (84.orr).

Hala eta guztiz ere, politikarekin lotura ez duten ipuin batzuetan ere, egunkarien aipamenak egiten dira: “Kamareroak *El Diario Vasco*-ri itsatsirik jarraitzen du eta azpitik mehatxuzko keinu bat egiten du *Marca*-k” *Puntu suspentsiboak* (66.orr) edota “Metro ondoko kioskoan ez du egunero egiten duen bezala *El Mundo* erosi” *Galtzerdiak* (143.orr). Dena den, gure ustez, ipuin hauek politikarekin zerikusirik ez izan arren, Eiderrek egunkari ezberdinen bitartez, politika ideologia ezberdinak txertatu ditu. Keiñu honen bidez, pertsonaien pentsatzeko modua islatzen dela begitantzen zaigu.

Telebistari erreparatuta, gauza bera gertatzen da. Ipuin batzuetan politikarekin lotuta dago, hala nola, *Politika albisteak* ipuinean: “Josebaren fotoa erakutsi dute Teleberrian” (31.orr) edota “Lurrinak telebista umeldu du, eta orain leihotik ikusten diren makalak bezala ikusten dira telebistako irudiak, telebistako Joseba, telebistako esataria eta poliziak” (41.orr). Bi adibide hauetaz gain, beste hainbatetan aipatzen da telebista. Politika ardatz

duen ipuin honetan, telebista eta egunkarien presentzia oso garrantzitsua da, behin eta berriro aipatzen dira. Istorio berdinarengatik inguruan ari diren hiru ipuinetan ere, politika ezinbestean aipatu behar da. Hemen ere, politikarekin lotuta telebistaren elementua azaltzen da: “Telebistan ikusi zenuten, bazkaltzen ari zinetenean” *Susana, gudaria eta poeta* (73.orr) Bestetik, telebista ipuin askotan azaltzen da, gaur egun daukan lekuaren adierazgarri: “Telebista aurrean etzan da” *Yolanda eta aulkiak* (119.orr), “Telebistari begira, konpasaren punta borragoma batean iltzaturik biraka ibiltzen du bere ardatzaren gainean, borragoma bitan zatitu arte” *Hazira itzultzea* (152.orr).

Irratia gutxiagotan azaltzen den arren, hainbat ipuinetan ikus dezakegu: “... eta segi sagarrondoak landatzera eta irratia entzutera” *Eta handik gutxira gaur* (17.orr), “... eta kamioilari nagiak biltegi batera eramanean ditu Los 40 Principalesen musika entzunez” *Hazira itzultzea* (150.orr)...

Hau ikusirik, politikarekin zerikusia duten ipuinetan komunikabideek duten garrantzia nabarmendu behar da. Gure eguneroko bizitzan, eta horren adibide dira ipuin hauetako asko, komunikabideak oso presente dauden arren, pasarteak politikarekin lotzean, elementu hauek ugaritu egiten dira.

Politika alde batera utzita, aldizkariak ere zenbait ipuinetan azaltzen dira: “Eta desenfoketako zaletasuna gorrotatu zenuen, bere burua madarikatu zenuen, *Tendences* aldizkariak eta *fashion* argazkilarien joerak imitatu izanagatik;...” *Chiapasko beroa* (105.orr), “Marialuisak *Pronto* eta *Marie Claire* erosi ditu amak emandako 4 euroekin, eta soberakinekin bi txupatxus” *Calle de la Providencia* (113.orr), “Ikusi zutenean, paretak estaltzen zituzten *National Geographic*-eko argazkien eta deko-razio...” *Sofako amodioak* (45.orr)...

• Teknologia berriak

Teknologia berrien garrantzia ere aipatu beharreko kontua da. Telefono mugikorra hainbatetan azaltzen da pertsonaien artean komunikatzeko tresna gisa: “orduan jo du sakelakoak, eta Jaimeren izena irakurri du, letra likidoetan: Jaime, 09:42” *Galtzerdiak* (145.orr), “Oskar txantxak egiten hasi zitzaidan telefonoz deitzen zidanean, ea zurekin okupaturik nengoen...” *Juanluis eta kilimakurrak* (96.orr), “Telefono dei bakoitza dardara bat...” *Sexu usaineko gezurrak* (132.orr), “Erakargarri sentitu zaren unean deitu dizu telefonoz Harkaitzek, Ikeara ailegatu zaren galdezka” *Susana, gudaria eta poeta* (73.orr), “Sakelakoak jo du” *Susana, gudaria eta poeta* (74.orr)...

Sakelako deiez gain, sms bidezko komunikazioa ageri da: “*Tiene un mensaje no leído*. Jaime. Asbri 1 iztko etzra gaxk eon. Ao mirsgrria dzu. Brriz iksi nai zaitut. Gañea n gltzrdi kutunk laprtu dizkdzu” (146.orr).

• Gutunak

Amaitzeko, gaur egungo gizartean gutun tradizionalak idazteko joera galdu dela uste dugun arren, Eiderrek hauen lekua aldarrikatzen duela iruditzen zaigu, istorio askotan agertzen baitira: “Lehen Josebaren gutunak heltzen zitzaizkionean, heldutako bidetik bidaltzen zituen bereak” *Politika albisteak* (37.orr), “Gutun hura, inoiz idatzi dizuten gutunik ederrena, hitzen arkitekturan, sentimenduen grabetasunean, poesiaren zokogune alferretan galdu gabeko gutun hura erantzunik gabe utzi zenuen” *Susana, gudaria eta poeta* (74.orr), “*Manito, koaderno esku artean ordu pare bat besterik ez daukat azken urtean hainbestetan buruz idatzi dizudan gutun hau paperean jarri eta entregatzeko...*” *Anai artea* (79.orr), “...kartazal barruan sarturik iritsi zitzaion, gutun batekin...” *Chiapasko beroa* (101.orr), “*Berlin,*

2003ko ekainak 9. Modu atemporalean pentsatzen zaitut... ” Sexu usaineko gezurrak (139.orr), “... Genevieve Parisetik igorritako gutunak dauzka,...” Eta handik gutxira gaur (21.orr)...

Lehenengo hiru adibideen kasuan, gutunak idaztea Euskal Herriko egoera politikoaren ondorio da, hortaz, politikarekin zerikusia du. Lehengoaren kasuan, bikotekideak ezin dira beste era batean komunikatu, mutila klandestinitatean baitago. Bigarren eta hirugarrenaren kasuan berriz, mutila kartzela barruan dago eta gutunak elkarrekin komunikatzeko bidea da.

Hala ere, komunikabide eta teknologia berriak askotan azaltzen diren arren, honen aurkakotasuna, internetak azaleratzen du. Ez dira ordenagailuak aipatzen eta ezta interneta ere. Horren salbuespena *Galtzerdiak* ipuina da: “Bulegora iritsi bezain laster piztu du ordenagailua” (145. orr).

• Argazkiak

Komunikabide eta teknologia berriak alde batera utzita, ipuin liburu honetan, argazkiek duten garrantzia aipatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Ipuin askotan, argazkien bitartez, pertsonaiak iraganera itzultzen dira eta ezinegonen sortzen dien zerbait kontatzen dute. *Politika albisteak* ipuinean adibidez, Josebaren argazki bat erakusten dute telebistan eta horren eraginez, Idoiak argazki hura atera zuteko eguna gogoratzen du: “hemeretzi urte zituen berak eta hoge Josebak. Josten ikasteko akademiara joan zitzaion bila, lehenengo aldiz kotxez” (32.orr). *Chiapasko beroa* ipuinean aldiz, pertsonaia nagusiari argazki bat daraman eskutitz bat heltzen zaio, eta argazki hura ikustean, Chiapasen igarotako denbora gogoratzen du: “Berak ateratako argazkia zen. Nerea eta Sebas ageri ziren, etxeko ezkaratzean...” (102.orr). *Sexu usaineko gezurrak* ipuinean

berriz, argazkiek pertsonaia nagusiaren ezinegona eta beldurra eragiten dute: “Han ere hizkuntza hura. Foto bat. Zer ezkututzen ez duten hainbat liburu, karpeta eta kaxa” (135.orr).

Bestalde, beste ipuin batzuetan, argazkiek pertsonaiei iragana gogorarazten ez dizkieten arren, elementu hau aipatu egiten da. “Pelikuletan bezala, argazkiak begiratu nahiko lituzke orain, 63 urteren ondoren, baina ez du argazkirik” *Eta handik gutxira gaur* (21.orr), “Ez zenuen ezagutu. Izena eta fotoa ez zetozeela bat pentsatu zenuen” *Susana, gudaria eta poeta* (73.orr)

• Musika

Musikak ere bere garrantzia dauka ipuin hauetan. Zenbaitetan kanta zatiak azaltzen dira, eta bestetan, abestiaren izenburuak edota autoreen izenak.

Sofako amodioak ipuinean, abesti baten izena behin eta berriz azaltzen da, Zbigniew Preisner kantautore poloniarren *La doublé vie de Veronique*, hain zuzen ere. Kanta hau azaltzea ez da kasualitatea, ipuin honetako pertsonaia nagusia Monike deitzen da, hau da, Veronique-ren laburdura. Gainera, emakume honek izandako bi harreman kontatzen dira eta azkenean bietako batekin geratzea aukeratzen du. Hori dela eta, *bizitza bikoitzaren* aipamena, kanta hau bi mutilekin bakarrik dagoenean entzuten du adibidez: “*La double vie de Veronique*-ren musika Mikelen etxean” (46.orr) eta “Bazkalostean *La double vie de Veronique*-ren musika jarri zuen, eta Karli azaldu zion entzuten ari zirena *La double vie de Veronique*-ren musika zela” (52.orr). Ikusi dugun bezala Eiderrek oso ondo pentsatuta ipini du kanta hau istorio honetan.

Bestetik, *Susana, gudaria eta poeta* ipuinean, Susana kartzelara bidean autobusean doanean, *Desolatio desolationis* abesten du: “*Desolatio desolationis* kantatu duzu” (73.

orr). Protagonistak, egoera horretan, samina eta atsekabea sentitzen du eta abesti honek sentimendu hori oso ondo irudikatzen du.

Ipuin liburuko hurrengo istorioan, *Anai artea*-n, Silvio Rodriguezen abesti zati bat azaltzen da: “*Y decirte que todo esta igual, la ciudad, los amigos y el mar, esperando por ti*, entzuten nuen horrelakoetan zure logelako musika katean; Silvio puta esaten zenuen zuk..” (79-80.orr). Kasu honetan, protagonista kartzelan dago, hortaz, oso abesti egokia da. Istorioan, abesti hau urte batzuk lehenago, bere anaiarekin etxean zegoenean entzuten zuela esaten da, baina oraingoan, gogora ekarri du letran esaten denarekin identifikatuta senti daitekeelako.

Peio aireportura bidean, Ruper Ordorikaren aipamena egiten da: “Garai batean Ruper zen mundua atzemateko katalizatzailea. Beno Ruper eta jende gehiago ere bai, baina Ruperzen, ez dakit, magikoena-edo, ez dakit nola esan”(128. orr). Eiderrek aipamen honekin, 90. hamarkadan, euskal abeslari batzuek, eta batez ere, Ruper Ordorikak izandako konpromisoa aldarrikatu nahi du.

Azkenik, *Sexu usaineko gezurrak* ipuinean, San Petes-burgon jaiotako musikagile baten aipamena egiten da: “Shostakovitxen musika, paretako bainila, errezelek iragazten duten argitasun motela...” (131.orr). Kasu honetan, musikagile hau aukeratu izanak, mami gutxiago daukala uste dugu. Izan ere, gure ustez, musika hau aukeratu du bikotearen lasaitasun, goxotasun eta intimitate momentu bat irudikatzeko.

• Marka komertzialak

Elementu garrantzitsuekin jarraituz, Eider Rodriguezen, ipuin liburu honetan, txertatutako marka komertzialen aipamena egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Era guztietako marka komertzialak azaltzen dira, baina

elementu hauetan ingelesaren presentzia nabarmendu behar da. Egoera honetan ingelesa erabiltzeak, alde batetik, mundura irteteko nahia, eta bestetik, bizi garen mundu globalizatu honi kritika egiteko erabiltzen duela iruditzen zaigu.

Ipuin gehienetan azaltzen da marka komertzialen bat: *Game Boy, Eroski, Coca Cola, Bordeaux vif, Renault enpresa, Ikea, Leroy Merlin, Nafarroa Oinezeko kamiseta, Gipuzkoako kutxaren irrati iratzargailua, Coronitas botila, Magno xaboia, Sanex xaboia, Los 40 principales, Loewe lurrin potea, Windows, Euskalteleko akzioak...*

Adibideetan ikusten den bezala, marka komertzial gehienek ingelesezko izena dute. Gure ustez, Eiderrek marka komertzialak istorioak errealagoak egiteko erabili ditu. Izan ere, gure eguneroko bizitzan etengabe ikusten ditugu horrelako izenak, marka komertzialez inguratuta bizi baikara. Hortaz, honek ere, erabiltzen duen espazio, denbora eta pertsonaiak bezala, istorio errealak egiteko baliabide bat dela deritzogu.

Bestetik, Euskal herrian kokatzen diren istorioetan, euskal markak ipintzen saiatzen da Eider Rodriguez. Esaterako: *Eroski, Euskaltel, Nafarroa Oinezeko kamiseta, Gipuzkoako kutxa...*

• Laranja kolorea

Bukatzeko, guretzat garrantzitsua izan den sinbolo baten aipamena egin nahiko genuke. Izan ere, ipuin-liburu honetan askotan ageri da naranja kolorea edota kolore honekin erlazionaturiko fruituak (melokotoia, mertxika, muxika, adibidez).

Honek duen garrantzia ikusirik, ezinbestekoa begitandu zaigu honi esanahi bat aurkitzen saiatzea. Horretarako Chevalier-en *Diccionario del los símbolos*-era (Chevalier,

Jean () *Diccionario de los símbolos*, Taurus) jo dugu eta hauxe da bertan aurkitu duguna:

– Anaranjado

“Este color simboliza en primer lugar el punto de equilibrio del espíritu y de la libido. Pero tal equilibrio tiende a romperse en un sentido o en otro, y se convierte entonces en la revelación del amor divino o en el emblema de la lujuria. () Pero el equilibrio del espíritu y la libido es cosa tan difícil que el anaranjado se convierte también en el color simbólico de la infidelidad y la lujuria”.

– Naranja

“Como todos los frutos de numerosas pepitas la naranja es un símbolo de fecundidad”.

Naranja kolorearen azalpenean, ikusi dezakegu, bi esanahi dituela horrek. Guk, liburu honetako adibideei erreparatuta, esan dezakegu, naranja kolorea azaltzen den ipuinetan, hau sexu-nahiarekin (“lujuria”-rekin) lotzen dela, hau da, bigarren esanahiarekin. Fruituak ageri direnean ere ageri da aipaturiko sexu grina.

Adibide hauek esandakoaren adierazle dira: “Mertxika mediak ukituko dizkio lehenik, ezer baino lehen, krema koloreko mediak, belaun borobilduak.” *Calle del a Providencia* (110. orr.). “Emiliok emakumearen muxika hantetan baino ezin du pentsatu, gabardina kenduko dionean jantzirik ote daukan angorazko jertse grisa, ezagutu zuenean bezala” *Calle de la Providencia* (111. orr.). “Azkenean lortu du esku uztarriez libratzea eta bularrak ukitu dizkio; gogor-gogorrek dauzka, melokotoi bi dirudite (...) Eguzki printzek laranja kolorez tindatu zuten logela. (...) Ametsa probokatu zion argazkia ere laranjaz bustirik zegoen, eta

bera han, zentzumenak sorgortu zizkion emakumearen ondoan” *Chiapasko beroa* (107. orr.).

Naranja fruituaren azalpena ere aipatzekoa da. Izan ere, hemen kolore hau ugalkortasunarekin lotzen da. Liburuan, *Politika albisteak* ipuinean, erlazio hau argi eta garbi ikus daiteke: “Sukaldeko mahaiaren aurrean, plater hutsak jaso gabe, bazkalostearen kolore bakarra postreko laranja azalaren serpentinak dira. Serpentinek, eta inoiz jaio ez den semearen algarek, alaitzen dute giroa”, (31. orr.).

Beste adibide bat aurkitu dugu liburuan baina, aipaturiko kolorea agertzen den arren, ez dugu esanahi berezirik topatu honi dagokionean: “Aho parean paratu dizkit patetikoki pintaturiko azkazalak, gorritik baino laranjatik hurbilago dagoen kolorez pintaturiko gainazal arrailduak, dortoka hatzak”, *Bellevue* (53. orr.).

Haragia vs.eta handik gutxira gaur

Lan honetan *Eta handik gutxira gaur* liburua atzertzea zen gure helburua. Hala ere, honek, Eider Rodriguez-en bigarren ipuin-liburuarekin (*Haragia*) duen lotura ikusita, garrantzitsua begitandu zaigu honen inguruko aipamentxo bat egitea.

Gaien atalean *Eta handik gutxira gaur* liburuan jorratzen diren gaiak aipatu eta aztertu ditugu. Bertan, pertsonaien arteko harremanen ondorioz azaleraturiko sentimenduak hartu genituen gaitzat. Hala nola, bakardadea, beldurra, mina eta amorrua.

Haragia liburuan ere ageri dira gai guzti hauek nazka eta heriotzarekin batera. Jarraian adibide batzuk emango ditugu betiere ulerterrazagoa egingo delakoan.

Ez du katu bat balio ipuinean adibide hau aurki genezake: “Nagusia akabatzea, bere haragia labeak errauts bilakatu edo zizareek jan eta kaka itxurarekin kanporatzea.

Eta zizare kaka bihurturiko nagusia berriro jatea, okitu arte, eta berriro libratu, kaka fin amaigabea.” Hemen amorrua eta frustrazioa pertsonaiarengan nabarmen azaleratzen diren sentimenduak dira. Nahiz eta *Eta handik gutxira gaur* liburuan agertzen den gaia izan, esan beharra dago, hemen haragiaren bitartez islatzen direla sentimendu horiek.

Beste adibide bate mate aldera *Apur bat zoroa* ipuina aipatuko dugu segidan. “Ez du erantzunik jaso, soilik zurrunga bat, eta bere heriotza desio izan du, ohi baino indar bortitzagoaz.” Adibide honetan ere argi geratzen da emakumeari nola frustrazioa eta amorrua sentiarazten dioten bere senarraren zurrungek.

Bakardadearen sentimendua ere nabarmentzen da *Harragia* liburuan. *Errautsa* ipuinean esaterako hauxe irakur genezake: “Senarra hil zitzaionetik kamustua zegoen. Ukabilaren antzekoa zuen aurpegia, ia begirik gabea, hazpegiak bata bestearen gainean metaturik, ile zuri trinkoa, karioaren lumajea lakoa.” Hemen argi geratzen da emakumeak bere gizonak alde egitearen ondorioz sentitzen duen hutsunea; bakarrik sentitzen da. Honekin lotu genezake baita ere gizonen menpe dagoen emakumearen irudiaren agertzea.

Apur bat zoroa deituriko istorioan badago aipatzekoa den beste adibide bat: “Maite du bakarrik egotea. Bakarrik egoteak bakarrik gelditzearen beldurra uxatzen dio, eta batzuek trebezia ez galtzeko pintatu edo pianoa jotzen duten bezala, edo forman mantentzeko footing egiteari uzten ez zaion bezala, Matildak ez dio inoiz bakarrik egoteari uzten.” Bakardea ageri dela argi dago baina oraingo honetan ez da zentzu negatibo batean azaltzean. Pertsonaia bakarrik dago baina pozik, gustuko du bakardadea.

Beraz, bakardadearen sentiendua bi ikuspuntu ezberdinetatik begiratuta ageri zaigu Eider Rodriguezen bigarren ipuin-liburuan.

Mina *Haragia*-n jorratzen den gaietako bat dela esan dugu lehentxeago. Hala da, baina ez da gainontzeko gaiak bezala agertzen. Bakardadea sentitzearen edota heriotzaren ondorioz mina sentitzen dute pertsonaiek. Gainera, amorrua eta frustrazioarekin loturik dagoen sentimendua da mina. Hortaz, *Haragia*-n, mina, era orokorrago batean ageri dela esan genezake; gai moduan hartu genezake baina jakinik, gainontzeko gaiekin lotura zuzena duela.

Nazkaren eta heriotzaren inguruan ez dugu azalpen gehiagorik emango. Izan ere, atal honetan, Eider Rodriguez-en lehenengo bi ipuin liburuen arteko konparaketa egitea da helburua eta aipaturiko gai hauek ez dira lehenengoan ageri.

Bi gai hauek bi lanetan ez agertzeak suposatzen duen ezberdintasunaz gain, beste hauxe ere badago: *Haragia*-n bakardadea, amorrua eta frustrazioa (minarekin loturik betiere) gorpuzturik ageri diren sentimenduak dira.

Apur bat zoroa ipuinea, protagonista Matilda izeneko neska gazte bat da. Neskak aitarenganako duen faltak (ez dakigu zergatik, gorrotoa diolako lehengo aitaren esperoan dagoelako, gaixotasunen baten ondorioz aita gaizki gelditu eta bere falta sumatzen duelako, ...) min ematen dio. Eta hori islatzeko Eider Rodriguezek sagarra erabili du. Matildak sagarra hartu, koska egin, haragia zatia ahoan bueltaka izan eta gero zuztarra botatzen du leihotik behera. Hori egiten duen bitartean, aitarengana joan, zerbait esan eta etxetik joaten da. Horrela, sagar bat jaten denaren bizkortasunaz gertatu da dena. Sagarraren haragia aipatzekoa da hemen (83. or.). Izan ere, idazleak Matildak sentitzen duen mina irakurleoi erakusteko erabiltzen duen elementua da. Iratxe Retolazak dioen bezala (Retolaza, Iratxe (2008) “Haragia”, *Sareinak*) “gorpuzturiko elementua” da. 76. orrialdean ere *haragia* hitza berriz agertzen da, oraingo honetan, ordeak, idazleak, piperren haragiari egiten dio erreferentzia. Piperra gorpuzturiko beste elementu bat izango litzateke.

Emakumearen irudia bi ipuin-liburuetan jorratzen den beste gaietako bat da. *Eta handik gutxira gaur* lanean ez dugu gai nasugitza hartu baina ipuin askotan dago presente. *Haragia*-n indar handiagok agertzen da irudi hau.

Emakumearen irudiak Eider Rodriguezen bigarren ipuin-liburuan garrantzia handia duela erakusten duten zenbait arrazoi badaude. Lehenik eta behin, aipatzekoa da ipuin gehienetako protagonistak, *Eta handik gutxira gaur* lanean ez bezala, emakumeak direla. Hala ere, hau ez da beti gertatzen, *Haragia* ipuinean kasu.

Emakumearen irudiaren barruan amatasuna ere ageri da. Lehenengo ipuin-liburuko *Politika albisteak* eta *Juanluis eta kilimakurrak* bi protagonistek ama izateko nahia agertzen dute. Bigarrenean ere aurki genitzake honen inguruko zenbait adibide. *Haragia* ipuinean esaterako: “Ilegorriak, beltzak hori esaten zuen aldiro izter ingurua igurzten zion gizonari, amatasunez, esango nuke. (*Haragia*)”.

Emakumearen irudiarekin jarraituz, *Haragia* ipuin-liburuan, gizonarekiko menpekotasuna duen emakumearen irudia erakusten digu Rodriguezek. *Haragia* ipuinean esaterako, adibide hau aurki daiteke: “Afrikarraren zakil pendularrak hipnotizaturiko hitz jarioa, emakumearen sasi-ekzertiartasuna, bere askapen femeninorako urtetako ahalegina gizon haren hipnosi gaitasunak birrindurik”. *Hirugarren oparia*-n ere hauxe irakur dezakegu: “Senarra eta anaia inguruan zebiltzanean, amari galderak erantzun gabe erantzuteko trebetasuna azaleratzen zitzaion.”

Ezkon-eraztunak berebiziko garrantzia dauka, mendekotasun honi dagokionean: “Martinek ezkon-eraztuna esutu du. (*Usainak*)”; “Ana harrikoa egiten ari da, ezkon-eraztuna harriaren gainean utzita. (*Tekla bat*)”, “Komunean eraztuna erantzi eta hatzekin eztarriko kanpaitxoak jo du. (*Salgai*)”.

Menpekotasunaren ildotik, ezin genezake aipatu gabe utzi gizonazkoen handitasunaren agertzea. Izan ere,

Eider Rodriguezen bigarren ipuin-liburuan badaude hau erakusten diguten adibide bat edo beste. Hau da horietako bat: “Joakinek lorontzi bat lehertu du pianoaren aurka. Ondoren burruntzalia telebistaren kontra. Anari begira gelditu da, honek labana eta sardexka esku banatan jarraitu du. Atea zabalik utzita irten da etxetik Joakin. Anak zapi batez sikatu du piano gaineko ur putzua.” (*Tekla bat*).

Eta handik gutxira gaur lanean gizonetikiko menpekotasuna ez da horren argi ikusten. Hala ere, *Politika albisteak* eta *Jualuis eta kilimakurrak* ipuinetan bi protagonistak gizon baten beharra ikusten dute beraiek sentitzen duten hutsune hori betetzeko. *Susana, Gudaria eta Poeta* kontakizunean ere, Susanak gizon bat behar du bere alboan bizitzan aurrera jarraitzeko. Bere mutil-laguna behar duenean bere anaiarekin joan eta bestearen hutsunea betetzen du horrela. Berdina gertatuko litzateke *Sofako amodioak* istorioan. Protagonista bere mutil-lagunarekin duen erlazioaz aspertu eta segituan beste mutil bat topatzen du bakarrik ez egoteko.

Emakume eta gizonek gizartean duen irudiari dagokionean, esan beharra dago, *Haragia*-n hauen arteko rol banaketa hori argi eta garbi ikusten dela. *Tekla bat* ipuinean, gizonak etxeko lanak egiten ez dituela aipatzen da: “Joakinek erreminta kaxan bilatu du, hautsezaturik da. Minutu gutxiren buruan kakoa josi du. Ez daki zergatik ez dituen etxeko lanak maizago egiten, gizonago sentiarazten dute, erosa biziberritzen diote.”.Era berean, etxeko-andrea den emakumearen isla den protagonista aurki dezakegu ipuin berean: “Ana harrikoa egiten ari da, ezkon-eratzuna harriaren gainean utzita. Asteburuetan lagunekin irteteari utzi zion Joakinekin *gauzak* egite aldera. Mantalaren lokarriak silueta edertzen dio.”

Bukatze aldera, Elfriede Jelinek berriro ere aipatzea beharrezkoa da. Hizkerari dagokion atalean ikusi dugu idazle

honen eragina handia izan dela Eider Rodriguezen. Eta hala da, izan ere, hemen konparatzen ari garen bi ipuin-liburuetan antzeman baitezakegu esandakoa. *Haragia*-n gainera, Jelinek-ek aipu bat ageri da *Ez du katu bat balio* ipuinean: “Jasateko gai garen guztia merezi dugu”.

Esandakoa kontutan harturik, bi lanen arteko lotura handia dela ikusi genezake. Hala ere, oreretarraren bigarren ipuin-liburuan Eider Rodriguezek krudelki jokatzeko du pertsonaiekin, *Eta handik gutxira gaur*-en baino askoz bortitzago. Pertsonaiek sentitzen duten mina, nazka, bakardadea, amorrua, frustrazioa... era indartsuan aurkezten dizkigu autoreak, irakurleari berari hori sentiaraztera eramanez.

Gizarteari egiten zaion kritika ere askoz indartsuagoa da bigarren ipuin-liburuan lehenengoan baino.

Iritzia eta gomendioa

Gure bidaiatxo honi bukaera emate aldera, lantxo honetan aztertutako liburuen inguruko iritzia ematea baino ez zaigu geratzen.

Sarreran aipatu genuen gogoz ekin geniola *Eta handik gutxira gaur* liburua aztertzei. Eta bai, gogoz hasi eta gogoz jarraitu dugu lanean denbora guzti honetan. Hizkera, denbora, espazioa, pertsonaiak, egitura... aztertu ditugu. Bi begiak zabalik ahalik eta zuku gehien ateratzen saiatu gara eta irakurri berri duzun hau izan da jaso dugun guztia.

Lana irakurri ahala konturatuko zinen, irakurle, gogoko dugula Eider Rodriguezen lan hau. Nabarituko zenuen baita ere, *Haragiari* ere miresmen handia diogula eta honi esker *Eta handik gutxira gaur* liburuen beste irakurketa bat egin ahal izan dugula.

Liburu irakurterraza da, eramangarria. Eider Rodriguezek bizitza errealeko egoera ezberdinak hartuz 16 istorio

sortu ditu eta hau modu ezin hobean egin du, esaten denari esaten ez denari ematen zaion bezainbesteko garrantzia emanaz. Iradokitzea, hara hor gure idazlearen gustuko jokia.

Nahiz eta agian, hau irakurrita, ipuinak sinpleak direla pentsatu, oker zabiltzala esan beharrean gaude. Ipuinak irakurterrazak dira bai, baina intentsitate eta mami asko duten istorioak dira, batzuetan, ulertzeko zailtasunak ere ematen dituztenak. Kasu honetan, berriz irakurtzea baino ez zaizu geratuko eta orduan konturatuko zara, beharbada, Eider Rodriguezek esan gabe utzi dituen horiek ez dituzula kontutan hartu. Udazkeneko hostoak kale bazterrean geratzen diren moduan utzi dituzula zuk iradokitako guztiak.

Laburbilduz, sentimendu, jarrera, egoera... ezberdinak ezin hobeto islatzen dituen ispilua dugu *Eta handik gutxira gaur*. Zatiarik zati, atalez atal, istorioz istorio sortutako liburu honetan ipuin ezin hobeak bildu ditu Eider Rodriguezek, genero hau gustuko dutenentzat gozagarri. Hamasei istorio, hamasei gogoeta eta hamasei bukaera mundial.

Eta idazten jarraituz, letrak bata bestearen atzetik, hitzak sortuz, esaldiak eraikiz, konturatu gara orain dela gutxi egon ginela liburua irakurtzen. Hilabete baino ez dela Eider Rodriguezen lana interpretatzeko saiakeran murgildu ginenetik, eta bi aste lanean landu beharreko atalak aukeratu genituela, eta astebete egindakoa forma hartzen hasi zela, eta pare bat egun helmuga oso gertu ikusten genuela, eta handik gutxira gaur.

Esanak esanda, irakurtzeko edo ez irakurtzeko hautua egitea baino ez zaizu geratzen, irakurle.

Bibliografia

CHEVALIER, Jean (2000): *Diccionario de los símbolos*, Taurus.

<http://kritikak.armiarma.com/?p=1171> (2010/05/05)

<http://kritikak.armiarma.com/?p=1154> (2010/05/05)

<http://kritikak.armiarma.com/?p=4191>

<http://www.blogak.com/katixa/haragiaren-mina>

<http://www.wikipedia.com>

RODRIGUEZ, Eider (2004): *Eta handik gutxira gaur*, Susa.

— (2007) *Haragia*, Susa.

Inazio Mujika Iraola: *Azukrea Belazeetan* (1987)

Mikel Artola Izagirre

Sarrera

Lan honen helburua Inazio Mujika Iraolak *Azukrea Belazeetan* liburuko ipuinetan darabilen paisaia aztertzea da. Horretarako, ipuinetako paisaia nolakoa den deskribatuko dut, eta paisaia horrek duen funtzioa zein den argitzen saiatuko naiz. Funtzio hori argitzeko, batez ere lau elementu aztertuko dira: paisaia mitikoa, sinbolikoa, erreal, eta paisaia horrek eta pertsonaiek duten harremana. Datozen puntuetan nabarmen geratuko dela uste dudan arren, *Azukrea Belazeetan* liburuan paisaiak garrantzia berezia duela pentsatzea da lan honen abiapuntua.

Paisaia aztergai

Ikusiko zenutenez, espazioa paisaiaren izenarekin aztertzea erabaki dut: hau egiteko arrazoiak paisaiaren izaerarekin lotuak daude. Espazio jakin bat ez da modu berekoa begiratzen duen edonorentzat, ikusteko modu bat baino gehiago egon litezke, eta beraz, deskribatzeko

edo erabiltzeko ere bai. Inazio Mujikak bere erara ikusten ditu istorioa kokatzen deneko parajeak (paisaiaren izaera mitikoa), eta horrez gain, jende askok partekatu egingo ditu toki horiek adierazten dituzten zenbait aspektu (paisaiaren izaera sinbolikoa). Hona hemen María Lópezek *Paisaxe e nación* (2008) liburuan paisaiari buruz dioena:

“Deste repaso das circunstancias históricas da emerxencia da paisaxe, pódese extraer unha definición da mesma como perspectivización estética do espazo” (60)

Paisaia ez da beti agerpen soila izan, intentziorik gabea alegia, baizik eta erabilera bat baino gehiago izan ditu historian zehar, eta arrazoi bat baino gehiagotatik sortu da: psikologiarekin lotutakoak, filosofiarekin lotutakoak... Azterketa honetan ez gara hain hurrun joango, baina helburua liburu honetako paisaia nolakoa den azaldu eta tankera horretakoa zergatik den agertzea izango da, idazleak zein erabilera egiten duen, alegia.

Haurtzarora itzulera

Literaturaren historian behin baino gehiagotan agertu izan den paisaia mota bat haurtzarolari lotutako paisaia mitikoa izan da; oroimenean hiltzatuta geratutako tokiak, paradisua irudikatzen duten begiradak, behin baino gehiago erabili izan dira. Hona hemen Antonia Cabanillesek oroimen honi buruz dioena:

“El adulto, cuando recrea esas etapas de su vida, añora, sobre todo, el carácter mágico que tenían el tiempo y el espacio durante esos años”.

Liburu honetan, ipuin batzuetan beste batzuetan baino nabarmenago agertzen den arren, agerikoa da autoreak haurtzarora egiten duen itzulera. Mujika atzera begira

jartzen da eta nolabaiteko paradisu galdu baten antzera gogoratzen ditu paraje haietan pasatutako urteak:

“Artean, mutil-koxkorra nintzen belaze eta mendi artean. Mutil koxkorra eta ez oso kozkortua gainera... Paradisu gogor baina irudimenezko baten irrikaren gisa sumatzen ditut baserriko gomuta oparoak”. (29)

Beraz, autoreak paisaia mitiko bat osatzen du haurtzaroko oroitzapenenen bidez. Paisaia hori bi urtarotara mugaturik agertzen da: uda eta negua. Hau, umeeek eskola garaian izaten dituzten oporraldiak garai horietan izaten direlako gertatzen dela esan liteke. Baina aipatzekoa da baita ere urtaro hauek bi muturrenekoak izatea, agian ipuinetako gertakizunen gogortasunarekin lotura izan bailezake; nolana ere, geroago aztertuko dudana “paisaia eta pertsonaiak” atalean zorrotzako begiratuko diogu kontu honi.

“Baserriko oroitzapenak –usainak, koloreak eta hotsak– nahasi egiten zaizkit irudimenean: udako belar lehorraren usaina, bero galdatan dauden zelaietako lama, jatenaren kolore berde pinportatua, euri zaharrak lur lehorra busti eta sorrarazten duen usain sarkorra, behiak jetzi ondorengo eskuen usain gazi bipila, hontzaren oihua eta orbela zanpatu eta ateratzen duen pirpir biguna. Bertan egiten nituen egonaldiak bi urtarotara mugatuak izaki, eguraldiaren oroitzapenak ere uztaileko bero kixkalgarrienak edota hotz bortitzenak dira”. (57)

Aipagai dugun ipuineko protagonistak kalean eta baserrian bina urtaro igarotzeak liburuiko oposizio handienetako bat egiteko aukera ematen du; alegia, autoreak bi espazioak aipatzen ditu, eta ez mendikoa bakarrik. Oposizio honetan, protagonistak paradisu hartzen ditu baserrian igarotako garaiak, eta guztiz bestelakoak kalekoak, konparazio garbi bat eginez.

Espazio mitiko hau, gorago aipatu dugun bezala, denbora mitiko batekin lotua dago. Espazioa eta denbora batera doaz, biak dira mitikoak, eta beraz, kronotopoaren erabilera azpimarratu beharra dago. Kalea eta baserriaren arteko oposaketaz gain, oraingo eta orduko denboren arteko oposaketa ere egiten du zenbait pasartetan, gorago erakutsi ditugunetan esate baterako.

Paisaia sinbolikoa

Haurtzarorako itzuleraz gain, paisaia mitiko horretaz gain alegia, badira ipuinetako paisaia sinbolikoa dela adierazten duten elementuak. Oraintsu esan dugun bezala, hiriaren eta baserriaren arteko oposaketa nabarmena da ipuinetan. Protagonistek nahiago dituzte baserrian igarotako garaiak, baina zergatik hori? Ipuinetan bertan irakurri dezakegunez, baserrian magikotasuna nagusitzen da, kalean ikasten ez diren gauzak ikasi eta sinesteko aukera dago: baserrian mendietan azukrea dagoela sinesten du umeak, hau da, elurra azukre bihurtu liteke, mundu sinboliko batean murgiltzen da (gogoratu liburuaren izenburua: *Azukrea belazeetan*). Mundu sinboliko horrek, ordea, ez du inongo zentzurik toki hartatik kanpora, elurra azukrearekin nahastea ezinezkoa da Donostiako kaleetan:

“Gutziz kontrakoak nituen Donostiako fraide eskola lehiodunean estudiantzen nuena eta osaba Tomaxen laguntzaz nireganatzen ikasitakoa. Kolejioan ez zioten garrantzirik ematen karakolak biltzeari. Han ez ginen Ostiral Santu arratsaldean pareta zuloetan ibiltzen txulomiaka. Osabak, ordea, belaze eta muinoetan zuen bere eskola, gutxiesten ez bazituen liburuetakoa ikasiak... Inongo zalantzarako lekurik gabe kontatzen nizkien gero lagunei asmamenok, baina haiek, barre alvarez erantzuten zidatenean, erabat hasarretzen nintzaien kopeta

ilunduta. Hango lagunek iseka egiten zidatela esaten nion nik osabari, eta hark erantzuten zidan, noski, ez kasurik egiteko mukizu haiei, eta berarekin ibiltzeko azukre bila hara eta hona azukre bila.” (58)

Beraz, testu zati honek erakusten digun eran, baserriko mundu hori ez da begiratu batean antzeman litekeena, hau da, baserrian mundu sinboliko oso bat, gauzak begiratzeko modu propio bat dago. Puntu honetan egiten dute bat, nire ustez, Inazio Mujikaren *Auzuneak* eta Bernardo Atxagaren *Obabak*; alegia, bietan kalearekin oposaketan dagoen unibertso oso baten azterketa edo errepresentazioa egiten da. Hona hemen Atxagaren hitz batzuk unibertso honi buruz, nire ustez esandakoa ulertzeko giltza direnak:

“Hemen “neska”, “maitasuna” edo “enamoratu” hitzak esaten ditudanean, gauza bat esaten dut, eta beste mundu horretan, “neska” esatea, “maitasuna” esatea, “enamoratu” esatea, beste gauza bat esatea zen. Nik hemen esaten dudanean “hil”, gauza bat da, eta han beste gauza bat. Nik hemen esaten dudanean “Jainkoa”, gauza bat da, eta han beste bat. Nik hemen esaten dudanean, esate baterako, “sorginak”, niretzako gauza bat da, eta han beste bat. Zeren nik jende asko ikusi baitut serio-serio esaten niretzat ameskeria zena, errealitate soila deskribatzen zutelakoan.

Obaba izan da unibertso hori.” (*Bost idazle*, 2002 (46))

Bukatzeko, hona hemen liburuko beste pasarte bat, esandakoaren erakusgarri:

“Irudimenaren sukarra areago behartuta, berriz, arazoa argi baino argiago ageri zen: arrotza lur barnetik atera zen. Teoria hori egiaztatzeko, arrotzaren itxurari begiratzea besterik ez omen zegoen, noski.

...Azken teoria hori, bortxatu samarra gertatu arren, zabalduena suertatu zen gure artean.”(11)

Paisaia erreala

Orain arte ikusitakoak paisaia imajinatu batera garamatzen arren, aipagarriak dira ipuin hauetako toki izenak. Albiztur eta Tolosa herriak, baserri izenak... Liburuaren hasieran toki izenak errealak direla aitortzen du egileak:

“Hemen azaltzen diren baserri eta leku izenak egiazkoak badira ere...”

Honek errealismo puntu bat dakarkio liburuari, nahiz eta istorioak garatzen diren eremuak “Auzunea” izena baino ez izan, eta beraz toki erreal bat ez izan. Nahiz eta oroimenean paisaia mitiko eta sinboliko baten presentzia nabarmendu, atzean paisaia erreal bezain gogor bat egongo litzateke, errealismo beltzaren arrastoeekin. Erreparatzekoa da “Uheskako zulo ospela” tokiaren deskripzio beltza, honelakoek gogortu eta belztu egiten baitute haurtzaroko paisaia idiliko hura; lehenengo begiratuan toki ederra dirudienak trajedia kutsu nabarmena hartzen du, pake giro hori ez da luzaro mantentzen. Hona hemen aipatutako tokiaren adibidea:

“... Tolosatik Auzunera, Uheskako zulo ospelean itzulinguru malkats datorren bide erdi itxitik gora” (11)

Paisaia eta pertsonaiak

Errealismo beltz horri loturik, ipuin hauetako elementurik garrantzitsuenetakoa dela esango nuke paisaiak eta pertsonaiak duten harremana, edo zehatzago agian, eguraldiak eta pertsonaiak dutena. Mujikaren ipuinetan natura, eguraldia, pertsonaien barnera sartzen da, eta honek euren ekintzetan eragiten du.

“Leize zuloan behera botatzera prestatu garenean ikusi dizkiot begiak zabal-zabalik. Ninietatik barrena,

gau oskarbi honetako izar kantoi zorrotzak sartuko balitzaizkio bezala. Lur azaleko gauzak, denak batera, azkeneko aldiz edan nahiko balitu-edo: frantziberde eta alpapa sailak, gauaren eraginez ubeldutako teilatuak, edota, agian, ninietatik barrena sartzen zaizkion gau oskarbi honetako izar kantoi zorrotzak.” (47)

Pasarte hori naturak pertsonaiengan duen eragina adierazten dutenetan garbiena da: metafora gisa ulerturik, izadia pertsonaiaren barnera nola sartzen den ikus dezakegu, eta gainera, “izar kantoi zorrotzak” izanik sartzen zaizkionak, sarrera gogor bat irudikatzen du egileak. Beraz, pertsonaiak aztertu ditugunean esan dugun bezala, naturaren eragin horrek menderatu ezin dugun mundu baten aurrean gaudela esan nahiko luke: naturaren aurrean gizakia txikia da, indarrik gabea, eta izadiak markatuko du bere bizitza.

Eragin horrekin loturik, Mujikak eguraldiari buruzko deskribapenak egiten ditu behin baino gehiagotan, eta zerbait gertatuko dela ondorioztatzen da haren itxuraren arabera. Esate baterako, lehen aipatutako “Arrotza” ipuinean azaltzen den aldiro eguraldia txartu egiten da eta terralez bilduta agertzen dira bazterrak. *Trumoi giroan* ipuinean berriz, iragarpenaren antzeko zerbait irakurriko dugu:

“Eguraldi sargoria zen egun hartakoa. Ondo gogoan dut. Trumoi giroko sargoria. Sapak hartuak zeuden gure baserri inguruko bazterrak. Itturrotik Olamuinora eta Olamuinotik Mendikutera Auzunea zaintzen duten hiru muinoetan zehar barreiatua zegoen lama. Hamarretarako, eguzkiak gogor jotzen zuen, itzala ere berotuz, oraindik, gurpil horia gailurreraino igo gabea bazen ere. Ilunabarrerako euria espero zen, ordea.” (32)

Izadiak pertsonaiengan duen eraginaz gain, alderantzizkoa ere gertatzen da batzuetan, hau da, ekintza gogorren bat gertatzen denean paisaiaren deskribapena ere aldatu

egiten da. Lehengo ipuin berean, protagonistetako bat hil zorian jartzen denean, eguraldiak txarrera egiten du:

“Medikua etorri eta lehen trumoi ikara entzun zela uste dut. Euri zaharraren tanta lodiek lurrin usaintsua irtenarazten zuten lur berotik” (40)

Hiru muino

Azkenik, bada ipuin guztietan errepikatzen den elementu bat, “Auzunea zaintzen duten hiru muino”-ena alegia. Elementu honek, beste batasun hari bat osatzeaz gain, “Auzunea” deitutako espazioaren amaiera adierazten du, pertsonaiek handik aurrera joateko aukerarik ez balute bezala, muino horietan amaituko litzateke orain arte deskribatutako paisaia, pertsonaien bizilekua.

Ondorioak

Orain arte esandakoarekin garbi geratuko zen arren, azpimarratzekoa da Mujikaren lan honetan paisaiak izugarritzko garrantzia duela. Hasteko, batasun hari bat osatzen du ipuin guztien artean, denak toki berean kokatuak baitaude; gero, paisaia mitiko batera eramaten du irakurlea, paradisu galdu baten antzera agertzen delarik delako “Auzunea”; hirugarren tokian, paisaiak hainbat elementu sinbolikorako bidea irekitzen du, “unibertso” oso bat agerian utziz; eta azkenik, ukatu ezinekoa da Mujikak naturari ematen dion garrantzia, pertsonaiak bizi diren tokiak eta eguraldiak markatuta baitaude.

Bibliografía

- CABANILLES, Antonia (1996): Los Paraísos perdidos. “El paisaje y la construcción del personaje poético”. In *Actas del X Simposio de la sociedad Española de Literatura General y Comparada* (169-178). Universidad de Santiago de Compostela.
- ETXEBERRIA, Hasier (2002). *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Irun: Alberdania.
- LÓPEZ, Maria (2008). *Paisaxe e nación*. Vigo: Galaxia.
- MUJICA IRAOLA, Inazio (1987). *Azukrea belazeetan*. Donostia: Erein.

Harkaitz Cano: *Telefono kaiolatua* (1997)

*Ane Badiola Ostolaiz
Leire Gandarias Ispizua*

Sarrera

Lan orok izan ohi du bere helburua, helmuga edo arrazoia. Lan oro idazten da zer edo zerk bultzatuta, motibo baten pean. Orrialde hauetan aurkezten dugun lanak ere, noski, badu arrazoi eta helbururik.

Harkaitz Cano idazleak ez du ibilbide makala. Badira pare bat lan argitaratu eta hamaika kritika eta azterketa jaso dituzten idazleak. Canok, ordea, ez du kritika eta azterketa gehiegi eduki, bere ibilbidea beste idazle askorena baino luzeagoa bada ere. “Gutxi aztertutako idazlea” da beraz eta ezaugarri hau izan da lan hau egitera bultzatu gaituen arrazoi nagusia. Izan ere, gure ustez Canoren inguruan asko dago esateko eta ez dugu ulertzen lan hau zergatik ez den lehenago egin.

Bestalde, gure ustetan liburu baten gainean egiten den azterketari galdera bat planteatu behar zaio eta galdera hori erantzutean oinarritu behar du lanak berak. Guk galdera oso orokorra planteatu diogu ipuin liburu honi: zein da liburuaren ildo nagusia edo gaia?

Gure lana, beraz, galdera honen erantzun posiblean oinarrituko da. Galdera hau erantzun ahal izateko, ordea, ez da nahikoa liburua irakurtzea eta interpretatzea. Ipuin liburua aztertu behar dugu, arakatu, deskonposatu... Lan honen ildo nagusia edo haria zein den jakiteko, ipuin guztiek partekatzen dituzten ezaugarrietan arreta berezia jarri behar dela uste dugu. Beraz, hori izango da gure egiteko nagusia, ipuinen homogeneousasuna bilatzea.

Bestalde, jakin badakigu, Canoren lanetan paratestuek eta intertestualitateak garrantzia handia dutela eta honen garrantziaz jabetuta, merezi duen tarte eskainiko diegu bi ezaugarri hauei.

Azkenik, azpimarratu nahi genuke, Harkaitz Canoren lan bat dela guk aztertuko duguna, baina badirela aztertzeko gelditzen diren beste hainbat lan. Gure lana azterketara mugatuko da eta ez balorazioetara. Guk liburua irakurri eta interpretatu egin dugu. Interpretazioan ez dago objektibotasunik, norbera aske da bere interpretazioa egiteko. Gu ez gara ikerlariak, ez gara adituak, baina irakurleak gara eta gure ustez edozein irakurlek dauka eskumena lan bat interpretatzeko eta haren inguruko iritzia emateko. Lan honetan ez gara balorazioetan galduko. Gure helburua ez da Canoren idazkera baloratzea, aztertzea eta interpretatzea baizik.

Harkaitz Canoren lanen inguruan oinarri bat eskaintzea da gure helburua. Bide guztiek dute euren hasiera, baina gehienetan ez dugu jakiten zein izaten den amaiera. Bideari gogoz ekingo diogu guk; ea bidezidor honek nora garamatzen...

Goazen, bada, urratsez urrats...

Autorearen aurkezpena

Harkaitz Canoren biografiaren inguruan informazio ugari dago nonahi, beraz, atal honetan ez gara gehiegi

luzatuko. Haren ibilbidearen inguruko pare bat datu emango ditugu, irakurlea kokatu asmoz.

Harkaitz Canok (Lasarte-Oria 1975) zuzenbide ikasketak egin zituen bost urtez. Ikasketen ostean urtebete igaro zuen New York-en. Gaur egun, Euskal Herriko hainbat egunkaritan kolaborazio lanak egiten ditu eta telebistako eta irratietako gidoilari lanetan aritzen da.

Cano, oso gaztetatik gailendu zen literatur lehiaketetan, hainbat sari lortu baitzituen. Esate baterako, Urruzuno Literatur Lehiaketa irabazi zuen hiru urtez (1991, 1992, 1993), baita Koldo Mitxelena Saria ere (1991, 1992, 1993). Bestalde, Lubaki Bandako kide izanik beste hiru sari irabazi zituen: Imagina Ezazu Euskadi saria (1992), Donostia Hiria (1993) eta Ignacio Aldecoa (1998).

Jorratu dituen generoen artean aniztasuna aurki genetzake. Harkaitz Canok ez du ipuingintza soilik jorratu. Nobela, poesia, eleberria, kronika eta biografia ere aurki genitzake landu dituen generoen artean.

Gorago aipatu dugun moduan, idazle honek ibilbide zabala du eta makina bat dira argitaratu dituen lanak. Hauetariko zenbait aipatzearren honakoak azpimarratuko genituzke: *Kea behelainopear bezala* (1994) eta *Norbait dabil sute-eskaileran* poesia liburuen artean; *Beluna jazz* (1996) eta *Pasaia blues* (1998) eleberrien artean; *Piano gainean gosaltzen* (2000) liburuko narrazioak ipuin eta kroniken artean; *Radiobiografiak bilduma* (1995) biografien artean eta *Bizkarrean tatuaturiko mapak* (1998) lana narrazioen artean.

Liburuaren aurkezpena

Telefono Kaiolatua liburua 1977ko irailaren 23an argitaratu zen, Alberdania argitaletxearen eskutik. Canoren laugarren lana izan zen. Izan ere, Harkaitz Canok 1994an

argitaratu zuen lehen lana eta urte horretatik 1998. urtera bitartean urtean lan bat argitaratu zuen. 1998tik aurrera ere argitaratu ditu beste hainbat lan.

Canoren liburu honek harrera ona izan zuen irakurleen artean, bere gainerako liburuak bezalaxe. Ale ugari saldu zituen eta gaur egun ere, hamahiru urte geroago, aleak saltzen jarraitzen du.

Liburuaren egitura

Telefono Kaiolatua lana ez da Canok asmaturiko ipuin bilduma soila. Ez da 20 ipuinez osaturiko paper sorta, hori baino gehiago da eta liburuaren egiturak berak ederki islatzen digu hau.

Ipuin bildumaren aurretik “Telefono Kaiolatua” izenpean testutxo bat eskaintzen digu egileak, aurreko zitaren gisan letra etzanez. Testu honek ederki islatzen du irakurleak ipuinez ipuin aurkituko duen giroa. Giroaz gain, etengabe errepikatuko zaizkigun kontzeptuak ageri dira: metroa, munstroa, telefonoa... Misterioa, beldurra eta ezinegona iradokitzen ditu sarrera honek, hurrengo orrialdeetan zehar irakurlea inguratu eta irentsiko duten misterioa, beldurra eta ezinegona.

Sarreraren ostean, ipuin bilduma bera aurki genezake. Luzera ezberdineko ipuin askeen bilduma da Canok aurkezten diguna. 20 lan dira guztira, nahiz eta hauetariko hiru beste autoreen eskutik jasotakoak diren. Aurkibidea irakurri ezean irakurleak pentsa lezake beste autoreengandik jasotako hiru lan horiek ez direla lan “independentek”, hau da, aurreko lanari atxikirik ageri direla. Izan ere, hiru lan hauek ez dute izenbururik eta badirudi aurreko lana borobiltzeko egindako eranskinak direla. Autoreak, bestalde, aurkibidean aparteko lan gisa aurkezten ditu eta izenburua jartzen die, nahiz eta liburuan bertan izenbururik

gabe ageri diren. Aipatu beharra dugu, badela beste lan bat Canok izenbururik gabe aurkezten duena, baina ondorengo aurkibidean izenpeturik ageri dena. Hogeigarren eta azken istorioa izenbururik gabe aurkezten du eta gainerako hirua ez bezala, berak sorturiko lana da, hau da, ez dira bere lanera ekarri dituen beste autoreen hitzak.

Hogei lan hauen ostean aurkibidea eskaintzen digu egileak. Aipatu berri dugun moduan, hogei lan bereizten ditu. Liburuan bertan izenbururik gabe aurkezten dituen lau istorioetan, istorioko lehen hitzak hartzen ditu lan hauei izenburua jartzeko.

Atal honekin amaitu aurretik azpimarratu nahiko genuke, liburu hau *luzera ezberdineko ipuin askeen bilduma* dela. Izan ere, lehen begiratuan badirudi ipuin bilduma izateaz gain poesia sorta era badela. Gure ustez, ordea, ez dugu hertsiki jokatu behar lan bat ipuina den hala ez esterako garaian. Ipuina definitzea ez da kontu erraza eta badirudi gure ipuin eredutik urruntzen den lan bat segituan baztertzen dugula sail honetatik. Badira, gure ustez, poesia izan nahi duten edo poesia diruditen ipuinak, baita kronika izan nahi duten edo kronika diruditen ipuinak; ipuinak dira, azken finean.

Izenburuen azterketa

Aipatu berri dugun moduan, bildumako zenbait lanek ez dute ageriko izenbururik lanaren hasieran bertan. Honen eraginez pentsa genezake, lan hauek ez direla aparteko lanak, aurreko lanen parte baizik. Autoreak aurkibidea aurkezten duenean, aldiz, ageriko izenbururik gabeko lau lan hauek aparteko lan bezala ageri dira.

Guztira hogei izenburu ditugu beraz:

1. Itsaso komunista
2. Aldatz behera itsasoan
3. Crusoeren egunkari ezkutua
4. Erantzungailuan uzteko mezua
5. Aurkako taldeko atezaina
6. Tangerren dugun gizona
7. Kaukasiar bat saxo batekin
8. Istanbul zigarrokin baten barruan
9. Asfaltoko ehiza
10. *Ez dago beti galtzen duenik*
(*E.E. Cummings*)
11. Koltxoia
12. *Unha pantalla triste* (*Fran Alonso*)
13. Whisky & Nolotil
14. Ostiraleroko jokia
15. Ispiluak animalia higuigarriak dira
16. *Azken bolada honetan...* (*Charles Bukowski*)
17. Geltokiko orratz-zainaren alabak
Camel tabakoa erretzen du
18. Desesperatu bat (gehiago)
19. Scott sindromearen pean
20. Gas burbuiletan desegiten da hiria

Aurkibideari so egin eta atentzioa deitu zigun lehen kontua izenburuen luzera izan zen. Izan ere, izenburuak, oro har, luzeak dira. Hitz bakarreko izenburu bakarra dago (11) eta bi hitzeko hiru izenburu daude soilik (1, 9 eta 14). Nagusitzen ez badira ere, badira perpaus osoak (10, 15, 17 eta 20).

Hogei titulutatik hiru letra etzanaz ageri dira (10, 12, 16). Letra modu honekin Canok zera adierazi nahi du, izenburu hauek ez direla bereak, hau da, beste autore batzuen eskutik jasotako lanak direla. Izenburuen ostean parentesi artean aipatzen du zein idazleren lana den: *E.E. Cummings*, *Fran Alonso* eta *Charles Bukowski*.

Beste autoreen lanak aipatzeaz gain, aipagarria iruditzen zaigu izenburuetan bertan izen bereziak erabili izana: *Tanger* (6), *Kaukasiar* (*Kaukaso*) (7) eta *Scott sindromea* (19). Izen berezien erabilerak istorioak hurbilago sentitzea eragiten duela uste dugu.

Bestalde, ordea, urruntasuna ere iradokitzen digu Canok. Izan ere, leku urrunak eta espazio zabalak iradokitzen dizkigu tituluetan bertan: *Itsaso komunista* (1), *Aldatz behera itsasoan* (2), *Tangerren dugun gizona* (6), *Istanbul zigarrokin baten barruan* (8), *Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du* (17), *Gas burbuiletan desegiten da hiria* (20)...

Beherago aipatuko dugun moduan, Harkaitz Canok elementu komunikatibo ugari erabiltzen ditu liburuan zehar eta izenburuetan ere ageri da joera horren zantzurik: *Crusoeren egunkari ezkutua* (3), *Erantzungailuan utzitako mezua* (4)...

Azkenik, azpimarragarria iruditzen zaigu Harkaitz Canok produktuen markak erabiltzeko duen joera. Ondoren aztertuko dugun moduan, ipuin askotan ageri zaizkigu produktuen markak, baina izen hauek ipuinetan agertzeaz gain, tituluetan ere ageri zaizkigu: *Whisky* (13), *Nolotil* (13) eta *Camel* (17).

Mamiaren azterketa

Arestian aipatu dugun moduan, Canok liburuan aurkezten digun aurkibideari so egiten badiogu, hogeitun lan edo istorio bereizten dituela ikusiko dugu. Hogeitun lan ditugu beraz, bakoitza bere ezaugarri eta berezitasunekin. Gure helburua ez da lan bakoitza banan bana aurkeztea eta aztertzea. Guk *Telefono Kaiolatua* lana aztertu nahi dugu, bere osotasunean. Horretarako, istorio bakoitzaz haratago, perspektiba zabalagoz begiratuko diogu liburuari.

Istorio bakoitzak bere ezaugarriak ditu beraz. Honen eraginez, noski, ugaria da lan honen heterogeneotasuna, baina ez gara horretan luzatuko. Zenbait ezaugarri aipatuko ditugu, baina gehien interesatzen zaiguna, istorio guztiek partekatzen dituzten ezaugarriak zein diren bilatzea eta aurkitzea da, liburuaren ildo nagusia identifikatzeko eta deskonposatzeko asmoz. Honela soilik jakingo dugu zer den Canok esan nahi diguna. Goazen, bada, pausoz pauso:

Hetereogenotasuna

Aipatu moduan, hogeitun istorioetariko bakoitzak bere ezaugarri eta berezitasunak dauzka. Ez ditugu istorioak banan bana iruzkinduko (irakurri nahi dituenak eskuragarri du liburua), baina bai hauetariko zenbait ezaugarri aipatuko:

Gaiak

Liburuko lan bakoitzak istorio bat kontatzen du; hau da, gai baten inguruan dago eraikia. Honen eraginez, ugari dira aurki genitzakeen gaiak: telefono ehizak (“Asfaltozko ehiza”), hiri moderno desolatuetako metroak (“Istanbul zigarrokin baten barruan”), desamodioak (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”), haur jolasak (“Ostiraleroko jokia”)...

Hala ere, ondoren aipatuko dugun moduan, zenbait istoriok badute besteekin erlazioa, nahiz eta gaia ezberdina izan. Gaia ezberdina dela esaten dugunean ez dugu ukatzen ipuinek ildo bera jarraitzen dutenik; gauza bat da kontatzen dena eta beste bat kontatzen denaren bidez esan nahi dena.

Estiloak

Liburu honetako istorio guztiak ez daude estilo beraren baitan eraikiak. Hiru dira nagusitzen diren estiloak: genero beltza, absurdoa eta errealismo zikina. Lan batzuetan estilo bat nagusitzen dela esango genuke eta beste estilo bat beste batzuetan. Hala ere, lan gehienak hiru ildo hauen baitan kokatzen dira, ondoren aztertuko dugun moduan.

Lanen luzera eta itxura

Liburua zabaltze hutsarekin segituan ohartuko da irakurlea itxura aldetik hoge lanetariko bakoitza beregaina eta ezberdina dela beste hemeretziarik. Alde batetik, irregulartasun handia dago orrialde kopuruetan. Zenbait lanek bi orrialde dituzte, sei beste batzuek eta hamasei beste zenbaitek.

Bestalde, zenbait irakurlek aipatu izan dute liburu honetan ipuinak direla nagusi, baina poesiak ere uztartzen dituela Canok. Egia da istorio guztiek ez dutela itxura bera: batzuk poesien egitura “tipikoa” dute, besteek ipuinak dirudite, beste batek hizki erromatarrez markaturiko azpi atalak dauzka... Baina zeren baitan erabaki genezake istorio batzuk poesiak edo ipuinak diren? Zein da baliatzen dugun irizpidea? Zer da ipuina? Ez da erraza definitzen...

Itxuraz heterogeneotasuna aurki genezakeen arren, ez gara ausartzen sailkapenik egitera. Gure ustetan, badira

“poesia itxurako” zenbait lan (1, 4, 7, 15, 16, 18, 19), “kronika itxurako” beste zenbait (2, 3) eta “ipuin tankerako” beste batzuk (5, 6, 8, 9, 10, 11, 13, 14, 15, 17, 19, 20). Hala ere, itxurak itxura, ez dugu uste liburu honetan ipuinak, poesiak eta kronikak bereiz genitzakeenik; gure ustez *Telefono Kaiolatua* liburua ipuin askeen bilduma da eta ez dugu bereizketa formalik egingo.

Laburbilduz, heterogeneotasuna dago gai aldetik, estilo aldetik eta lanen luzera zein itxura aldetik ere, besteak beste.

Homogeneotasuna

Landuberridugunazpiatalean (5.1. Heterogeneotasuna) aurkeztu ditugun ezaugarri bereizgarriak ikusirik, zenbait irakurlek aipatu izan dute istorioen artean ez dagoela lotura argirik. Gure ustez, aldiz, istorioen artean lotura irmoa dago.

Lotura hauek aurkitzeko lerro artean bilatu behar dela uste dugu; puntuetan, isiluneetan, espazioetan... jarri behar da arreta. Ezaugarri txikienak ere badu bere esanahia liburu honetan. Bigarren irakurketa bat egitea garrantzitsua dela deritzogu. Autoreak ez du ezer esan gabe uzten, ez du ezer isiltzen. Paperean dago guztia, baina paperetik atera eta interpretatu egin behar da.

Istorioek duten homogeneotasunaz jabetzeko, hau da, liburuaren ildo edo izaera nagusiaz jabetzeko, beharrezkoa zaigu hainbat ezaugarritan arreta jartzea:

Estiloa eta teknikak

Estiloa da liburu honetako hogeitau lanek partekatzen duten ezaugarri nagusienetarikoa. Arestian aipatu dugu estilo aldetik heterogeneotasunik badela. Izan ere, genero

beltza, absurdoa eta errealismo zikina dira gailentzen diren estiloak. Hala ere, istorio guztietan ageri da estilo hauen zantzua eta hogeitau lanetan baliatzen diren teknikak ere errepikatu egiten dira behin eta berriz. Estilo eta teknika aldetik ondorengo hiru puntuak nabarmendu nahiko genituzke:

Narratiba poetikoa

Teléfono kaiolatu liburuko lanak narratiba poetikoaren isla argia dira. Metafora iradokitzailez hornituriko istorioak aurkezten dizkigu Canok eta honen erakusgarri da ondorengo adibide sorta hau:

(i) *Kontineneteak odolusten ari dira.* (“Itsaso komunista”)

• Komunismoa-gorria-odola kontzeptuen arteko lotura egiten du.

(ii) *Isiltasunak bere iritzia azaldu ostean.* (“Itsaso komunista”)

(ii) *Patxadaz betetzen dizute depositoa Tangerang aldean, tantaz tanta, surtidoreak goragalea izango balu bezala.* (“Tangerren dugun gizona”)

(iv) *Lurruinaren beroak memoria nahasten zion.* (“Ispiluak animalia higuinarrak dira”)

(v) *Ez zenuen ikasi etorkizuna iraganera heltzeko lasterbidea besterik ez dela.* (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

Genero beltzaren eta absurdoaren arteko uztarketa

Genero beltza eta absurdoa uztartzen ditu Canok liburu honetan. Uztarketa honen bidez kontraste handia lortzen

du eta asperdura sentsazioa gailentzen du beste edozeren gainetik. Gure ustetan, asperdura sentsazio honekin bizitzaren “funtzionarioak” garen susmoa nabarmendu nahi izan du idazleak.

Genero beltzaren eta absurdoaren arteko uztarketa nola egiten duen ikusteko, hainbat adibide jaso ditugu liburuko istorio ezberdinetatik:

(vi) *Familia handia izanik, bere ondasun eta diru guztia herriko futbol taldeari utzi zion gure osabak.* (“Aurkako taldeko atezaina”)

• Hil berri den gizon batek, familia handia izanik ere, herriko futbol taldeari uzten dizkio bere ondasun guztiak. Gainera, honakoa da bere azken borondatea: igandero, herriko futbol taldeak gola sartzen duenean bere errautsen koilarakada bat bota dezaten futbol zelaira.

(vii) *Esan dezadan bide batez hari buruz, ahaztu baino lehen, bitxikeria bat, istorioaren bilakaeran inolako garrantzirik ez badu ere: Tangerangko gure gizonak gorrotatu egiten ditu katuak.* (“Tangerren dugun gizona”)

• Canok berak aipatzen du ezaugarri horrek ez duela istorioaren bilakaeran inolako garrantzirik. Inolako garrantzirik ez duela dion momentutik garrantzia ematen diola uste dugu guk, absurdotasuna azpimarratzen duela.

(viii) *Telefono-kabina baten pareraino heltzen denean, saxoa zorrotik atera eta kabinaren kristalak txikitzeari lotzen zaio. Free jazz! Oihukatzen du eskuak zerurantz jatorik.* (“Kaukasiar bat saxo batekin”)

(ix) *Behin bulegoko telefono beltzaren gainera jauzi egin eta, esku artean mendean hartu zuelarik, hormaraino heltzen zen hari-isats kiribilduari ezker eskuaz eutsi*

eta, errebolberra bailitzan, eskuinez hartu zuen bi muturretan belarri bana zuen entzungailua: berea zuen jada piztia hura. Gero, errukirik gabe, pultsuaren dardara kontrolatuz -6, 4, 9, 2, 7, 4-, sei tiro jaurti zituen piztiaren muturreko disko itxurako arnas-zulo haietan eskuineko hatz erakuslea sarturik. Orain itxaron egin beharko zuen, bestaldean ahots bat entzun arte. Elkarrizketaren nondik-norakoak erabakiko zuen biktimaren nortasuna eta zaurien larritasuna telefono-hariaren zein aldetan gertatuko ziren. (“Asfaltoko ehiza”)

- Protagonista telefonoa ehizatzen ahalegintzen da, inoiz ikusi duen piztiarik beldurgarrienerarikoa delako. Adibide honetan argi ikus genezake protagonistak telefonoarekiko duen jarrera.

(x) *Erruleta errusiarrera jokatzuz irabazten genuen eguneroko ogia. Urtean bi edo hiru aldiz. Nahikoa izaten zen dirua alferrik xahutzen ibiltzen ez bazinen. Bi edo hiru milioi ordaintzen zituzten kalitatezko heriotzdromoetan. (“Whisky & Nolotil”)*

- Erruleta Errusiarrera jokatzuz eguneroko ogia irabazten duten hiru gazte dira istorioko protagonista. Adibide honetan ikus genezake nola egiten duten jolas bizitzarekin berarekin eta zein den honi ematen dioten balioa. Badirudi heriotzari barre egiten diotela *kalitatezko heriotzdromoak* aipatzen dituztenean. Jokoa jolas bilakatzen dute.

(xi) *Egin beharrekoa zera zen: lasterka norberari zegokion telefono-kabinaraino aurkaria bera baino lehenago heldu eta, bertako bionbo-atea raus batean ireki ostean, entzungailua eskuan harturik, ahalik eta azkarren aurrez bi lehiakideek erabakitako telefono-zenbakia markatu. Telefono-hariaren bestal-*

dean erantzuten zuenari dantzarako gonbitea egin behar zitzaion. (“Ostiraleroko jokoa”)

- “Ostiraleroko jokoa” lanean, zenbait hurrek ostiraleroko egiten duten jokoa aurkezten da: telefonoaren bestaldean erantzuten duen pertsonari proposamen absurdo bat egin behar diote.

(xii) *Izozkailua ireki, eta bertan gorderik zeuzkan zapatak atera zituen. Izozkailuan hobeki kontserbatzen omen ziren zapatak. Galtzerdiak mikrouihn-labean berotu zituen. Handik atera ondoren epelak zeuden arren, ez zioten zapata izoztuen hotza guztiz kentzen. (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”)*

(xiii) *Poliziak atxilotu eta <Zergatik hil zenuen John Humbert?> galdetzen zizutenean ere, horixe bera erantzungo zenuen zuk: <Hala behar zuelako eta geltokiko orratz-zainaren amoranteak Camel tabakoa erretzen zuelako.> (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)*

- Aipa dezagun atxilotuak ematen duen erantzuna lekuz kanpo dagoela guztiz. Hau da, istorioaren titulua erantzuna bera bada ere, ez du kontakizunaren bilakaeran inolako logikarik.

Umorearen eta ironiaren arteko uztarketa

Istorio askotan umorearen eta ironiaren arteko uztarketa aurki genezake. Zenbait lanetan hainbestekoa da erabiltzen duen ironia, ezen absurdotasunarekin nahasirik irri algarak ere sortzen dituela. Hona hemen zenbait adibide:

(xiv) *Hor konpon, beraz, errautsekin zer egiten zuen, baita gustua emateko paellari bota nahi bazizkion ere. (“Aurkako taldeko atezaina”)*

- Bere ondasun guztiak herriko futbol taldeari utzi dizkion gizonaren familia haserre samar ageri da bere erabakiarekin. Adibide honetan senitarteko batek erabakiaren berri izatean esaten duena ikus genezake.

(xv) *Rimbaud paraje haietatik ez oso urrun ibilia zen arma eta esklabuekin trafikatzan, literatura pikutara bidaltzea erabaki eta probetxuzko gizon eredugarri bihurtzeko deliberoa hartu zuenean.* (“Tangerren dugun gizona”)

- Ironia gogorra du esaldi honek. Gure ustez, Canok kritika zuzena egiten dio literaturari garrantzirik ematen ez dioen jende horri. Ironiaren bitartez literatura gutxien du, duen balioa berresteko asmoz.

(xvi) *Kafea prestatu eta whisky botilak hozkailuan sartu nituen. Zalantzan ibili nintzen, hiru edo lau botila sartu. Bost sartu nituen badaezpada.* (“Whisky & Nolotil”)

Ikus genezakeen moduan, estilo eta teknika alde-tik bada homogeenotasunik liburu hogen lanen artean. Aipatu berri ditugun ezaugarriek batasun handia ematen diete liburuari; itsas korrante berean kokatzen ditu istorioak.

Pertsonaiak

Liburu honetan aurki genitzakeen istorioetako pertsonaiek ildo bera jarraitzen dutela esan genezake. Pertsonaia guztiek dute halako konfliktu bat, dekadentzia bat, desegonkortasun bat. Gure bakardadea gogorarazten digute etengabe. Bestalde, auto-suntsipenaren eta heriotzaren presentzia transmititzen dute. Honen guztiaren erakusgarri dira jarraian aurkeztzen ditugun adibideak:

Pertsonaia mozkorrek eta drogazaleak

Robinson Crusoe "heroia" mozkorti hutsa bezala aurkezten du. Hau da, heroia desmitifikatu egiten du. Hona hemen istorioan aurki genitzakeen bi adibide:

(xvii) *Egia osoa paratze aldera, Robinson Crusoe edale dotore eta neurrikoa ez baina, mozkorti hutsa zen. ("Crusoeren egunkari ezkutua")*

(xviii) *Bere mozkorraldietan hondartza inguruko zuhaitzei emakume izenak jartzen zizkien, eta azal finena zuten Estela eta Yolanda besarkatuz eta musukatuz harrapatzen zuen egunsentiak. ("Crusoeren egunkari ezkutua")*

Bestalde, eguneroko ogia Erruleta Errusiarrean jokatuz irabazten duten gazteak aurki genitzake. Gazte hauek, euren minari eta sufrimenduari aurre egiteko, drogan babesten dira.

Pertsonaia gaixoak

Adibide bat aipatzearren, testamentua egin eta bere ondasun guztiak herriko futbol taldeari uzten dizkion gizona aurki genezake:

(xix) *Lucas Lafaro Castiñeiraren borondatea da igandero-igandero Akerbeltz futbol taldeak etxean jokatzen duenetan, berak ezin duenez, bere errautsak partiduairen lekuko izan diatezela, eta taldeak gola sartzen duen bakoitzean koilarakada bat errauts botatzea. ("Aurkako taldeko atezaina")*

Pertsonaia trafikatzailleak

Hauen artean gizon misterioitsu bat aurki genezake. Droga trafikatzeko pelikanoak erosten eta entrenatzen dituen gizon misterioitsua da bera:

- (xx) *Uso mezulariak balira bezala, pazientzia handiz beziko ditu pelikanoak betaurreko iluneko gizaseme susmagarri horrek hoteleko bere suitean; eta gero, pelikanoen mokoaren peko zaku zabalean aurrez merkatu beltzean erositako haxix bolatxoak sartuko ditu, kilo pare bat pelikano bakoitzeko. (“Tangerren dugun gizona”)*

Pertsonaia obsesiboak

Ugari dira liburu honetan aurki genitzakeen pertsonaia obsesiboak. Adibidez, “Istanbul zigarrokin baten barruan” ipuinean trauma txikiengatik haien buruaz beste egiten duten pertsonaiak aurki genitzake. Bestalde, beren buruaz beste egiten duen poeta frustratua ere aurki genezake “Gel-tokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du” ipuinean. Gainera, “Ispiluak animalia higuingarriak dira” ipuinean su-itzalgailuekin obsesionatua dagoen gizona topatuko dugu, besteak beste.

Pertsonaia eroak

Pertsonaia eroen artean, adibidez, telefonoa piztia basati eta beldurgarria dela pentsatzen duen gizona aurki genezake:

- (xxi) *Piztia nazkagarri haren parekorik ez zuen berak inongo biologia liburutan ikusi. Apustu ez zuela ez grekerazko ez latinezko izenik. Isil bezain mugiezin*

zirauen, isats beltz kiribildua pareteraino luzatzen zela. (“Asfaltozko ehiza”)

Pertsonaia pobreak eta lapurrak

“Koltxoia” lanean, karabana batean bizi diren aita-semeak aurki genitzake. Aitak semeari lapurretak egitera behartzen dio, ondoren lapurturiko gauzak merkatu beltzean saltzeko. Honela irabazten dute eguneroko ogia. Gainera, aita-semeek telefono poste baten ondoan jartzen dute beti karabana, modu ilegalean telefono haria lortzeko, seinalea lapurtzeko.

Hemen aurkeztu ditugunak ez dira liburuan aurki genitzakeen hainbat eta hainbat adibideetako batzuk besterik. Hala ere, esandakoa aintzat hartuta, liburuko pertsonaiak homogeneotasunaren isla argia direla esan genezake.

Espazioa, paisaia

Espazioari edo paisaiari dagokionez, ugaritasuna dagoela aipatu nahiko genuke, hau da, istorio guztiak ez dira leku berean gertatzen, aniztasuna dago. Hala ere, aniztasun horren barruan leku gehienek joera bera partekatzen dutela uste dugu, hau da, leku ugari aurkezten badira ere, leku gehienek ezaugarri bertsuak iradokitzen dituztela.

Liburuan ageri diren lekuak aztertuta, nagusiki bi espazio motez edo bi gune nagusiz hitz egin nahiko genuke: leku itxiak eta leku irekiak.

Leku itxiak: espazio mugatuak

Leku itxiak esatean, lekuak intimoak direla ulertzen dugu normalean, leku lasaiak, norberaren lekuak. Liburu

honetan aurki genitzakeen espazio itxiak, aldiz, ez dira intimoak eta lasaiak. Ez dago leku itxirik pertsonaia bakarrik aurkitzen denik.

Esate baterako, hiru etxe aipatzen zaizkigu: etxe bateko egongela (“Whisky & Nolotil”), etxe bateko bulegoa (“Asfaltozko ehiza”) eta lur azpiko etxe bat (“Ispiluak animalia higuigarriak dira”). Hala ere, etxe hauetako batek ere ez du lasaitasuna eta intimitatea iradokitzen. Lehenengo kasuan etxeke jabeak ez du bakartasuna maite eta bere kideak etxean ez badaude, telebistaren konpainia beharrezkoa du. Bigarren kasuan, ehiztaria ez da lasai sentitzen, bere etxean bertan badelako urduritzen duen elementu bat: telefonoa. Hirugarren kasuan, trastu zaharrez betea dago etxea eta labezomorroen konpainian bizi da etxeke jabea.

Bestalde, badira beste zenbait espazio itxi ere: tabernak, metroko bagoiak, telefono kabinak, autobusak, ospitaleak... Hala ere, ez dira espazio pribatuak, publikoak baizik.

Hortaz, zalantza izpirik gabe esan genezake, leku guztiak itxiak izan arren ez direla leku lasaiak, goxoak eta intimoak. Leku desegonkorak, hotzak eta ilunak dira guztiak.

Leku irekiak: espazio zabalak

Espazio itxiak egon badauden arren, ugariagoak dira espazio zabalak, espazio irekiak. Aipatu behar dugu, Har-kaitz Canok ez duela aurkezten dituen lekuen inguruko zehaztapen eta deskribapen handirik egiten.

Oro har, leku ilunak eta bakartiak dira Canok aurkezten dituenak. Zehaztapenik egiten badu, urruneko lekuak dira aurkezten dituenak, giro iluna eta fantastikoa iradokitzen dutenak: irla bakartiak, ozeano galduak, urruneko hiriak... Leku urrun eta galdu hauek giro fantastikoa eta

desegonkorra iradokitzen digute. Hona hemen istorio batetik jasotako bi adibide:

(xxii) *Atzerriratu, iheslari, turistaz mozorroturiko negozioigizon, negozio-gizonez mozorroturiko turista, bizkarroi, espia merkatari eta parrandazale barkaezinen hiria da Tangerang.* (“Tangerren dugun gizona”)

(xxiii) *Tanger omen da ametsa eta errealtatea bat datozen munduko hiri bakarra. Tangerang aldatu egiten den ametsa da: eguzki-izpi bertikalek itxuraldatutako ametsa.* (“Tangerren dugun gizona”)

Aipagarria iruditu zaigu, bestalde, liburu honetan hiriei ematen zaien garrantzia. Alde batetik, hiri askori egiten zaie erreferentzia: *Tanger, Amsterdam, Oporto, Lisboa, Helsinki, Coimbra, Istanbul, Missouri ibaia, Houston, Bilbo, Buenos Aires, Frantzia, Marrakex, New York, Guantanamo (EEBB-n sinbolo, heriotzaren sinbolo), Brasil...*

Erreferentziak egiteaz haratago, istorio gehienak hiri handietan kokatzen dira. Hiri handietako kabinak, hiri handietako tren geltokiak, hiri handietako metroak... aurki genitzake. Gainera, hiri handiak bai, baina herri txikirik ez da ageri. Honek hoztasuna eta urruntasuna iradokitzen ditu, ez baita herri txiki batek transmititzen duen goxotasunik ageri.

Zenbaitetan Canok berak aipatzen du lekuak urrunak direla. Hona hemen istorioetariko batean leku urrunei egiten zaien erreferentzia:

(xxiv) *Askotan auskaloko erresumara arrapaladan eramana izan, ahalik eta urrunen ihes egin. Basamortura edo itsasora. Geltoki urdinen bestaldera. Amnesia herrialde urrunerako beka bat eskatu.* (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

Hiriek beregain duten hoztasunaz eta urruntasunaz haratago, erabiltzen den lexikoaren bitartez hirietako kaos eta gaixotasuna ere iradokitzen dira: *negozioak, metroa, zarata, klaxon-hotsak, autoen zarata, tren, helikopteroak, hotelak, argi alojenoak, asfaltoa, eraikuntzak, izurria...* dira Canok baliatzen dituen elementuetariko batzuk.

Beraz, ikus genezake espazioa dela liburu honetako istorio gehienek partekatzen duten beste ezaugarrietariko bat. Funtsean ez dago espazio intimorik eta espazio eta paisaia guztiek giro bera iradokitzen dute: giro fantastikoa, zehaztugabea, hotza, iluna... Laburbilduz, giro desegonkorra.

Denbora

Istorioetan aurki genezakeen denbora, oro har, zehaztugabea da. Ez da orduen, egunen ezta urteen zehaztapenik ageri. Hala ere, honekin ez dugu esan nahi denboraren nozioak garrantzirik ez duenik. Esate baterako, “Istanbul zigarrokin baten barruan” lanean denbora garrantzitsua da, beharrezkoa baita metroa noiz hartu behar den jakiteko. Gainera, azken trenaren zenbaterako atzerapenarekin datorren ikusteak ere badu bere garrantzia. “Ostiraleroko jokia” lanean ere, denboraren baitan dago jokia irabaztea edo galtzea: denborarekin duten lehian azkarren mugitzen dena izango da garailea.

Hortaz, denboraren nozioa ageri den arren, istorioetako denborak, oro har, zehaztugabeak dira. Honen erakusgarri da istorioetariko batean denborari egiten zaion erreferentzia:

(xxv) (...) *denbora basamortuko haizeaz galbaheturiko haremuno multzoa balitz bezala. Geltoki hartan sartzeko denboraz ahaztea komeni zen; erlojua*

erantzi eta patxadaz eseri bigarren nasako aulki orlegian Camel bat erretzen. (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

Bestalde, istorioen abiadura geldoa da lan gehienetan. Ipuinetan ez da urteetan zehar gertatzen dena kontatzen; normalean une batean edo egun batean gertatutako partateak kontatzen dira. Ekintzei garrantzia ematen bazaie ere, deskripzioek balio handiagoa dute. Honen eraginez, kontakizunak geldoak dira, motelak.

Canok deskribapenei ematen dien balioaren adierazgarri da ipuinetako adjektibazio ugaria. Izan ere, narrazio askotan ageri den izenondoan eta izenlagunen bidezko adjektibazioa gehiegizkoa ere bada. Horren adibide dira “Tangerren dugun gizona” edo “Koltxoia” ipuinak:

(xxvi) *Tangerren dugun gizona hiru egun t’erdiz luzatzen utzitako bizarra eta betaurreko ilunak dituen Amsterdameko gizaseme susmagarri bat (...).* (“Tangerren dugun gizona”)

Esan bezala, deskribapen zehatz horiek geldotasuna sentiarazten digute. Are gehiago behin eta berriro *gizasemari* erreferentzia egiten dion bakoitzean deskribapen berri erabiltzen bada.

Esaldien edo leoen errepikapen asko agertzen dira *Telefono Kaiolatua* ipuin bildumako narrazioetan. Honek, deskribapenen moduan, geldotasun sentsazioa transmititzen du, autorearen behin eta berriro gauza berari bueltaka ari den sentsazioa.

(xxvii) *Errespetu guztiarekin, baina barregarria da.*
 (“Aurkako taldeko atezaina”)

(xxviii) *-Tira, orain badakizu nora.* (“Koltxoia”)

Gauza berari behin eta berriro bueltaka gabiltzan sentsazio hori areagotu egiten da ipuinen biribiltasunarekin eta ipuinetan gaiak errepikatzean. Izan ere, erruleta erru-siarrean jokatzeari, jendeak bere buruaz beste egitea, bakar-dadea, traizioa... errepikatzen diren elementuak dira. Jarraian datorrena narrazio biribil baten adibidea da:

(xxix) *Lasai moztuko du bizarra pelikanoen konpainian, istorio biribilaren bilaketari edo siniskeria zaharren bati jarraitzen dionaren gisara.* (“Tangerren dugun gizona”)

- “Tangerren dugun gizona” lanean Canok iradokitzen digu gizon honek (protagonistak) behin eta berriro egin duela (eta egingo duela) ipuinak kontatzen duen bidaia.

Ipuinetako abiadura motela dela esan badugu ere, nabarmendu nahiko genuke ipuin gehienek bukaeran erritmoa bizkortzen dutela. Hau da, ipuin guztian zehar deskribapenak eta ekintzek garatzeak azaldu ostean, bukaerako hiruzpalau lerrotan istorio guztiaren bukaera edo askaera agertzen du Canok.

Ikus daitekeenez, denboraren kasuan ere behin eta berriro defendatzen gabiltzan homogeneousotasun zantzuak aurki genitzake.

Kronotopoa

Kronotopo kontzeptua denbora eta espazioaren ezau-garriei eta hauen arteko loturari dagokio. Hartara, denbora eta espazioaren arteko lotura banaezinaren bidez, denboraren elementuak espazioan islatzen dira, eta espazioa denboraren bidez ulertu eta neurtu daiteke.

Aztergai dugun lanean, espazioa zehaztugabea dela esan dugu eta denbora ere halakoxea dela, zehaztugabea.

Beraz, denbora eta espazioaren arteko lotura argia da, banaezina. Denboraren elementuak espazioan islatzen dira. Esate baterako, istorio batean aipatu berri dugun ideiarene adibide argi bat aurki genezake. Ekar dezagun hona goian aipaturiko xxv. adibidea eta erants dezagun istorio bereko beste adibide bat:

(xxv) (...) *denbora basamortuko haizeaz galbaheturiko haremuinto multzoa balitz bezala. Geltoki hartan sartzeko denboraz ahaztea komeni zen; erlojua erantzi eta patxadaz eseri bigarren nasako aulki orlegian Camel bat erretzen. ("Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du")*

(xxvi) *Geltoki urdinetan, usainak ez dira berehala joaten. ("Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du")*

Adibideotan ikus genezakeen moduan, denboraren elementuak espazioan islaturik ageri dira. Izan ere, denbora elementu zehaztugabe gisa aurkezten da eta garrantzia kentzen zaio, lausotu egiten da. Geltokia espazio gisa aurkeztean ere, leku lauso gisa aurkezten dira: geltoki urdinak, mugagabeak. Usainak ere aipatzen dira, geltoki guztian zehar zabaltzen eta hedatzen diren usainak; egonkorrak, baina zehaztugabeak.

Modu bateratuan zein isolatuan ikus genezake bai espazioa eta baita denbora ere zehaztugabeak direla eta giro iluna, hotza eta desegonkorra iradokitzen dizkigutela liburu guztian zehar.

Telefonoa eta elementu komunikatiboak

Telefonoa eta elementu komunikatiboen kontzeptua da istorioek konpartitzen duten beste elementuetariko bat.

Telefonoa

Zenbait irakurleren esanetan telefonoa da ipuin liburu honen ardatza, liburuaren muina, istorio guztiak lotzen dituen hari. Gure ustez ere, telefonoa elementu garrantzitsua da, baina ez istorio gehienetan ageri delako soilik. Ez da, bestalde, liburuari izenburua ematen dion hitz hutsala, askoz gehiago da. Pertsonaien sentipen, obsesio nahiz itxaropenen isla edo euskarria da.

Hainbat sentimenduren isla da istorio ezberdinetan: desesperazioa (*Erantzungailuan utzitako mezua*), askatasuna (*Kaukasiar bat saxo batekin*), beldurra (*Asfaltoko ehiza*), klandestinitatea eta delitua (*Koltxoia*), desamodioa (*Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du*), bizitzaren aurreko larritasuna (*Desesperatu bat –gehiago–*)...

Bestalde, telefonoak boterea adierazten du. Garaipenaren eta porrotaren muga da telefonoa, boterea duenaren eta zapaldua dagoenaren arteko mugarria. Hona hemen adierazpen honen zenbait adibide:

(xxvii) *Orduan baino ez zen ohartu, piztiak hozka egina ziola; apurka-apurka, gorputz guztira hedatzen ari zitzaion pozoiak estatua baten antzera mugiezin utzia zuela; inozoa izan zela hain erraz bere burua garaile ikusirik; bera zegoela piztiaren menera eta ez alderantziz eta ez zela jada telefono-hariaren bestaldean ernegatzen hasia zen ahotsari hitz bat bera ere esateko gai izango. (“Asfaltoko ehiza”)*

- Telefonoak guda irabazi dio ehiztariari. Orain telefonoa da agintaria eta ehiztaria bere menean dago.

(xxviii) *Aurrena iritsi eta aurrena markatzen zuenak lortzen zuen, jakina, ia beti baiezko erantzuna. Bien bitartean, laurogei pausotara zegoen beste telefono-kabinakoari –esan dezagun argi: galtzaileari-*

komunikatzen ematen zion hari etenaren seinaleak.
("Ostiraleroko jolasa")

- Haur talde batek ostiralero egiten duen jolasa da honakoa. Telefono deia besteak baino azkarrago egitea lortzen duenak irabaziko du guda; berak irabaziko du jolasa. Minutu batez bada ere, munduaren agintari sentituko da.

(xxix) *Entzefalograma planoaren tutu hotsa eman zion telefonoak. Kirurjilari bat imajinatu zuen operazio-gelan eskuak garbitzen: ahal izan duguna egin dugu, baina eten da bizitza. Inoiz ez da jakiten noiz.* ("Is-piluak animalia higuinarrak dira")

- Gizon honek dei bat egin du eta telefonoa eskegi diote. Telefonoa eskegi dionak bizitza kolokan jarri dio. Are gehiago, bizitza eten dio. Ustekabean, abisatu gabe hil egin da; *inoiz ez da jakiten noiz*. Telefonoa menperatzeak bizitza menperatzea adierazi nahi duela uste dugu.

Elementu komunikatiboak

Telefonoa ipuin liburuko istorio guztietan agertzen ez bada ere, behin baino gehiagotan errepikatzen den elementua dela ikusi dugu. Gauza bera gertatzen da elementu komunikatiboekin ere. Izan ere, telefonoa istorio guztietan agertzen ez den arren, istorio gehienetan aurki genezake elementu komunikatiboren bat. Hona hemen aurki genitzakeen elementu komunikatibo batzuk eta zenbatgarren istorioan ageri diren:

- Egunkariak (3, 15)
- Botilen barruko mezu pergaminozkoak (3)
- Erantzungailuan utzitako mezua (4)
- Testamentua, azken borondatea (5)

- Rimbaud-en liburua (6)
- Pelikano mezulariak (6)
- Telefono kabinak (7, 14)
- Metroko pintadak eta iragarkiak (8)
- Telefono deia (9)
- Telefonoa eta telefono postea (11)
- Telebista (13)
- Telefonoa (17, 18)

Bestalde, gizakion elementu komunikatibo indartsue-
na ere aipatu nahiko genuke: hizkuntza. Deigarria iruditu
zaigu liburuko hainbat ipuinetan ingelesezko esapide ugari
agertzea: *rent a car, full, restop, shake before use this end up,*
business... Gainera, Canok ingelesa bortxatuta bezala sar-
tzen duela iruditzen zaigu sarritan. Izan ere, esapide horie-
tako asko euskaraz ere arazorik gabe esan daitezkeela de-
ritzogu. Esate baterako *full* edo *shake before use this end up*
euskaraz ere esan daitezke. Hala ere, onartu beharra dago
ingelesa egunerokotasun arruntean ere geroz eta ohikoagoa
dela.

Ingelesa erabiltzearen arrazoi nagusia hizkuntza ho-
nek egun duen balore komunikatiboan aurki genezakeela
deritzogu. Hau da, ingelesa hirietako hizkuntza liderra da
eta hau menperatu gabe ezin zaitezke goian aipatutako hiri
fantastiko eta zehazgabe horietatik askatasunez ibili.

Beraz, telefonoa eta elementu komunikatiboak libu-
ruko ipuin gehienek partekatzen duten beste ezaugarri bat
dira. Ezaugarri xumea dirudien arren, aztergai dugun la-
nean berebiziko garrantzia du.

Lanen arteko loturak

Telefono Kaiolatua liburua ipuin askeen bilduma bada
ere, zenbait lanetan ipuinen arteko lotura zuzena egiten da.

Esate baterako, “Kaukasiar bat saxo batekin” istorioan aurreko istorioan bertan (“Tangerren dugun gizona”) ageri diren pelikanoei egiten zaie erreferentzia. Lehenengo istorioan droga trafikatzeko bitartekariak dira pelikanoak eta bigarrenean, aldiz, telefono kabina baten barruan urkatuta ageri den animalia.

Badira zenbait lanetan errepikatzen diren beste zenbait elementu ere, nahiz eta zentzu edo balio ezberdina eduki. Adibidez, “Whisky & Nolotil” lanean joko gogor bat aurkezten da: Erruleta Errusiarra. Erruletara jokatzuz eguneroko ogia irabazten duten hiru gazte dira protagonistak, euren bizia jokoan jartzen dutenak. Hurrengo lanean, “Ostiraleroko jokoak” izenekoa, beste joko bat aurkezten da: bi haur elkarren artean lehiatzen dira, aurretik adosturiko telefono zenbaki batera nork lehenago deitu. Hasiera batean jolas soila dirudi, dibertitu asmoz egiten den ekintza. Harkaitz Canok, aldiz, ez du jolas moduan aurkezten, joko moduan baizik. Beraz, haurrek zer edo zer dute jokoan, ez agian bizitza bera (aurreko istorioan bezala), baina bai jolasa irabaztearen poza baino zerbait gehiago. Jokoak beste zenbait ipuinetan ere ageri zaizkigu, esate baterako “Ispiluak animalia higuigarriak dira” lanean. Lan honetan, protagonistak su-itzalgailuak lapurtzen ditu eta ez da jolas hutsa; bere obsesio eta frustrazio handienen isla da.

Badira, bestalde, errepikatzen diren objektuak ere. Adibide bat ematearren, “Ispiluak animalia higuigarriak dira” laneko whisky edalontzia aipatu genezake. Izan ere, ipuin hau whisky edalontzi bat aipatuz hasten da; badirudi edalontzi hau “Whisky & Nolotil” lanean edan gabe geratu den edalontzia dela. Bai istorio batean eta baita bestean ere, zantzu negatiboa du edalontziak: giro iluna iradokitzen du, ezegonkorra, arriskutsua.

“Ispiluak animalia higuigarriak dira” ipuinean badago beste erreferentziarik. Izan ere “Tangerren dugun gi-

zona” ipuinean agertzen den bezala, hemen ere ispiluaren aurrean bizarra mozten ari den gizon bat agertzen zaigu.

Honekin guztiarekin, ikus genezake istorio bakoitza gai baten inguruan eraikita badago ere, badirela zenbait istorio lotzen dituzten ezaugarriak ere.

Bestelako elementuak

Badira beste zenbait ezaugarri eta elementu, istorio askotan daudenak edo errepikatzen direnak. Goazen banan bana:

Drogak

Hiriko bizitza kaotikoa eta globala erakusten digu Canok istorio askotan. Horretarako, hirietako elementu asko aipatzen ditu: *metroak, graffitiak, estazioak, zaratak, produktuen markak, iragarkiak, drogak...*

Jadanik aipatu ditugu hauetariko ezaugarri batzuk eta beste batzuk (esate baterako produktuen markei ematen dien garrantzia) iruzkinduko ditugu beherago ere. Atal honetan, ordea, garrantzia berezia eman nahi diegu drogei.

Drogen etengabeko aipamena egiten digu Canok liburuko hainbat istoriotan. Aipamen hauekin hiriko bizitza iluna eta globala irudikatzen duela uste dugu: dekadentzia, pertsonaien ezegonkortasuna, arriskua, iluntasuna... Mota desberdinetako drogak aipatzen ditu. Hona hemen aipatzen dituen horien arteko sailkapentxo bat:

Droga “arinak”			Droga “gogorak”	“Medizinalak”
Erretzekoak	Alkohola	Bestelako edariak	<ul style="list-style-type: none"> •Heroina •Anfetak •Buda 	<ul style="list-style-type: none"> •Nolotil pastillak •Lotarako pastillak •Metadona • Valium
<ul style="list-style-type: none"> •Haxixa •Marihuana 	<ul style="list-style-type: none"> •Whiskya •Ginebra 	<ul style="list-style-type: none"> •Kafea 	<ul style="list-style-type: none"> •pastillak •Kokaina 	

Animaliak

Ikaragarria da *Telefono Kaiolatua* ipuin liburuan aurki genezakeen animalia andana:

Hiritik hurbil daudenak		Naturatik hurbil daudenak	
Zentzu positiboa	Zentzu negatiboa	Zentzu positiboa	Zentzu negatiboa
<ul style="list-style-type: none"> • Katuak • Zakurra • Dortoka • <u>Ahateak</u> • Bakailaoa • <u>Beltxargak</u> 	<ul style="list-style-type: none"> • Zorriak • Armiarma • Labezomorro • <u>Usoak</u> • Piztiak 	<ul style="list-style-type: none"> • Tximeleta • Igela • Ardia • Ahuntza • <u>Indioilarrak</u> • Baleak • Izurdeak • <u>Pelikanoa</u> • <u>Arranoak</u> • <u>Hontzak</u> • <u>Gazela</u> • <u>Amiamokoak</u> • <u>Faisaiak</u> • <u>Albatroak</u> • <u>Guakamaiak</u> 	<ul style="list-style-type: none"> • Erlea • Basurdea • Otsoa • Tigrea • Krokodiloa • Kaimana • Sugeak • Zizarea • <u>Putreak</u> • Piztiak

Gure ustetan hainbeste animalia erabiltzea ez da, inola ere, kasualitatea. Zergatik aipatzen ditu Canok hainbeste animalia? Kontuan har dezagun animaliak naturaren sinbolo nagusietakoa direla.

Aipatu berri dugu Canok hiriko bizitza globala eta iluna islatzen dituela etengabe (drogak, hiriak, merkatu beltza, zaratak, markak...). Gure ustez, ezaugarri edo giro artifizial honi enfasia emateko baliatzen ditu animaliak. Hau da, gure ustetan artifiziala, gizakiak sorturikoa den mundua, mundu naturalarekin kontrajartzen du: hiria vs natura kontrajarpena egiten du animaliak baliatuz.

Azpimarratu nahiko genuke aipatzen diren animalietariko asko hegaztiak direla (taulan azpimarratuak ageri dira). Hegaztiek hegan egiteko gaitasuna dute, askatasunaren sinbolo dira. Gure ustez animalia hauen bidez telefonoak sortzen duen lotura askatasunarekin kontrajarri nahi du Canok.

Suerte txarra

Telefono Kaiolatua lanean zehar badira gizarteak zorte txarraren adierazletzat dituen hainbat elementu. Esate baterako katu beltzak behin baino gehiagotan agertzen dira:

(xxx) *Bere oinen ondoan pilatzen diren hoteleko katu beltzak ostioka uxatzen ditu.* (“Tangerren dugun gizona”)

(xxxii) *Katu beltz batek bere burua bota du zazpigarren pisutik behera; erorketan, zeuzkan zazpi bizitzetarik bat galdu du pisu bakoitzeko.* (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

Katu beltzak ez dira suerte txarraren adierazle bakarrik. Izan ere, ispilu hautsiak eta begikoak ere aurki gitezake zenbait ipuinetan:

(xxxii) *Ispilu puskatuak bi gorputz zimurtu ditu mila lerro beltzetan.* (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

(xxxiii) *Baina aldakia da ciao suerte esatea, alegia, komarik gabe, kolpe bakarrean, agur zorteari... begikoa botatzea bezala edo onartzea gu geu utzi gaituela zorteak patuaren esku...* (“Whisky & Nolotil”)

Elementuok, berriz ere, gizartearen beldurra, ezegonkortasuna eta giro iluna erakusten digute.

Ispiluak

Ispiluak ez dira zorte txarraren adierazle hutsak. Ispiluen bitartez askoz gauza gehiago adierazi nahi dizkigu Canok. Gainera, asko dira ispiluren bat erakusten duten ipuinak:

(xxxiv) *Balkoian ispilu bat zintzilikatu, betaurreko beltzak erantzi eta lasai moztuko du bizarra pelikanoen konpainian.* (“Tangerren dugun gizona”)

(xxxv) *Ispiluak piztia arriskutsuak dira.* (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”)

• Ipuin honetan (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”) ispiluak esanahi handia duela uste dugu. Narrazio honetako ispilua ezjakintasunaren sinbolo gisa ulertzen dugu. Hau da, ipuin honetan ispilua elementu sorpresiboa da: ez dakizu zer agertu daitekeen ispiluan. Gainera, ipuin-bilduma osoan zehar piztia telefonoa bada ere, narrazio honetako pizti nagusia ispilua da. Ispilua telefonoaren mailan jartzeak elementu honen garrantziaz ohartarazten gaitu.

(xxxvi) *Batzuetan ispilu batek bikoiztu arren, istorio bakarra dagoela kontatzeko, hori bazenekien.* (“Geltokiko...”) (Geltokiko...)

kiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

(xxxvii) *Ispilu puskatuak bi gorputz zimurtu ditu mila lerro beltzetan.* (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”)

• Ispiluak bikoiztasunaren sinbolo gisa agertzen zaizkigu bi adibideotan. Bikoiztasuna islatzeaz gain, jakin badakigu ispiluak mundu errearen eta fantastikoaren arteko muga ere isla dezaketela. Zer da erreala? Zein da benetako irudia eta zein fantastikoa? Zein da bikoiztua dagoena? Ispilua larritasuna sortzen duen kontzeptua da. Gainera, ispiluaren beste aldea, gure mundukoa ez den aldea, nahiko negatiboki edo kutsu ilunekin deskribatzen du Canok.

Ikus genezakeenez, ispilua behin baino gehiagotan agertzea ez da kasualitatea, ez bada kausalitatea. Denbora aztertzean ikusi dugun bezala, hemen ere kutsu fantastikoa adierazi nahi izan du Canok:

(xxxviii) *Beltzez jantzitako itzal bat ikusten du ispiluan, bere atzean, zelatan balego bezala.* (“Tangerren dugun gizona”)

(xxxix) *Odol hari fina ikusi zuen ispiluan.* (“Ispiluak animalia higuigarriak dira”)

Odola

Orain artean ikusi dugu nagusitzen den giroa iluna eta ezegonkorra dela. Hori berresten laguntzen digun beste elementu bat da odola. Gure ustez odola minaren, gizarte egoeraren, gorrotoaren eta heriotzaren gauzapena da. Hona hemen odolaren agerpenaren adibide pare bat:

(xl) *Odol hari fina ikusi zuen ispiluan.* (“Ispiluak animalia higuigarriak dira”)

- (xli) *Odol lehorrak kopetaren erdiko ebakia markatzen zion: ganibetaz borrokan ibilia zen, dudarik gabe.*
 (“Desesperatu bat –gehiago–”)

Gauza ezdeusak

Gauza ezdeusek, euren alderdi ilunena islatzen dute ipuin liburu honetako istorioetan. Hau da, egunerokotasunean erabiltzen ditugun edo ezagunak zaizkigun objektu sinpleenek ere euren alderdi iluna erakusten digute. Baiez-tapen hau hobeto ulertuko dugu zenbait adibide erakutsita:

- *Irla desertuko mahastiak*: heroiaren alderdi ilunena islatzen dute, mozkorkeriaren isla dira. Heroia desmitifikatzen da honen bidez. (“Crusoeren egunkari ezkurtua”)
- *Testamentua, azken nahia*: Inork ez zuen osaba zaharren azken nahia bete nahi. Testamentua familiako gatazka bilakatzen da. (“Aurkako taldeko atezaina”)
- *Bizarra*: Moztu gabeko bizarra trafikatzailearen alderdi ilunaren isla da; geroz eta bizar luzeagoa orduan eta maltzurragoa da. (“Tangerren dugun gizona”)
- *Telefono kabina*: Inposizioaren eta loturaren isla da. Pertsonaiak kabina apurtzen du aske sentitzeko. (“Kaukasiar bat saxo batekin”)
- *Metroa*: Obsesio eta trauma txikien habia da. Bizitzak sortutako frustrazioa bertan kokatzen da. (“Istanbul zigarrokin baten barruan”)
- *Telefonoa*: Piztia nazkagarri eta beldurgarria da. (“Asfaltozko ehiza”)
- *Koltxoia*: Pobreziaren, bizi baldintza penagarrien eta delinkuentziaren (merkatu beltzaren) isla da. (“Koltxoia”)

- *Telebista*: Pertsonaien ezinegonaren isla da. (“Whisky & Nolotil”)
- *Ispilua*: Bere burua ezin ikus dezakeen gizonaren metafora da. (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”)
- *Su-itzalgailua*: Protagonista ezegonkor baten obsesioaren isla da. (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”)
- *Tren geltokia*: Bizitzaren isla da, noraezarena, ezegonkortasunarena. (“Geltokiko orratz-zainaren”)

“Bestelako elementu” izendatu ditugun hauek dira istorio ezberdinen arteko beste ildo komun bat. 5.2. atalean ikusi dugu esparru askotan islatzen dela ipuin liburu honen homogeneousatasuna. Homogeneousatasun honek liburua-ren ildo nagusia argi islatzen duela uste dugu. Espazioetan, pertsonaie- tan, elementu txikienetan arreta jartzen badugu o- hartuko gara aztergai dugun liburua ez dela ipuin sorta baten bilduma hutsa.

Ipuinetariko bakoitzak du bere tokia, pisua eta garrantzia liburuan. Ipuinetariko bakoitza da beharrezkoa eta askotan istorio bat bestearen osagarri dela ikus genezake. Ziur gaude liburu honek 20 lan bildu beharrean 19 bildu izan balitu ez lukeela zentzu bera edukiko. Hori berori diosku Canok berak ere hurrengo lerrootan:

Un cuento que aislado puede carecer de valor, puede ser vital en una colección, porque hay Cuentos Ciudad y Cuentos Isla que necesitan Cuentos Puente para llegar de uno a otro. () Todos los cuentos cumplen una función vital, creando un conjunto inmejorable y hermoso en su imperfección. (*Cano, 2002*)

Gai orokorra

Ipuin-liburuan agertzen diren gaiak 5.2.1. atalean lan- du baditugu ere, ipuinen arteko homogeneousatasun handia

behin eta berriz azpimarratu ostean, ezin buka genezake ipuinek duten batasun punturik handiena aipatu gabe: gai nagusia.

Iratxe Retolazaren (2000) ustez heriotza da ipuin-liburu honetako gai nagusia. Guk ere *Telefono Kaiolatua* laneko gai nagusienetako bat heriotza dela uste badugu ere, pentsatzen dugu heriotza sentipen hotz guztietan bat gehiago dela. Hau da, heriotzak garrantzia handia badu ere, minak, tristeziak, bakardadeak, higuinak, pobrezia, zoramenak, egoera galduek eta prekarioek, ideia makabroek... heriotzaren ideia hori indartzen dutela deritzogu, heriotzaren hoztasun eta gogortasuna areagotuz. Hona hemen adibide ugarietako bat:

(xlii) *Ordurako kezko mamu isilek hartzen zuten nire apartamenduko airea.* (“Whisky & Nolotil”)

Gainera, gorago esan dugun moduan, Canok ironia asko darabil lan honetan. Gure ustez, Canok gaur egungo gizarteari eta egoera hotz eta gogor horiei kritika egiten die ironiaren bidez. Esate baterako, ipuinetako baten *salbutamol* botika aipatzen du Canok. Salbutamol edozerengandik libratuko gaituen botika da, guztiaren soluzioa.

Paratestuak eta intertestuak

Paratestuak

Aipuak

“Aipuak” izendaturiko atal honetan bi sail bereiztea beharrezkoa dela uste dugu. Alde batetik, Harkaitz Canok berak liburuaren hasieran egiten duen aipua aurki genezake. Beste alde batetik, liburu guztian zehar eransten dituenak aurki genitzake, beste autore batzuen lanetatik jasoak:

Liburuaren hasirako aipua

Liburuaren hasieran Canok egiten duen sarrerak (“Telefono Kaiolatua” deritzonak) liburu guztia laburtzen duela esan genezake. Irakurleak hogei istorioetan aurkituko dituen giroa, paisaia, estiloa, pertsonaiak, gaiak... aurreikus-ten ditu idazleak.

Liburuko istorio gehienetan presente ditugun elementuak ageri dira hamazazpi lerrotan: hiriaren kontzeptua (*metroa, Bilbo, graffitiak...*), munstroak, animaliak (*heren-sugea, igela...*)... Telefonoa bera ere aipatzen da hasira-hasieratik.

Bestalde, liburuaren giro nagusia ere iradokitzen da: dekadentzia, beldurra, larritasuna... Hona hemen giro hau ederki islatzen duen adibide bat:

(xliiii) *Munstro bat zegoen lurpean, eta apurka-apurka, denok irentsiko gintuen.*

Beste autoreen lanetatik jasotako aipuak

Lau dira Canok beste autoreengandik jasotako aipuak. Gehienak (bostetik hiru) ipuin-liburua osatzen duten gainerako lanekin nahasirik daude, hau da, gainerako hamazazpi lanen artean, lan independente gisa. Besteari dago-kionez, zazpigarren istorioaren hasieran kokatu du Canok, “Kaukasiar bat saxo batekin” lanari hasiera emanaz.

Autore hauen eskutik jaso ditu Canok aipuak:

- Jon Cortázar Perez, *Principal Antzokia* (97-4-24): “Kaukasiar bat saxo batekin” lanari hasiera ematen dion aipua dugu, euskaraz idatzia ageri zaiguna.
- E.E. Cummings: “Ez dago beti galtzen duenik” izenburupean ageri da istoriotxo hau, poesia forman idatzia eta euskaraz.

- Fran Alonso: “Unha pantalla triste” izenburupean ageri da zazpi lerroko lantxo, galegoz idatzia.
- Charles Bukowski: “Azken bolada honetan” izenburupean ageri da istorioa, poesia forman idatzia eta euskaraz. Hala ere, autoreak aipatzen du testua jatorriz ez dela euskaraz idatzia eta Xabier Montoia-
ren eskutik itzulia dagoela.

Portada

Kolore deigarriak dauzka Canoren liburu honek. Morea eta arrosa da portada, morea erdia eta arrosa beste erdia. Badirudi portadan bertan zatiketa bat irudikatu nahi duela Canok: garailearen eta galtzailearen arteko aldea, bizirik iraun duenaren eta larri zauritua dagoenaren arteko muga; telefonoa menperatu duenaren eta telefonoak menperatu duenaren arteko banaketa.

Bestalde, liburuaren titulua *Telefono Kaiolatua* izan arren, ez da kaiolarik ageri portadan. Telefono kabina bat margotu zezakeen, agian hau baita kaiola bati gehien hurbiltzen zaion irudia. Telefono postea eta hariak irudikatu ditu ordea: hari mugagabeak, hasierarik eta amaierarik ez duten hariak. Agian kaiolak berak duen mugagabetasuna adierazi nahi du; guztiok gaude telefonoaren kaiolan, inposaketak ez du mugarik.

Intertestualitatea

Beste autoreen eragina

Behin baino gehiagotan aipatuko dugun moduan, izugarria da Canoren lanetan intertestualitateak duen pisua.

Adierazpen honen adibiderik argiena 6.2.3. atalean aurkezten dugun sailkapenean ikusiko dugu.

Atal horretan *Telefono Kaiolatua* lanean aurki genitzakeen hainbat izen eta erreferentzia ikus genitzake. Canok hango eta hemengo autoreak, zinemagileak, musikariak eta abarrak aipatzen ditu zuzenean eta horixe da 6.2.3. atalean aztertu duguna.

Hala ere, zuzenean egiten dituen aipamenetatik harago joan nahi izan dugu guk. Autore askoren eragina jaso du Canok, baina hauetariko zenbait ez ditu aipatzen. Hau da, zeharka ere hainbat autoreren, zinemagileren eta musikariren eragina duela uste dugu:

Gure ustetan, Canoren lanetan Kafkaren lanen eragina handia da. Kafkaren lanen zantzuak ageri zaizkigu Canoren lerroetan. Bestalde, aipatu behar dugu autore honen eragina zeharka jasotzeaz gain, zuzenean ere aipatzen duela istorioren batean.

Kafkaren eragina jasotzeaz gain, Bukowskiren eragina ere nabari zaio pertsonaietan. Izan ere, *galtzaileak*, *drogazaileak*, *psikopatak*, *alkohol-zaleak*... dira Bukowskiren lanetan aurki genitzakeen pertsonaia gehientsuenak. Ikus genetzakeen moduan, ez dira Canoren pertsonaietatik batere aldentzen.

Chejov eta Carverren eragina ere nabarmendu nahiko genuke. Bi autore hauek *errealismo zikinaren* sinbolo dira eta badirudi Cano ere ohartu zela ezaugarri honetaz. Bai Cejovek eta baita Carverrek ere, funtsean sinpleak eta ohikoak diruditen objektuetan arreta ipini, berauek erreferente hartu eta istorioetako oinarrizko elementu bilakatzeko dituzte, haien alderdi ilunena azaleratuz. Gorago ikusi dugun moduan, Canok berak ere ipuin askotan erabili du teknika hau.

Maila apalagoan bada ere, uste dugu Canok baduela zenbait euskal autoreren eraginik ere. Horien artean aipa-

garrienak Atxaga eta Sarrionaindia direla esan genezake. Esate baterako “Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du” ipuinaren izenburuak Joseba Sarrionaindiaren *Narrazioak* ipuin-bildumako “Estazio-begiadak” ipuinari erreferentzia egiten diola deritzogu. Ipuin horretan geltokiko orratz-zaina eta emaztea dira agertzen direnak eta hemen, Canorenean, alaba.

Atxagaz den bezainbatean, eragina horren nabarmen ageri ez bada ere, gure ustez, *Obabakoak* lanari keinu egiten dio Canok *Telefono Kaiolatua* lanean. Izan ere, *Obabakoak* laneko “Bagdadeko morroia” ipuina etorri zaigu gogora “Tangerren dugun gizona” narrazioko hurrengo pasarte hau irakurtzean:

(xliv) *Beltzez jantzitako itzal bat ikusten du ispiluan, bere atzean, zelatan balego bezala.* (“Tangerren dugun gizona”)

Badirudi Harkaitz Canoren lan honek Graham Greene idazlearen *Our Man in Havana* lanaren eragina ere baduela. Lan hau zinera ere eraman zen, beraz, Canok bere eragina jasotzekotan, liburutik edo filmetik jaso zezakeen.

Pasarte honetan zelatan agertzen den itzala Bagdadeko morroia Ispahan herrira abiarazten duen heriotzarekin lotu dugu. Izan ere, biak dira ilunak, biak zelatan daude eta biek sentsazio hotza sorrarazten dute gorputzean. Gainera, beltzez jantzitako itzalaren irudia ez da behin bakarrik agertzen “Tangerren dugun gizona” ipuinean. Hortaz, ez deritzogu kasualitatez dagoen irudi bat denik.

Cano eta zinemagintza

Hango eta hemengo iturrietan irakurri ahal izan dugu Canoren lanetan zinemagintzak eragin zuzena duela. Harkaitz Canok zinemagintzarekiko zaletasun handia du eta

sarri askotan ikusi dituen filmen gaiak, giroak, zantzuak... sartzen ditu bere lanetan.

Adierazpen hau egitea erraza da, baina ez da erraza adierazpena justifikatzea. Izan ere, ezin jakin genezake zein diren Canok bere bizitzan zehar ikusi dituen filmak eta, hortaz, ezin jakin genezake zein den film horiek egin dioten ekarpena. Canok ikusi dituen ehunka film horien zerrenda eskura bagenu, errazagoa litzateke lan hau, baina zerrenda hori ez dugunez, ez dugu adierazpen gehiegi egingo.

Hala ere, aipatu nahiko genuke ez direla filmak soilik Canorengan eragiten dutenak. Izan ere, *Telefono Kaiolatua* liburuarekin zuzeneko harremana duten bi spot topatu ditugu interneteko sarean. Spot hauetan Canok bere liburuan iradokitzen duen giro eta mezu berberak iradokitzen direla uste dugu.

Lehenengo spotean (Nanni Moretti, 1993) telefonoz komunikatzeko hainbat saiakera ikus genitzake. Zenbait helduk telefono deiak egiten dituzte hainbat etxetara eta etxe horietan haurrak dira telefonoa hartzen dutenak. Helduek haurren gurasoekin hitz egin nahi dute, baina telefonoa haurren eskuetan dago eta haurrak dira agintzen dutenak. Haur hauek nahi duten noranzkoan mugitzen dituzte telefonoaren bestaldean dauden helduak, hau da, gurasoei telefonoa pasatzearen trukean pailazoarena egitera bultzatzen dituzte helduak. Spot honek argi eta garbi erakusten du Canok *Telefono Kaiolatua* lanean adierazten duen mezua: telefonoa menperatzen duenak dauka kontrola, botera.

Bigarren spotean (Jose Luis Lopez Vazquez, 1972) ez da liburuaren gaia islatua ikus genezakeena, ez bada giroa. Gizon bat telefono kabina batean harrapaturik geratzen da eta lur azpiko gela handi batera garraiatzen dute. Ilun dago giroa, baina telefono kabinako kristal gardenek inguruko irudiak ikusteko aukera eskaintzen diote. Gela handi horretan barrena mugitzen ari zaizkion artean, telefono ka-

bina asko ikusten ditu inguruan. Kabina horiek, ordea, ez daude hutsik. Bere moduan harrapaturik geratutako jendea dago; hilotzak dira, gorpuak. Telefono kabina barruko gorpuak ikustean gizonari sortzen zaion larritasuna ikaragarria da. Giro iluna iradokitzen da, heriotzaren aurreko larritasuna, inpotentzia, larritasuna, dekadentzia... Fun-tsean, Canoren liburuan iradokitzen den giro bera aurki genezake spot honetan.

Ziur gaude gisa honetako makina bat spot, iragarki eta film komenta genitzakeela, baina aitortu behar dugu materiala falta zaigula. Hala ere, ziur gaude (eta hurrengo atalean ere ikusiko dugu) Canoren literatur lanetan zinemagintzak izugarritzko garrantzia duela estean.

Bestelako ezaugarriak: liburuko erreferentziak

Telefono Kaiolatua lanaren bigarren irakurketa bat egi-tea derrigorrezkoa da Canok darabiltzan erreferentzia ugari-erik konturatzeko. Izan ere, zenbat eta gehiagotan irakurri, orduan eta erreferentzia gehiago aurkitu ditugu.

Esan berri dugun bezala, Canok erreferentzia ugari egiten dituen arren, ez dira edonolako erreferentziak. Erre-ferentzia guztiek badute nolabaiteko lotura beraien artean. Orokorrean esan genezake arteei loturiko erreferentziak di-rela. Hau da, musikaren, literaturaren eta zinemagintzaren munduari erreferentzia ugari egiten dizkio Canok. Hala ere, autoreak egiten dituen erreferentziak haratago doaz, jarraian ikusiko dugun bezala, arteen mundukoak ez diren hainbat pertsona ezagun ere aipatzen dituelako.

Aipagarria deritzogu gainera, Canok bidaiei eta urru-nera joateari eman dien garrantzia erreferentziak hautatze-rakoan. Hau da, hainbat herrialdetako jakintsuak agertzen dizkigu, hauetako askori bidaiatzea gustatu izan zaie, bi-daiei loturiko ospetsuak...

Aipatzen ari garen aberastasun honetaz guztiaz ohar-tzeko, liburuan aurkitu ditugun erreferentzien zerrenda bat eskainiko dugu jarraian, erreferentzia bakoitzari buruzko informazio xehearekin batera. Informazio labur honek erakusten digu erreferentzia guztien artean badagoela loturarik.

Musika munduari erreferentziak

Bere aurreko lanetan batez ere jazz-a eta blues-a landu bazituen ere, Telefono Kaiolatua lanean asko eta askotarikoak dira aurki genitzakeen musika estiloak: reggae, rock, folk, heavy... Hona hemen adibide batzuk:

- Charlie Parker (“Kaukasiar bat saxo batekin”): Saxo jolea eta konpositore estatubatuarra.
- Fran Alonso (aipua): Musikari eta konpositore galiziarra.
- Jimi Hendrix (“Whisky & Nolotil”): Genero asko landu zituen musikari ospetsua.
- Kurt Cobain (“Whisky & Nolotil”): Garaiko musikagintzaren eszenan aldaketa erradikala markatu zuen, 80. hamarkadan nagusi ziren generoetatik urrunduz.
- “Beti Muga” taldea (“Ispiluak animalia higuin-garriak dira”): 80. hamarkada amaieran sortutako rock taldea. Taldeko abeslari eta baxu jolea, Martxel Mariskal, idazle lanetan ere aritu izan da, lanen bat edo beste argitaratzeraino.
- Tracy Chapmanen zenbait letra (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”): Musikari estatubatuarra; kantautorea.

- John Lennon (“Desesperatu bat –gehiago–“): Musikari ingeles famatua, mundu mailan “bakearen sinbolo” gisa hartu izan dena.
- Stan Getz (“Scott sindromearen pean”): Jazz musikari estatubatuarra, saxofoi jolea.
- John Cale eta “Antartida starts here” (“Scott sindromearen pean”): Instrumentu ugari jotzen dituen musikari galestarra.
- Juan Carlos Pérez (“Kaukasiar bat saxo batekin”): Itoitz taldeko gitarra jolea eta abeslaria

Zinemagintzari erreferentziak

6.2.2. atalean agertu dugun bezala, zinemagintzak eragin nabarmen adu Canoren lan honetan. Goian esandakoa berresteko balio digute erreferentzia guztiok:

- Truman Capote (“Tangerren dugun gizona”): Kazetaria, idazlea eta gidoilari arrakastatsua.
- Wonderland-eko Alizia (“Istanbul zigarrokin baten barruan”): Fantasia iradokitzen duen filma.
- Woody Allen (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”): Aktore, idazle, zinemagintzako zuzendari eta musikari estatubatuarra.
- Andy Warhol (“Ispiluak animalia higuingarriak dira”): Artista plastiko eta zineasta modernista. “Pop Art” korrontearen sortzaileetariko bat.
- Titanic (“Scott sindromearen pean”): 1912an, inaugurazio bidaian, urperatutako itsasontziari buruzko filma.

Literaturari erreferentziak

- Daniel Defoe (“Crusoeren egunkari ezkutua”): Idazle ospetsua eta hedatua, nobela kultibatzen lehenengotarikoa. Prentsa ekonomikoaren sortzaileetako bat.
- Robinson Crusoe (“Crusoeren egunkari ezkutua”): Daniel Defoeren literatur obra, itsasoarekin eta itsasontziekin lotura duena.
- Robinson Kreutznaer (“Crusoeren egunkari ezkutua”): Robinson Crusoeren benetako izena.
- Jane eta Paul Bowles (“*Tangerren dugun gizona*”): Senar emazte hauek New-Yorketik Tangerreara joan ziren bizitzera. Paul Bowles, idazlea, konpositorea eta bidaiaria izan zen. Jane Bowles ere idazlea zen eta gainera, bere lan asko Marokon daude oinarrituta, esate baterako, bere lehen nobela: *El cielo protector* (1949). Nobela hau 1991n zinemaratuta egin zuten. Bowles-tarrak Truman Capoteren lagunak ziren.
- William Burroughs (“*Tangerren dugun gizona*”): Nobelagilea eta gizarte kritikaria. Bere lanetan heroinari zion zaletasuna islatzen da. Zinemagintzan film asko egin dira Burroughsen obretan eta bere pentsamenduetan oinarrituta.
- Tennessee Williams (“*Tangerren dugun gizona*”): Literatur sorkuntza handiko idazlea, “gotiko sureño” azpigeneroan kokatzen dena. Truman Capotek berak ere genero gotikoa landu zuen.
- Arthur Rimbaud (“*Tangerren dugun gizona*”): Poeta frantsesa.
- *Egonaldi bat infernuan* (“*Tangerren dugun gizona*”): Hau izan zen Rimbaudek argitaratu zuen lan ba-

karrra. Graham Robb biografoaren arabera, autoreak haxixa eta opioa erretzearen eraginez, bere lana ulergaitza da. Izan ere, aluzinazio maila desberdintasun handia nabari da poema sortaren kapitulu batetik bestera.

- *Odol hotzean* (“Asfaltoko ehiza”): Truman Capoteren nobela, “Testimonio-nobela” deritzon garaiko genero berri baten parte da. Hemen, kazetaritza gertakari errealak fikzio bihurtzen dira. Kazetaritza munduan iraultza mundiala suposatu zuen nobela honek, “kazetaritza berria” delako korrante berria sortzen lagunduz.
- E. E. Cummings (aipua): Idazle estatubatuarra, bere tipografia arraroagatik ezaguna. Jorratzen duen gaietariko bat gizakiak gizartearekin eta munduarekin duen erlazioa da.
- Charles Bukowski (aipua): Idazle eta poeta estatubatuarra. Bere lanek hiriekin lotura handia dute. Errealismo Zikinaren sinbolotzat hartu izan da.
- John Humbert (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”): Canok literatur kritikiko moduan aurkezten duen gizona, eszenografo moduan ageri da informazio iturri anitzetan.
- Eugène Ionesco (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”): Absurdoa landu zuen idazle frantses nagusienetarikoa.
- Silvio Piccolomini (“Aldatz behera itsasoan”): Garaiko humanista (1405-1464) eta artearen eta letreren defendatzaile sutsua. Basileako Unibertsitatearen fundatzailea.

Pertsonaia iraultzaileei erreferentziak

- Che Guevara (“Whisky & Nolotil”): XX. mendeko iraultzaile kubatar ospetsua.
- Fidel Castro (“Whisky & Nolotil”): XX. mendeko iraultzaile kubatar ospetsua, orain gutxi arte Cubako agintaria izan dena.

Izadiari lotutako erreferentziak

Atal honetan oso desberdinak diren erreferentzia ugari sartu ditugu. Hala ere, uste dugu, guztiek ere badutela naturarekiko loturaren bat: itsasoarekin lotura, naturala izatearekin lotura, izaki mitologikoak... Hona hemen Telefono Kaiolatua lanean izadiari lotuta ikusten ditugun erreferentzietako batzuk:

- Cristoval Colombus (“Aldatz behera itsasoan”): Cristoval Colon moduan ezagutzen dugun gizona; izen asko dituen agintaria.
- Neptuno (“Aldatz behera itsasoan”): ur eta itsaso guztiak gobernatzen dituen jainko erromatarra. Greziar mitologian Poseidon izena du. Oso elementu ezezonkor eta arriskutsua da. Norbanakoaren eraldatze ahalmena irudikatzen du.
- Noeren ontzia eta Biblia.

Bestelakoak

Canok bere lanean dituen erreferentziei buruz informazioa bilatzen eta sailkatzen ahalegindu bagara ere, badaude erreferentzia batzuk hankamotz geratzen zaizkigunak. Hala ere, liburuan agertzen direnez, aipatzea erabaki

dugu, lan hau irakurtzen duen norbaitek, akaso, loturaren bat aurki diezaieketelakoan.

- Silvio Scarlatto (“Aldatz behera itsasoan”)
- René Deville (“Aldatz behera itsasoan”): Gure use-tan René Samuel Cassin irakurle amorratuari egi-ten dio erreferentzia.
- Ismael Arteche (“Aldatz behera itsasoan”)
- João Capêlo Soaves (“Crusoeren egunkari ezkutua”)
- Dieter (“Geltokiko orratz-zainaren alabak Camel tabakoa erretzen du”): Musika munduari lotuta dagoen Dieter Bohlen izan liteke, edo Dieter Lumpen izeneko komikietako pertsonaia agian, baita Dieter Nohlen idazlea ere.

Produktuen markei erreferentziak

Hainbat dira Canok aipatzen dituen produktu mar-kak. Horien erakusle dira hurrengo hauek:

- Heineken
- Dry-Martini
- Renault
- Camel
- Picayunnes
- Gauloisses
- Winn
- Lucky
- BN
- Winston
- Viceroy
- Kent
- Blondy & Goiry
- Ventolin
- Smith & Wesson
- Gillete
- Kleenex
- Crotalus Golf Prof
- Nolotil
- Valium
- Polaroid
- Hispano-Olivetti
- Petronor

Produktu marka hauei begiradatxo bat botatzea nahikoa da konturatzeko marketako asko medikamenduen, edarien eta tabako marken erreferentziak direla.

Lanean zehar behin eta berriro esan dugu Harkaitz Canok absurdotasuna barra-barra darabilela. Gure ustez, hainbat produkturen markak aipatzea absurdotasun horri errealitateaz aurre egiteko da. Hau da, absurdoa vs erreal egiteko.

Egia esan gaur egun egunerokotasunean erabiltzen dugun hiztegiaren parte dira markak. Hiztunok, jada, ohitu gara mota honetako metonimietara eta geroz eta gehiago erabiltzen ditugu.

Literatur lanetan metonimia baliabide estilistiko oso erabilia bada ere, orain artean ez da horrenbeste erabili izan produktu markekin. *Telefono Kaiolatua* lanean marken izenak pixka bat bortxatu egin direla uste dugu. Hau da, Canok produktu markak gehiegi aipatu dituela deritzogu, batzuetan erredundanteegia izan delarik. Esate baterako hurrengo adibideotan ikus daiteke markaren izena behin eta berriro erabiltzen duela, *zerbeza txapa parea* edo *txapa parea* adierazpideak erabili beharrean. Markaren izena Canok derrigorrean sartu duen sentrazio hau beste produktu batzuekin ere badugu. Hala nola lozio markarekin, kotxe markarekin edo bizar-xafien markekin.

(xlv) *Begiak erabat zabalik zituela hil zenez, betazaletan bi Heineken txapa jarri behar izan zizkioten begiak ixteko.* (“Aurkako taldeko atezaina”, 33. orrialdea¹)

(xlvi) *Zaila zen begiak ixteko betazalen gainean Heineken txapa parea jari behar izan zioten osaba baten-gatik negar egitea.* (“Aurkako taldeko atezaina”, 35. orrialdea)

(xlvii) *Zaila zen begiak ixteko betazalen gainean Heineken txapa parea jarri behar izan zioten osaba baten-*

gatik negar egitea. (“Aurkako taldeko atezaina”, 38. eta 39. orrialdeak)

Kritikak

Sarreran aipatu dugun moduan, gutxi dira Harkaitz Canoren inguruan egin diren lanak. Gutxi azterturiko autorea dugu beraz. Bestalde, bere lanen inguruan ere kritika gutxi aurki genitzake.

Urriak dira “Telefono Kaiolatua” liburuari egin zaizkion kritikak eta, gure ustez, oso azalekoak dira. Hiru kritika aurkitu ditugu, hirurak egunkariaren batean argitaratuak. Kritiken iturria zein den ikusirik, ez da arraroa kritikak edo iritziak azalekoak izatea, ez baitugu espero egunkari bateko artikulutxo batean liburu baten inguruko azterketa sakona egitea.

Kritika hauetan ez da ageri dagoeneko aipatu ez dugun ideiarik, baina ideia bat eduki dezagun, hona hemen kritika horietan nabarmendu ditugun ideia nagusiak:

AINGERU EPALTZA, *Navarra* egunkaria (2002-11-11)
“Bizia kaiolan”

Aingeru Epaltzak azpimarratzen du telefonoa dela liburuari izena eman ez-ezik puzzle pieza gehienetako nagusi edo bitarteko: ehizatu beharreko piztia arriskutsua (*Asfaltozko ehiza*), biziaren norgehiagokako sari-emailea (*Ostiralero*ko joko), larrialdietako farmazietan paratu beharreko tresna (*Desesperatu bat (gehiago)*), esperantzaren lurperatzailea entzefalogramo planoko tutu hoska (*Ispiluak animalia higuingarriak dira*).

Bestalde, telefonoa bizitzaren metafora bezala ikusten du Epaltzek, bizi kaiolatuaren metafora gisa.

FELIPE JUARISTI, *El Diario Vasco* egunkaria (1997-12-27) “Asfaltozko telefonoa”

Juaristik diosku izenburuak baduela barruan dagoenarekin zer ikusirik, telefonoarena obsesio moduko zerbait baita.

Bestalde, bere ustetan telefonoari buruzko Bukowskyren poema bat irakurtzen da liburuan. Izan ere, Bukowsky xaharra, Carver ere bai, aparailu moderno horren erabileraz kezkatuegi ageri zirela dio Juaristik eta kezka hau liburuan islaturik ageri dela.

JAVIER ROJO, *El Correo* egunkaria (1997-11-12) “Bakartasuna dela-eta”

Javier Rojoren ustetan narrazio gehienek puntu garrantzitsu bat dute: bakartasuna. Ardatz honen inguruan, istorio gehienak marginatutzat har daitezkeen pertsonaien presentziarekin eraikitzen direla uste du.

Bestalde, zenbait narrazio misteriozkoak direla esaten du eta beste batzuk absurdoaren mugan daudela.

Amaitzeko bi hitz

Behin eta berriz azpimarratu dugu ezer gutxi egin dela Harkaitz Canoren inguruan. Gure ustetan idazle bati lanak aztertu eta kritikatzera oso esanguratsua da, bai baitirudi idazleari mireshena ematen diola. Lan honen bidez merezi duen mireshena edo errekonozimendua eman nahi izan diogu Canori. Izan ere, gure ustez idazle gazte honek ibilbide esanguratsua dauka euskal literaturan eta bere lanak, oro har, landuak eta kalitatezkoak dira.

Aztergai dugun lanari dagokionez, miresharria iruditzen zaigu ildo beraren baitan hogeit hamar istorio zeharo ezberdin sortzeko gaitasuna edukitzea. Bere auto-poetikan (Cano, 2002) dioen moduan, izebergaren punta erakutsi digu lan guztietan, itsasoaren azpian ezkututzen den zatirik handiena isilpean utziz. Isil ageri zaigu, ia mutu, ezer esan gabe

asko esanaz, asko iradokiaz. Irakurlea mutu uzteko abildadea dauka.

Bestalde, sentsazioak transmititzeko izugarritzko gaitasuna du Canok. Hotza, iluntasuna, isiltasuna, desoreka, usainak... guztia senti zenezake idazlearen bolalumak pare bat hitz ezkontzen dituenean.

Sarreran aipatu dugun moduan, lan hau egiten hasi aurretik galdera bat egin genion liburuari eta geure buruei: zein da liburua ildo nagusia edo gaia? Liburua irakurri eta aztertu ostean, galdera gehiago zehaztu dugu: zer esan nahi izan digu Canok lan honetan? Jakin badakigu irakurle adina interpretazio egon litezkeela, beraz, guk gure interpretaziora mugatuko dugu galdera honen erantzun posiblea:

Argi utzi nahiko genuke, gure ustetan, liburuan kontatzen den istorioa bakarra dela, lana hogeii istoriotan bananduta badago ere. Canok berak ere honen aldeko aitor-tza egiten du istorioetako batean: “*finean, azken urteotan ikasi zenuen gauza bakarra horixe baitzen: istorio bakarra dagoela kontatzeko*”. Halaxe diosku idazleak, bere alderdirik ezkutuenetarikoa agerian utziz.

Istorio bakarra dugu beraz, eta istorioan igortzen zai-gun mezua argia eta zuzena da gure ustez: ***Telefonoa men-pean duenak mundua menperatzen du***. Gorago aipatu dugun moduan, telefonoa pertsonaien sentipen, obsesio nahiz itxaropenen euskarria da, indar handia du. Bestalde, telefonoa da garaipenaren eta porrotaren arteko muga; telefonoa menperatzen baduzu zuregain duzu boterea, zuregain duzu indarra. Telefonoa menperatzen baduzu edozer menpera zenezake. Telefonoak menperatzen bazaitu, aldiz, zureak egin du; menpekotasunak irentsiko zaitu betiko edo heriotzak, agian. Telefonoa jolasa irabazi edo galtzearen arteko muga izan liteke batzuetan, bizitzaren eta heriotzaren areko muga beste batzuetan.

Telefonoa menperatzen duenak mundua menperatzen du beraz. Canok telefonoaren bitartez menperatzen du irakurlea, nahi duen tokira eramanaz, nahi duen moduan sentiaraziz. Irakurlea menperatzen du, izebergaren puntara azaleratuz edo itsaso sakonenera urperatuz, azaleratuz edo urperatuz...

Bibliografia eta Filmografia

Bibliografia eta Filmografia

- CANO, Harkaitz (1997): *Telefono kaiolatua*. Zarautz: Alberdania.
- (2002): «A vista de cuervo (Un epílogo)». *Enseres de ortopedia inútil*. Hondarribia: Hiru. 119-121.
- OLAZIREGI, M. (2002): *Euskal Eleberrigintzaren Historia*. Bilbo: Labayru. (173-174; 86-90; 112-115)
- GUTIEREZ RETOLAZA, Iratxe (2000): *90eko hamarkadako narratiba berria: Literatur kritika*. Bilbo: Labayru
<http://lapurdum.revues.org/index363.html>
<http://www.basqueliterature.com/katalogoak/egileak/cano>
<http://www.susa-literatura.com>
<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00025.htm>
- MORETTI, Nanni (1993): *Caro Diario*. Fragmento de “Islas”.
(<http://www.youtube.com/watch?v=BvF41vobjtU>)
- LOPEZ VAZQUEZ, Jose Luis (1972): *La Cabina*. (<http://www.youtube.com/watch?v=vzM11tPcHYA&feature=related>)
- OLAZIREGI, M.J. (2005): *Mende berrirako ipuinak*. Donostia: Erein.

Oharra

- ¹ Adibide hauek aurkeztean, gainerakoetan ez bezala, liburuko zein orrialdetan ageri diren zehaztu nahi izan dugu, irakurleak ikus dezan ipuin berean zein pasartetan errepikatzen den elementu bera.

Harkaitz Cano: *Belarraren ahoa* (2004)

Estitxu Irisarri
Miren Muxika

Aintzin solasa

Lan honen xedea izenburuak aitortzen duen bezala *Belarraren ahoa* izeneko liburuaren irakurketa orokor bat egitea da.

Liburu hau aukeratu genuen aurrez bere entzutea bagenuelako, eta bere garaian gutako batek irakurri eta asko gustatu zitzaiolako. Euskal Literaturaren Egungo Joerak ikasgaiari ipuin-liburu baten inguruko lana eskatzen zitzaigun, baina ipuin-liburu aukeraketan denborak harrapatu gintuen eta aztertu beharreko elementuak hemen ere topa genitzakeela iruditu zitzaigun. Horrezaz gain, Harkaitz Canok asko pentsarazten gaitu eta horregatik ere gogoz hartzen dugun euskal idazle horietako bat da.

Lantxo hau sei zatitan bantaturik dago. Lehen zatia irakurtzen ari zaren atal hau da. Bigarrena, Harkaitz Canoren ingurukoa, bertan, datu biografiko zenbait eman eta bere sortze lanak orain artean zeintzuk diren esango dugu. Atala bukatzeko bere autopoeetikaz hitz egingo dugu. Hirugarren atala da lan honetako mardulena, liburuaren

inguruan jardungo baitugu hainbat elementu eta ezaugarri aztertuz. Gure iritzia laugarrenean jasoko dugu. Bosgarrenean, eranskina ipini dugu eta azkenik seigarrena bibliografiak osatzen du.

Hala ere, argirik gabe lorerik nekez hazten denez, lanaren mamiarekin hasi aurretik eskerrak eman nahi genizkioke lan honen gidari izan den Jon Kortazarri eta argitaratze lanetan aritu diren editoreei. Eskerrik asko.

Harlaitz Cano:

Autorearen datu zenbait

Harkaitz Cano idazle lasartearra 1975.eko abuztuaren 4an jaio zen. Donostiako Santo Tomas Lizeoan ikasi zuen eta ondoren, Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbidea baina ez du sekula arlo horretan jardun, idaztetik bizi baita. Canok elkarrizketa batean aitortu zuenez: “*Ez dakit zergatik ikasi nuen zuzenbidea, inork ez zidalako aholkatu ez ikasteko, agian. Aitak bakarrik, baina aitari ez nion kasurik egin. Nik ikasi nahi nuen filosofia, eta filosofiako irakasleak berak desanimatu ninduen. Kazetaritza ikasi nahi nuen, baina kazetaritzan nituen lagunek desanimatu ninduten. Orduan, aukerak ezabatuz, zuzenbidea geratu zen. Baina nik oso garbi neukan idaztera dedikatu nahi nuela. Niretzat lanbidea idaztea zen.*”¹

Euskal Herriko zenbait egunkaritan kolaboratu izan du eta irratian, telebistako gidoilari lanetan ere aritu da: *Hasiberriak*, *Goenkale*, *A dar ba kar* film laburra, etab. *Lubaki Banda*-ren sortzaileetako bat izan zen, besteak beste, Garikoitz Berasaluze, Asier Serrano, Xabier Aldai euskal idazleekin batera.

Hibridoarekiko zaletasuna azaldu du behin baino gehiagotan: 2000. urtean Igor Calzada abeslariarekin batera

eta, ondoren, Luis Fernandez eta Oianko Txoperenaren kolaborazioekin, *Hirislada* ikuskizunean aritu zen. Harkaitzen hitzetan: “*Hirisladak aurrekoa baino proiektu bisualagoa da, hau da, argazkietan oinarritzen da gehienbat. Saioan zehar 200 argazki inguru proiektatzen dira, eta irakurtzen ditudan testuak irudiei oso loturik daude. Telebistan eta zineman egin ditudan gauzen garapen logikoa da ikuskizuna. Testutik urruntzen den zerbait da, film labur baten antza du, baina irudi geldoekin. Eta horrekin batera, Igorren kantuek daude*”.²

Gaztea zenetik nabarmendu zen literatura munduan, Urruzuno literatura-lehiaketan saritua izan zen³. Poesia eta prosa kategorietan irabazi zituen sariak: *Jazza dut maitale* (prosa, 1991), *Denboraren hautsontzian* (poesia, 1992), *Amodioa, gorriz jantziriko emagaldu hori* (poesia, 1993), *Erresuma ahituak* (poesia, 1993), *Jitolore* (prosa, 1993), *Kaosaren abantailan* (poesia, 1993) eta *Urak ekartzen duena* (poesia, 1993).

Ordutik gaur egunera, hainbat sari jaso ditu, hala nola: 2005ena Euskadi Literatura Saria *Belarraren aho*atik; 2006an, Espainiako Kritika Saria *Neguko Zirku*atik, 1993an Donostia Hiria Saria (poesia) eta 1998an Ignacio Aldekoa (ipua).

H. Canoren sortze lanak

Cano oso ezaguna da euskal literaturan; genero guztiak landu eta zenbait genero nahastuz sortutako liburuak ere argitaratu dituzenez, bere lanak hibridoak direla esan daiteke.

Poesiaren bidetik jarraituz, Harkaitz Canok argitaratu zuen lehen lana poema liburu bat izan zen: *Kea behelainopean bezala* (1994, *Susa*). Hala ere, poesia munduari eskaini dizkio beste zenbait lan *Norbait dabil sute-eskaileran* (2001,

EEF – Susa) eta *Dardaren interpretazioa* (2003, Olerti Etxea) esaterako⁴.

Euskal Herritik kanpo ere argitaratu izan dira bere lanak beste hizkuntza batzuetan. Poesian esaterako, 2 poema gailegoz daude *Sinai de fume* eta *O intre*, 4 poema ingelesez: *Late breaking news*, *Poetry is fiction and a horn*, *12 old sardines for immediate consumption*, *The moment*. Bat alemanez *Der augenblick*, portugesez beste bat *A poesia é ficção (mas que dizes)*; eta azkenik, zenbait poema gaztelerara itzulita daudela esan behar da: *Señales de humo*, *Retrato entre cuatro paredes*, *El momento*, *Encuentra la muerte mientras buscaba su ropa*, *Procedencia exacta de los clavos del puente de Williamsburg*, *La poesía es ficción (pero qué dices)*, *Gitanos*, *Cama de plumas*. Horiez gain, aurretik aipatutako *Dardaren interpretazioa* eta *Norbait dabil sute-eskaileran* ere itzulirik daude. Lehena *Interpretación de los temblores* izenburuarekin *Palas Atenea* argitaletxeak argitaratu zuen; bigarrena berriz, *Alguien anda en la escalera de incendios* izenburuarekin *El Gaviero* argitaletxeak.

Poemez gain, narrazioa eta poesia biltzen dituen lan bat ere egina du: *Paulov-en txakurrak* (1994, Erein). Bertsogintzan ere ibili da Harkaitz Cano eta 3 bertso/olerki behintzat baditu: *Limoizko aspirinak*, *Muga, helmuga, zerumuga* eta *Zenbat erloju dauden hirian*.

Harkaitz Canok laburtasuna maite du, nobela batzuk idatzi dituen arren. Berak gustuko duen literatur generoa ipuina da, eta genero honi beste batek jarraitzen dio: poesiak. Bestalde, hiru dira, oraingoz, argitaratu dituen nobelak: *Beluna Jazz* (1996, Susa), *Pasaia Blues* (1999, Susa) eta *Belarraren ahoa* (2004, Alberdania). Lehenengo biak nobela beltzak dira; lehenengoan heriotza agertzen da istorioan; eta bigarrena, berriz, poliziako faltsua dela esan daiteke. Jazzaren eta bluesaren erritmoak dituztela esan dezakegu, hau da, eszenetan bariazioak daudela. Musika

estilo hauetako musikarien erreferentzia ugaria da, baita filmena ere. Tonu errealistan daude idatzirik. Eleberri hauetako bakoitzean bi narrazio plano agertzen dira.

Beluna Jazz-en Bob Leregui izeneko jazz musikari bat Alaska izeneko zoroetxe batean sartzen da. Gertakizun bartzuen ondorioz krimen bat gertatuko da. *Pasai Blues ordea*, New Yorkeko egonaldian idatzi zuen. Ertzain talde batek talde armatu bateko kideak ikertu behar ditu eta istorioa Pasai Antxon kokatua dago.

Narrazioei dagokionez, lau liburu argitaratu ditu: *Radiografiak* (1995, Elkar), *Telefono kaiolatua* (1997, Albedania), *Bizkarrean tatuaturiko mapak* (1998, Elkar) eta *Neguko zirkua* (2005, Susa). *Radiografiak* eta *Bizkarrean tatuaturiko mapak* Euskadi Irratiko Goizean *Behin* programarako idatzitako testuen bildumak dira. Lehenengoan, pertsonaia famatuen biografiak dira, erdi-asmaturakoak; bigarrean, berriz, hiri desberdinen deskribapenak egiten dira. Hauetako askotan egon ez den arren, deskribapenak nahiko errealistak dira.

Telefono kaiolatua, inkomunikazioaren ikurra izenburuan daraman liburua irudiz eta metaforaz beterik dagoela esan behar da. Adibidez, telefonoa duenak du boterea. Heriotza eta ezustea etengabe agertzen dira ipuinetan, baita Carver eta Bukowskiren erreferentziak ere besteak beste. Bi idazle hauek telefonoaren erabileraz kezkatuak zeuden⁵. *Neguko zirkua* liburuari dagokionez, bertan agertzen diren ipuinetako protagonistek hotza helarazten digute Mikel Asurmendiren ustez.⁶

Autopoetika

Julen Gabiriak egindako elkarrizketa batean Harkaitz Canok dio Parisera nobela bat idazteko asmotan joan zela, eta buruan zuen nobela ez eta aztertzen ari garen hauxe

lortu zuela azkenik. “Beti daude bi liburu: bat, idazten duzuna; bestea, buruan daukazuna. Eta buruan daukazuna beti iruditzen zait hobea dela. Eta Parisen ere hori gertatu zitzaidan.”⁷

Hiru arrazoi izan ziren liburu hau idaztera bultzatu zutenak. Lehena “Hitlerren lehen argazkia” izeneko poema. Bigarrena, Parisen ikusitako erresistentzia “Eta aurkitu nuen erresistentzia berreskuratzeko giroa, hemen Gerra Zibilarekin moduan”⁸. Eta hirugarrena, “Charles Chaplinen *The Great Dictator* pelikularen berrestreinaldia, 2002an.”⁹ Horiek intertestualitatea atalean ikusiko ditugu apur bat hobeto.

J. Gabiriak, liburuak nola sortzen dituen galdetzen dionean, liburu guztiak diferente sortzen dituela esaten du: “baina liburu hau aurkitutakoa izan da. Liburuaren erdia bi astean idatzitakoa da, oso azkar. Gero, liburuaren erdian aldaketa bat dago, eta nabaritzen da, eta hor geratu nintzen, denbora dezente gainera. Hortik ateratzeko era bakarra, nire ustez, ukitu poetikoa zen.”¹⁰

Ziur ezin da jakin aldaketa hori non dagoen, baina baliteke 17. kapituluaren hasieran egotea:

“Asteak eman ditu komedianteak idazmakinarean aurrean **idazten**. Leiho ondoan jarrita idazten du, goizean goizetik, Marien Annen ondoan. Apenas altxatzen duen begirada idazmakinatik, leihora desbideratzeko ez bada. Olivierri zera iruditzen zaio: komedianteak idazten duena **leihora** joaten dela zuzenean, idazmakinarean **karretea jiratu ahala foliora ez baizik eta leihoko kristaleraino irristatzen dela** idazten ari den hori guztia, zernahi gauza, kantu eder bat, inolaz ere ez berak traste-dendako mutikoari aipatutako agure baten testamentua. Edo agian alderantziz gertatzen da, **leihoko argitan irakurtzen duena idazten du komedianteak**, automatikoki, norbaiten diktatuaren pean balego bezala. Begia zabuka dabilkio leihotik orri zurira eta orri zuritik leihora. **Argiak**

elikatzen du komediantea eta argia da idazten duena, itxaropenaren seinale. Idazten ari den **folio bakoitza argi edukiontzi bat** litzateke orduan, **argiaren uzta biltzen ariko da komediantea**, garia biltzen duenak bezala, egun ilun haietan argiaren uzta biltzen, zegoen argi apurra landu eta hari forma ematen, hura itxuraldatzen. Argiaren inbentarioa ilunpearen garaian. Borrokatzeko era bat.” (65. or.)

Gainera, pentsa daiteke, Harkaitz Canoren beraren deskribapena izan daitekeela. *Argiaren* ondorioz idazten duela, baina *garai iluna* (berak aipatzen duen geldialdia) izan zuela. Beraz, geldialdi horretatik abiatzeko modua izan zitekeen honako pasarte hau.

Belarraren ahoa: Liburuaren gaia eta laburpena

Liburu honetako gai nagusia boterearen eta askatasunaren arteko borroka izan daiteke, askatasunaren sinbolo den komediantea eta boterearena den Adolf borrokan baitaude hasiera-hasieratik. Izan ere, komediantea (Chaplin) gizon txikiak (Hitlerrek) du harrapaturik hasieran; ondoren, ihes egitea lortzen du, baina liburuaren amaiera aldera, berriz ere biek topo egiten dute eta borroka dago bien artean (askatasunaren eta boterearen borrokaren sinbolo litzatekeena) nola amaitzen den ez digu esaten idazleak. Hain zuzen, amaiera askeko kontakizuna dugu *Belarraren ahoa*.

Harkaitz Canok hitz hauek aipatzen dizkigu kontakizunarekin hasi aurretik:

“Izan ere, beti daude bi film: egin zena, eta bidean geratu zena. Bigarrena izaten da onena, ia beti. Historiako gertakariei so egiten badiegu ere, halako zerbait gertatzen den susmoa daukat: hainbat aldibereko xendra daude, eta

irudimenarekin baino ezin ditugu denak eskuaretu...”¹¹(8. or) Charles Chaplinen hitzak dira hauek berak oin-oharrearan dioen bezala, eta esan daiteke, liburuaren egiterako garaian, Canok aipu hau oso gogoan izan duela. Izatez, liburuaren oinarritzat har daitekeen aipua da. Badirudi, filmean gertatu zenarekin egin ordez, bidean geratu zenarekin egin duela.

Ipuin luze edo nobela motz honetan, *gizon txikia* (Adolf Hitler), Olivier Legrand eta *komediantea* (Charles Chaplin) ditugu protagonista. Bi istorio elkargurutzatzen dira: gizon txikiak Europa guztiak menperatzea lortu du eta Atlantikoa gurutzatzen du bederatzi guda-ontziz osatutako ontzidiarekin Amerika menperatu nahian. Ontzidian publikoki beheratu zuen pertsona, komediantea, darama preso. Bidaia berbera egin zuen hirurogei urte lehenago Olivier Legrand-ek Askatasunaren Anderea Estatu Batuetara zeraman barkuan polizoi gisa, ezer ez zela sentiarazten zuen bizimodua albo batera utzi eta hobe baten bila.

Gizon txikia New York-era iristen da eta bere guda-ontzian preso zeraman komedianteak ihes egitea lortzen du. Portuan, Olivier Legrand-ekin topo egiten du eta honek bere etxe xumera darama, babesera. Komediantea jasandakoaz sendatzen ari den bitartean, idazten hasten da Olivier-ek lortutako *underwood* idazmakina batekin. Idatzietan berak bizi izan dituen egoera lazgarriak salatzen dituela uste dugun arren, ez zaigu garbi adierazten zer idazten ari den. Gizon txikiak, bien bitartean, hiri osoa kontrolatzea lortu du.

Komedianteak Olivierren etxetik alde egiten du bere idatziak harturik eta egunak nola edo hala pasa ondoren, gau batean torturatu zuen pertsonarekin, gizon txikiarekin, egiten du topo. Ez dakigu zer gertatzen den, izan ere, bi pertsonaia hauek borrokan hasten dira eta bietako bat uretara erortzen da, baina ez da zehazten nor. Charles Chaplin-en esaldi ezagunetako batek esaten duen bezala:

“bizitza tragedia da gertutik begiratuta, baina urrutitik begiratuz gero komedia”.¹²

Pertsonaiak

Liburu honetan ageri diren pertsonaien izenak eza-gunak dira gehienak, historian zehar zer esana izan duten pertsonen izenak baitira. Badaude asmatutakoak direnak ere, hortaz, liburu honetan pertsonai historiko eta fantastikoak daudela esan dezakegu.

Izen ugari agertzen diren arren narrazioan gehien aipatzen diren hiruri emango diegu garrantzia hemen: Adolf Hitler, Charles Chaplin eta Olivier Legrand. Lehenengo biak historikoak dira eta azkena fantastikoa. Liburuan Hitler eta Chaplini ez zaie izen horien bidez deitzen ordea. Canoren esanetan, lehen planora ez ekartzeagatik eta pertsonaiak pisu handiegia ez hartzeagatik.¹³

• **Adolf Hitler:** (1889-1945) “jatorri austriarreko diktadore alemaniarra zen, nazionalismoa izeneko ideologiaren sortzaile eta bultzatzaile nagusia. Alemaniako Langile Alderdi Nazionalsozialistako burua eta Hirugarren Reicheko kantzillerra izan zen”. Bere jarraitzaileentzat “*Der Führer*” edo buruzagia zen. Sarraski askoren bultzatzaile ere izan zen. Esaten denez, 20-30 milioi pertsonak utzi zuten mundu hau bere erruz. Liburuan *Gizon txikia* deitzen zaio ironikoki eta boterearekin lotzen da.

Hitlerrek azken egunak bere jauregiaren azpian eraikitako bunker batean igaro zituen sobietarrak hurbiltzen ari zirela ohartu zenean eta hura saihesteko botererik ez zuela ikusi zuenean bere buruaz beste gitea erabaki zuen¹⁴.

• **Charles Spencer Chaplin:** (1889-1977) Londresen jaioa eta Suitzan hila. Aktore, zuzendari, idazle, ekoizle eta konpositore britainiarra eta Hollywoodeko Oscarraren

irabazle ere izandakoa. 90 film egitera iritsi zen eta zine mutuko sinbolaria ere bada. Sortu zuen pertsonaiarik eza-gunena Charlot izan zen. Charlot emakume jarrera erakusten zuen gizonezko eskalea zen. Jantzera berriz, txaketa, galtzak eta bere neurrikoak baino handiagoak ziren oinetakoak erabiltzen zituen, bonbin kapela bat, bastoi edo makil bat eta aurpegian bibotea.

*“Su inconfundible caminar oscilante, una acentuada emotividad sentimental, y un desencanto melancólico frente a la impiedad y a la injusticia de la sociedad moderna, le hicieron emblema de la alienación humana — en particular de las clases sociales emergentes.”*¹⁵ Chaplin zinearen historian letra handiz idatzitako izena da. Liburuan komediantek deitzen zaio pertsonaia honi.

Iruditzen zaigu bi pertsonaia hauek liburu honetako kolore txuria eta beltza direla, baina aurkakotasun bat erakutsi arren ere bat egiten dute eszena askotan, Chaplinen lehen filmeetako kolore nagusiek bezala, beltza eta zuria. Hitler kolore beltza izango litzateke, pertsoneri askatasuna kentzen diena eta Chaplin kolore zuria eta injustiziaren aurka borrokatuko dena. Hurrengo pertsonaia kolore grisa izango litzateke agian, zubi lanak egiten.

• **Olivier Legrand:** Pertsonaia hau ez da historikoa, fantastikoa baizik. Olivier Legrand Askatasunaren Estatuaren barnean New York-era polizoi gisa bidaiatzen duen gizona da. Elkarrizketa batean honako hau dio Canok pertsonaia honetaz:

“Eta gero meatzariaren istorioa zegoen: nire izebaren senarra meatzaria zen, Huelvan. Eta, berari entzunda, inpresionatuta utzi ninduen gauza bat zen berak ez zuela minerala ateratzen: bere lana zen besteek egindako zuloak betetzea. Liburuan kontatzen den gauza bera. Gogorra zen psikologikoki, esaten zuenean berak ez zuela ezer baliozkorik egiten, atzetik joaten zela eta lurra botatzen

zuela zuloetan. Eta beti gogoratu naiz zelan esplikatzen zuen bere lana, eta beti izan dut gogoan meatzariaren istorioa. Orduan, zerbait idazten hasten zarenean, motibatuko zaituzten elementuak behar dituzu, eta kasu honetan elementua meatzaria izan da".¹⁶

Hortaz, Cano bere izebaren senarra zuen gogoan pertsonaia hau eraikitzean. Liburuan honela deskribatzen da pertsonaia:

“Portuko langileetako bat zen Olivier Legrand. Portuan baino lehenago meatzean lana egiten zuen, meatzean zangak betetzen zituenetakoa zen. Meatzetan dagoen zereginik esker txarrekoena: aurrekoek egindako zuloak betetzea zen haren lana. Bestek ikatza edo metala ateratako lekuan hark lurra botatzen zuen, beherago zulatzen segi eta lurra gainera eror ez zekien beharrezkoa baitzen ateratako hutsune guztiak betetzea. Lan garrantzitsua zen oso, ados ziren denak horretan: oker berdindutako zangetatik hezetasuna sartu, ura irazi eta sabaia bertan behera amil zitekeen. Beherago metala bilatzen ari ziren meatzariak luizien pean geratzeko arriskua handia zen orduan. Baina Olivierri zentzugabea iruditzen zitzaion. “Bestek egindako lana desegitea, hori duk nire lana”, pentsatzen zuen. Hutsa bete. Betelana. Zanga hutsetara lurra bota, gorpu ikusezinak lurperatzea bezala: otoitzik gabe, lekukorik gabe, beilaririk eta negarrik gabe ematen zion lur, ezerezari. Ez diat ezer probetxugarria egiten. Metala aterako banu sikiera”¹⁷ (17-18.or)

Narratzailea

Narratzaileari dagokionez, liburuan zehar nagusi dena orojakilea da. Gertatuko denaren berri duen narratzaile orojakilea da. Ez da pertsonaietako bat, istoriotik kanpo dagoen norbait da, baina zer gertatu den eta zer gertatuko

den badakien norbait. Hori ikus daiteke, esate baterako, komediantearen azazkalak aipatzean: “*Baina komediantea aulki batean dago lotuta, oinutsik, eta bere azazkalak orduan hasten dira beren **etorkizun beltza ikusten.***” (28. or.) Aurrerago, esku belztuak aipatzen ditu: “*Gizon bat, zapata bakarrarekin, portuko uretatik ateratzen, aurpegia eta **eskuak odolez belztuak eta koipez gorrituak.***” (50. or.). Badirudi, aurretik aipatutako azazkalen etorkizun beltzari egiten diola erreferentzia.

Horrez gain, pertsonaien sentimenduen berri ere badu, ez daki soilik ekintzak nola gertatzen diren, baizik eta pertsonaiak barrutik nola sentitzen diren ere badaki. Esate baterako:

“Komediante alu hark loa galarazi zion ordea, luzaro. Ondo gogoan du, Goebbelsek bere bulegoraino filmaren kopia bat ekarri zion eguna. Lata proiektorean jarri eta bakarrik utz zezaten agindu zuen. (...) Baina Adolfek **bakarka baino ez zitzakeen umilazioak irentsi.** (...) Pailazo nazkagarri hura Wiener Schnitzel eta kraut hitzak behin eta berriro esaten ikusteak *botagura eragin zion.*”¹⁸ (10-11. or.)

Pertsonaien sentimenduen berri du narratzaileak, baita pentsamenduena ere:

“Baina ez da hori bakarrik. Ukalondoa deika ari zait”, **pentsatu du.** Ukalondoak bizitza propioa dauka, ukalondoak zerbait esan nahi dit. Komediantea zutik jarri da, kostata.” (47. or.)

Hirugarren pertsonan kontaktzen ditu istorioak, nahiz eta singularreko lehenengo pertsona ere agertzen den elkarrizketetan eta goian aipatu dugun bakarriketan bezalaxe. Hala ere, noiz edo noiz pluraleko lehenengo pertsona erabiltzen duela esan behar da. Irakurleak kontuan hartuta egiten duela esan behar da, badirudi, istorioaren parte egin

nahi gaituela eta jolas hori egiten du. Horren adibidea dugu ondorengo:

“*Gizon txikia* esaten jarraituko **dugu**, hitzen botere baltsamikoa baliatze aldera, hitzak penizilina balira bezala, hitzak analgesiko moduan, hitzak banatu ditzagun kanpamenduetan morfina banatzen duenak bezala, eskuzabal.” (28. or.)

Espazioa

Espazioen artean, espazio itxiak eta irekiak aurki ditzakegu liburuan barrena. Leku itxien adibideetako bat litzateke Hitlerren itsasontziko Oihartzunen Gela:

“**Metalezko atea** itxi egin zen. Komediantea sotora eraman zuten bi gizonak desagertu egin ziren, bata bestearen ispilu bihurturik. **Idazteko makina** bat zegoen Oihartzunen Gelan. Idazteko makina hark **ez zuen han inolako funtziorik**. Gizon txikiak eskuetan zuen bisturriak, bai. Komedianteak, ordea, nahiago zuen idazteko makinari erreparatu: q, w, e, r, t...; a, s, d, f, g... ; q, w, e, r, t...; a, s, d, f, g.” (27. or.)

“Zine muturik ez, soto ilunean. Zine muturik ez **Oihartzunen Gelan**. *Diktadore Handia* izan zen komediantearen lehen film hitzuna. *The Great dictator*. **Sotoan** oihu egiten zuen bitartean *Wiener Schnitzel* eta *kraut* oihukatzen zuen komedianteak, hitz horiek zituen buruan eta eztarrian, hotzikara bizkarrean.”¹⁹ (28. or.)

Aipatutako hitzekin argi geratzen da leku itxiak sortzen duen hotzikara, beldurra eta klaustrofobia. Beste espazio itxi batzuk ere badira. Komedianteak East Village-en hartutako ostatua ere halaxe ikus daiteke:

“Hamabost metro koadro inguruko gela bat zen, ohea eta freskatzeko konketa besterik ez zituena. (...)

ez zeukan berak nahi zuen lekura ailegatzeko apenas mugitu beharrik. Idazmahaitzat erabiltzen zuen ohetik beso bat altxatu eta konketaraino iristen zen, aulkitik altxatu beharrik izan gabe freska zezakeen aurpegia.” (74-75. or.)

Horiez gain, komedianteak alokatutako armairua ere leku itxia da:

“Espazio ñimiño batean bizitzera ohituta zeudenentzat, ez ziren hain txikiak armairu haiek (...) Belaunak kizkurtuta arazorik gabe lo egin zitekeen han barruan (...)” (79-80. or.)

Bi hauen deskribapenari erreparatuz gero, Oihartzunen Gela aipatzean bezala, klaustrofobia adierazten digu, hain espazio txikiak sor dezakeen larritasun, itsutasun eta ihes egin ezinaren ondorio edo izan daiteke. Antzeko sentsazioa ere sor dezake Olivierrek lan egiten zuen meategiak, edo batez ere, Olivierrek New Yorkera joateko erabili zuen Askatasunaren Estatuaren burua:

“Askatasun Anderearen buruan kiribilduta igaro du gaua. Ez da oso eroso. Ez da eroso emakume honen buru barruan bizitzea. Topatu beharko luke leku hobeagoren bat.” (25. or.)

Espazio aldetik, esan liteke, nolabaiteko lotura badela bi pertsonaion artean, izan ere, klaustrofobia eta askatasun eza adierazten diguten espazio itxiak ditugu bien kasuan.

Leku irekiei dagokienez, ez dago fikziozko lekurik, denak errealak dira. Existitzen diren hiriak eta tokiak aipatzen ditu egileak. Aipagarriena beharbada New York dugu, izan ere, Harkaitz Canoren bihotzeko hiria dugu, honelaxe dio Xabier Gantzarainekin izandako elkarrizketa batean:

“Parisen nengoen baina horrek ez zuen zer ikusirik. Ez zuen New Yorkek adinako eraginik izan. Gauza berri gehiago ikusi nituen New Yorken. Hiri hori gainetik kendu ezina ere badago, adibidez, Parisen nengoen baina horrek ez zuen zer ikusirik. Ez zuen New Yorkek adinako eraginik izan. Gauza berri gehiago ikusi nituen New Yorken. Hiri hori gainetik kendu ezina ere badago, adibidez, Parisen idatzi nuen istorio hori New Yorken amaitzen da. Hasi Frantzian hasten da erresistentziaren kontu batekin, baina, gero, hor dagoen istorioetako bat Bartholdiren Askatasunaren Estatua itsasontziz New Yorkera nola eramán zuten kontatzen duena da. Eta nola zihoan polizante bat estatuaren barruan ezkutatuta. Piskat haserretu egiten naiz nire buruarekin, galdetzen baitiot: “berriz New Yorkera joan behar diat?”. Baina ekidin ezina da, barruan geratu zait hiri hori, iltze bat bezala.”²⁰

New Yorkek, beraz, Canorengan eragin berezia du eta liburuan argi uzten digu ederki ezagutzen duen hiria dela bere deskribapenen bidez. New Yorkeko hainbat gune aipatzen ditu kontakizunean zehar: Manhattan, Madison Square Garden, Askatasunaren Estatua, Lower East Side (Olivierren etxea bertan dago), Broadway, Woolworth eraikina, Wall Street, Harlem, East Village, Chinatown, Brooklyngo zubia, Downtown (moila), Staten Island, East River ibaia, Central Park eta 52. kalea, besteak beste.

Esan beharra dago, azkenengo aipatutako espazio hau esanguratsua dela *Belarraren ahoa* liburuaren egilearentzat, izan ere, kale honetan, *Alvin*²¹ izeneko hotel bat dago (edo zegoen behintzat), bertan, arazo ekonomikoak dituzten musikariek hartzen zuten ostatu. Hotel hau klub handien parean dago. Kuriositate gisa, bertan hil zen 1959an Lester Young jazz musikari (saxofoi eta klarinete jolea) estatubatuar ezaguna 52. kaleak²², hortaz, eragina du Canorengan gogoko dituen jazz musikariak bertan ibiltzen zirelako²³.

New Yorkeko leku hauez gain, beste zenbait hiri eta herri ere aipatzen ditu bere lanean zehar:

Rouen: Normandia Garaiko hiria da, Itsas Sena departamentuko hiriburua da eta Sena ibaiaren hertzean kokatzen da.

Drancy: Bigarren Mundu Gerran kontzentrazio esparrua izan zen²⁴.Frantziako hiri eta komuna ere bada.

Vichy: Allier departamentuko hiri frantsesa da. Bertako ur iturburuak ezagunak dira, eta baita, 1940ko uztailetik 1944ko abuztura artean Frantzia egon zen erregimen autoritarioaren egoitza izatearren.

Branau: Braunau am Inn Austriako mugako hiri txiki bat da, Salzburgotik 60km dago, iparralderantz egirik. Adolf Hitler bertan jaio zen 1889ko apirilaren 20an.

Kalifornia: AEBko estatu bat da, Estatu Batuetako mendebaldean dago, hiriburua Sacramento izan arren, hiri garrantzitsua Los Angeles da.

Los Angeles: Kalifornia estatuko hiri populatuena eta zabalena da, Estatu Batuetako bigarren handiena, biztanle kopuruari dagokionez.

Hollywood: Los Angeles-eko barrutietako bat. Izena zinema estatubatuarraren gunearekin lotzen da.

Espazio irekiei erreparatuz gero, argi geratzen zaizkigu Bigarren Mundu Gerrarekin lotutakoak eta AEBkoak direla nagusi. Horiek baitira liburuak eskatzen dituen espazioak, izan ere, Hitler eta Amerika agerturik, horiekin erlazionaturiko toponimoak agertzea espero da.

Denbora

Liburuan zehar, denborarekin jolas egiten dela ikus daiteke. Canok dio denboran jauziak egiten dituela bizitza ere horrela delako, kaotikoa. Gainera askotan istorioak kronologikoki ematen direnean errazegi jartzen omen zaio lana irakurleari; “Historiak ere normalean bizitzan ez datozkigu hasi eta buka eta datu guztiekin baizik eta pixka bat berregituratu egin behar ditugu (...) horregatik gustatzen zait denbora puskatzea. (...) eta gero irakurleak bere ondorioak atera ditzala eta ez derrigor idazlearen ondorio berak, hori da polita”²⁵.

Hortaz, garai desberdinetan kokatutako bi istorio tartekatuz kontatzen dira, kapituluaren barrena denboraren aldetik gerturatzen doazenak. Batetik, gizon txikiaren (Adolf Hitlerren) istorioa kontatzen zaigu, eta bestetik, Olivier Legrand-ena. Bigarren pertsonaia honen istorioa gizon txikiarena baino hirurogei urte lehenagokoa da hasieran, haxe irakur dezakegu 8. kapituluaren²⁶:

“Beste ontzi bateko sotoan, urte asko lehenago, Olivier gaizki ari da pasatzen, hirurogei urte lehenago elkartasuna adieraziko balio bezala komedianta torturatuari.” (37. or.)

Denbora zehatza ere agertzen zaigu kapitulu horretan bertan, 38. orrialdean: *1886ko ekainaren 17a zen (38. or)*. Hitlerren kontakizunaren kasuan, data zehatz bat ez zaigu esaten, baina Olivierren istorio tartekatuarekin, gutxi gorabehera noiz izan zen jakin dezakegu.

Nahiz eta, esan bezala, Olivier pertsonaiaren istorioa Hitlerren istorioa baino 60 urte lehenagokoa izan, liburuko orrietan aurrera egin ahala, elkarrengandik gertuago daudela ohartuko gara. Beraz, lehenaldia eta orainaldia nahastu egiten dituela esan daiteke. Izan ere, Hitlerren orainaldia kontatzen duen bitartean, Olivierren lehenaldia kontatzen

du hasieran, baina ondoren, bi pertsonaien orainaldia kontatzen digu egileak.

10. kapitulua da Olivierren iragana (New Yorkera iritsi artekoa) kontatzen duen azkena (Olivierrek komedian-tearekin hitz egitean gertatzen diren *flashback*ak kontuan izan gabe). 12.ean, ordea, (11.a Adolfen eta komediantearen ingurukoa da) Olivierren orainaldia kontatzen hasten da komediantea eta naziak New Yorkera iristearekin batera:

“Olivier Legrand, Wall Street inguruan harrapatu du lehorreratzeak. Bazekien Europa osoaren jabe zirela naziak, baina ez zuen inolaz ere uste Atlantikoaren alde hartara ausartuko zirenik.(...) Orduan begiztatu du. Hemeretzigarren moilaren parean. Gizon bat, zapata bakarrarekin, portuko uretatik ateratzen, aurpegia eta eskuak odolez belztuak eta koipez gorrituak” (Chaplin komediantea). (49. or.)

Beraz, orokorrean, lineala dela esan behar da, kronologia bati jarraitzen dio, nahiz eta badiren iraganera salto batzuk:

“Portuko langileetako bat zen Olivier Legrand. Portuan baino **lehenago meatzean** lana egin zuen, meatzean zangak betetzen zituenetakoa zen.” (16. orr.)

“–Badakizu? Itsasontzi baten sabelean etorri nintzen ni hona. Ez didazu sinetsiko, baina Askatasunaren Estatuaren koroan sartuta etorri nintzen, ezkutuan, aspaldi batean, **1886an.**” (57. or.)

Horrez gain, aipagarria da Olivierren kontakizunean, esaterako, 60 urte inguruko hutsunea edo saltoa dagoela, New Yorkera iristen denetik (10. kapituluan gorako esan bezala), Charles Chaplin eta Adolf Hitler New Yorkera iristen direla jakiten duen momentuaren artekoa (12. kapituluan).

Metaliteratuta

“Literatura literaturaz mintzo denean erabiltzen da metaliteratura hitza. (...) narrazio batean kontatzeko moduari buruz idazten denean.”²⁷ ELTH (562. or.)

Kortazarrek dio literatura modernoan asko zabaldu-riko joera dela eta Borges izan dela besteak beste metalite-ratura gehien baliatu dutenetakoa.

Liburu honetan, Canok pertsonaietako bat (kome-diantea) nola idazten ari den deskribatzen du, literaturaz hausnarketa bat egiten da:

“Asteak eman ditu komedianteak idazmakinarean au-rrean idazten. *Leiho ondoan jarrita idazten du, goizean goizetik*, Marie Annen ondoan. Apenas altxatzen duen begirada idazmakinatik, leihora desbideratzeko ez bada. *Olivierrri zera iruditzen zaio: komedianteak idazten duena leihora joaten dela zuzenean*, idazmakinarean karretea ji-ratu ahala foliora ez baizik eta leihoko kristaleraino irris-tatzen dela idazten ari den hori guztia, zernahi gauza, kantu eder bat, inolaz ere ez berak traste-dendako mu-tikoari aipatutako agure baten testamentua. *Edo agian alderantziz gertatzen da, leihoko argitan irakurtzen due-na idazten du komedianteak*, automatikoki, norbaiten diktaduren pean balego bezala. *Begia zabuka dabilkio leihotik orri zurira eta orri zuritik leihora*. (...) Idazten ari den folio bakoitza argi edukiontzi bat litzateke or-duan, argiaren uzta biltzen ariko da komediantea, garia biltzen duenak bezala, gau ilun haietan argiaren uzta biltzen, *zegoen argi apurra landu eta hari forma ematen*, hura itxuraldatzen. Argiaren inbentarioa ilunpearen ga-raian. *Borrokatzeko era bat.*” (65. or.)

Pasarte horretan ikusten denez, “Leiho ondoan jarri-ta idazten du, goizean goizetik”, “leihora begira”. Canok aitortzen duenez, liburuko pasarte hau nahiko autobiogra-fikoa da:

“Nik besterik ez diot eskatzen etxe bati edo idazteko leku bati, leihoak izatea baino. Argia. Hor gero bada-go zati bat, sortzaileei egin diedan omenaldia, oso parte autobiografikoa dena. Nik ere leiho ondoan idazten dut, hirira begira, eta, gainera, nire idatziek norbaiti zerbaite-tarako balio behar diote...”²⁸

Intertestualitatea

Atal honetan, hasiera batean uste genuena baino labur-rago emango ditugu ideiak, lanean zehar dagoeneko asko esan dugulako.

Hasteko, liburu hau idaztean Canorengan eragin zu-ten bi hiri aipatu behar ditugu: Paris eta New York.

Canok unibertsitate ikasketak amaitzean (gogoratu zu-zenbidea ikasi zuela Donostian) urte lasai bat behar zuela eta New York-era joan zen. Hiri hartaz maitemindurik gel-ditu zen sarritan aipatzen duenez. Eta noski, kontakizun hau ere New York-en bukatzen da.

Zenbait urteren buruan, Parisera joan zen buruan zuen liburu bat idatzi asmoz, baina han beste eragin batzuk jaso eta azkenean Belarraren ahoa sortu zen.

Parisen zegoelarik, Bigarren Mundu Gerraren ingu-ruko hitzaldi, erakusketa etab topatu omen zituen. Eta baita testuinguru bereko hainbat filmen berrestreinaldia ere, horien artean Charles Chaplinen “The great Dictator” filma. Dirudienez, Chaplinek Hitler parodiatzeko asmotan egin zuen filma baina urte batzuk geroago aitortu zuenez, Hitlerrek egindako sarraskien berri aurrez jakin izan balu, ez luke horrelako komediarik egingo. Hala ere, egin zuen eta egun oso famatua da aipaturiko film hori. Esaten de-nez, Hitlerrek berak ere bi aldiz ikusi omen zuen filma. Baina ez dakigu zer esan edota pentsatu zuen filmaren in-guruan. Canok berak Chaplinek egin zuen moduan Hitler

parodiatzeko asmoa duela dirudi “Gizon txikia” ezizenez deitzean.

Eragina oso nabarmena da eta horren lekuko liburuan istorioa hasterako idatzitako pasarte, gogora bedi filmean Hitler ordez Hynkel esaten dela:

“KONTUA DA, Russell Spencer arte zuzendariak bilera eskatu zidala agur-naziaren sorrerari buruzko *gag* bat bururatu zitzaiola-eta.

“Russell setatuta zegoen: filmean Hynkelen pertsonaiari *background* moduko bat, hitzaurre bat erantsi behar zitzaiola uste zuen. Hauxe zen berak proposatzen zuen istorioetako bat: Braunen herri ttipian, haur bihurri bat eskaileretan behera doa, eskaileretako heldulekuan ipurdia jarri eta irrist eginez; haur horrek bat-batean oreka galdu eta, eskailera zulotik behera eroririk, eskumuturra hautsi du. Orduan, haur horren aitak –Breveski familiako buruak- zera erabakitzen du: halakorik berriro gerta ez dadin, eskailerako esku-karrila altuago jartzea, halako moldez non haurrak izango duen bertara igo eta karrila zabutzat erabili. Horretarako, seme zaharrena bidaltzen du (Hans Breveski) lehenbizi elizara eta arotzarengana gero. Elizan delarik, gaztetxoaren zeregina bertako eskailera altuaren angelua neurtzea da, hauxe baita aitak etxeko eskailerari eman nahi dion neurrian. Hans semeak, ordea, ez daki gauza handirik geometriaz eta ez zaio besoarekin eskailerako angelua neurtzea baino ideia hoberik bururatzen. Eskuin besoa, beraz, eskailerako esku-karrilean lerratzen du, sorbalda eta buruaren artean berrogeita bost graduko angelua osatuz, eta gero, besoa amiñi bat ere mugitu gabe, keinukera horrekintxe, besoa jasota oinez egiten du aroztegirainoko tartea, arotzari nolabait adierazteko, angelu horretako esku-karrila jarri nahi diola bere aitak etxeko eskailerari. (...) Aroztegian, Grabenstrasse karrikan, haur bat dabil zerrautsarekin jolasean, etxeak marraztu eta putz egiten desegitera. Haurrak –Hynkel txikiak– harri eta zur begi-

ratzen dio Hans Breveski mutikoari, bere besoa altxatuta daramalarik, eta etorkizuneko epifania bat ikusten duela ohartzen gara, horixe baita agur-naziaren sorburu izanen dena. Arotzak, bien bitartean, Breveski jaunaren semeak agindutako mandatuaren oharra hartzen du egunkari atzeratu baten gainean, Hans gaztetxoaren ateraldiarekin irribarretsu, haren beso zurrunari goitik eta behetik begira...”²⁹ (7-8. or.)

Pasarte honek berak “Hitlerren lehen argazkia” izeneko Wislava Szymborskaren poema³⁰ gogorarazten digu. Ume bat jaio da eta ume hori ez dakigu nor izango den. Hona Julen Gabiriari emandako elkarrizketa batean esan zuena:

“Alemania eta Austriako mugako herri txiki batean ume bat jaio dela, Hitler. Jaio da eta ez dakigu zer izango den: ez dakigu okinaren alabarekin ezkonduko den, ez dakigu apaiza izango den, zuzenbidean lizentziatua, operako kantari... Herrian bizkotxo usaina dago, xaboi usaina, eta lore-saltzailea ere han dabil, eta esaten du Hitler txikia jaio dela, eta hainbeste denboraren ondoren poza ekarri duela Hitler-tarren etxera, eta txintxirrina daukala eskuetan eta sehaskan dagoela. Eta poemaren amaiera oso polita da: “ikasleak aspertuta daude eta Historiako irakasleak gorbata laxatzen du eta aho-zabalka ari da koadernoen gainean”. Horrela bukatzen da. oso esanguratsua iruditzen zait. Oraindik ez da ezer gertatu: ume bat jaio da eta haur jaioberrien antza baino ez dauka. Eta gero, errealitateak bilakaera bat erakusten digu, baina izan zitekeen beste bat. Beraz, poema horrek izan zuen, bai, zerikusia liburu honen sorreran.”³¹

Aipamen gehiago ere badaude noski baina ezin gara honetan luzatu orain.

Sinbologia

H. Canoren lanetan ohikoa denez liburu hau ere sinboloz beterik dago. Sinbolo horiek batzuetan orokorrak izan daitezke gehiengoarentzat esanahi argi bat edukitzean, esaterako “Askatasunaren estatua” edota esanahi itxiago bat eduki eta interpretazio asko eta desberdinetako parada eman. Adibidez, giltza. Baina sinbolo guztien interpretazioak itsaso berera garamatza: Askatasunaren Estatua Frantziak AEBri eman ziona eta ikur bilakatu dena.

Estatua honen agerpenak liburuan ideia ugari iradokitzen dizkigu: hasteko, gogoratu behar da Olivier Legrand polizoi gisa bidaiatu zuela estatuaren koroaren barruan eta han bertan preso zihoan, ezkutatuta, eta bertatik irtenez gero atzeman egingo zuten. Halaber, koroaren barruan doala botaka egiten du barrualdea zikinduz, askatasuna irudikatzen duen horren barruan preso sentiarazten duena zikintzen du.

Bestalde, pertsonaiak esaten du “Askatasunaren estatua” ederragoa zela muntatu aurretik “etxe hutsak bestek baino ederragoak diren bezala”, “ezerk ezin du asmatu gabe dagoen artelan baten indarra gainditu” eta gainera, “askatasuna piezatan muntatu eta bukatuta gauza zatar huts bihur daiteke”. (18-19. or.)

Askatasunaren Estatua gauza zatarra izan daiteke hortaz eta hori iruditzen zaigu iradokitzen duela Canok. Honako hau dio New York-en egindako egonaldiaz:

“New Yorke egon nintzenean, galera sentsazioa izan nuen: bertan zaude, baina iruditzen zaizu inguruan gertatzen ari diren gauza asko galtzen ari zarela. Horrek antsietatea sortzen du, ez duzulako ezer ikusten. Astebe-te neraman bertan, eta Askatasunaren Estatua oraindik ez nuen ikusi. Eta banuen gogoan, ze nire aitona 30eko hamarkadan Estatu Batuetan egon zen, eta, bestek beste, Askatasunaren Estatuaren koroaren barruan egon

zen. Ikusi behar nuen, orduan! Eta azkenean ikusi nuen, urrunetik: gauza txikia, dezepzionantea. Baina espejismo bat izan nuen, betaurreko gabe ibiltzen bainaiz: iruditu zitzaidan nazi bat zela, besoa altxatuta.”³²

Canori hortaz, Askatasunaren estatua ez zitzaion ederra eta handia iruditu, gauza txikia eta etsigarria baizik, eta are gehiago, nazi bat besoa altxatuta. Askatasunaren Estatua, eskumako besoa altxatzen zuen nazia iruditu zitzaion. Ikuspegi hori liburuan ere jaso du:

“Askatasunaren Estatua ikusi duenean besoa jasota diosal egiten ari zitzaiola iruditu zai.

Puztu egin da Adolf. Besoa jaso du berak ere, estatuari begira.

–Hau ere gutarikoa da, Dieter!

–Frantziarrek estatubatarrei egindako opari bat da, mein führer.

–Seguru?

–Bai, mein führer

–Bo! Frantximantak! Epel hutsak. Ez dugu, hala ere, oraingoz eraitsiko.

Ez zuten erresistentziarik topatu.” (45. or.)

Liburuko zati horretan Hitlerrek bere kideko ikusten du Askatasunaren Estatua. Eta azken esaldi horrekin “ez zuten erresistentziarik topatu” badirudi Canok Parisen ikusitako erresistentzia duela gogoan autopoetika deitu dugun zatian aipatu dugun bezala: “Eta aurkitu nuen erresistentzia berreskuratzeko giroa, hemen Gerra Zibilarekin moduan”³³. Beraz, New York eta Paris, bi hiriak izan ditu eragile handi Canok liburu honetan aurrerago ikusiko ditugunez.

Askatasunaren Estatuak iradokitzen duena ikusi dugu. Eta giltza arrunt batek zer iradoki dezake? Giltzak; atek, kutzak, egunerokoak etab zabaltzeko erabiltzen ditugu.

Ate baten atzean zer ezkututzen den ez dakigu zabaldu arte, agian emaztea, agian lapurra, agian katua, agian kalea, agian beste mundu bat, agian inor. Berdin gertatzen da kutxekin, kutxetan hamaika gauza gorde daitezke eta hamaika gauza galdu, askotan barruan dagoenaz ahazten gara eta zabaldu arte ez dakigu zer ezkututzen duen.

Giltzekin ere loturak sortu eta askatu daitezke. Kateak lotu, edo pertsonak ... pertsona bat logela batean, etxean, entzerratu dezakezu eta askatasuna lapurtu. Horixe da askatasunaren paradoxa, askatasun eza itzal bihur daitekeela, askatasun eta askatasun eza oso loturik doaz, liburu honetan ikus daitekeen bezala. Baina Komediantearentzat giltza zer da? Kutun soila, printzipioz:

“Olivierren gabardina luze bat soinean zuela abiatu zen eskaileran behera. Gabardinako patrikan, ezusteko opari bat: hogeita hamar dolar eta sarraila ezezagunen bat. Dirua beharko zuen. Giltza berriz, kutun gisara gordetzea erabaki zuen, deus irekitzeko balioko ez zion jakinaren gainean.” (74. or.)

Bietako batek, Canok ez baitu zehaztu nahi, giltza hartu eta begia zulatzen dio besteari. Guk komedianteak Hitlerri begia edo begiak ireki dizkiola pentsatu nahi genuke. Begiak irekiarazi eta egindakoaz jabetu zedin. Gero amaieran nor hilko den, hor ez gara sartuko, komedianteak irabaziko balu ongiak eta askatasunak irabaziko luke, eta Hitlerrek irabaziko balu berriz, guztiz aurkakoa. Baina narrazio honetan biak dira galtzaile, bukaeran biak baitira izenik gabeko, ez dakigu nor den nor. “Begi bakarrarekin edo birekin so egiten dio? Ez dago segururik esaterik.” (97. or.)

Hona giltzaz bietako batek besteari begia zulatzen dio-la kontatzen den pasartea:

“Bietako batek patrikan sartu du eskua: giltza bat atera du, giltza lurrera erori zaio. Zlipurdikatu dira be-

rriz, giltza hartu du bietako batek eta begitik sartu dio besteari giltzaren metal hotza, eta begia sarraila baten eran zabaldu dio” (95. or.)

Amaiera

Amaieratzat azken lau kapituluak har ditzakegu, 26, 27, 28 eta 29. kapituluak hain zuzen. 26.a Olivierren azken pentsamendua zein izan zen kontatzen zaigulako; 27.a, berriz, Hitler eta komediantea berriz elkartzen diren unea zein izan zen kontatzen digulako; 28.a ostera, Kate-k ikusiko balu bezala, komediantearen eta Hitlerren arteko borroka kontatzen delako; eta 29.a azkenik, liburuko azkena delako eta hasierako egoerara garamatzalako, lehenengo kapituluaren aurreko kontakizunera (Breveski familiarenera).

Canok bere liburua borroka batekin amaitzen duela esan daiteke. Komediantea (Chaplin) eta gizon txikia (Hitler) berriz ere elkartu egiten ditu. Komediantea moilan dago lo, bere karpeta urdinarekin eta burko bat duelarik. Gizon txikia gauerdian paseatzera irten eta komediantea dagoen tokiraino iristen da. Komediantea ikusi eta ezagutu egiten du, barruan duen amorruaren ondorioz, bien arteko borroka hasten da. Autoreak borroka urrutitik kontatzen digu, Kate-ren begietatik eta iluntasunak sortzen digun zalantzatik:

“lo hartu du eta ez du hasieran deus ikusten. Gero bai, sumatu du iskanbila, baina **urrunegi** dago bera ezer egin ahal izateko. Komediantea eta gizon txikia elkarrekin borrokan ari dira moilako ertz batean. **Iluntasuna** da nagusi. **Komediantea edo gizon txikia, bietarik bat**, lasterka doa zubirantz eta atzetik segitzen dio gizon txikiak edo komedianteak, bietarik batek. Aurretik doanak komediantea izan behar du inondik ere, karpeta urdina

baitarama besapean. Edo juxtu horregatik gizon txikia da akaso, komedianteari karpeta kendu eta hark idatzitakoa txikitu nahi duena (...)” (95. or.)

“Uretatik gertu daude orain moila bakartian: bata bestearen gainean zilipurdikatzen dira, itsaso koipera erortzeko zorian. Brooklyngo zubiko eskaileretan gora doa orain karpeta urdina daramana. Baina atzetik doakionak ez du kapelarik batere. **Nor da nor, honenbestez?** (...) Bietako bat **–ez dakigu nor–** barandaren alde batera gorputza emana dago, besteak bultza egiten dio eta kanpai bueltarik eman gabe erortzen da uretara (...)” (96. or.)

Beraz, amaiera irekia dugu honakoa. Aurrez esan dugun bezala ez dakigu bietatik nor erortzen den uretara, irakurlearen araberrako amaiera izango dugu.

Hala ere, komediantearen eta gizon txikiaren borrokaren kontaktaren ondoren, komediantek idatzitako eskuizkribuari erreferentzia egiten zaiola dirudi. Aurreko kapituluko amaiera hau baldin bada: “Eskuizkribua ere ibaian **galdu** da asdfg qwerty” (97.or). Hurrengo kapituluan hauxe irakur dezakegu:

“Hiriko leihoei begira idatzitako **eskuizkribua** egun-sentian berriro ere hiriko leihotara iritsiko da, eta bertan irakurriko dute herritarrek, argiak adieraziko die zeri eutsi, zer egin; beraiei begira idatzitako eskuizkribua zen azken finean, beraiei begira idatzitako eta beraiek idatzitakoa, nolabait. **Haien ispilua**, haien leihoa. Zahartzarora eta orbanak ikusiko dituzte, eta orduan, orduan kalera aterako dira. **Aukera bat da**, agian, ez da erabat ziurra. Leihok berunezko daude oraindik. (99. or.)

Hortaz, badirudi, eskuizkribua berreskuratzearen aukera uzten digula egileak, jendeak gertatu zitzaiona jakingo balu, gauzak aldatuko lirartekeela adierazi nahi duela ema-

ten du. Hala ere, leihoen iluntasuna askotan aipatzen du askatasunaren aurkako balitz bezala. 99. orrialdean, 11. lerroan hau agertzen zaigu: *Leihoak berunezko daude oraindik*. 99. orrialdean, 20. lerroan, berriz: *eta leihoetan argirik ez*. 101. orrialdean, bestalde, 1. lerroan hau irakur dezakegu: *Leihoetan argirik ez da*. Eskuizkribuak argia ikusi ez balu bezala, bidean geratu izana adieraz dezake honek. Aurretik aipatutako hitzak gogora ekarriz: “*Izan ere, beti daude bi film: egin zena, eta bidean geratu zena. Bigarrena izaten da onena, ia beti. Historiako gertakariei so egiten badiegu ere, halako zerbait gertatzen den susmoa daukat: hainbat aldibereko xendra daude, eta irudimenarekin baino ezin ditugu denak eskuaretu...*”

Eta honekin batera, nobela guztiz amaitu aurretik, Canok berriro egiten dio erreferentzia Braun hiriari, Hitlerren jaioterri izan zenari. Beharbada, liburuia egiteko oinarriztat hartu zuen Chaplinen aipua kontuan izanik, aurreko guztia gertatu ez balitz bezala, edo bidean geratu izan balitz bezala jokatzeko asmoa du idazleak.

Canok honako hau esaten du liburuaren amaieraren inguruan:

“Eta gauzak irekita uztea ere bada dibertimenduaren parte, eta bukaeran hasierara bueltatzea ere dibertimendua da. Nik ere nire bertsioa kontatu dut, baina amaieran berriro heltzen gara Szymborskaren poemara, eta umea sehaskan uzten dut.”³⁴

Kritikak

Harkaitz Canoren eleberri labur honek, oro har, harrera ona izan du. Hala ere, nobela bitxiztat hartu izan da eta sailkatzeko garaian zailtasunak daude, ez baitu bere beste nobelekiko lotura edo antzekotasun handirik. *Belarraren ahoa* irakurterraza, arina eta mami handikoa den nobela

dela esan genezake, gainera, arintasun eta azkartasun sentsazioak ematen ditu. Hala ere, idazle askok dudan jarri du Harkaitz Canoren lan honi nobela labur edo ipuin luze izendapena ematerako garaian.

Kritika egin duten idazle gehientsuenek iritzi eta ezau-garri antzerakoak erabili dituzte nobela hau deskribatu edota baloratzeko garaian. Gehien aipatu den ezaugarria bikoiztasuna izan da. Guztiek edo ia guztiek errepikatu dute nobelak bi kontaketa diferente dituela: Adolf Hitler eta Olivierrena. Bi kontaketa hauek puntu batean elkar-tzen direlarik (Charles Chaplin). Hau adierazteko era des-berdinak aukeratzen dituzte kritikoek, askok metaforen bideari ekiten diote:

“...Belarrak, ezpatak bezala, aho bi ditu, eta **bikoitzak** dira nobelaren kontagintza mailak...”³⁵ (Jon Kortazar).

Gauza bera esateko askotan aipatzen den beste Chaplinen esaera bat hauxe da: *“Hainbat aldebereko xendra daude, eta irudimenarekin baino ezin ditugu denak eskuaretu...”*.

Honi jarraitzen dion beste ideia bat askatasunarena da, hau da, askatasuna dela istorio honen paradoxa. Hala ere, *ez dago askatasunaren bidea urratzerik zauririk jasan gabe*³⁶ Mikel Asurmendiren esanetan.

“Bada, gainera, polizoi bat Frantziatik Estatu Batue-tara doana, Askatasunaren Anderea puskatan daramaten itsasontziko sotoan, andere horren puska balitz bezala. Niri polizoiaren historia asko gustatu zait: “Eta nork ez du polizoi bat barruan?” Metafora polita iruditu zait, **askatasunaren metafora**. Denok gara polizoi bizitza honetan, askatasunaren ametsak garamatzana, ikusteke noraino garamatzen.”³⁷ (Felipe Juaristi).

Baliteke ordea, askatasun hau idazlearena berarena izatea.

“Liburua “askatasun pertsonalaren alegoria” dela dio argialetxeak kontrazalean. Baliteke, baina batez ere egilearen askatasuna nabarmenduko nuke nik...”³⁸ (Ana Unanue)

Gehienek, gerta zitekeen zerbait bezala hartzen dute istorio honen argumentua, askok eta askok, Charles Chaplinen hitz berberak aplikatzen dituztelarik hau azaltzeko edo frogatzeko: *Beti daude bi film, egin zena, eta bidean geratu zena. Bigarrena izaten da onena ia beti*. Hala ere, guztiak ez dute horrela pentsatzen. Bada idazlearen ametsa besterik ez dela pentsatzen duenik ere:

“Baina Belarraren ahoa ez da gerta zitekeenaren gainean eraiki. Hasiera-hasieratik dauka amets puntu bat istorio itxuragabe honek. Eta historia sinesgaitzaren testigu, Olivier migrante zahar eta pobrea jarri du Canok, New Yorkera modurik harrigarrienean iritsia...”³⁹ (Igor Estankona)

Liburua bukatutakoan, badirudi hasperen baten beharra sentitu daitekeela, irakurritako guztia barneratzeko aukera emateko, hala ere, beharbada, ez da nahikoa hasperen bakarrarekin:

“Hasi eta amaitzekoa da eta bukaerara heltzean hasperena egitera behartzen zaitu. Hasperen bakar batean lerro artean eskaini zaizkizun guztiak irentsi nahian bezala. Baina hasperen bakarra ez da nahikoa obra labur baina mamitsu honek eskaintzen duen guztia irentsi ahal izateko. Edo agian bai. Hasperen bakar batek hamaika hasperenen kapazitatea izan dezakeelako.”⁴⁰ (Karmele Jaió).

Liburu honetan Harkaitz Canoren arma nagusiak irudimena eta ironia omen dira eta errealtatearen neurriak ametsarenarekin berdintzea da ironia horren helburua. Adibidez, Adolf Hitlerri gizon txikia deitzea. Izan ere,

lanean zehar, gizon txikia deitura da nagusi 28. orrialdean hau esaten zaigunetik: *“Gizon txikia esaten jarraituko dugu, hitzen botere baltsamikoa baliatze aldera, hitzak penizilina balira bezala, hitzak analgesiko moduan, hitzak banatu ditzagun kanpamenduetan morfina banatzen duenak bezala, eskuzabal.”*

Geruzak ere aipagarri dira zenbait kritikariren hitzetan. Eta egia esan, hala da, zeren nobelan zehar aipatzen du geruzen kontu hau: *“Munduak geruzatan eraikitzen dira, ordea. (...) Geruzatan eraikitzen dira gauzak eta munduak (17. or.).*

“Munduak geruzatan eraikitzen direla irakur daiteke Harkaitz Canoren liburu berrian, gauzak gauzen barruan eta mundu txikiak mundu handiagoen baitan harilkatzen direla. Horixe bera da Belarraren ahoan eskaintzen dena, irudimena eta ironia oinarri dituen mundu txiki eta geruza berezi bat.”⁴¹ (Mikel Aierbe).

Ez da Harkaitz Canoren ohiturei jarraitzen dien liburua baina, hala ere, inplizituki, baditu beste eleberriekiko lotura batzuk.

“Bestalde, Belarraren ahoan aurkitzen ditugu Harkaitz Canoren obran ohikoak diren elementuak: idazkera dotorea (geroz eta dotoreagoa: laudatzekoa da esaldi luzeenak harilkatzeko duen abilezia; irakurlearentzat erraza bihurtzen du berez konplikatua dena, eta ez dago horretaz harro egon daitekeen hainbeste euskal idazlerik), prosa lirikorako joera, irudi deigarriak edo iradokitzaileak eraikitzeko zaletasuna, testua hantzen hantzen zipriztintzen duten konparazio eta ukitu surrealistikak edota absurduak...”⁴² (Iban Zaldua).

“Ez baitu oheak gure itxura hartzen, guk geure ohearena baizik” da Harkaitz Canok erabiltzen duen esaldietako bat. Honekin zera esan nahi du, mundua ez dela gugana

moldatzen, gu munduagana baino. Esaldi honekin lotu daiteke Olivierren konkorraren kontua, izan ere, hainbeste denbora igaro ondoren, azkenerako Askatasunaren Estatuaren koroaren forma hartzen du, konkor izugarri bat daukalarik.

“Zer gara gu? Zer da mundua? Bada, bizi duguna gara eta mundua bera ere bizi duguna. Ez dugu guk mundua aukeratu, munduak berak aukeratu gaitu gu...”⁴³ (Mikel Asurmendi).

Zinema

Cano eta zinema, zinema eta Cano lotura egitea ezinbestekoa da. Eta kritikagile asko ados daude alor honetan, izan ere, hori omen da Canok bere obra guztietan erabiltzen duen ezaugarri nagusietako bat.

“Irudi indartsuak erakusten dizkigu. Hain dira indartsuak eta garbiak pantaila baten aurrean gaudela ematen du. Zuri beltzeko film bat. Charles Chaplinen garaiko bat. Eta kapitulu bakoitzaren bukaeran pantaila ilundu egiten da erdi-erdian dagoen elementu baten inguruan. “Idazmakinak hantxe jarraitzen du. Baina ez du ezer esaten Eta hitz guztiak daude bere baitan”. Eta idazmakinaren inguruan iluntzen da pantaila”⁴⁴ (Karmele Jaio).

Orrialde hauetan zehar, zine mutuko izar handi baten izena ere erabiltzen da; Charles Chaplin. Eta zineko genero klase honi erreferentzia zuzena egiten zaio lerro askotan.

“komedianteak jira hartu zuen, deus esan gabe. Zinema mutu. Olivier hila zen beraz, bere konkorraren pean hila. Bere kulunkaulkian hila.” (88. or.)

“Zine muturik ez, soto ilunean. Zine muturik ez Oihartzunen gelan. Diktadore Handia izan zen kome-

diantearen lehen film hiztuna. *The Great Dictator*.” (28. or.)

Gainera, lan honen hasieran ere aipatu dugu Canok liburu hau idaztera bultzatu zuen arrazoietako bat *The Great Dictator* filmaren berrestreinaldia ikustea izan zela 2002an Parisen.

Esan daiteke eszena zinematografikoak ere agertzen direla. Esaterako ondoko pasartean, urruneko plano batetik gerturatu egiten gara:

“Itsaso zabal. Zenbat aldiz ez ote duen amestu itsas zabal hura zeharkatu eta mendean hartzea. Ontzidia, bederatzi guda ontziz dago osatua. Hirunakako hiru lerrotan doaz. Gizon txikia aurreneko lerroko hiru barkuetan erdikoan doa eta hortzak estuturik ditu. Une batez, bere aho itxiaren indarrak aitzinarazten duela ontzidi osoa iruditzen zaio: matrailezurra apur bat ezkerretara mugituz gero, hiru ontziak ere zentzu berean mugituko direla itsasoan.”⁴⁵ (9. or.)

Ukronia

H. Canok berak aitortzen duenez liburu honek ez du idatzi duen beste lanekin zerikusirik. Liburu hau *Ukronia*⁴⁶ deitzen den generoa jarraitzen du:

“Literaturak bentaja handi bat du bizitzarekiko; eta da rebobinatu egin daitekeela, eta liburu hau rebobinatze ariketa bat da. Bueno jar gaitezen momentu interesgarri batean eta kontatu dezagun historia beste era batera, guk nahi dugun bezala, izan zitekeen bezela, edo hemendik 2000 urtera izan daitekeen bezala, hor denborak ez du inporta. Eta ariketa hori izan zen pixka bat Belarraren ahoa. Nik kontatzen dut hori, ezustean harrapatu ninduen ideia bat izan zela. Batzuetan nobela bat daukazu hainbat urtetan buruan eta idatzi egiten

duzu diziplina batekin, baina beste batzuetan ezustean aurkitu egiten duzu.”⁴⁷

Ukroniari nobela historiko alternatiboa ere deitu izan zaio pasatako ekintza edo egoera historiko bat hartzen baita oinarri gisa eta berau harturik galdera bat egiten da. Hori horrela gertatu ez balitz? Historia aldatu egiten da. Ukroniak beste errealitate batzuk jasotzen ditu, benetan gertatu ez zirenak baina gerta zitezkeenak.

Hitza bera Charles Renouvier filosofo frantsesak eka-
rri omen zuen lehenengoz XIX. mendean “*L’utopie dans l’Histoire*”, (Historiaren utopia) idatzi zuen obran. “Ya que refiere que así como utopía es lo que no existe en ningún lugar, ucrónia es lo que no existe en ningún tiempo.”⁴⁸ Lehenengo ukronia idaztea Tito Liviori egozten zaio, “Erromaren historia bere fundaziotik” liburuko kapituluetako batean k.a. IV. Mendean Alejandro Handiaren eta Erromaren arteko balizko gerrate bat kontaktzen duelako.

Ukronietan oso gai tipikoa omen da Bigarren Mundu Gerra. Esaterako, Philip K. Dick-ek “The man in the high castle” lanean Bigarren Mundu Gudan nazien garaipena oinarriztat hartuta garatzen du istorioa. Canok berak ere Bigarren Mundu Gudan kokatu du testuingurua eta beste historia bat proposatzen du.

Literatura mutantea

Vicente Luis Morak dioenez, espainiar literaturan *mutante* talde bat dago.⁴⁹ Terminoa Juan Francisco Ferré-k erabili zuen Ipar Amerikako literatura joera bati erreferentzia egiteko garaian. Morak ordea, espainiar literaturarako darabil. Berak *mutante* hitzaren definizio biologikoa zein den aipatzen digu eta literaturarekin lotzen duela esan daiteke. Izan ere, mutantea denak bere espezieko ezaugarriak erakusten dituen da, baina egoera berri batera

igarotzen ari dena da edo transformazio edo metamorfosi prozesuan dagoena.

Morak, *idazle mutante* hauek beren lanetan modernismoaren ezaugarriak erakusten dituztela eta postmodernitatearen ezaugarriak erakusten hasten direla esaten du. Horrez gain, mutanteen artean, estilo postmodernista argi eta garbi erakusten dutenak badirela dio, baina baita lehenaldia edo estilo modernista erakusten dutenak ere. Hau da, talde mutante honen barruan batzuk beste batzuk baino berritzaileagoak dira.

Narratiba mota honek lau arrisku edo galbide erakusten dituela azaltzen digu. Batetik, errealitatearen zentzuaren galera egongo litzateke; bigarrenik, ikuskizunaren kritikaren erorketa, hirugarrenik, azalekora gerturatzea; eta azkenik, indarkeriaren salaketa agertzea kontakizunaren atal balitz bezala.

Honako hau irakur dezakegu *El País* egunkarian⁵⁰:

“Harkaitz Cano (Lasarte, 1975) está convencido de que la única forma de que la literatura sobreviva es la realidad mutante. "Una de las corrientes que más me interesan", según explica. El autor parte de la base de que lo que se escribe tiene que ser tal, que sólo debe ser posible en papel. "Nunca hay que escribir una novela pensando en adaptarla al cine". De dónde si no, habría salido la idea de relatar en su *Belarraren ahoa* el periplo de un Hitler que viaja a Nueva York en barco para conquistar América". (*El País*, Inés P. Chávarri, Bilbao, 10/05/2010)

Morak proposatzen dituen ezaugarriei erreparaturik, *Belarraren ahoa* lanean, ikus dezakegu horrelakorik. Izan ere, izan ez zen errealitate bat sortzen du Canok, eta horrez gain, indarkeriaren kritika ere egiten du liburuan zehar behin eta berriz.

Horrez gain, Morak estilo honetako idazleen lanetan ikus-entzunezko munduak garrantzia duela esaten digu eta hori argi ikusten da Canorengan. Baina ez dugu berriz aipatuko zinemak Canorengan duen garrantzia, azaldu baitugu hori aurreko atal batean. Hala ere, ikus-entzunezkoek garrantzia desberdina dute *mutante* diren idazle hauetan. Aurretik esan bezala, batzuk berritzaileak dira (telebistako irudiak, internet-en garrantzia, eta abar), beste batzuk ez hainbeste.

Gure iritzia liburuarekiko

Irakurtzen dugun lan orotan beti ateratzen ditugu iritzi baikor eta ezkorrak, baina hemen ere saiatu garen arren, ezin izan dugu ganorazko iritzi ezkorrik lortu.

Hasteko, Canoren idazkera irakurterraza eta arinak liburua erosi orduko bukatzera bultzatzen zaitu ia konturatu gabe. Erabiltzen duen hitz bakoitzak ez dio lekuz kanpo dagoenaren irudipena ematen irakurleari. Eta beti egongo da perpaus ironiko edo lirikoren bat irribarrea sortu araziko diguna irakurtzen ari garen ahala.

Bere idazkera ere gertuko egiten da lagunartekoa izatera iritsi gabe eta hori zail da lortzen gure iritiziz.

Orrialde bakoitzean sinbolo, metafora, ironia eta beste hainbeste elementu oso erraz topa daitezke eta horrek asko gozarazten du irakurketa, istorioan barneratzeaz gain errealitateko bizimoduan gizarteko sektore desberdinetako egoerak ikuspegi kritiko batez begiratzea laguntzen baitu, edo munduko geruza desberdinak hautematera liburuan esaten den legez:

“Munduak geruzatan eraikitzen dira, ordea. Norbera bere geruzan bizi ohi da, zaila da gaineko eta azpiko geruzetara iristea. Batzuetan gertatzen da hala ere: zenbaitetan, elur geruza baten barruan harrapatutako norbaitek aterki

*baten punta zorrotzarekin zulatzen du goiko geruza eta mundu estrainio batean agertzen da.*⁵¹ (17. or.) Gauzak gauzen barruan eta mundu txikiak mundu handiagoen baitan soka finez lotuta daudela iruditzen zaio sarri, eta baita guri ere.

Pertsonaien aukeraketa berriz egokia deritzogu, eta baita ere izen bereziz ez deitzea ere. Hau da Hitlerri *Gizon txikia* eta Charles Chaplini *komediantea* deitzea. Canok berak elkarrizketa batean aipatu zuen moduan pertsonaiak lehenengo planora ez ekartzea laguntzen du horrek, eta istorioari benetan duen garrantzia ez kentzen.

Azkenik, bukaera asegaitza eman digu H. Canok. Baina ezin esan genezake hori ere atsegin ez dugunik. “Eta gauzak irekita uztea ere bada dibertimenduaren parte, eta bukaeran hasierara bueltatzea ere dibertimendua da. Nik ere nire bertsioa kontatu dut, baina amaieran berriro heltzen gara Szymborskaren poemara, eta umea sehaskan uzten dut.” Guk ere, *Belarraren ahoa*-n uzten den amaiera irekia gogoko dugu, “etxe hutsak etxe beteak baino ederrago diren bezala”. Nolakoak diren imajina dezakegu eta gure gustura imajinatu ere. Baina beteak badaude, agian ez digute ezer esaten bertako altzariak atsegin ez ditugulako.

Eranskinak

PRIMERA FOTOGRAFÍA DE HITLER (Hitlerren lehenengo argazkia)⁵²

Wisława Szymborska, 1996ko Nobel Literatura sariaren irabazle.

¿Y QUIÉN ES ESTE NIÑO con su camiseta?
Pero ¿si es Adolfito, el hijo de los Hitler!
¿Tal vez llegue a ser un doctor en leyes?
¿O quizá tenor en la ópera de Viena?

¿De quién es esta manita, de quién la orejita, el ojito,
la naricita?

¿De quién la barriguita llena de leche? ¿No se sabe
todavía?

¿De un impresor, de un médico, de un comerciante,
de un cura?

¿A dónde irán estos graciosos piecitos, a dónde?

¿A la huerta, a la escuela, a la oficina, a la boda
tal vez con la hija del alcalde?

Cielito, angelito, corazoncito, amorcito,
cuando hace un año vino al mundo,
no faltaron señales en cielo y en la tierra:
un sol de primavera, geranios en las ventanas,
música de organillo en el patio,
un presagio favorable envuelto en un fino papel de
color rosa.

Antes del parto, su madre tuvo un sueño profético:
ver una paloma en sueños, será una buena noticia;
capturarla, llegará un visitante largamente esperado.
Toc, toc, quién es, así late el corazón de Adolfo.

Chupete, pañal, babero, sonaja,
el niño, gracias a Dios, está sano, toquemos madera,
se parece a los padres, al gatito en el cesto,
a los niños de todos los demás álbumes de familia.
Ah, no nos pondremos a llorar ahora, ¿verdad?,
mira, mira, el pajarito, ahora mismo lo suelta el fotó-
grafo.

Atelier Klinger, Grabenstrasse, Braunen,
y Braunen no es una muy grande, pero es una digna
ciudad,
sólidas empresas, amistosos vecinos,
olor a pastel de levadura y a jabón de lavar.

No se oye el aullido de los perros, ni los pasos del destino.

El maestro de la historia se afloja el cuello
y bosteza encima

The Great Dictator⁵³, ‘Diktadore handia’

Urtea: 1940, zuri beltzean

Zuzendaria: Charles Chaplin

Iraupena: 124 minutu

Estudioa: United Artists

Charles Chaplinek “The Great Dictator” filmean egindako azken diskurtsoa da ondoren transkribaturik jarri duguna, hitz bakar bat ere soberan ez duen hitzaldia iruditzen zaigu eta liburuarekin lotura duena ezinbestean.

Bestalde, hona esteka gazteleraz filmaren zati hori ikusi nahi bada edo entzun irakurtzeaz batera.: <http://www.youtube.com/watch?v=kB1tANvd11E&feature=related>

Lo siento, pero yo no quiero ser emperador, ese no es mi oficio. No quiero dominar ni conquistar a nadie, sino ayudar a todos si fuera posible, judíos y gentiles, blancos o negros.

Tenemos que ayudarnos unos a otros, los seres humanos somos así. Queremos hacer felices a los demás, no hacerlos desgraciados. No queremos odiar ni despreciar a nadie. En este mundo hay sitio para todos. La buena tierra es rica y puede alimentar a todos los seres. El camino de la vida puede ser libre y hermoso, pero lo hemos perdido.

La codicia ha envenenado las almas, ha levantado barreras de odio, nos ha empujado hacia la miseria y las matanzas.

Hemos progresado muy deprisa, pero nos hemos encarcelado nosotros.

El maquinismo que crea abundancia nos deja en la necesidad. Nuestro conocimiento nos ha hecho cínicos; nuestra inteligencia, duros y secos. Pensamos demasiado y sentimos muy poco. Más que máquinas, necesitamos humanidad; más que inteligencia, tener bondad y dulzura. Sin estas cualidades la vida será violenta, se perderá todo.

Los aviones y la radio nos hacen sentir mas cercanos. La verdadera naturaleza de estos inventos exige bondad humana; exige la hermandad universal que nos una a todos nosotros.

Ahora mismo, mi voz llega a millones de seres en todo el mundo, a millones de hombres desesperados, mujeres y niños, victimas de un sistema que hace torturar a los hombres y encarcelar a gentes inocentes.

A los que puedan oírme les digo: ¡No desesperéis!

La desdicha que padecemos no es más que la pasajera codicia y la amargura de hombres que temen seguir el camino del progreso humano. El odio de los hombres pasará y caerán los dictadores, y el poder que le quitaron al pueblo, se le reintegrará al pueblo.

Y así, mientras el hombre exista, la libertad no perecerá. ¡Soldados, no os rindáis a esos hombres, que en realidad os desprecian, os esclavizan, reglamentan vuestras vidas y os dicen lo que tenéis que hacer, qué pensar y qué sentir! ¡Os barren el cerebro, os ceban, os tratan como a ganado y como a carne de cañón!

¡No os entreguéis a estos individuos inhumanos; hombres-máquinas con cerebro y corazones de máquinas!

¡Vosotros no sois máquinas!

¡No sois ganado!

¡Sois hombres! Lleváis el amor de la humanidad en vuestros corazones, ¡no el odio!

Sólo los que no aman odian; los que no aman y los inhumanos.

¡Soldados, no luchéis por la esclavitud, sino por la libertad!

En el capítulo 17 de San Lucas se lee: “El Reino de Dios está en el hombre”, no en un único hombre ni en un grupo de hombres, sino ¡en todos los hombres!, ¡en vosotros! Vosotros, el pueblo, tenéis el poder, el poder de crear máquinas, el poder de crear felicidad. Vosotros, el pueblo, tenéis el poder de hacer esta vida libre y hermosa, de convertirla en una maravillosa aventura.

¡En nombre de la democracia, utilicemos ese poder, actuando todos unidos!

¡Luchemos por un mundo nuevo, digno y noble, que garantice a los hombres trabajo, que dé a la juventud un futuro, y a la vejez, seguridad!

Con la promesa de esas cosas, las fieras alcanzaron el poder. Pero, ¡mintieron! No han cumplido sus promesas ni nunca las cumplirán. ¡Los dictadores son libres, sólo ellos, pero esclavizan al pueblo!

Luchemos ahora para hacer nosotros realidad lo prometido. ¡Todos a luchar para libertar al mundo, para derribar barreras nacionales, para eliminar la ambición, el odio y la intolerancia!

Luchemos por el mundo de la razón. Un mundo donde la ciencia donde el progreso, nos conduzca a todos hacia la felicidad. Soldados, en nombre de la Democracia, ¡Debemos unirnos todos!

Hannah, ¿puedes oírme? Dónde quiera que estés, ¡mira a lo alto, Hannah!;Las nubes se alejan! ¡El sol está

apareciendo! ¡Vamos saliendo de las tinieblas hacia la luz!, ¡Caminamos hacia un mundo nuevo, un mundo de bondad, en el que los hombres se elevarán por encima del odio, de la ambición, de la brutalidad! ¡Mira a lo alto, Hannah! Al alma del hombre le han sido dadas alas, y al fin está empezando a volar. Está volando hacia el arco iris, hacia la luz de la esperanza, hacia el futuro, un glorioso futuro que te pertenece a tí, a mí, a todos. ¡Mira a lo alto Hannah, mira a lo alto!.

Chaplin Hitler-etaz mozorrotutik mundu bolarekin jolasean dabil baina globo horrek eztanda egiten du, esanahiez beteriko eszena hori hurrengo estekan ikus daiteke:

<http://www.youtube.com/watch?v=c4qBNvN9tGE&feature=related>

Bibliografia

- AIERBE, Mikel (2005): *Belarraren ahoa edo irudimenaren mintzoa: Luma berrien eleak.*
- ASURMENDI, Mikel (2005): *Zauritu ezezik ebakitzen zaituen istorioa*: Irunero.
- (2006): <http://kritikak.armiarma.com/?p=1688>
- CANO, Harkaitz (2004): *Belarraren ahoa*.Alberdania.
- ESTANKONA, Igor (2005): *Aho zorrotza*: Deia.
- EUSKALTZAINDIA (2008): *Euskal Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia: Bilbo.
- JAIO, Karmele (2005). *Delizia bat*: Beterriko Liburua.
- JUARISTI, Felipe (1997): <http://kritikak.armiarma.com/?p=2316>
- (2005): *Ironiaz*: El Diario Vasco.
- KORTAZAR, Jon (2005): *Historiaren ironia*: El País.
- MORA, Vicente Luis (2007): *La luz nueva*. Cordoba.
- UNANUE, Ana (2005): *Belarraren ahoa: Aizu!*
- ZALDUA, Iban (2005): *Geografia aldakorreko liburua*:
Volgako Batelariak.
http://jinuj.net/articulos_ver.php?id=792
<http://euskaljakintza.blogspot.com/2006/page/26/>
<http://www.biografiasyvidas.com/monografia/hitler/>
<http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
http://es.wikipedia.org/wiki/Chrales_Chaplin
<http://www.youtube.com/watch?v=c4qBNvN9tGE&feature=related>

<http://www.youtube.com/watch?v=c4qBNvN9tGE&feature=related>
<http://www.uchronia.net>
http://classicfilm.about.com/od/omedies/fr/Great_Dictator.htm
<http://www.ciencia-ficcion.com/glosario/u/ucronia.htm>
http://es.wikiquote.org/wiki/Charles_Chaplin
<http://bbk.armiarma.com/linterna/benicano.htm>
http://www.apoloybaco.com/GlosariodeJazz_a.htm
http://en.wikipedia.org/wiki/52nd_Street_%28Manhattan%29
http://en.wikipedia.org/wiki/Drancy_deportation_camp
http://www.berria.info/pareak_bai/azala.php?id=15
http://kontaizu.net/index.php?option=com_content&view=article&id=2062&catid=35:berba-bi&Itemid=55
http://www.habe.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informacion/dih4/es_2091/adjuntos/urruzuno.pdf
http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/Generacion/matices/elpepiesppvs/20100510elpvas_5/Tes

Oharrak

- ¹ http://www.berria.info/pareak_bai/azala.php?id=15
- ² http://kontaizu.net/index.php?option=com_content&view=article&id=2062&catid=35:berba-bi&Itemid=55
- ³ http://www.habe.euskadi.net/r33-2288/es/contenidos/informacion/dih4/es_2091/adjuntos/urruzuno.pdf
- ⁴ <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00025.htm>
- ⁵ Felipe, Juaristi. (1997). <http://kritikak.armiarma.com/?p=2316>
- ⁶ Mikel, Asurmendi. (2006). <http://kritikak.armiarma.com/?p=1688>
- ⁷ <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ⁸ Ibidem.
- ⁹ Ibid.
- ¹⁰ <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ¹¹ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania.
- ¹² http://es.wikiquote.org/wiki/Charles_Chaplin
- ¹³ Jakintza ikastolako DBH2ko ikasleek Canori egindako elkarriketa-tik: <http://euskaljakintza.blogsome.com/2006/page/26/>
- ¹⁴ <http://www.biografiasyvidas.com/monografia/hitler/>
- ¹⁵ http://es.wikipedia.org/wiki/Charles_Chaplin
- ¹⁶ <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ¹⁷ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania.
- ¹⁸ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania.
- ¹⁹ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania.
- ²⁰ Jon Benitori & Xabier Gantzaraini emandako elkarriketa: <http://bbk.armiarma.com/linterna/benicano.htm>
- ²¹ <http://bbk.armiarma.com/linterna/benicano.htm>
- ²² http://www.apoloybaco.com/GlosariodeJazz_a.htm

- ²³ http://en.wikipedia.org/wiki/52nd_Street_%28Manhattan%29
- ²⁴ http://en.wikipedia.org/wiki/Drancy_deportation_camp
- ²⁵ Ordiziako Jakintza ikastolako DBH2ko ikasle batek egindako elkarrizketatik: <http://euskaljakintza.blogspot.com/2006/page/26/>
- ²⁶ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania
- ²⁷ Euskaltzaindia(2008). *Euskal Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia: Bilbo.
- ²⁸ Julen Gabiriak egindako elkarrizketatik; <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ²⁹ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania.
- ³⁰ Ikusi eranskinetan olerkia.
- ³¹ Julen Gabiriak egindako elkarrizketatik; <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ³² Idem.
- ³³ Julen Gabiriak egindako elkarrizketatik; <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ³⁴ Julen Gabiriak egindako elkarrizketatik; <http://eibar.org/blogak/gabiria/archive/2005/02/21/67/?searchterm=belarraren%20ahoa>
- ³⁵ Kortazar, Jon. (2005) *Historiaren ironia: El País*.
- ³⁶ Asurmendi, Mikel. (2005) *Zauritu ezezik ebakitzen zaituen istorioa: Irunero*.
- ³⁷ Juaristi, Felipe (2005). *Ironiaz: El Diario Vasco*.
- ³⁸ Unanue, Ana (2005). *Belarraren ahoa: Aizu!*
- ³⁹ Estankona, Igor. (2005) *Aho zorrotza: Deia*.
- ⁴⁰ Jaio, Karmele. (2005) *Delizia bat: Beterriko Liburua*.
- ⁴¹ Aierbe, Mikel. (2005). *Belarraren ahoa edo irudimenaren mintzoa: Luma berrien eleak*.
- ⁴² Zaldúa, Iban (2005). *Geografia aldakorreko liburua: Volgako Bate-lariak*.
- ⁴³ Asurmendi, Mikel. (2005) *Zauritu ezezik ebakitzen zaituen istorioa: Irunero*.
- ⁴⁴ Jaio, Karmele. (2005) *Delizia bat: Beterriko Liburua*.
- ⁴⁵ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania: Irun
- ⁴⁶ Hurrengo orrialdean 2000 ukronia inguru sailkatzen dira. Orrialdea ingelesez dago: <http://www.uchronia.net/>

- ⁴⁷ Ordiziako Jakintza ikastolako DBH2ko ikasle batek egindako elkar-
rizketatik: <http://euskaljakintza.blogspot.com/2006/page/26/>
- ⁴⁸ <http://www.ciencia-ficcion.com/glosario/u/ucronia.htm>
- ⁴⁹ Mora, Vicente Luis. (2007). *La luz nueva*. Cordoba.
- ⁵⁰ http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/Generacion/matices/elpiesppvs/20100510elpvas_5/Tes
- ⁵¹ Cano, H. (2004). *Belarraren ahoa*. Alberdania: Irun
- ⁵² Olerkia esteka honetatik lortu dugu: http://jinuj.net/articulos_ver.php?id=792
- ⁵³ http://classicfilm.about.com/od/comedies/fr/Great_Dictator.htm

Kritika literarioa

bilduma

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixe: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Testu hautatuak euskal estetikaz*, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): *Belaunaldi literarioak auzitan*, 2005
8. Iban Zaldua: *Animalia disekatuak*, 2005
9. Jon Kortazar: *Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz erromesa*, 2005
10. Paulo Iztueta Armendariz: *Euskal idazleen belaunaldiez*, 2005
11. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 1. Elkarrizketa literarioak 2000-2006*, 2007
12. Mikel Asurmendi: *Komatxo artean 2. Mahai-inguruak 2002-2006*, 2007
13. Jon Kortazar: *Postmodernitatea euskal kontagintzan*, 2007
14. Xabier Etxaniz Erle: *Literatura eta ideologia*, 2007
15. Miren Billelabeitia: *Lauaxeta. Oihartzunak*, 2008
16. Ibon Egaña (koord.): *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz*, 2010

17. Ibai Atutxa: *Tatxatuaren azpiko nazioaz: Euskal nortasunaren errepresentazioei buruzko azterketa Itxaro Bordaren poesian eta hertzainaken punk musikan*, 2010
18. Jon Kortazar: *Bitartean New York. Kirmen Uriberen literaturgintza*, 2011.
19. Jon Casenave: *Euskal literaturaren historiaren historia*, 2012.
20. Ibai Atutxa: *Kanonaren gaineko nazioaz: euskal nortasunaren errepresentazioei buruzko azterketa Ziutateaz eta Bilbao-New York-Bilbaon*, 2012.
21. Jon Kortazar (arg.): *Euskal prosa aztertuz*, 2012.